

BITORIANO GANDIAGA

Hitz lauz idazten

BITORIANO GANDIAGA

Hitz lauz idazten

Sarrera eta edizinoa: Iñaki Sarriugarte Irigoien

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2006

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

Arantzazu EFren oneretxiaz egina da.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S. L. L.

Lege Gordailua: BI-3185-06
ISBN: 84-89816-03-4

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

Berbaurrea. Iñaki Sarriugarte	9
1. Atarikoa	9
2. Liburuko atalak	10
3. Ardatz nagusietako batzuk	13
3.1. Euskaldunez	13
3.2. Orbelaunez	21
3.3. Gandiagatasunaz	26
3.4. Poetikaz: “hitzaren arazoa”	31
3.5. Idazle eredugarriez eta pertsona maitatuez	39
4. Idazkera: “Estiloaren arazoa iruditzen zait dena”	41
4.1. Pentsamenduaren erritmoan	41
4.2. Poesiaren erritmoko prosa	44
4.3. Berbakaz olgetan	47
4.4. Ironia	48
4.5. Prosa poetikoa	50
5. Gure edizinoa	52
6. Bibliografia	55
ALAXE SORTA	63
eta arboletan elurra	65
eta euri-zarata	69
eta bakartia	73
eta ilargiaren jabe	77
eta elorriak loretan	81
eta elorriaren eta garoaren eskolan	87
eta Loiola eta Loiolan	91
eta Gabonak, Gabon	97

eta elorri-landarak	103
eta baserri-bideetat	109
LITERATURAREN INGURUAN	115
Gero	117
Irakurtzen ari naizen azken poesiaz	119
Ala-deltan olgetan	131
Nere obraz	139
Uda	159
Ni neu euskal idazleetako bat	165
Ariketa	175
HITZAURREAK	187
Autoreaz eta liburuaz	189
Bi hitz-puntta	195
Hitzaurre gisa	197
ETA BESTE	201
Euskal begitazioak zuretan	203
Erantzuna	205
Udako Euskal Unibertsitatea	207
Aeroplano gaiztoak	209
Aita Lasa	213
Aitta Lasari omenaldiak Urbian	217
Pelay Orozko Arantzazun	221
POESIA ARTEKO PROSA	225
<i>Uda batez Madrilen</i>	227
<i>Denbora galdu alde</i>	265
<i>Gabon dut anuntzio</i>	309
<i>Adio</i>	313
<i>Biziminez</i>	329
<i>Euskalminetz</i>	335
<i>Izadiminez</i>	339
<i>Jainkominez</i>	345

BERBAURREA

1. Atarikoa

Bitoriano Gandiagaren (1928-2001) obrara hurreratzen bagara –esan bakoa da–, olerkigintza dogu idazle bizkaitarraren produktino literarioaren zutabe nagusia. Poeta dogu Gandiaga eta ez edozelangoa, aditu askoren ustez gerra osteko poetarik gorenetarikoa dogu-eta Orbelaungo semea. Izan be, ezaguna dogu Juan Mari Lekuonaren harako esaldi ha: “Euskal poetak izan daitezke onak, oso onak, edo Gandiaga”.

Elorri (1962) liburuagaz ekin eutsan B. Gandiagak bere obra oparoari eta haren ostean *Hiru gizon bakarka* (1974) eta *Uda batez Madrilen* (1977) liburuek lau haizeetara zabaldu eben poetaren izena. Batez be, bigarren liburuari zor deutso Gandiagak publiko zabalarenganaino heldu izana, 70eko hamarkadan euskal kantariak, euren kantuak moldatzean, erruz erabili zituen-eta *Hiru gizon bakarka*-ko poemak. Izan be, orduko kantariak Gandiagaren olerkietan egoki be egoki islatuta ikusi zituen diktaduraren amaieran euskal gizarteak bizi zituan ametsak, joranak, penak eta lorrak.

Geroago, *Denbora galdu alde* (1985) eta *Gabon dut anuntzio* (1986) opetsi eutsazan Gandiagak euskal irakurleagoari. Lehenengoan, arimatik harako biluzte gordina egian poetak krisi pertsonal sakon bat pasatu eta gero; bigarrenean, ostera, gurasoen munduko Gabon girora bueltatzen zan poeta, sosegua berreskuratu guran-edo. Eta *Ahotsik behartu gabe* (1997) liburuagaz itxiztat laga eban Gandiagak, bizi zala, argitara emon eban liburu-sorta.

Zorionez, baina, liburu honeek euren segida izan dabe. Izan be, 2004. urtean Elkar argitaletxeak idazleak atonduta itxi eban *Adio* poemarioa emon eban argitara, eta urtebete geroago, 2005eko udagoiengan, Elkar-Labayru-AEF argitaletxeek Mendatako idazlearen olerki argitarabakoak emon zituen argitara, lau liburu ederretan emon be: *Biziminez*, *Euskalminenez*, *Izadiminez* eta *Jainkominez*. Hamaika poema-liburu doguz, beraz, B. Gandiagaren obra poetiko mardula osatzen dabenak.

Oraingo honetan, baina, gure asmoa ez da Gandiagaren obra poetikoaz jardutea, poetak hitz lauz, prosaz, idatzi eta argitaraturiko lanen bildumatxu bat egin, eta euskal irakurleari eskaintzea baino. Izan be, uste baino ugariagoak dira Orbelaungo semeak han-hor-hemen argitara emoniko prosa-lanak. Aukeraketari lotzen bagaiakoz, aldizkarietan-eta publikatutako lanak ez eze, olerki liburuetan poesien artean barreiaturiko prosa atalak be emoten doguz barriri argitara. Edozelan be, folklore-gaien ganean, erromantzeez-eta eginiko artikulua¹ –gehienak, Arantzazu aldean eginiko batze-lanak– bildumatik kanpo geratu dira euren izakera bereziagaitik.

2. Liburuko atalak

Prosazko lorategitxu honetan bost atal bereiztu doguz, idazlanak sortaka antolaturik. Lehenengoan, “Alaxe sorta” izenekoan, Gandiagak 1966-67 urteetan *Arantzazu* aldizkarian argitaraturiko hamar artikulua, zein baino zein samurragoak, ikusiko ditu ira-

¹ Ikusi *Euskera* aldizkarian: “Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz”, *Euskera*, 1956-1, 206-231. orr.; “Lau erromantze”, *Euskera*, 1974, XIX, 156-163. orr.; eta “Hiru erromantze eta gorazarre bat”, *Euskera*, 1975, XX, 301-315. orr. *Arantzazu* aldizkarian: “Joxe Mondraue-na”, *Arantzazu*, 471, 1969, 10-11. orr.; eta “Leona Guridi Elorza”, *Arantzazu*, 488, 1971, 11-12. orr. Ikusi, era berean, “Paskual (Haurrentzako bertsioan)” in *IKER* 2 (P. Lafitte-ri omenaldia), Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 773-774. orr.

kurleak. Izan be, sorta honegaitik beragaitik bakarrik izan balitz be, merezi izango eukean Gandiagaren prosa argitaratzea. Lanok *Elorri* argitaratu ostetxuan kaleratu zituan Gandiagak eta eurotan gauza xumez, apalez..., egiten deusku berba: elorriez, euriaz, edurraz, Gabonez...; baina baita euskalduntasunaz, bakardadeaz, pobretasunaz eta abarrez be. Iradokizunez eta samurtasunez beteriko artikulua doguz, zinez, “Alaxe” sortan irakurleak aurkituko dituanak.

Bigarren sortan, “Literaturaren inguruan” atalean, literaturtasunaz dihardu, gehien baten, idazleak. Zazpi artikulua dira, 1964-1997 epean argitaratuak, eta lehenengo biak kendurik, Euskal Idazleen Elkartearen boletina dan *Hegats* aldizkarian argia ikusitakoak. “Ni neu euskal idazleetako bat” izenekoari bagagokioz, artikulua barik, berbaldi baterako gidoi luze modura atondutako idazkia dala esan behar da, idazleak jente aurrean berba egiteko beren-beregi prestatua. *Hegats* aldizkariak “memorio egitura” hori errespetatu egin eban lana argitaratzean, eta guk be bere horretan argitaratzeari egoki eritzi izan deusagu; izan be, bere baitan daukazan datu eta informazio aberatsagaitik mesede handiko gertatu ahal jako irakurle euskaldunari.

Hirugarren atala hiru hitzaurrek osotzen dabe, 1971-1980 epealdikoak hirurak. Kasuon, Arantzazugaz, aldez edo moldez, loturik egozan hiru laguni opetsi eutsezan Gandiagak euren liburuen atarikoak: Joxe Azurmendi, Antonio Bilbao eta Jon Enbeitari, hurrenez hurren.

“Eta beste” izeneko atalean, gai diferenteetako zazpi idazlan topatuko ditu irakurleak saski-naski modura antolaturik. 1973-1998 epealdiari jagokoz eta bat izan ezik *Arantzazu* aldizkarian argitaratuak. Izan be, “Aeroplanu gaiztoak” izeneko kolaborazioa Gernikako bonbaketaren berrogeta hamargarren urteurrenerako antolatu zan *Triskantzatik esperantzara* libururako atondu eban Gandiagak, prosa lanari atariko zenbait olerkigaz egiten eutsala.

“Poesia arteko prosa” sorta poema liburuetako txatalez osoturikoa da, Gandiagak bere obra poetikoetan, olerki artean, nahi-

kotxu idatzi ebalako hitz lauz. Jokera hau *Uda batez Madrilen* liburuan hasten da, aurrekoetan (*Elorri*, *Hiru gizon bakarka*) olerkien pisua erabatekoa da-eta. Liburuon, *Uda batez Madrilen* poemarioko hamabi txatal idoroko ditu irakurleak, nagusiki ardatz biren inguruan antolatuta dagerkiguzanak: bateko, idazte arazoaz, idatz estiloaz, jarduten dau poetak; eta, besteko, Madrillgo jenteez, hango txaboladietako gizakiez eta uritzarrak erakutsi eutsazan alderdi txundigarriez.

Denbora galdu alde liburuan areagotu egiten da prosaren agerpena, nahiz eta txatalak, orokorreen, laburragoak diran. Kasuon, hogeta sei ataltxutan dastatu ahal izango dau irakurleak poetaren prosa, zenbait zati, arrazoi diferenteak dirala medio, bazter itxi ditugu-eta. Oraingoan, bere buruaz dihardu, batez be, poetak: bere izakeraren funtsa argitu gura leuke; pairatzen dauan krisi pertsonalaren iturriak argitu; gandiagatasuna –bitorianotasuna esan beharko geunke, beharbada– zertan mamitzen dan zehaztu... Hori guztia, barruko nasaitasunaren bila, “denbora galduz”, idatzi eta idatzi jabilkun bitartean. Hurrengo liburuko (*Gabon dut anuntzio*) txatal bietan umezarora itzuliko da poeta, Orbelaun baserriko giro ia-ia mitikora. Hor, izenburuak iradokitzen dauan lez, ohitura eta erlijio ospakizunak aletuko ditu poetak, Gabon giro maitagarri eta amultsuan kokaturik, beti be.

Bere hurrengo poemarioan (*Ahotsik behartu gabe*), Gandiagak olerki bilduma berezi bat antolatu eban Erein argitaletxearen eskariz, baina liburuon prosazko zatiak atal desbardenen azalpen gisa-edo darabilz poetak eta autonomia faltagaitik ez eze, luzeera eta estiloagaitik be, ez jakuz egokiak begitandu antologia honetan sartzeko. *Adio* bere obra postumoan, ordea, barrero dagerkiguz prosa atalak –bost dira, nagusiki– eta bertan bere ohiko gaietara itzultzen da poeta, Orbelaunez, euskaldunez, poetikaz-eta diharduala. Haren azken liburu laukotxari heltzen badeutsagu (*Poema argitaragabeak*), hamar ataletan zehar, liburuan liburuko izenburu ezbardinek emoten deuskue aditzera gai nagusiak zeintzuk diran: bizimina, euskalmina, izadimina eta Jainkomina.

3. Ardatz nagusietako batzuk

3.1. Euskaldunetz

Esanda dauka Gandiagak euskal herritarren artean badagoa-la gitxiengo bat, oraintsura arte ia elebakar izan dana, eta bere euskalduntasuna era eroso eta naturaltasunez bizi ahal izateko itzelezko arazoak izan dituana². Jente behartsu hau bere familiagaz, bere guraso Jose eta Anastasiagaz identifikatu ohi dau Gandiagak eta, sinbolikoki, bide bazterreko elorri xumeagaz. “elorriaren eta garoaren eskolan” saiotxuan, unibertsaltasunaren kontzeptuaren inguruan hausnarketan diharduala, Gandiagak bete-betean hel-tzen deutso identifikazio horri. Izan be, bere xumean, unibertsaltasun falta ei dau elorriak eta gabezia bera leukake euskaldun apa-lak. Eta 60ko hamarkada zurrumbilotsuan beste zeozer gura ei eban jentek: “Gaur, berriz, universalista degu jendea”.

Konpleju zahar-atabiko eta, era berean, injustu bati egiten deutso erreferentzia poetak, sarri askotan euskaldunarentzat bere kultura propioa, bere-berea dauan ondare hori, landu ahal izateko oztopo eta zama haundiegia izan dana:

“Euskaldunok konpleju hori badegu, behintzat. Gere txokoan bizi geralako, gereari eusten ari geralako, gere aduari zintzo gakizkiolako, norbere lurtean saiatzen geralako besterik gabe, egozten diguten unibertsaltasun- ezak, norberena utzi, galdu, hondatu, ahaztu ta desegite- ra eramateko arriskuan bizi gera. Baina zergatik konple- jupe hortan sartu ta gelditu ta kokildu ta etsi? Konplejua eukitzekoa ote da hori?”.

² “Baina Baskongadetan banekien bazela taldetxo bat, euskaraz egiten zue- na. Jende ezjakina, talde pobrea. Aukeran, ba, laborariak, arrantzaleak, fabrika- ra ogitartekoa hartu eta Plantzian eta hor zehar zihoana goizero. Jende hori, kul- tura handiago gabeko jendea beti ere, ezjakin-komplexuz bete.” (*Hiru gizon bakarka*, 2. ed., 202. or.).

Gero, itaun funtsezko bat dagigu poetak, esanaz ea gu gurean aritzean ez garan unibertsal, zoli itaundu be. Izan be, elorriak bere elorritasunak behar dauan era berean, euskaldunak bere euskaltasunari estu be estu heldu beharko leuskio, unibertsaltasun orokorrari ezer eskainiko badeutso, “gauzak ez bai daude alperrik bakoitza bere tokian”, ez elorria, ezta euskalduna be.

Batak hatxarte malkartsu eta lur urrikoetan irauin behar izan badau be, besteak baserri agorrean edota kale gorri lorrez betean egin behar izan dau aurrera. Bitzuak maite ditu poetak eta biakaz identifikatzen da:

“Elorriak, ia, gure jente arrunt eta fededunak bezelako anima eder bat ere baduala esango nuke: ezbeharraren menpean hezitako anima bat, nahigabea eramaten ohitutako anima bat, gu gehienok bezela, lurrean iristen ez duan eta aidean arkitu uste duan zerbait hari begira jarrita bizi zaion anima bat”.

Arantzazuko paraje gogor-liluragarrietan giza-elorri loretu horren usaina sarri asmatuko dau Gandiagak: Maria gaztearengan, libiba jotzen ari danean; Damasorengan, luperiak botatuko horma jasotzen dabilela; Maria amandrearengan, astokada arbi loretuz etxerantz doanean; bere ohe zurian datzan Braulio gaixoarengan... Gitxi daukie eta dan-dana emoteko prest dagoz. Baina fedearen ikutua be ikusiko dau giza-elorriengan poeta frantziskotarrak:

“Elorri loratuei ez diet adartxo bat kendu, baina lorez itzuli naiz, edo lorez itzuli naizelakoa abiatzen det: hainbeste arantzez jositako bizitzan kristau hauei norbereganaino, norbera argitzeraino, norberagan lore bihurtzeraino darien fede-bitxirik ederrenez hanpatuta”.

Arantzazuko bere behatoki pribilegiatutik, bertara hurreratzan dan jentearan nondik-norakoak aztertzeo aukera parebakoa

izan eban B. Gandiagak, jente euskaldunaren arimaren deskripzioa eta interpretazioa egin ahal izateko bestean. Izan be, poeta-
ren ustez, jente euskalduna –euskeraduna– izan da, gehienbat,
Arantzazura hurreratu izan dana eta Arantzazuri eragin gehien
egin izan deutsona. Jente horren joran, amets, min eta kezken tes-
tigu izan zan urteetan poesia idazten eban poeta frantziskotarra.
Eta Gandiagak beren-beregi aitortuko dau jente euskaldun
horrenganako kidesan espirituala: “Niri behintzat jende hori
zait benetan eragile izan”. Ezagutu be, urrundik eta berehala eza-
gutuko eban poetak ezpaz horretako jentea:

“Kolpean ezagutzen dut usadio zaharreko euskaldun
taldea. Erdaldun jendea, edota erdaraz ari dena, altu-
altuka mintzaten da, solteago mugitzen da, abarrots
handiagoz da nabarmentzen. Ez du beldurrik, seguru
sentitzen da, inguruaren jabe da. Beldurra holako kokil-
durak lotzen du euskalduna, oso seguru sentituko ez
balitz bezala ageri da, paraje arrotzean aurkituko balitz
bezala. Gizaldietako menpetasuna, agian mendeetakoa,
nabari zaio, setiatutako ehiza ikaratu adina ez bada ere,
abere bildu eta uzkurra dirudi gizajoak. Euskaldun hu-
tsa izateak halako bajutasun lotsagarria balu bezala.
Jende horren umiltasunak irabazi nau ni, jende hau zait
nagusitu sentipenaren sustraietaraino”.

Jente horrenganako, Herri horrekiko zordun sentitzen da poe-
ta, ontasunean, hatan be. Gure herria ona dalako, negargarri
esker oneko, gizagaixo izateraino ona –inoskun poetak–; eta bere
poemen bitartez, herriarengandik harturikoa, neurri txiki batez
bazan be, itzuli gura izan eutsan negargarri ona zan/dan jente
horri.

Edozelan be, poetak ez ditu euskaldunon alderdi argal edo
makurrak ostenduta itxiko, ez dau alderdi negatiboen aurrean ez
ikusiarrena egingo. *Hiru gizon bakarka* liburuaren bigarren edizi-

noari erantsitako “Epilogoia”-n zera inotson Bitoriano Gandiagak Joxe Azurmendiri:

“Ze, bestela euskalduna harroa da. Lau juntatzen bagara taldean, eta elkarren buruak besterik ageri ez bazaigu, haizea baino putzago gara, tonto harroak. Berehala hasten gara hartan-hortan, haundikerian, ea inor baden eguzkiaren azpian beste bat. Baina bosgarrenen bat erdalduna arrimatu orduko, hautsi egiten gaitu. Konplexatuta geratzen gara eta, nahi dugu hark bezala hitz egin, haren galtzetan sartu: eta ez haren galtzetan sartzen gara eta ez geure galtzetan gaude honez gero”³.

Bide beretik, euskaldunok geure buruaz izan ohi dogun uste onegiaz dihardu poetak *Uda batez Madrilen* liburuko pasarte baten. Abiapuntua *On Kixote*⁴ liburua dau Gandiagak eta, konkretuago, Kixote eta Bizkaitarraren arteko pasadizoa eta bien arteko burruka desorekatua. Izan be, Bizkaitarra ez joian bape ondo prestatuak Kixote zaldunaren kontrako burrukarako: ezkutarik ez, erredola edo ezkuturik be ez, akurako mando baten ganean, buruko babesgarri duinik ez... Eta, ha ta guzti be, “el primero en descargar el golpe fue el colérico vizcaino”. Alper-alperrik, baina. Azkenean, galdu egiten dogulako euskaldunok, “beti galtzen dugu azkenean”, Gandiagak ohartuazoten deuskunez.

Poetak metaforikoki heldu gura izan eutsan burruka desorekatu horri eta itaunduko deutso bere buruari, ea zergaitik ez garan geure mandora –geure hizkuntzara– igotzen; zergaitik ez

³ *Hiru gizon bakarka*, 2. ed., 202-203. orr.

⁴ “Kixotea parabola luze ta eder bat da niretzat. Hobe beharrez diharduen gizaki zintzo baten alegia, gizon eta gauzen, bizimodu ta gertaeren handitasuna ikusi ta sinestu beharrez bizi den gizon baten ipuin zoragarria” (*Uda batez Madrilen*, 124. or.). Nekez egin dakikeo liburu bati goraiipamen haundiagorik, bihotzetik harakoagorik.

dogun mando hori prestatzen eta zalditegitik ateratzen; zergaitik ez dogun erredola zabal eta buruko sendo bana hartzen eta mando horren ganean bururatu. Hau da, zergaitik ez dogun hizkuntza gaitu, garatu, aberastu eta egoki baten jarduten nonahi eta zernahitan: eskolan, herriko etxean, ospitalean, auzitegian, eleizan, goi mailako zientzian, ikerketan...

Gauza asko egitea edo lehenengo kolpea jotzea ez ohi da-eta nahikoa izaten. “Asko dira egin ditugunak”, dinosku Gandiagak *Biziminez* liburuan, baina kantitateari emon izan ei deusagu euskaldunok lehenetsuna, beste gauza batzuen kaltetan. Izan be, harentzat: “Asko egitearen gaitzak erabili gaitu gehienbat”. Eta dinamika honek makinaren pareko bihurtzen izan dau euskalduna behin baino gehiagotan:

“Eta zenbat ez ote dugu egin, egiteko makina baino gehiago ez bagina legez, hotz-hotzean eta gogor, esku artean genuen eginkizunari makinak baino bihotz gehiagoz begiratu gabe. Gogorrean ohituta egon bat, esaten dugu, gogorrena egitean ere makina huts baino besterik ez bagina legez, pertsona garela kontuan erabili gabe, maitasuna ezkatutzeak gizonago egingo bagintu bezala”.

Euskaldunoz jardun dau poetak, euskal arimaren argazkia egin gura izan baileuan, Arantzazutik eta Madrildik jardun be. Edozelan be, Madrilek beste errealitate batera hurreratzeko aukera eskaini eutsan, behargin jentea eta txaboladietako aldra xume eta dana beharrekoak begien aurre-aurrean ikusikeran. Giza-elorriak galipot eta porlan artean be jaiotzen diralako, Arantzazuko elorriak eta Madrilgo Kontzezino auzategikoak, funtsean, nebarrebak dira-eta.

Izan be, Madrilgo auzo txabolaz beterikoetara hurreratzen danean, badau poetak zertaz hausnartua eta zerk kezkatua. Karlos Elvira eta Xabier Egaña lagunakaz joaku Gandiaga ordurako -1974. urtean gaboz- etxe barriz eta eraikuntza haundiz ingura-

turik egozan txaboladietara. Eta lagunek klaseen arteko gatazkaz, gizaki hareen artean kontzientzia soziala sortu beharraz, eta hola-ko gai ideologikoen ganean diharduen bitartean, poeta txaboladiaren eta bertako jentearen erretratu literarioa egiten ahalegintzen da, beti be hizkuntzak markatzen deutozozan mugak eta ezintasunak azpiratu guran.

Poetaren eta haren lagunen testuak erkatu ezkeru, nabarmen agertzen da Gandiagak Elvira eta Egañaren ahotan jartzen dituan testuak, bereak baino askozaz be ideologikoagoak dirana. Hortik kanpo, azpimarratu behar da poetarentzat berak idatzitako oharrak ez jakozala gogobetekoak begitantzen. Indar gitxiko deritze poetak txaboladietan harturiko nota eta apunte-txuei. Baina idazlea ez da horretan geratuko, ez dau gura lagunek axal eta arin ikusi dagien; eta zenbait puntu azaldu beharrean dakus bere burua, asaskatu guran beti be: “Euren bide berez ez agian, baina bai geure giroan bizitu izan dugun oinaze bidez, balitekeela ni eurak baino urrutiago ez aurkitzea txaboladiko gizajende honen pairakuntza eta egoera negargarria ulertzetik”.

Hortik aurrera, pasartez pasarte iruzkinduko ditu Gandiagak lagun kaletarren komentario ideologiaz beterikoak, beti be berak umetan eta mutil koskorretan gurasoen mundu erruralean ezagututako errealitate gordinaren iragazitik pasatuta. Txabola arteko egoera sozial larri horren aurrean bere erantzukizun pertsonalaz be jardungo dau, jakin dakian arren ez dana inorentzat beti samurra izaten barrurako begiratze hori:

“Neure erantzukizun pertsonalaz gordinki trikitx egiteko beldurra. Halako astindua eman beharko bainioke bizitza guztia zehar janzten etorri naizen zenbait dotrina jadanik nolabait orain babesgarriri. Badut aldean gaitz zaharririk, hasera batetan sendaerrazago zitekeenik, gaur sendatzen jarri baino dagoenetan jasan nahia-go dudanik. Behartsuen errealitatea ikustez eta sentitzez

aurrerako pausoak nau izutzen, eginkizun eta eginbehar gogorregien burruka-zelaitan aurkitu ote nintekeen bel-durrez. Ez ote ninduke eramango, nolabaiteko neure erototasunaren kaltetan, bizitza inoren, inortzuren, alde jokotan jartzeraino? Ez ote lidake eskatuko gauzak konformidatez eta zelabaiteko patxadaz eramatea baino zerbait latzagorik? Tortika zikinaren azpitan sentimendu zoldituak jasatea baino gogorragoa ez ote nuke haragi gorri odoldutuan aritu beharra? Neure erru bakar eta osoz izan ez arren, bat bidegabekeriatan bizi dela, ez ote da ikusi nahi ez izatekoa?”.

Aitorpenaren ondoren, Egaña marrazkilari lagunak egindako gizamusua hartuko dau Gandiagak eta irudi hori txaboladiko gizaki baztertu guztien isla bailitzan, alkartasunez zuzenduko jako menditar euskalduna txaboladiko gizakiari eta anaikor egingo deutso berba, harengan be elorri zarpil baina, era berean, lora-tuaren irudia dakusalako. Eta poeta hitz lauz idaztetik hitz neurtuz idaztera pasatuko da, bere barrua anaia barri horri be zabal-tzeko:

“Neke luze baten airea dario, ezingehiagoren iluna, nahi betiko baten antsia, egon beharraren asperkuntza, su gorde baten beroa eta geldo lodi baten errautsa dena batera eta nabarmen eta gaziduraz eta eramanez eta asaldaduraz eta iraupenez. Zein gogo ematen didan berarekin hitz egiteko eta esateko:

Adiskide!

Baina ez dut horretarako eskubiderik.

O, ahal banizu adiskide deitu, diotsat,
ohore aski nuke, gehiegi.

Ohore hau, ordea, ez merezi.

Baina gizon bai, inor bada

zu deitu zaitzaket gizon.
Ongi zor dizudan deitura honetaz
natzaizu zuzenduko:
Gizon!
Zure oihartzun baino
zure ahots nahi nuke.
Emaidazu zure zerbait
zutaz ari ahal nadin.
Badakit eztarri guztia
beharko dudala berriztatu
bularretik ezpainera
dena,
bizitza horren egia
tonu faltso gabetan
eman ahal dezadan.
Aurreratu idazu zure zerbait
zutaz ari ahal nadin”.

Haor arantzaz beteriko giza-elorriari, galipotaren arrakaletatik gora egin gura dauan landare hauskorriari, txaboladiko giro kirastuan aurrera egin gura leukean gizakiari, idazleak luzatzen deutson eskaera: anaia, laguna, lagundu egistazu zutaz jardun eta zure izatea goraiatu ahal izan dagidan.

Natura behatzen eta haren zuzmurrak eta xuxurlak entzuten ohitua egoan fraile bakartzaleak esana euskun ustezko bakardade haretan lagun hurkoaren eta gizadi osoaren barri haizeak ekartsola: “Jadanik haizeak gizadi osoaren, giza-arraza guzti ta bakoitzaren giza-usai osoa dauka ta dena dago hitzez eta zizpuruz eta arnasaz eta animaz ondua. (...) Zein giro argik edo ilunek, zein goizek edo ilunabarrek ez du gizonetaz hitz egiten? Zein garaik, zein orduk, zein bakardadek...”. Izan be, euskaldunez kezkatuta egoan idazleak gizadi osoa eukan gogoan, batez be arantza arteko elorrien moduko gizadi behartu eta baztertua; txiro baina aberastasunez beterikoa.

3.2. *Orbelaunez*

Hamabi urteko mutil koskorra zala itxi eban B. Gandiagak bere jaiotetxea, baina urte horreetan bertan bizi izandakoak betiko markatu eban Arantzazura fraile izateko abiatu zan baserritar gaztea. Betiko geratu zan gaztearen baitan bera jaio zaneke base-riaren ikutua eta betiko iraun eban haren gogo-bihotzetan Orbe-laungo sutondoko epelak. Hori dala-eta, etengabe joko dau poetak umezarora; eta behin eta barrero bueltatuko da bere testuen bitartez mendiarte bakarti baten egoan basetxe xume, baina duin eta amultsura, Orbelaun maitatura.

Esanguratsua da oso, poeta Madrilen dagoanean eta hainbeste maite dauan *Don Quijote* liburuaren egileari bere burua aurkeztera zuzentzen jakonean, Orbelaun bere jaiotetxea jartzea bere nortasun agiriaren datu garrantzitsuenetakotzat: “Mendatako Orbelaun basetxean jaio nintzen 1928. urtean. Urrikoa naiz. Hego-haizea kolore hori-gorri beroz gure mendiarte berdeak zehar landare txiki eta handi zoragarri iziotuz sartzen denekoa”.

“Zerbantesi” izeneko atalean, luze jardungo dau Gandiagak kixotetasunaz eta espainiar idazlearen liburuari deutson miresmenaz. Izan be, poetak Kixoteren duintasuna eta haren zorotasun zoragarria beragandu gura leuke, kixote euskaldun bihurturik, hego-haize zoroaren laguntzagaz, agintari, ahaldun, zaldun eta garaiteko jauntxoek herri xehearekiko erakutsi izan daben axolagabekeriaren kontra aritzeko eta herri xehearen alde zerbait egin ahal izateko:

“Herri apalaren aldeko ekintzan gure politiko handi eta ekonomista boteretsuek eman izan diguten hutsaren erdian gure herriko gizajende lauak eguneroko ogia irabaztez gainera herritasunari bere izatean eusten egin duen lan izugarri ederraren sutargia ikustera ekarri zuen Jose ta Anastasia Orbelaungoen seme hau eta gure oinezko jende lauaren titan-ekintzan aurrera jotzera zoratu

eta eskolatik hasita herriko bizimodu guztia zehar euskaldunokiko betiko jokabidearen arrazoirik ezaren eta arrazoirik ez horren arrazoiztatzeko arrazoia den inperialismo eta kolonialismo nabarmen eta erraldoiaren kutizia irenslari aurka egitera jarri, hegoaizearen eraso zoro eta arlotez baino ez bada ere”.

Ikusi dogun lez, biziki maite dauan Cervantes idazleagaz berba egikeran, nabarmen dagerkigu Orbeleunekiko lotura; eta gauza bera jazoko da idazleak bere barneko larritasun itogarria arintzeko medikuak “denbora galtzeari” ekin behar deusola dinotsoanean. Une larriotan, poetak behar dauan soseguzko pausalekua Orbelaun mitikoan aurkituko dau, nahiz eta berak sarri aitortzen dauanez, umezaroko une guztiak ez ziran samurrak izan. *Denbora galdu alde* liburuko pasarte esanguratsuenetariko baten, poetak hitz neurtuz hasten dau gogoeta, gero prosara pasatzeko, beti be jaiotetxea gogoan dauala: “Orbelaun Meatan dago, / baina Arratzura joaten ziren / Orbelaungoak: / Mezetara Arratzura, eskolara / Arratzura, dotrinara Arratzura / Orbelaungoa zen Bitoriano eta Arratzura joaten zen...”. Udaldiaz gozatzen dagoanean be, Orbelaungo gurasoak gogoratuko ditu poetak:

“Ama gaixoa! Argi bero eta gogoko honen azpian gorputza gozatzen zaidan honetan, oroitzapenaren ertratuetan hemen zauzkat, soro lanerako prestatzen. Eskuetako azalik ere ez zenuen jarriko zuk zeure borondatez, eguzkiaren errainupean. (...) Aita izerdiberago da zu baino, ama, eta sarri bidaltzen nau iturriko uraren bila”.

Bide beretik, bere krisialdi sakonean, aire osasungarria eta freskoa bailitzan, *maitasun* berba entzutean, gogoia Orbelaun aldera joako, ezinbestean joan be: “*Maitasuna* esan zuen. Eta bere amarekin oroitu zen, aitarekin, etxeokokin, lagunekin”.

San Juan jaiak edota Gabonak heltzean be, mendi artean gal-dutako baserri maiteaz gogoratuko da Gandiaga: “Zulo bat egingo dut. Aldia dut zulatuko aspaldian zehar, harik eta haurtzaroko Gabonen bazterra ikustera heldu arte”. *Izadiminez* liburuko “Amets baten kronika” kontakizunean San Juan bezperako suaz dihardu Gandiagak eta Arantzazu inguruko suek umetako su alai, pozkor eta magikoak dakartsoez poetari, seminarioko gorengo terrazatik Aizkirri, Gomistegi, Zelaizabal, Goikobentako... suak gar bizietatik txingar geldietara zelan pasatzen diran ikusten dauan bitartean: “Orain berak bakarrik ikusten du San Juan suen ikuskaria, bakarrik hitz egiten du eta bakarrik edaten txakolin botila osoa. Orain ez du nori kontaturik umetan eta baserri bakar-tian zelan prestatzen zuten San Juan sua”.

Adio bere liburu postumoan be, argitaratzeko beren-beregi prestatu zituan materialen artean idatzi luzetxu bat itxi eban Gandiagak, Orbelaunez eta bere umezaroaz berba egiten deuskuna⁵. Hona idazlanaren lehenengo berba esanguratsuak: “Ni Orbelau-nen jaio nintzen. Nire lehenengo mundua, betiko markaturik utzi ninduena, mendi-sail handi bat da, laborarien arazo eta bizi-modu eta etxaldez jantzia”. Irakurleak testu gehiagotan izango dau aukera Orbelaunera hurreratzeko eta bertako bizimoduaren barri izateko: “Euskal begitazioak zuretan”, “Ala deltan olgetan”, “Aeroplano gaiztoak”... Bardin “Ariketa” saio bikainean be. Bertako “Iluntzea” ataltxuan Gandiagak bere idazkietan behin baino gehiagotan agertu izan dauan *Elorri* liburuko poematxu bat dagerkigu, Orbelaungo semearen tristura eta malenkonia oso era hunkigarrian adierazoten dauana. Izan be, San Juan eta gabone-tako suen ondoan, argirik bako uneak be baegozan baserri zahar maitagarrian:

⁵ *Adio*, 27-36. orr. Poetak Arantzazun 30 urte eroazala idatzita, hau da, 1970. urtearen bueltan.

“Eguzkiaren sartalderatzea, zeru-lurren urrutieneko ertzeratzea, une hunkigarria izan da niretzat ume-umetatik. (...) Iluntzeak neure barruan sartzera deitzen nau. Iluntzeak etxean sarrarazten gintuen inguraldean argi indarririk ez zuen Orbelaunen; ingurua, mendi eta troka, basoak barne, gauak estaltzen zuen ordurako eskaratzera bultzatzen gintuen ilunabarrak, amak sutondoan bizten zuen karbueroaren klaru unera. Halaxe etortzen zait neure barruenera nire espiritua iluna begietara orduko, alferrik elektrizitate argi guztiak. Orbelaungo iluntze giro hau *Elorri*-ko 129. poematxoan isladatu nuen:

*Arima,
bakarrik,
soinaren barnean.*

Ilunabarra da.

*Ta ez dago argirik
nire bihotzean”.*

Elorri liburuari barriro helduta, “Ala deltan olgetan” izeneko saioan, bere umezarora begira jarri eta, txikitako eskolara joaku poeta, bere lehenengo liburuko olerkitxu baten oihartzunak eranda, joan be: “Ota-txoria: / trik, trak, trak... / Ota-txoria: / masus-trak”⁶. Eskolan pelotan dihardue umetxuek eta pelotatxua –“harizko miseria borobil hura”, dinosku Gandiagak– Sabina izeneko neskatotxuarenganaino heldu. Honek bueltatu gura ez Bitorianori eta liskartxu bat sortu zan bi umeen artean. Horren ondorioz maistrak zigortu egin eban Bitoriano gaztetxua, nesken komunean egotera zigortu be. Honaino pasadizoa. Baina, nor

⁶ *Elorri*, 2. ed., 232. or.

dogu Sabina hori? *Denbora galdu alde* liburuan Gandiagak zenbait argibide damoskuz:

“Hamar urterekin Sabina gustatzen zitzaion. Sabina, argizko dardaraz bizkortasuna zerion Loiolako nexka bat zen. Arratzuko Loiolakoa, noski. Zein ote du abizena? Gure anaia Josek edo ondo jakingo du hori denori. Urte luzeen ondoren, Meza Berrikoan ikusi nuen mahaia zerbitzen, bizkortasun ederra zerion Sabina hori. Hamar urterekin arrapaladarik jo zuen Sabinaren ondoren”.

Aitorpen xaloa egin deuskun hori poeta ez eze, frailea be bada. Eta kontuan hartzen badogu gorago aitatu dogun olerkia, osorik harturik, maitasun olerkia dala, Sabinarenganakoa frantziskotarraren ariman gelditutako “oroï zahar” amultsutzat –hutsune mikatza?– hartu geinkealakoan gagoz: “Ota-txoriak, / sasi gainean, / maitasun zartadak”. Izan be, *Elorri*-ko beste olerki baten zera inoskun poeta gazteak:

“Gogoak gauza bat esan,
berrak beste gauza bat.
Soin eta arima-naïen artean
naïko burruka ba-daukat.
Baiñan ez nabil urduri
siñismenari eskerrak”⁷.

Itxaropen eta gomutak, zorion eta nahigabeak, ekaitz eta bakeak..., dan-danak fedearen eskuetan itxi zituala inoskun poetak eta, duda barik, horrek laguntza eskerga eskainiko eutsan, nahiz eta bizitzan izango zituan zenbait hutsune ez(in) ahaztu. Sabina dagoke hurrengo poematuaren erdian?:

⁷ *Elorri*, 2. ed., 102. or.

“Nik ezingo dot igurtzi
ule gorridun bururik.
Nire begiok ezingo dabe
laztandu beste begirik.

Ezingo dot besarkatu
besarkatu al nebanik.
Esku bigunak ezingo deuste
egin ikutu bigunik.

Abizenaz ezingo dot
odol au itzi bizirik.
Ez dot jakingo iñoiz be emazte-
semetxuak zer diranik.

Baiña zeugan izango dot
maitale ta lagun onik.
Jauna, zeugaitik bizi nazala
bakar, bakarrez bakarrik”³.

3.3. *Gandiagatasunaz*

Euskaldunez, gizakiez, bere hausnarketak egin ditu poetak. Euskal izakera eta euskaldunen portaerari buruz bere eritzia argi eta garbi azaldu deusku, testuok, ezinbestean, daukiezan mugen barruan, beti be. Bere familiaz eta jaiotetxeaz be, material polit eta jakingarriak opetsi deutsoz irakurleari. Orain, orokortasunetik konkretutasunera jorik, poetak bere burua zelan ikusten dauan ikusiko dogu, zelango autoerretrotua margotzen deuskun.

Gauza xumeak ei eukazan Gandiagak gogokoan. “Gauza txiketian kargutzen omen naiz” dinosku poetak “Alaxe” sortako

³ *Elorri*, 2. ed., 103. or.

lehenengo lanean; gero, bestek egotzitako jokera hori askok uste baino sakonagoa eta zabalagoa dala erakutsiaz⁹. Mendebalde Kultur Alkartek Bilbon, 1998ko maiatzean, egin eutsan omenaldi xume baizen beroan, geuk be “Txikitasunaren maitalea”¹⁰ deitu genduan Arantzazuko poeta, txikitasunarenganako miresmenak haundi be haundi egin eban idazlea.

Hartu daigun Arantzazu bere handitasunean; hartu daiguzan hango parajeak euren mugagabetasunean. Badau begiraleak non eta zer aukeratua, eta zegaz identifikatua. Zuhaitzetan be, auke-rea zabala eta erakargarria da ederzalearentzat. Bada, poeta frantziskotarrak elorri apalean ikusiko dau bere burua islatuta, arantza eta lor artean; baina, era berean, naturaren edergarri eta pozgarri:

“Eta euritan eta zeru larriaren aurrean geratu naiz
–malkorreko elorriren bati ala neure buruari begira ez
dakidala–, gaur, elorri loretu bati begira.

Askotan gertatzen zait zein elorriri begira ote nagan ez jakite hau. Ispiluan ageri dan neure musuari inorena balitz begiratzan diotan bezela, sastrakako elorria neu banintz ikusten det askotan”.

Bakarzale eta bakardadearen maitalea be bagenduan Mendatako poeta. Izan be, harentzat, berak dinoskunez, zarata batzuk

⁹ J. M. Lekuonak *Elorri* liburuaren bigarren edizinoko hitzaurrean altxor poetikotzat jotzen dau Gandiagaren lehenengo poemarioa. Gauza txikiz lortutako altxorra, hain zuzen be: “Maitagarriak bezain txikiak dira gure munduko lagun minak: ilargi, ur, ardi, pago, erle, lora, txori, sasi, izar, harri, bedar... eta nik dakita! Eta adierazi zigun: bizitza apala da, gogorra da, minbera da. Baina maitagarria ere bada. Gizonak proportzio txikia duelarik arkaitz altuen eta zeru urdinaren arteko kosmobisioan, badu, bestalde, aldian-aldiko udaberrian eta izarretan, bizitza hau orpotik irauliko denaren itxaropena” (*Elorri*, 2. ed., 24. or.).

¹⁰ Sarriugarte, Iñaki: “Txikitasunaren maitalea” in *Euskalkien lekua literatura*, MKA, Bilbo, 1999, 189-199. orr.

eurakandik apur bat al denduta, hobeto entzuten ei dira; kasurako, gizadiarenak. Bakar-zaletasuna bokazinoa dala dino Gandiagak. Eta ezin dau ulertu bakartienganako jentearen errukia, edota bakartia berekoi amorratua eta alper galanta dala dinoenen eritzia. Poetak, bere aldetik, bakar-zaletasunari buruz justu kontrako eritzia dauka, eta bakartitzat jo izan diran batzuk (Buda, Tebaidakoak, eremuetara ihes eginak-eta) pertsona jendakin askok baino mesede haundiagoa egin deitsoela gizadiari, esango deusku. Bere buruari jagokonez, zera gehitzen dau:

“Nik, neonek ohartu detanez, hauxe baieztu nezake: bakardadeak nere barru-bizitza sakonkiago ikusten eta barruagotik ezagutzen erakutsi didala; hau da: gizona ezagutuagotzen eta harenganagotzen eta harengan eta harekin arkituagotzen lagundu didala”.

Pobretasunaz be badihardu poetak orriotan. Frantsizkotarra dan aldetik, pobretasuna maite dau eta San Frantziskok esan legez, berak be limosnako ogia, mahaiaren ordezeko harria eta iturri argia ondasun parebakotzat hartuko ditu. Bide horri jarraituaz, frailearen gela apalaren aurrean “zertarako gehiago” esango deusku xalo-xalo. Loiolara gogo-jardunak egiten doanean be, poz-pozik sentituko da bertan suertatu jakon gela xumean: “Mahai bat, oge bat, jarleku, garbitegi eta jantzitoki bat. Traba gutxi ta huts-arte garbi nasai asko. Prantziskotarren gela bat ematen du hontan”. Izpiritu frantziskotar berberak argituta eta bultzatuta, egizko aberastasunaren definizinoa be emongo deusku, diruzalekeriatik-eta urrun be urrun dagoana: “Egizko aberastasuna, gauzen gaineko aginpidean dago; gauzak eskumendean eukitzean; gauzen gainetik norbera egotean; gauzen morrontzatik aske bizitzean. Gizonaren aberastasunik haundiena aske, libre izatean dago”.

Edozelan be, poetak badaki, ondo jakin be, kaleko mundua eta frantziskotarrena oso gauza desbardinak dirana. Eta ondo

daki, era berean, kontsumokeriara lerratu dan gizarte honetan, pobretasuna ez dana bardin bizitzen komentuan eta pobreen etxe-etan. Hori dala-eta, batez be, behartsuen umeakaz gogoratzen da poeta; eta, Erregeenetan eta holako ospakizun handietan hain barik edota gauza txikixuren bategaz konformatu behar izaten daben horreekana doa poetaren gogoeta: “Pobreen umeak, igandean, herriko jaietan, Erregeenetan, egunik pozgarrienetan, hain ezagun, hain motx, hain gorri ta elorri, hain goiz, hain bizitzaren hasieran, hain landaretan!”.

Zer ordu tristea –dino Gandiagak– Erregeen eguneko meza nagusia amaitu ondoren, jentearen ibilerak hasten diranean. Ahal dabenak, kaleak betean, jostailu garestiz ganezka; ezin dabenak, aldiz, euren gabezia gorrian lotsaturik eta, sarritan, iraindurik: “baina haien umeak, batez ere! Baina gizarajoak ume hoiek eta hoién gurasoak! Gizarajoak gurasoak ere!”.

Apaltasuna geunke, dudarik barik, gandiagatasunean nabarmentzen dan beste kualitate bat. Apal dagerkigu poeta, gogo-jardunak amaituta, Loiolako gelako lurrari mun emoten deutesanean; apal komentuko gaztetxuek atondu daben jaiotzaren inguruko zertzeladak komentatzean: “Umetasun honekintxe eratu nahi nuke nik ere barruko belena”; apal bere obra literarioa epaitzean...

Ikusi daiguzan bere liburu batzuri buruz idazleak damoskuzan zenbait eritzi. *Hiru gizon bakarka* liburuaren ganean zera dinosku: “Espresaezan edo formalki, poesia sozialaren modu libre eta apur bat traketsean idatzia dago”; *Uda batez Madrilén*-i lotzen bagaiakoz: “Hau, poesia baino, erreportari pobre baten saioa da”, izango da haren aitopena; eta, bide beretik, zera inoskun *Denbora galdu alde* eta *Gabon dut anuntzio* liburuen inguruan: “Hau literatura bada, liburu hauek zein literatur generotan sartu asmatzea kostako zaio kritikoari”. Bere obra osoa epaitzean, bide beretik darrai idazleak, baina kasuon positibotasunari be helduko deutso, gauza bi azpimarratuaz: alde batetik, bere obraren nortasuna eta, bestetik, haren sustrai sendoak. Hona hemen Gandiaga-

ren berbak: “*Nere obra* espresioak zerbait handia sujeri dezake, baina hemen nere obratxoan esan nahi du, murrizta baita gaixoa. Nerea da, ordea, eta oso urruti eta oso ezkutuan dituen sustraiak ditu”.

Zintzotasuna litzateke B. Gandiagaren nortasuna definituko leukean beste ezaugarri garrantzitsu bat. Gertatzen dana da, zintzotasun pertsonal sakonaren ondoan, poetak bere baitan baeukala zintzotasun sozial kanpora begirako bat; eta txarto ulertutako zintzotasun horretatik abiatuta emon zituala poetak bere bizitzako pausurik inportanteenak. Horrek guztiak poztasuna barik, morrontza ezin jasanezko bat ekarri eutsen dan-dana ondo eta nagusien gustura egin gura izaten eban irakasle-fraile-idazleari:

“Zintzotasuna izan genuen gure helburu eta bizimodu, ez bakarrik baserrian, ikastetxera etorri nintzenean ere bai. Eta ikasteak gogor egiten zitzaizkidanez, zail esan nahi dut, are eta zintzoago behar nuen jardun. Zintzotasuna izan dut bizitzako gorenkien aipatzen entzun izan dudana bertutea. Eta zintzotasun horren desglosea lana zen, denbora alferrik ez galtzea zen, zerbait probetxuzkotan etengabe aritzea zen”.

Jokabide horrek, inurri langile perfekzionista izan behar horrek, krisira eroan eban gizaki kezka bereikoa. Bateko, eskola-ordu ugariak; besteko, ikasleen lanak zuzendu beharra; hurrengoko, abadetzari egokionez, sermoiak, autortza nekagarriak, mezak... Idazle bokazinoa be, hortxe eukan bere baitan erabat errotuta, baina asti nahikorik ez idazteko; eta, azkenik, euskalduna zan aldetik, bere insatisfakzino nabarmena eta baita bere buruarekiko diskonformidadea be. Izan be, ordenatu eta gero, urte gogorrak pasatu behar izan zituan fraile-irakasle gazteak eta horrek exijente, haserrekor, intransijente eta gogor bihurtu eban; kontentagatx, ernegatu...: “Beharbada horregatik zen bakardadezale, isiltasun-zale, uxati eta hitz-urri”.

Mende erdi baten zama aldean daroala, uzkur, erori, lotsati eta urduri ari dala, dinosku; betiko ideia gitxi batzuk iraultzen eta egosten, beti puntu berean, ez aurrera ez atzera: “Azkenean infarto bat halakoa izan dut. Baina ez omen da gaitz fisikoa. Psikiatratarara bidali naute, eta hark denbora galtzen ikasi behar dudala agindu dit, eta horra zertan ari natzaizun”. Eta gizonari denbora galtzen ikasi behar ebala esan eutson psikiatrak eta gogotik ahalgindu zan gizona denbora galtzen, astia irabazten, inurritasunetik ttirritatasunera igaro ahal izateko: “Ohiko bizimodu zeregin-tsuari ihes egin nahi diot, inurriak gorabehera –aspertu naiz inurri izatez–, ez dut pilatzaile-lanik egin nahi, ttirritta bezala, irabazirik gabeko kantari oparotsu izan nahi dut”.

Zintzotasun “behartu” batetik, bere buruarekiko zintzo izate-ra pasatu da poeta. Inurri zintzo izateari itxi eta kantari oparotsu bihurtu da. Berez zintzoa zana orain zintzoagoa da.

3.4. Poetikaz: “hitzaren arazoa”

a) “Kantagairik asko, baina...”. *Uda batez Madrilén* liburuko “Ohar koadernotik” testuan Candiagak idazteak planteatzen deutsozan burutapenak eta kezkek azaltzen ditu. Baina, batez be, hitzaren inguruko hausnarketak bultzatzen dau poeta bere kezkek-eta papereratzera. Eta galderaz bete eban bere ohar koaderno-a eta itaunez josi liburuaren atariko-a:

“Ohar koadernuan ezarri nuen zenbait apunte ere eskaintzea otu zait. Zergatik ez eman neure gurari, buruhauste, eragozpen eta ezinkizunen berri ere? Ez al gaude etxean? Eta ez al gara etxeko? Eta ez al gabiltza begien hurreko errealitate hain handi eta hain labana euskaratzen? Ez al gara aurkitzen ez euskara eta ez errealitate menperatzen dakigularik? Ez al gabiltza aspaldi bataren eta bestearen gaineko nagusitza eskuratuz guran? Ez al dihardugu euskal literatura mardulagotu nahian

eta abar? Zergatik ez orduan aitortu eta elkarri azaldu arazo hortan bakoitzak idoro izan dugun zailtasuna, erabili izan ditugun irtenbideak, ezin garaitu ahal izan ditugun oztupoak? Bizitu ala bizi-iruditu izan ditugun bizitza ta irudipen nahaskilozko jakin aldiak hitzez emateko egin izan ditugun paper gaineko zirriborroak-eta ere, zergatik ez erakutsi batabesteari? Ez al gaude oraindik lanaren haseran, jokabideak aukeratzeko garaian, hutsak zuzentzeko adinean? Beno, ba. Hil ala biziko joko hain gaitza doan jokatzan ari garen amateur eta espontaneo talde bat gara. Joko horrenganako zaletasunak eta jokakideenganako maitasunak zabaltzen nau eta lasaiki ekitera erakartzen”.

Literatur egilearen lana armiarmaren lanaren antzekoa dateke Gandiagaren ustetan. Edozelan be, badirudi idazle euskaldunak hari gitxigaz bilbatu behar izaten dituala literatur oihalaren zuta-zeharrak. Emoten dau ehunak eta mihiseak koloreztatzeke be nahiko paleta urria daukala euskal idazleak esku artean. Zenbat ezintasun, beraz, literatur kreaizailearentzat! Zenbat buruhauste gauza nimiño eta egunerokoak be adiazoteko!

Ez da harritzekoa holako burutazinoak uritzar baten aurrean agertzea; mendi ixiletik kale arte zurrunbilotsura joan dan poeta menditarrari oldartzea. Arkitektura, haunditasuna, ikuskizun ezohiko ugari begien aurrean...; eta eurok poema, kantagai, bihurtzeko berbarik ez! Ezinaren mukan dago poeta; eta ezintasun hori kantagai harturik, bajoaku Madrilgo kale zalapartatsuetan barrena bere zama arindu guran:

“Kantagairik asko, baina
ez dakit nola kantatu,
kantagairik asko, baina.
Hizkuntza ez zait iristen,
ala ezin dut moldatu.

Eragin haundiz didate
gauzek barrua mugitzen,
zirrara handiz barrua.
Hobe nuke sentipenak
hitzez baneki mamitzen.
(...)
Hauxe diot hizkuntzari
eskatzen hainbat otoitzez,
hauxe diot hizkuntzari:
Madrilez aritzeko lain,
Madrileko senti hauez”¹¹.

Baina hiztegia ez da arazo bakarra. Hitzenganako mirespen gehiegizkoa alde batera ixteko eta ausart jokatzeko momentua heldu dala dakus idazleak: “Hitzenganako eta ohiko haien joskerarekiko beldurretan hazi eta heziak garela eta hartan etsiak, (...) ia ezinbesteko beldurrez” dinosku, jokabide horrek euskal idazle-en lumak moteldu eta galgatu ez eze, antzutu be egingo bailituan.

Errua, baina, ez ei da hizkuntzarena. Hori dala-eta, idazleak hizkuntza barik, bere burua aztertu gurago izango dau. Izan be, etxeko asto kateatua erabiltzen badakiala dinosku, baina larreko behor saltari eta trostalariak ihes egiten deutso eta ezin dau gura dauanera erakarri. Bestalde, idazlea konturatu egiten da oso gai murrizetan erabili izan dauala euskera eta ia inoiz ez hiriarren *-tasun* eta *-kerien* ganean edota kale arteko amets eta etsipenen inguruan. Gauza horreetaz be, irakurri oso gitxi egin dauala aitortzen deusku, uri handietan erderaz egiten da-eta.

Eta, zelanbait esan, poeta errukitu egiten da esku artean daukan margo-paleta erkintxu horretaz: “Errazena litzaidakeen arren, hizkuntzari ezin diezaioket errurik egotzi. Nahikoa egiten dit gajoak gauzak esateko ezpainetarutzen zaidanean, lumaren

¹¹ *Uda batez Madrilén*, 48. or.

puntaraino iristen zaidanean Madrilen irudia emateko borondate hain bizkorrez”. Edonon eta edozein gairen inguruan erabiltzean legoke, inon egotekotan, hizkuntzaren malgutze eta egokitzearen kakoa; etengabeko lanketa zabalean haren “muin betirakoa”, gure klasikoek, mende batzuk lehenago, argi eta garbi adiazko ebe-nez¹²:

“EUSKARAK ez du errurik
nik ez diot ezarriko,
euskarak ez du errurik.
Neu naiz errudun euskara
indartu ez zaidalako,
su-arma ez dudalako,
eskutan hartu ta zirt-zart
ez darabilkidalako
nonahi ta zernahitarako”¹³.

Ezbaiak eta dudak be baditu idazleak: batzuetan azkarregi idazten dauala aitortzen dau; bestetazuetan, ordea, idatzi nahiko leukeanari begira joako denborarik gehiena, edota idazteke dauana irakurtzen eta entzuten. Idazteko beldurrez be egoten da, egingo dauana ez ete dan egin gura leukeana bezain egokia izango. Hori dala-eta, *Don Quijote* liburuko berba batzuk abiapuntutzat

¹² “Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, iauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera, zeren ladin publika mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain skribitzeko hon dela. Eta kausa honengatik gelditzen da abaturik, ezein reputazione gabe...” (B. Etxepare, LVP, Hitzaurrea). Bide beretik daragoio Axularrek *Gero* liburuan irakurleari zuzendutako hitzaurrean: “Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak”.

¹³ *Uda batez Madrilen*, 49. or

harturik, zera dinotso Santxo ezkutari leialari: “Bai, Santxo, bai; baina ni ama izan banintzok, ez zekiat... sabeleko haurrari begira egongo nintzokean egon eta egon, eta bederatzi hilabeteak ez ezik, neure bizitza guztiko urteetan nahiko nian hari begira egon”.

Ezin egon, baina, idazlea sorkizunari begira eta luma astintzeko premia ikusita, honela dinotso Santxori: “Banitxiak, orain-txe bertan nitxiak, askatuko diat zaldia eta abiatuko nauk erreallitate makur eta zeken horrekin burrukatzera”. Eta burruka literario horretarako Hartzabal poeta handiaren bideari heltzea ondo eritzola esango deusku, uste ebalako poesia grafikoa laguntza handikoa izan eitekeala egin asmo ebana gauzatu ahal izateko.

Baina, “Hiriko bizimartxa nork du euskaraz ulertzen hemen?” itauntzen deutso bere buruari. Itaunari ez deutso, edozelan be, zuzen erantzungo. Autokritika edo *herrikritika* egiteari egokiago eritziko deutso idazleak. Izan be, –dinosku Gandiagak–euskalduna basoan lokartuta, lo-goxoan egon da luzaro; eta, bitartean, mundua aldatuaz joan da eta erreallitate barri batera itzartu da euskalduna, kolpera itzartu be. Esnatzean aurrerape-nak eta jakintza oro albo-herrietako hizkuntzetan ikasi eta barri-ro lokartu ginan, atzera hartu ginduzan lo goxoak, pentsaturik geureganaturik genduzala aurrerapen eta ezagupen horreek guz-tiak. Ha ta guzti be, hori egitean hiztegiaren morroi bihurtu ginan, hizkuntza horreekiko morroi eta jopu gara:

“Hiri aurreratuan iratzarri garen Herri gara, uni-bertsitateko aulatan iratzarri gara, olaberrietako maki-narte harrigarritan; eta erreallitate zoragarri hau euska-ratu egin behar dugula ikusi dugu, hil ala biziko istilu hontan iratzarri garenerako”¹⁴.

¹⁴ Testuok irakurtzean, bati B. Atxagaren “Trikuarena” poema jatorko gogo-ra, beti be poemak –besteak beste– bere baitan daukan irakuketa linguistiko-kul-turaletik abiatuta: “Eta bapatean, zeharkatu egiten du / belardiaren eta kamio berriaren arteko muga, / Zure eta nire denboran sartzen da pauso bakar batez; /

Jakintzaren itsasoan, gutasunaren lemak daroan ontzian nabigatuko bagara, ontzi propioa behar dogu euskaldunok, gure bela eta mastak... Ontzi-hizkuntza hori geure oholez, geure burdinez edota azken teknologiaren arabera buruturiko geure materiallez egin beharra daukagu. Proiektua eta diseinua, baina, goi-mailako jakintza-lekuetan gauzatu behar da, unibertsitatean, eskola teknikoetan...

Gandiagarentzat, hori egin ezean, ezingo dogu errealitate barria geure baitarik landu eta, euskaldun legez, mutu geratuko gara, ezin da-eta uneoro hitzaren gorabeheren inguruan ezbaian ibili. Hitzak bere arragoa behar dau, bere sutegia, bere mailua eta bere ingudea. Burdinola hori Gandiagarentzat unibertsitatea da. Hantxe emongo jako burdin-zati bakotxari, hitz bakotxari bere forma propioa, hantxe lortuko dau txatal-hitz bakotxak bere adiera zehatza eta betea. 70eko hamarkadan unibertsitate euskaldun horretaz egiten eban amets poetak eta beren-beregi errebindikatu¹⁵.

b) “Hitzaren arazoa oinarritzkoa du poetak”. B. Gandiagak *Uda batez Madrilen* liburuan planteatzen dauan hiztegi urritasuna atxakiatzat hartuaz, A. Villasantek kinatu egin eban poeta, gai horretaz txosten bat idatzi egian. Beraz, Villasanteren “itogin aspergarri” etengabeak bultzaturik sortu zan “Irakurtzen ari naizen azken poesiaz” saioa. Izan be, Gandiagak Gernikan eginiko mahai inguru baten esandako berbotatik sortu zan dan-dana:

Eta nola bere hiztegi unibertsala ez den / azkeneko zazpi mila urteotan berritu, / ez ditu ezagutzen gure automobilaren argiak, / ez da ohartzen bere heriotzaren hurbiltasunaz ere” (*Poemas & Híbridos*, Visor, Madrid, 1991, 8. or.). Zorionez, badirudi euskaldunok gai izan garala *kamioaren zeharkatze* hori bat-batean barik, albora begiratura eta argiak identifikatuta egiteko, zazpi mila urteko atzerakuntza ez da errez gainditzen, baina.

¹⁵ Urte batzuk geroago, “Irakurtzen ari naizen azken poesiaz” (*Euskera*, 1978, XXIII, 237-246. orr.) artikuluan, barriro helduko deutso Gandiagak arazo honi, oraingoan itxaropentsuago dagerkigularik.

“Itxura baten poesiaz hain kanpotiko zientzia hizke-
ra lantzen ari diren gizonak nahi ditut goraipa. Ezin esan
halako gusto handiz *irakurtzen ari naizen azken poesia*
NATUR ZIENTZIAK, TEKNOLOGIA eta Holandako KRISTAU
BIDEA da, espresio bide berri eta zabalak eskaintzen diz-
kidatelako, eta hitzaren ulerkuntza eta ikuspegi zehatz
eta funtsezkoa damaidatelako”.

Nork ez dau oinarrizko arazo hitza?, itauntzen deusku Gan-
diagak. Izan be, inork behar izatekotan, poetak behar dau hitza-
ren arazoa konponduta egon daiten: “Hitz material eta brutoa
espíritu mailako esanguratan eraiki behar duelako poetak”. Hi-
tzaren nondik norakoak, haren zedarriak eta mugak ondo zehaz-
tuta dagozanean, orduantxe hasten da poetaren lankizuna:

“Hor du hitza –hiztegia, hizkuntza–, bere esanahiz,
bere abiapuntutasunez; eta hartzen du eta eragiten has-
ten zaio: hitzari bere oinarri materialaren gainean eragi-
ten; hitzaren islak estudiatzen, hitzaren hitzarekiko erla-
zio berriak aurkitzen, hitzaren nahikizun eta iradokizun
berriak kreatzen, hitzaren errealtasunari idealismo
dimentsioa ematen. Hitzari asmo berriak inguratzea da
poetaren eginkizun, hitza bere pasibotasunetik ateraz,
haren esanahi materiala neurri berriz aberastea”.

Elorri liburuko “Neure itzaren billa”¹⁶ olerkian, poeta gaztea
bere hitz poetikoa definitzen ahalegindu zan, liburuaren hasieran
eta, era berean, bere karrera literarioaren lehenengo pausuetan
ahalegindu be. Baina zelan lortu hitza aldatzea, moldatzea,
aberastea..., hitz hori erabat definituta egon ezean? Gandiaga,
aitaturiko poematik abiatu-rik, hitz arruntak (bere) hitz poetiko

¹⁶ *Elorri*, 2. ed., 24. or.

bihurtzeko zelango ezaugarriak beharko leukezan zehazten ahaleginduko da. Guk eskema modura emoten doguz:

Konnotazino bako hitza (Jakintzako terminologia)	Hitz poetikoa (Gandiagaren baitan)
Hitzaren muina eta hots zehatza	Hitzaren oihartzun sorra
Hitz ondo inguratu eta trinkoa	Ez-bai eta lurrun litzatekean hitza
Hitzaren bolumen definitua	Hitz era bako itzal
Hitz ondo finkatua eta zehatza	Lotu bako berba
Hitzaren soinu erreala	Hitzaren soinu halakoa
Hitzaren usain materiazkoa	Usain askatutako hitza
Sakonki markatutako hitza	Kolore pintatu bako dan ez dan-ezko hitza

Izan be, edozein hiztunek, edozein idazlek langai zehatz eta konkretu behar badau hitza, areago poetak: “Ezin daiteke ibil une bakoitzean esankizunen adierazpide materialaren bila, hitz bakoitza sortu beharrez idaztaldi bakoitzean; jadanik erabakia behar luke hitzaren gorabehera hori eta ez luke formaren arazoa besterik hartu behar”. Hori dala-eta, Gandiagak bihotzaren erditik eskertzen dau euskeraren lanketa, edozein arlotan dala esker-tu be, ustez teknikotzat hartzen izan ditugun pertsona horreek poetaren tresnaren fabrikatzaileak diralako. Horreek guztiak (zientzialari, hiztegi-gile, irakasle, itzultzaile...) Gandiagarentzat poetak be badira, eta euskeraz landutako gai oro... poesia!¹⁷.

¹⁷ Egunokaz, Roald Hoffman 1981eko Kimika Nobel saridunaren berbok irakurri ahal izan ditugu: “La ciencia dota de metáforas a la poesía. La poesía me hace mejor científico” (*Deia*, 2006-09-08, 25. or.).

3.5. *Idazle eredugarriez eta lagun maitatuez*

“Nire obraz” saioan luze daragoio Gandiagak bere formazino literarioaren inguruan; eta bertan literaturaren sorgina irakatsi eutsoen irakasleak eta lagunak (Aita Elcid, Jose Antonio Astigarra-ga...) aitatzeaz gain, euskal literaturan barrena mugitzeko berak eta bere garaiko fraile gazteek izan zituen zailtasunak be emoten deus-kuz aditzera. Seriotasunez eta era jarraian Erriberri-Oliten hasi zan B. Gandiaga euskal literaturako obra nagusiak ezagutzen eta lan-tzen, 48-51 epeko urteetan, hasi be. Klasiko greko-latinoak eta idazle erdeldun nagusiak irakurri eta gero, poesiaren ikutua barru-barruan eukan idazlegai gaztearentzat Lizardi, Orixek eta Lauaxeta lango poeta euskaldunakaz topo egitea aurkikuntza ederra ez eze, txundigarria be izan zan: “Lizardik, Orixek eta Lauaxetak biziki inpresionatu ninduten”. Izan be, latinez eta gazteleraz irakurritako autoreen pareko begitandu jakozan autore euskaldunon obrak, bai formalki, bai mami poetikoari jagokonean be. Urteak garrenean, Bilboko Arenalean Urrezko Luma hartzean “Lauaxeta, Orixek eta Lizardi, barru-barruan dauzkat”¹⁸ aitortu eban, barriro be idazleoi eutsen txera eta zorra azpimarratuaz.

Hitz lauuko orriotan, aitamen puntualez gain, badagoz Gandiagak beren-beregi goraiatu gura izan zituan zenbait idazle eta euroi aparteko lekua opetsi eutsen bere idatzietan. Aitaturik dogu Cervantes eta irakurleak, daborduko, badau Gandiagak Kixoteren aitari eutsan txera bereziaren barri. Gandiagak *On Kixote* liburua parabola luze eta edertzat dauka, baita irakurri dauan libururik ederrenetakotzat be:

“Ez duzu alferrik hitz bat ere jarri. Aurrez bizitu izan duzu hitz bakoitzaren barruko bizitza. Giza-senti-

¹⁸ 1998ko bagilaren bian hartu eban Gandiagak Urrezko Luma, Bizkaiko Diputazinoak eskainia.

penaren mila mailatakoren bat jotzen ez duen hitz bat ere ez duzu ipini liburu handi guzti hortan; eta hala ezin daiteke zure liburu hori irakur barru guztiaren asaldakuntza oso eta gozoenik gabe”.

Gehiago be, badinotso Mendatako semeak Alcalá de Henares-ekoari: “Zure KIXOTEA irakurri-ahala, barrez eta negarrez asaskatu izan nituen begi, biri eta gibelak baino nire ikusbideak berak gehiago zor dizula ere aitortu behar dizut. Izugarria zara”.

Aita Villasantek 1964an eginiko *Gero* liburuaren edizino elebidunaren argitarapena dala-eta, euskaldun legez sentitzen dauan harrotasuna lau haizeetara aldarrikatuko dau poetak. Izan be, dinosku, Urre Aroko goi mailako literatura irakurri eta gero, zein gustura sartzen dan irakurlea *Gero* liburuko orrietan barrena! Kalitateari jagokonez be, azpimarratu egiten dau zein egoki eusten deutson Axularrek idazle goren hareek jarritako maila bikainari. Honan, Gandiagaren poztasun aldarria:

“Euskerak inoiz bete banau, euskerak inoiz harrotu banau, liburu hau irakurtzean izan da. Hemen bai ez dala euskera huts hori urria, urrea baino. Liburu hortan barna, euskera hizkuntza zabal bat dala, iruditzen zaio bati. Goi ta behe, nahi ta gai guztietarako gauza dan hizkuntza bat”.

Biziki gorai patzen ditu Gandiagak Cervantes eta Axular idazle haundien lanak, eta hareenganako miresmena ez dauka ez saltzeko, ezta ezkutatzeko be. Salvatore Mitxelenari bagagokioz, zarauztarrari deutson mira, benerazino modura be ulertu geinkealakoan gagoz, hain da bihotz-arimetatik urtendakoa! Ez ei eban Gandiagak hartu-emon handirik izan S. Mitxelenagaz, hau meatarra baino zaharragoa zan-eta; eta honek, dakigunez, ikasketa garaian asko mugatzen eban belaunaldien arteko lotura. Ha ta guzti be, “hementxe daramat, nun ez dakidala; beharbada, neu

guztia betetzen nauala”, dinosku Gandiagak, benerazino horren seinale. R. Tagore, A. Machado, J. R. Jiménez edota Leongo Fr. Luisek legez, bizirik dirau S. Mitxelenak Gandiagaren baitan, nahiz eta 1965eko abenduaren 20an, neguko euriak eta haren heriotzaren barriak poetaren gorputz-arimetan jotzean Mitxelena mitoen mailara igo zan: “Aita Nagusiak, Salvatore Mitxelena hil dala esan digunean, bat-bateko ixilune mardul bat sortu da; eta nik, kanpoan ari zan euriaren zarata entzun det, kanpoan entzun lehenengo, ta, gero, animaren gaínean eta barruan”.

Beste zenbait kasutan legez, A. Villasante dakar hizpidera Gandiagak, esateko gernikarrari esker ezagutu ahal izan ebala Mitxelenari buruzko datu eta zertzelada ugari. Jakingarrien artean, Arriona izeneko hatx-mutur baztertu eta argia aitatu eutsan Villasantek, S. Mitxelena eta haren lagunen gotorleku espirituala zana gerrate eta gerra ondorengo urte latzetan. Bazter agurgarria zan, beraz, Arriona, txoko maitagarria, gerora Gandiagarentzat beneragarri be bihurtu zana.

Orriotan, esan bakoia da, idazle gehiagoren inguruan jarduten dau Gandiagak: T. Agirre, P. Perurena, A. Villasante, J. Azurmendi..., baita hurrean izan zituan lagun maite askoren ganean be: J. Oteiza, N. Basterretxea, M. Pelay Orozko... Baina aparteko aitamena mereziko leukeana Aita Lasa frantziskotarra da, Gandiagak hiru bat lane-tan iruzkintzen dau-eta Urbiako kapelauaren figura maitagarria.

4. Idazkera: “Estiloaren arazoa iruditzen zait dena”

*4.1. Pentsamenduaren erritmoan*¹⁹

Esankizunak eskatutako moldean idatzi ohi eban B. Gandiagak. Bere olerkietan darabilzan eskema metrikoen ugaritasu-

¹⁹ “Ze, batzuetan badago, nahi baduzu, pentsamenduari dagokion erritmo bat, baina hori ez da erritmoaren adiera klasikoa” (*Hiru gizon bakarka*, Elkar, Donostia, 1991, 2. ed., 207-208. orr.).

nak²⁰ ondo erakusten dau poetaren jokera estilistiko hori. Era berean, bere poema liburuetan sarri be sarri aukeratzen dau prosa bere ideiak eta proposamenak adiazoteko; eta prosaz idazten dauanean be, etengabe txertatuko ditu poemak bere idatzietan. Pentsamenduak markatzen dauan erritmoaren isla izan daiteke, era berean, idazleak behin baino gehiagotan egiten dauan aldaketa, hau da, testu bat hitz neurtuz idazten hasi eta berehala prosara pasatu; edo, alderantziz, prosaz hasitakoa hitz neurtuz amaitzea.

Hizkuntzari lotzen bagaiakoz, lorategi honetan irakurleak laster sumatuko dau euskera batuaren nagusitasuna, 60ko hamarkadako testuetan gipuzkeraren presentzia nabarmena dalarik. “Ni neu euskal idazleetako bat” lanean telegrafikoki azaltzen deusku idazleak beragan izan zituan eragin linguistikokoak: “Ni bizkaieratik nator. Batua kulturalki etorri zait. Giputzeekin tratua. Gure median gipuzkera; baina medio pluridialektal batean bizi izan gara”. Edozelan be, gipuzkeraz zein batuaz idatzitako testuetan bizkaieraren ikutua sarri be sarri agertuko da. Puntu honetan, hiztegi²¹

²⁰ J. M. Lekuonak “metrikaren langintza harrigarria” deritzo *Elorri*-n egin dako ahalegin kreatiboari. Hona hemen haren hitzak: “Jatorriz berea duen bide-tik landutako eremua. Zehatz eta libre. Ugari baina tradizioari nolerebait errenditurik. Errespetuz, baina molde berriak ekarriz. Intuizioz hala oharturik, dena dela, Lizardirenarekin batera, berrikuntzarik handienetakoa da *Elorri*-ren metrika euskal poesiaren historian. Lagungarri oso ona du metrika autoreak, erabaki duen diskurtso poetiko laburra osabetetzeko” (*Elorri*, 2. ed., 23. or.).

²¹ Izan be, Gandiagak darabilan hiztegia euskera osora eta literatur tradizio-
ra zabalik badago be, etxeko sutondoan hasten da, bertatik abiatzen da auzo-euske-
retara: “Asaskatu hitza oso etxekoa da. Bazkal-ondoan aita-amak joaten ziren des-
kantsatzera eta gu, gure lantxoak egin ondoren, sukaldean geratzen ginen, mahaia-
ren inguruan geure gauzatxoak kontatzen. Ama zetorrenean zera galdetzen zigun: *Umeak asaskatu zari?*, ia geure gauzak elkarriz esanez lasaitu eta poztu ginen. Kono-
tazio biak ditu. Oso etxekoa da aditz hori” (Iparragirre, Pilar: “Bitoriano Gandiaga,
ama hizkuntzaren seme kezkatia”, *Punto y Hora*, 423, 1986, 22-25. orr.). Bide bere-
tik: “Euskara barruan gorderik neukan neuk ez nekiela. Hiztegirik ez eta behar nuen
hitzaren edo esamoldearen zain-zain egoten nintzen, arreta guztia barrurantz jarrita
eta beti eta hutsik egin gabe, putzuan puzpiloak edo burbuilak bezala pompa sortzen
zen” (“Ni neu euskal idazleetako bat”, *Hegats*, 17/18, 1997, 99-109. orr.).

gain badagoz zenbait egitura azpimarratzeko modukoak diranak: a) *joan/eroan* aditz laguntzaile arkaikoak, batuan txertaturik²² (*igaro daramatzat, sorgotu narama, hautatu daroa...*); b) nor-nork erako aditzak nori kasuari begira erabilita (*dihardutsut, dauzkakizut...*); d) aditz trinkoa galdegaia daneko kasuak (*joan zihoan, jakin dakigu, eragin deragigu...*); e) *-tik hara* egitura adierazkorra (*barrutik harako poz berezkoari oztopoak ipintzen; indarra zerion gorputzetik hara...*); *igon* aditza transitibo erara jokatuta (*Oñatze-ra igoko det*)...

Gorago, prosatik poesiara eta alderantzizko jauziak aitatu baditugu be, azpimarratzekoa da, era berean, hizkuntza-barietateakaz be egiten dituan aldaketak. “Aita Lasa” izeneko artikuluan, kasurako, Arantzazuko euskera jatorra txertatuko dau euskera batuan eginiko testuan; eta “Aitta Lasari omenaldiak Urbian” izenekoan, lehenengo zatia hango euskara dialektalean idatziko dau, bigarrena batu-batuan egiten dauan bitartean.

Bizkaiera literarioari jagokonean²³, irakurleak badaki *Elorri* ezkeroko produkzinorik gehiena, erdialdeko euskeran edota, Arantzazuko batzarretik aurrera, euskera batuan plazaratu izan

²² Gogoratu “Oihal ona kutxan saldu doa” (*Refranes y Sentencias*, 1596) edota P. A. Añibarro (1748-1830) arratiarraren: “orazinoa egin daroe zutik” (*Jesu Christoren Lau Evangelioac batera alcarturic*, M. Pilar Ciarrustak eginiko edizinoa, BBK-Labayru, Bilbo, 1991). Añibarrok berak damosku aditz laguntzaileon azalpena bere *Gramatica Bascongada* liburuan (aitaturiko edizinoari jarraitzen deusagu): “Yo suelo comer: jan daroat... En el infinitivo que lleva se distingue de *eroan, llevar...* Los Guipuzcoanos y Bascos no tienen este modo de conjugación y usan del común con la adición interpuesta de OY soler... También los Bizcaynos usan a veces de este método o modo, jan oi dot...”.

²³ “Bizkaiera baztertu izanaren penarik badut. Euskara batze honetan bizkaiera gutxietsia izan ote den nago. Euskara idatziari begiratu zaio bakarrik, ez mintzatuari-eta. Bizkaiko euskara galtzen atera da, jendea aspertu ere egin dugulako batua mintzatura ere eramatean. Ni batuarekin bat nator. Baina! Pedagogia falta” (“Ni neu euskal idazleetako bat”, *Hegats*, 17/18, 1997, 99-109. orr.).

ebana Mendatako idazleak. Testuotan, baina, badago bizkaieraren presentzia, kasurik gehienetan Orbelaun eta familiagaz loturik. *Adio* liburuko “Ni Orbelaunen jaio nintzen” izeneko testuan euskera batutik bizkaierara pasatzen da lanaren erdi aldera, eta holantxe jarraituko dau ia amaieraraino, azken lau lerroak, barriro, euskera batuan egiteko. *Izadiminez* liburuko “Amets baten kronika” areagotu egiten da jokera hau, batua-bizkaiera-batua-bizkaiera jokua egiten dau-eta.

4.2. Poesiaren erritmoko prosa

Ezaguna dogu B. Gandiagak poesian erritmoari emoten eutsan garrantzia²⁴. Era berean, hoskidetzak, barne errimak, aliterazinoak-eta Gandiagaren poesieren osagai garrantzitsuak dirana be badaki irakurle Gandiaga zaleak. Kontua da, haren prosa lanak irakurtzean, irakurleak, sarritan, prosaren baitan poesieren hurrenkeraren zantzuak asmatzen dituala. Testu batzuen bitartez hobeto ikusiko dogu esandakoa:

²⁴ “Barruan bizi nuen erritmoaren harira idatzitakoa da *Elorri*. Ni mundu hartan libre sentitzen nintzen, hura zen nire legerik gabeko lurraldea” (Iparragirre, Pilar: “Bitoriano Gandiaga, ama hizkuntzaren seme kezkatia”, *Punto y Hora*, 423, 1986, 22-25. orr.). Kazetariak bere bigarren liburuaz itauntzean, barriro azpirramatuko dau erritmoarekiko lotura: “-Eta *Hiru gizon bakarka?* -Ene barruari arnasa emateko idazten nuen. Ardurarik gabe. Literatura formari kasorik egin gabe. Sentipenari jarraituz, isiltasunaren erritmoari jarraituz” (Mendiola, Julen: “Gandiaga: Eguzkiak beti behar luke egon”, *Egin*, 1977-10-30, 17. or.). Bardin *Arenduiri* emoniko alkarrizketan: “Gero, konturatu gabe, erritmoaren alorrean sartzen zait Gandiaga: *Begiek ikusten dutena mamitzen dut poesian, baina hitzak belarriak markatzen duen musikan jartzen ditut. Begiek irudia formatzen lagundu, eta belarriak hots ritmatuzko gorputza eman; sujerentziazko irudi multzoari dagokion hitz egokia topatzen laguntzen dit belarriak*” (*Arendui: “Gandiagarekin: ELORRI (III)”, Arantzazu*, 693, 1990, 22-23. orr.).

“Pagadiak itsutu egiten du pagoa. Pagadiak gortu egiten du pagoa. Urrutiago bizi dan harek, hobeto dakus saldoa, hobeto dantzu zantzoa.”	Pagadiak itsutu egiten du <u>pagoa</u> . Pagadiak gortu egiten du <u>pagoa</u> . Urrutiago bizi dan harek, hobeto <u>dakus saldoa</u> , hobeto <u>dantzu zantzoa</u> .	14A 13A 10- 8a 8a
--	--	-------------------------------

Bide beretik, baina kasuon 10/8 molde nagusia argiago markatuta, honako testuau:

“Aberatsago makinak. Aintzat erdi ta ixkinak. Ez dute emazte, ezta haurrik ere. Lanean dira gordinak. Gastuan, berriz, mizkinak. Irabazian bikainak. Ta, hilaren mugan, ez dira azaltzen, eskatuz lanen ordainak. Bijoaz bada, ta, halaxe doaz, nora?... beharginak.”	Aberatsago makinak. Aintzat erdi ta ixkinak. Ez dute emazte, ezta haurrik ere. Lanean dira gordinak. Gastuan, berriz, mizkinak. Irabazian bikainak. Ta, hilaren mugan, ez dira azaltzen, eskatuz lanen ordainak. Bijoaz, bada, ta, halaxe doaz, nora?... beharginak.”	8a 8a 10- 8a 8a 8a 10- 8a 10- 6a
---	---	---

Zortziko txikiaren ariora, hau da, 7/6 silabako hurrenkeran eginiko pasarte luzetxu bat damosku Gandiagak “eta Loiola eta Loiolan” artikuluan. Zati bat baino ez dogu aldatzen hona:

“Halaxen zait atsegin ujolen bolbola –borobil eta gozo, boladaz bolada, dena doinuz doala, aidera igoz–, arbola.”	Halaxe zait atsegin <u>ujolen bolbola</u> –borobil eta gozo, <u>boladaz bolada</u> , dena doinuz doala, aidera igoz–, <u>arbola</u> .	7- 6a 7- 6a 7a 7a
---	--	----------------------------------

Ur-bolbol-arbola –espiritu-ujolak oroitzu dagola–, ur-bolbol poema mardul bat bezela, entzuten det Loiola.”	Ur- bolbol - arbola –espiritu-uj ola oroitzu dag ola –, ur- bolbol poema mardul bat bezela, entzuten det Lo ola .	6a 6- 6a 6- 6a 7a
---	--	----------------------------------

Azpimarratzekoa da /b/d/g/ leherkari ozenakaz eta /o/ bokalagaz Gandiagak lortzen dauan aliterazio nabarmena. *-ol(a)-*hoskidetzak, bestalde, *Loiola* hitzaren durundioa dakarsku ezinbestean.

Ohiko eskema metrikoetatik aparte, eta errimadun esaldiak era nabarmenean erabili barik be, mutila da Gandiaga bere prosan erritmo gokia txertatzen eta testua dantzatuzazoten:

“Amonetik, zekitenaz, ezagutzen zutenaz, pentsatzen zutenaz baliatu ziren beren kantuak sortzeko eta ontzeko. Ezagutzen zuten sehaska, ezagutzen zuten sehaskaren hotsa, ezagutzen zuten sehaskan zetzan haurra eta, sukaldeko argitzalean, erdi-ilunean, altzarien ingurura ezbaikoa zen hartan, erraz pasatzen ziren zurezko sehaskaren hotsetik *kunkunera*, *kunkunetik kuttunera*, lurrunera urrunera, begitazio, aierupen, oroitzapen, irudipen, fantasia eta pentsamendu edotariko berealdikotara”.

Amama zaharren lo-kantak, jolas kantak-eta sortzeko erabiltzen eben prozesuaz dihardutso Gandiagak Patziku Perurena idazle nafarrari, esanaz horretarako kantagaien eta kantu horreek gauzaten dituen elementu eta euskarrien oso ezagupen hausnartu, egosi eta sakona agertzen deuskuela: “Nola eman bestela *onomatopeiak*, *erritmoak*, *musikaltasuna*, xarma, lilura, xoradura?”. Ez ete da, azken baten, hori guztia Gandiagaren testuetan gehien liluratzan gaituana? Orbelaungo laratzak asko jakingo dau honetaz guztiaz!

4.3. *Berbakaz olgetan*

“Hitz elastikoak” behar geunkezala dinosku Gandiagak bere poematxu baten²⁵, sentsazinoak, zirrarak, arimaren egoerak-eta besteenganatzeko gai izango bagara. Behar komunikatibo horrek berbak manciatzera, birsortzera, zizelkatzera eroaten dau sarri poeta, hau da, berbak sorkuntzaren arragoan urtu eta ingudean “tiriki, tauki, tauki”ka mailukatzera. Kezkatuta agertzen da-eta poeta, euskal idazleek ohiko hitzenganako agertu ohi daberen gehiegizkoaz:

“Hitzenganako eta ohiko haien joskerarekiko beldurretan hazi eta heziak garela eta hartan etsiak, zezentza baino iditza onartzeraino, betelutik oparo aritzeari baino antzuolan agor izateari, legorretan bizirik ihartzeari amore emateraino, ia ezinbesteko beldurrez”.

Izan be, *iditzan* antzutu, *Antzuolan* agortu eta *Legorretan* ihartzeari egokiago eritzi izan deusagu, *zezentzan* ugaltzeari eta *Beteluko* oparatasunean bizitzeari baino, beldurarraren-edo. Hitz joko eder eta jostagarriak lortzen ditu Gandiagak berba arrunt, herri-izen, antonimoak-eta nahastuz: *beldurretan hazi eta heziak/hartan etsiak; iditza/zezentza; agor/oparo; Betelu/Antzuola-Legorreta...*

Denbora galdu alde liburuko “Ez naiz lagunarteko” testuan be, joko erakargarriak darabilz prosan diharduan poetak: “Arnegabera naiz. *Erantzun arantzazkoak*²⁶ ditut, zorrotzegi eta min-

²⁵ “Hitz elastikoak behar geunkez, / abioien igotzea posibletzen daberen / abiagailu hoiere antzeko izenak behar geunkez / euskarak eta biok hemen / iluntzeko hamarrak alde eder hontan / airezurrara hau eraikitzeko / nahi neuken airepoeman” (“Irakurtzen ari naizen azken poesiaz”, *Euskera*, 1978, XXIII, 237-246. orr.).

²⁶ Kurtsibak gureak dira.

korregiak. *Hitzetik hortzak* darizkit. Baina nire hortzok hitzak alde egin orduko lauskitzen zaizkit, bihotzeraino lauskitzen”. Liburu berean, denborari, astiari, ongi etorria damotsonean, honelaxe zuzentzen jako askatzailea dan denbora horri: “Gaur bazaitut. Astitsu eskaintzen zatzaizkit. Horregatik deitzen zaitut denbora eta ez *aldi zaldi lauhankari*; denbora zaitut deitzen, azken hizki atono horren bidez geldiagoa, patxadazkoagoa, etzanagoa baitirudidazu, luzeagoa”.

Bide beretik, “inongo *erretorika* eta *erretolika* gabe”; “Zein *erreinu* eta *errainu* zoragarritara”; “Oraindik *arestian* –*hariztian*– jirabiran hegaztatzen zitzaizkidan begiok”; “Euskal ekonomia oso lukurra izan zaigu hitz *inbertsio*-*inbertziotan*”... Ezin esan, bada, gure poetak arlo honetan inbertsiorik egin ez ebanik, hitzen azokara hurreratu ez jakunik.

4.4. *Ironia*

Pertsona argien ezaugarri pertsonaltzat hartu izan ohi da ironiaren erabilpena. Seriotasunaz ondo be ondo uztartzen dan dohain hau osagarri bikaina izan daiteke edozein jardueratan, neurritz eta tajuz erabiltzen bada, behintzat. Eta bere idazlanetan agertzen danez –hitz lauz sarriago hitz neurtuz baino–, Gandiagak baeban ixuri ironiko fin bat, ikutu neurtua, beti be.

“eta arboletan elurra” saioan, zuhaitzen edertasun zuri jausi barriari begira dagoala, basatzen sartu eta komentariotxu hauxe egingo deusku: “Ez dakit nora begira ninjoan, harri-maila huts eginda, lokatzarte batean hanka sartu detanean. Bata lehenengo eta gero bestea, behin huts egitera ezkerokoan, konpletu egin behar detala-ta edo”.

Bide beretik, *Elorri* liburuaren argitarapenaren inguruko gorabeherak kontatzean, Gandiagak liburuaren itzulpena zergaitik egin zan argitzen deusku. Izan be, 1961. urtean poliziak Bizkaiko uriburuko “Gráficas Bilbao” inprentan *Elorri* liburua aurki-

tu eban, beste zer baiten bila joan ziran, baina. Handik lasterrera, liburua itzultzeko agindua jaso eban poetak, baita Aita Pedro Anasagastik egin be. Honan Gandiagaren iruzkina: “Nik oinezko lerrotan jarri nuen eta A. Pedro Anasagastik hegazkoetan”. *Elorri* eta *Espino* bitzuak irakurri dituanak errez ulertuko dau poetaren komentarioa.

“Autoreaz eta liburuaz” hitzaurrean Gandiagak Joxe Azurmendiren *Hitz berdeak* poema liburua zelan argitaratu zan, kontatzen deusku, besteak beste. Pasarte baten, orduan poeta gazte, ibiltaria eta bizia ei zan Paulo Iztueta aitatzen dau, baita harek Azurmendiren poemak argitaratzeko egin eban batze-lana be. Baina, antza, aldaketa bat jazo zan poeta ibiltariaren egoeran: “Gero, Paulo judegu errantetatik poliziari laisterketa-apustuak irabazten pasatu zenean, Jesus Mari Zabaletak hartu zuen beregain liburu honen ardura”.

Ironia fin berbera erabilia, “hitz lapur lotsagabe eta zorioneko” deituko deutse, 1973ko abuztu-irailan, UEUk Donibane Lohitzunen antolaturiko ikastaroetan, nork bere arloan, euren eskolak ahalik eta euskera duin eta zehatzenean emoten ahalegindu ziran irakasleei: “Poza ematen du noizbait behintzat gure jakitunak bihurtu direla hitz-pirata ikusteak. Piratak ez bestek salbatu ezin bailezakete euskal irakaskintzaren egoera”.

Amaitzeko, Aita Lasagaz lotuta dagoan beste pasartetxu bat dakargu lerrootara. Kasuon, anaia frantziskotarraren heriotzaren inguruan, Gandiagak hainbat zertzelada damosku haren figura iruzkinduaz. Horreetariko baten –dino Gandiagak– Aita Lasak, karneta ahaztuta, tren geltokiko arduraduna ezin konbentziztuta, zera esan ei eutsan: “Adiskide, begira idazu ongi, nire aurpegi hau, ez al da fraile aurpegia?”. Bada, koplak gehiago barik emon ei eutsan erlijiosoei egokien bilettea. Haren bizitza eredugarriaren aurrean, Gandiagak be ez eban zalantza haundirik zeruko atearen aurrean gertatuko zanaz: “Aurpegia ikusi orduko emango zioten zeruetako sarrera-txartela. Noski”.

4.5. Prosa poetikoa

Izadiari asko kantatutako poeta genduan Gandiaga eta horren erakusgarririk bikainena *Elorri* liburua bera izan daiteke, dudarik barik. Irakurleak, era berean, badaki poema argitaratubakoakaz eginiko edizino laukotxean, liburuetariko batek *Izadiminez* daukana izenburu. Izadiak blaiturik eta beraturik dagerkigu, beraz, naturaren erdian jaio eta naturagaz bat eginda hil jakun poetaren obra. Naturak bere baitan eukan eraginaz honela egin euskun berba Gandiagak: “Niri eragiten dit eguraldiak eta eragiten didate urtearoeak eta eragiten dit egunsentiak eta iluntzeak ere eragiten dit. Ez dago nire agenda ikustea besterik; izadiaren txistada askotarikoen erantzunak jasotzen ditu”. Aurrerago, bera frantziskotarra be dan aldetik, zera aitortuko dau: “Izadiarekiko eta bertako fenomenoekiko sentiberatasun hau babestua ez ezik lagundua aurkitzen da gure frantziskotar bizieran”.

Puntu honetan, baliabide literario konkretuak aztertu barik –luze be luze joko leuskigu-eta, hain da holakoz aberatsa Gandiagaren prosa–, zenbait adibide jakin emoteagaz konformatuko gara, labur zurrean, beti be. Egunaren eta urtearen atalak kantagai dituan “Ariketa” saioan maisuki deskribatzen deusku kromatismoz beteriko arratsaldea, arrats beheraren ederra:

“Egunaren amaieran, eguzkia beheratzen dihoanean gertatzen da koloreen apoteosia zoragarria. Eguzki-sarrera beti da une hordigarria. Zeruak hodeiz eta ganduz prestatzen du iluntzeko ordua eta hodeietan eta ganduan biltzen eta isladatzen ditu eguzkiaren azken errainuen “diamantezko printzak”, berei dagokien tindagai bero guztietan: odol eta su, lila eta limoi, anbar eta arrosa, laranja eta txingar eta beste mila tinturatan, inoiz errepikatu gabe dekorazio beti galanta. Baina han erretzen da lilura eta amets-giro guztia, harik eta dena ezabatu eta iluntzen den artean, gauari utziz guztiaren gaineko nagusitza”.

Urtearen arratsa dan udagoienak, baina, tristura dakartso poetari, bera egun luze, amaibako eta argien zale izanda: “Lurra- ren azalera guztiak erantzi du distiratsu zuena eta basamortuko aszeta bat bezala da, parajez paraje, zakukiz eta errautsez jantzi, eta barne bizitzari emana jarri da, neguko sakontasun barnekoira bidean”.

Aita Salbatore Mitxelenaren heriotzaren inguruko hausnarke- tan be, badago pasarte politik. Gorago aitatu dogunez, Arriona zan Mitxelena eta haren lagunen izkutaleku eta batzarleku kulta- ral eta espirituala. Poetak hurrengo mendialdian bertara joatea erabagi dau eta hango harri bat hartu eta musuz josi ezker, ber- tan ixtea pentsatu dau:

“Eta hantxe geratuko da harri haura, eta hantxe haren izena ta oroimena; eta gaur bezelako euriak, kan- poan bere zarata ateratzen duanean, harri haren gainean bere zarata ateratzen duanean, euri zarata harek Aita Mitxelenaren oroia iratzarriko du nire barrenean, eta euriaren hari garbitan gora, haren anima ederra, jada- nik, negurik eta negarrik ez dan goiko paraje zorame- nezko hartan bizi dan lekuraino, aterako da”.

Idazletzaren inguruan gogoetatsu jabilkigunean be, ezin dau poetak alde batera itxi olerkitasuneranzko bere jokera nabarme- na. Azaldua eukan Gandiagak zelan itxi eutsan irakurlego zaba- larentzat idazteari, *Elorri*-k irakurleen aldetik izan eban harrera epela ikusita: “Nik ez dut idazten / paper saskirako baizen, / agian noizbait, zeozer”²⁷. Hitz lauuko azalpena poetikoagoa begi- tantzen zaigu poema bera baino: “Bitartean, izarrei egiten nien idazten nuenaren erre-oparia edo zakarrontziari egiten nion neu- re poematxoen eskaintza”. Zorionez, J. Oteiza handiaren bultza-

²⁷ *Hiru gizon bakarka*, 2. ed., 145. or.

dak barrero abiatuazo eban poeta Parnasoko bideetan barrena: “Oteizaren eskaritik / herriarenak entzunik, / iratzarri naiz jadanik lotan / nengoen paper-saskitik”²⁸.

Uda batez Madrilen liburuan, esanda daukagunez, badaragoio Gandiagak idazte-jardunaren inguruan. Uritzarrari buruzko liburua aurrepentsatuta dauka bere baitan; aurreikusi egiten ditu haren nondik norako nagusiak eta idazteari ekiten deutso; burugogoetan daukazan inpresino, zirrara eta hausnarketa guztiak papereratzeko irrikaz dago. Horretaz guztiaz egiten deutso berba hainbeste maite dauan Santxo ezkutariari, metafora ederrak erabiliaz:

“Batzutan azkarregi idazten dut, hizkuntzak narama batzutan, konturatu gabe, berari gogoak damaion bidez. Bestetzutan jaitsi egiten naiz hizkuntzaren zalditik, idazgaien larrinean lotzen dut eta larrinean geratzen naiz neure zaldiaren ondoan larrinari begira ni, larrinekoz bazkatzen hura”.

Uda batez Madrilen liburua argitaratu zanetik hogeta hamar bat urte bete dirala gagozan honetan, zorionez, oparago, beteago dakusku euskal idazgaien larraina; zauliago, malguago, zalago eta indartsuago hizkuntza-zaldia, larrineko bazka elikagai barriz eta indartsuz hornituago dau-eta.

5. Gure edizinoa

Bilduma honetara batu ditugun euskerazko testuak 1964. urtetik ia-ia poetaren heriotzaren momentura arteko idazlanak dirala kontuan hartuta, normala da ortografia- eta idazte-ohiturei jagokenez, alde handia egotea testutik testura. 1968. urtea ezke-

²⁸ Ibid., 145. or.

ro ahalegin berezia egin eban Gandiagak euskera batuan idazten eta zintzo-zintzo unean uneko arautegiari helduko deutso. Horretara, euskera batua onartu aurreko euskera idatzia eta batuaren baitako bilakaerari jagokona, bitzuak izango geunkez testuotan.

Edozelan be, argitarapen hau “Sutondoan” bildumakoa izanik, dibulgazino zabalerako pentsatuta dago eta hori dala-eta, irakurketa erreztu guran, gure asmoa ortografia aldakor hori, zelanbait, gaurkotzea izan da, ezelango aldaketa morfologiko-sintaktikorik egiteke. Testuek, beraz, euren horretan diraeu, garrantzitsu eritzi izan deusagulako unean uneko euskera eta idatz moldeak agertzeari, lau bat hamarkadako testigantza dalako irakurleak eskuetan daukan prosa bilduma hau. Aitatu daiguzan, labur bada be, eginiko aldaketa ortografiko nagusiak. Esan bakoa da, aldaketarik gehienak 60-70 hamarkadako testuetan gertatu izan dirala, azkeneko testuetan banakak izan diralako moldatu beharrekoak:

- a) [-] *marratzua*. Gidoitxuari jagokonez, gaurko usadioetara erakarri gura izan dogu erabilkera, zalantza kasuetan idazlearen aukera errespetatuta; izan be, sarritan, marratxuak balio markatu edo adierazkorra izan leike. Kasu normaletan: batbatera> bat-batera; barru barruan> barru-barruan; bizi-modu> bizimodu; literatur-egile> literatur-egile; literatur-lariak> literaturlariak; eder-etsi> ederretsi; Urrexola-ra> Urrexolara; pausoz-pauso> pausoz pauso...
- b) *Aspirazinoa*. H letra sistematikoki erakarri izan dogu oraingo batuaren idatz moldeetara: alaxe> halaxe²⁹; al (izan)> ahal (izan); gora-berak/gora-beerak> gorabeherak; oinharrizko> oinarrizko; hauzo> auzo; horrialde> orrialde; arik... eta> harik... eta; orma> horma...³⁰.

²⁹ “Alaxe” sortaren izenburua ez dogu aldatu.

³⁰ Ha ta guzti be, hasierako testuetako zenbait berba (*zugaitz, ago, oge, iges...*) mantendu egin ditugu euren tradizino dialektalagaitik.

- c) *Txistukariak*. Txistukariok be, gaurko erara idatzita agertuko dira bilduma honetan: setzan> zetzan; mazustak> masustak; asazkatu> asaskatu; iritxi> iritsi; frantzes> frantses...
- d) *Bide beretik*: baiña> baina; millaka> milaka; ixa> ia; yayo> iaio; Loyola> Loiola; Bizkaiakoa> Bizkaikoa; beñe-pein/behinpein> behinik behin; ihardun> jardun; hitze-gin> hitz egin...
- e) *Ez + aditza*. Kasuotan askatu egin izan dogu negazinoa aditzarengandik: ezuala> ez duala; etzidan> ez zidan; ezpadio> ez badio...
- f) *Arazi-erazi aditzak*. Aditz erazleok aditz oinari erantsi izan deusaguz, idazleak aditzaren oina idatzi izan dauanetan; ostantzean, hau da, idazleak partizipioz emon izan badau aditza, banan emoteari egokiago eritzi izan deusagu, guk geuk aldaketarik ez egiteko. Beraz: sor arazi> sorrarazi; ikus erazi> ikuserazi; nabari arazten> nabariarazten; maitaarazten> maitarazten... Partizipioa agertu ezkerok: kendu arazi, berandutu arazten, begitandu arazi..., aditzak euren horretan ikusiko ditu irakurleak. -N-z amaitutako aditzetan: egin erazten> egineraztean...
- g) *Bai(t)- menderagailu kausala*. Honi jagokonez, *bai* zein *bait-* darabilz Gandiagak, lehenengoa hasierako testuetan batez be. *Bai* forma bere horretan mantendu izan dogu: bai zitzaigun; bai damaigu... *Bait-* forma, ordea, beti-beti, aditzari itsatsirik agertuko da, testu jatorretan aske, zein loturik agertzen bada be: bait duzue> baituzue; bait liteke> bailiteke; bait naiz> bainaiz...
- h) *Oharrak*. Idazleak jarritakoak [] artean agertuko dira argitalpen honetan.

6. Bibliografia

• BITORIANO GANDIAGAREN POEMA LIBURUAK

Elorri, EFA, Oñati, 1962 (2. arg.: Frantzizkotar Argitaletxea, Oñati, 1989).

Hiru gizon bakarka, Gero, Bilbo, 1974 (2. arg.: Elkar, Donostia, 1991).

Uda batez Madrilen, Jakin, Oñati, 1977.

Denbora galdu alde, Erein, Donostia, 1985.

Gabon dut anuntzio, EFA, Oñati, 1986.

Ahotsik behartu gabe, Erein, Donostia, 1997 + Poema irakurketa (CD).

Adio, AEF-Elkar, Donostia, 2004.

Biziminez (Poema argitaragabeak), AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005.

Euskalminez (Poema argitaragabeak), AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005.

Izadiminez (Poema argitaragabeak), AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005.

Jainkominez (Poema argitaragabeak), AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005.

• OLERKI SORTAK

“5 poemas de Bitoriano Gandiaga”, *Las separatas de Zurgai II, Zurgai*, Dic./1990.

“Gaixondoa”, *Zurgai*, Julio/96, 18-27. orr.

Denbora, Asociación para la Difusión de las Letras, Bilbao, Dic. 1996, 8 orr.

“Errail zaharra”, *Zurgai*, Setiembre/2000, 116-117. orr.

• ANTOLOGIAK

ITURBIDE, Amaia: *Bizitza itxaropen delako*, EHU, Zarautz, 2001.

IZAGIRRE, Koldo: *Bitoriano Gandiaga*, XX. mendeko poesia kaierak, Susa, Iruñea, 2001.

SARRIUGARTE, Iñaki: *50 olerki gandiagatar (Idatz & Mintz aldizkariaren separatak)*, Labayru, Bilbo, 2002.

• ARTIKULUAK

“Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz”, *Euskera*, 1956-1, 206-231. orr.

“El euskera en el Colegio Seráfico y en la carrera”, Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera, *Cantabria Franciscana*, 57-58-59, 1961, 245-261. orr.

“Gero”, *Aránzazu*, 421, 1964, 18. or.

“eta arboletan elurra”, *Aránzazu*, 435, 1966, 12-13. orr.

“eta euri-zarata”, *Aránzazu*, 436, 1966, 10-11. orr.

“eta bakartia”, *Aránzazu*, 436-bis, 1966, 10-11. orr.

“eta illargiaren jabe”, *Aránzazu*, 437, 1966, 4-5. orr.

“eta elorriak loretan”, *Aránzazu*, 438, 1966, 22-24. orr.

“elorriaren eta garoaren eskolan”, *Aránzazu*, 442-3, 1966, 27-28. orr.

“eta Loyola eta Loyola-n”, *Aránzazu*, 444, 1966, 24-25. orr.

“eta Gabonak, Gabon”, *Aránzazu*, 445, 1966, 13-15. orr.

“eta elorri-landarak”, *Aránzazu*, 446, 1967, 5-7. orr.

“eta baserri-bideetaz”, *Aránzazu*, 447, 1967, 23-25. orr.

“Joxe Mondraue-na”, *Aránzazu*, 471, 1969, 10-11. orr.

“Autoreaz eta liburuaz”, in Azurmendi, Joxe: *Hitz berdeak*, EFA, Oñati, 1971, 9-13. orr.

“Leona Guridi Elorza”, *Aránzazu*, 488, 1971, 11-12. orr.

“Euskal begitazioak zuretan. N. Basterretxea”, *Aránzazu*, 510, 1973, 21-22. orr.

“Erantzuna”, *Aránzazu*, 510, 1973, 22. or.

“Udako Euskal Unibertsitatea”, *Aránzazu*, 511, 1973, 21. or.

“Lau erromantze”, *Euskera*, 1974, XIX, 156-163. orr.

“Bi hitz punta”, in Bilbao, A.: *Pentsakizunak*, EFA, Oñati, 1975, 7-9. orr.

- “Hiru erromantze eta gorazarre bat”, *Euskera*, 1975, XX, 301-315. orr.
- “Irakurtzen ari naizen azken poesiaz”, *Euskera*, 1978, XXIII, 237-246. orr.
- “Hitzaurre gisa”, in Enbeita, Jon: *Inguruaren arduraz*, Hordago, Donostia, 1980, 7-15. orr.
- “Paskual (Haurrentzako bertsoian)”, in *IKER 2* (P. Lafitte-ri omenaldia), Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 773-774. orr.
- “Aeroplano gaiztoak”, in *Triskantzatik esperantzara*, Gráf. Mun-
guía, Gernika, 1987, 72-76. orr.
- “Ala-deltan olgetan”, *Hegats*, 3, 1990, 25-28. orr.
- “Nere obraz”, *Hegats*, 4, 1991, 207-217. orr.
- “Uda”, *Hegats*, 6, 1992, 5-9. orr.
- “Aita Lasa”, *Arantzazu*, 728, 1993, 8-10. orr.
- “Aitta Lasari omenaldiak Urbian”, *Arantzazu*, 731, 1993, 11-12.
orr.
- “Ni neu euskal idazleetako bat”, *Hegats*, 17/18, 1997, 99-109.
orr.
- “Ariketa”, *Hegats*, 15/16, 1997, 13-22. orr.
- “Pelay Orozko Arantzazun”, *Arantzazu*, 782, 1998, 6-7. orr.
- “Muy amado Jorge: paz y bien” (2001-02-13), *Gara*, 2001-02-
22, 60. orr.

• **BITORIANO GANDIAGAZ**

- Askoren artean: *Bitoriano Gandiaga eta Mendata*, Mendatako
Udala, Mendata, 2001.
- , “Bitoriano Gandiaga”, *Idatz & Mintz*, 33-34, 2002 (ale
monografikoa).
- , “Con Bitoriano Gandiaga”, *Zurgai*, Julio / 2003 (ale mono-
grafikoa).
- AGIRREBALZATEGI, Paulo: “Hitzaurre moduan”, in *Euskalminez*
(*Poema argitaragabeak*), AEF-Elkar-Labayru, Donostia,
2005, 7-14. orr.

- AKESOLO, Lino: "Elorri", *Olerti*, 1963, 3/4, 142-144. orr.
- ARENDUI: "Gandiagarekin: ELORRI (I)", *Arantzazu*, 691, 1990, 20-21. orr.
- , "Gandiagarekin: ELORRI (II)", *Arantzazu*, 692, 1990, 20-21. orr.
- , "Gandiagarekin: ELORRI (III)", *Arantzazu*, 693, 1990, 22-23. orr.
- AULESTIA, Gorka: "S. Mitxelena y B. Gandiaga: Escuela Franciscana", *Muga*, 79, 1991, 44-59. orr.
- AZURMENDI, Joxe: "Epilogo", in *Hiru gizon bakarka*, Elkar, Donostia, 1991, 2. arg., 185-214. orr.
- , "Hitzaurre moduan", in *Adio*, AEF-Elkar, Donostia, 2004, 7-23. orr.
- BEGIRISTAIN, Iñaki: "Bittoriano Gandiaga, gizakiaren kantaria", *Euskonews & Media*, 114, 2001/03/09-16, (www.eusko-news.com).
- BORDA, Itxaso: "Gandiaga, el hombre que descubrió la ciudad", *Zurgai*, Diciembre/1991, 34-36. orr.
- ETXEBARRIA, Igone: "Esperantzari. Bitoriano Gandiaga", *Euskeraren Iker Atalak* 3, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1985, 151-165. orr.
- EZKIAGA, Patxi: "Hitzaurrea", in *Jainkominez (Poema argitaragabeak)*, AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005, 7-11. orr.
- GARCIA TRUJILLO, Sebastian: "Bitoriano Gandiaga. Euskal profeta lirikoa", *Hermes*, 1, 2001, 148-154. orr.
- , "Neke etikatik edertasun etikara", *Litterae Vasconicae*, 8, 2001, 297-304. orr.
- , "Hitzaurre moduan", in *Biziminez (Poema argitaragabeak)*, AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005, 7-22. orr.
- , "Biziminaren ziklo osatua", *Idatz & Mintz*, 41, 2006, 40-50. orr.
- IPARRAGIRRE, Pilar: "Bitoriano Gandiaga, ama hizkuntzaren seme kezkatia", *Punto y Hora*, 423, 1986, 22-25. orr.
- IRAOLA, Rufino: "Aipua: *Denbora galdu alde*", RIEV, 1991-1, 173-177. orr.
- , *Bitoriano Gandiaga*, Bidegileak, 27, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 2002.

- ITURBIDE, Amaia: *B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza*, Erein, Donostia, 2000.
- , “Irudia Gandiagaren poemagintzan”, in *Bizitza itxaropen delako*, EHU, Zarautz, 2001, 9-26. orr.
- , “Litografías de un hombre salido de la tierra”, in *Bizitza itxaropen delako*, EHU, Zarautz, 2001, 247-266. orr.
- JUARISTI, Felipe: “Este pueblo que no es de piedra”, *Zurgai*, Julio/96, 4-13. orr.
- , “Aresti eta Gandiaga. Ohar batzuk”, *Euskonews & Media*, 77, 2000/05/05-12 (www.euskonews.com).
- KORTAZAR, Jon: “Ahotsaren epela”, *Pérgola*, 74, Mayo/1998, II. or.
- KORTAZAR, Jose Mari: “Bitoriano Gandiaga: erlijioa poeman”, *Hemen*, 1, urt.-mart., 2004.
- LAFITTE, Piarres: “Elorri”, in *Euskal literaturaz*, Euskal Editore-en Elkarte, Klasikoak 35, Donostia, 1990, 333-334. orr.
- LASA, Mikel: “Itzaurrea”, in *Hiru gizon bakarka*, Gero, Bilbo, 1974, 7-12. orr.
- LEKUONA, Juan Mari: “Sarrera modura”, in *Uda batez Madrilen*, EFA, Oñati, 1977, XV-XXIX. orr.
- , “Gandiagari omenaldia. Poesigintza eta kanta gerraostean”, *Jakin*, 5, 1978, 123-130. orr.
- , “Elorri argitaraldi berrian”, in *Elorri*, Frantzizkotar Argitaletxea, Oñati, 1989, 2. arg., 7-24. orr.
- , “Bitoriano Gandiaga (G.B.) (1928-2001)”, *Euskera*, 46, 2001-1, 507-511. orr.
- LETE, Xabier: “Hiru gizon bakarka”, *Zeruko Argia*, 578, 1974, 7. or.
- MENDIOLA, Julen: “Gandiaga: Eguzkiak beti behar luke egon”, *Egin*, 1977-10-30, 17. or.
- MIELGO, Roberto: “Bitoriano Gandiaga o la intensidad del silencio”, *Zurgai*, Julio/96, 14-17. orr.
- MITXELENA, Luis: “Elorri”, *Egan*, 1-3, 1962, 88-89. orr.
- OTAEGI, Juan: “Sinboloa Gandiagaren Elorri-n”, *Enseiukarrean*, 11, 1995, 157-176. orr.

- , “Zenbait sinbolo Gandiagaren *Elorri-n*”, *Enseiukarrean*, 12, 1996, 93-113. orr.
- , “Gandiagaren poetika *Elorri-n*”, *Enseiukarrean*, 13, 1997, 205-217. orr.
- , “Zentzuen eragina *Elorri-ko* poetikan”, *Enseiukarrean*, 14, 1999, 143-156. orr.
- Otsalar (J. San Martin): “Denbora galdu alde”, *Egan*, 1-2, 1986, 169-172. orr.
- , “Poeta iratzartua”, in *Giro Gori / Tiempo Ardiente*, Gaur Egungo Euskal Poesia, EHU, Leioa, 1998, 258-260. orr.
- SARRIUGARTE, Iñaki: “Oi edertasunaren eder eta apala!”, in *Mendebaldeko Euskeraren Ekarrria*, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo, 1998, 11-26. orr.
- , “Txikitasunaren maitalea: Bitoriano Gandiaga”, in *Euskalkien lekua literaturan*, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo, 1999, 189-199. orr.
- , “Elorrien laguna gogoan”, *Karmel*, 2001-2, 113-117. orr.
- , “Bitoriano Gandiaga gogoan: heriotza bizitza-hazia”, *Karmel*, 238, 2002, 3-13. orr.
- , “Bitoriano Gandiaga eta Bilbo”, *Litterae Vasconicae*, 8, 2001, 279-295. orr.
- , “Itxaropena landatuz, lurra maitatuz”, in *Izadiminez (Poema argitaragabeak)*, AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005, 7-37. orr.
- VILLASANTE, Luis: “Ataria”, in *Elorri*, EFA, Oñati, 1962, 9-19. orr.
- ZABALA, Juan Luis: “Bitoriano Gandiaga”, *Egunkaria*, 1991/09/01, 29. or.
- ZABALA, Pello: “Bitoriano Arantzazuko basoan”, *Argia*, 1649, 1997, 26. orr.
- , “Naturatik Aitarengana”, *Arantzazu*, 815, 2001, 22-23. orr.
- ZARATE, Mikel: “B. Gandiaga ta aliterazioaren indarra”, in *Euskal Literatura*, Leopoldo Zugaza, Durango, 1977, 79-85. orr.

Iñaki Sarriguarte Irigoien

HITZ LAUZ IDAZTEN

1

Alaxe sorta

ETA ARBOLETAN ELURRA*

Arendui eta Arroletakoak ikustera atera naiz.

Komentuko atari aurrean hiru mutiko ari ziran elurrezko gizon bati bizkarrean pala-atxur bat jartzen.

Komentutik kolejio berriaren aurrean, beheko errekarantz hasten diran harrimailetarainoko elurra, praile-gazteak kendu dute goizean. Egurdiko eguzki apurrak lerro bihur eta beltz bat egin du haiek beren atxur eta palekin igaro diran lekuan.

Harrimailetan behera elurra mardul zegoan, baina mailak ongi ezagutzen ziran.

Ustez, oinetako seguruak jantzita ninjoan, artilezkoak eta katiuskak jantzita; baina laister hasi naiz elurraren preskura lehenengo bernetan eta ondoren haietatik behera urtuz zijoana sentitzen.

Labanen bat egingo ote nuan bildurrez-edo, gehienbat, lurre-ra begira jetsi naiz errekaraino.

Konturatu bai konturatu naiz inguruetako edertasuna haundia zala, baina ez dit mirarik egin, harik eta Arrolarako hartzen dan bideraino.

Baina pista gaineko alertze gazteen artetik dijoan zidorra hartu detanerako, edertasunaren ikutua sentitu det. Baina ikutua baino gehiago izan dala aitortu behar det, gelditu eragin dit-eta.

* *Aránzazu*, 435, 1966, 12-13. orr.

Hiru bana metroko alertze haiek, beren betiko aide hain lirainez gainera, adarretan, asma ditekenik-eta apainduri atseginenak zeuzkaten. Ostrotxoak, asko bakandurik, hori eta laru eta beilegi; ta gozoro makurtutako adartxoetan, arratsaldeko halako argi oiez batek erlustuta, elur-moltzo bigunak.

Handik aurrera ezin jarraitu izan det nere betiko abiadan. Astiro, hango ixiltasunaren harira, hartu det Arrolarantz igoz dijonan mailadia.

Gaztaina-ondoek ere begiratu nezaiela eskatzen zidaten. Adarrak gorri, eta, arbazta artean, altu eutsita zeuzkaten eskukada elurrak. Zeruko urdin zati haren aitzinean, zer liluragarri ageri ziran gaztainondo jagi haiek ere.

Corago, ta sastraka artean bakarrik ikusi detan gaztainondo harek ere, merezi du aipamen bat. Agerian zeukan igartuta zegoala. Adarrak leun, arbaztarik gabe, ta luze, danean eta geldi elurzirrindak zituala, bere gerri ilunean ezik.

Insiñis-pinuak eta zipresak tonu gordin eta serio batean ageri ziran, berde-beltz eta zuri.

Ez dakit nora begira ninjoan, harri-maila huts eginda, lokartzarte batean hanka sartu detanean. Bata lehenengo eta gero bestea, behin huts egitera ezkerokoan, konpletu egin behar detala-ta edo.

* * *

Mailadia burutu detanean, berriro gelditu behar izan det. Iku-sitakoak eder ziralakoan, orain arteko gauzarik ederrenaren aurrean arkitu naiz: pago zabal eta iaio batekin eta haren aldameneko haritz gazte ta luzexka batekin.

Pagoa, adarrak zeharo ta gozoro lurreraino malgututa zituala arkitu det.

Udazkeneko pagoen ostro-kolore suzkoaren su eta urrekolore-tonu guztiak aitzera emango lituzkenik ez dago.

Eta gainetik begiratu ondoren, azpira sartu natzaio. Zer zoriona! Azpitik liluragarriagoa zan. Askoz ere kolore-joku gehia-

go ageri zuan. Baina haren azpiko argiaren kolore, hain koloretuarenik, aipatzeko ez naiz gauza. Sorginen palazio ilusiozkoenean ere ez da halako argi-girorik asmatu.

Eta pagoaren aldamenen haritza, ostro guztiak aldean zituaila. Haritz-altxuma bai, banekian zaila zana, bihurriak haiekin egiten zituaitak-eta. Baina haritz lerden eta sendo honen adarrak ere bigun daude oraindik. Hauek ere, altuago, baina parabolan lurrerantz eratsita zeuden. Ostrorik gehienak berde-gordin oraindik, banaka bat horitzen hasita, eta horituta ere bai bat edo beste. Ta haien gainean elur-zepa gizenagoa ta, adar-ondoetan hodei gorritzata baten larrosak.

Karobigaineko lizarrak ere eder zeudenen kontrako pentsamentuak hemen sortu zaizkit. Baina halakoek, beharbada, honako elurtzetan ibiltzeko gauza ez dirala izango, ta, ahaztu egin ditut.¹

Karobigaineko lizarrak ere eder zeuden. Eder bai; baina, gaxoak, haietxek eman didate nere zorion-ibilaldiaren erdian tristura pixka bat. Irail-oro moztutzen dizkie urte-adarrak haien ostroak ardiei edo behiei emateko. Eta billoxik eta nabarmen, ez dakit zer gaueko lantu edo ulu bat bezelako gogoratzen duten.

Harago, artegi ondoan, ardi batzuek ikusi ditut elurra jaten edo, beharbada, elur-peko sasi ta ota-puntekin ari ziran. Ardi haien ilea ez zait gaur batere garbia iruditu.

* * *

Gainaren handiko aldetik behera dijoan Arrolako gurdi-bidearen ertzeke urkiei begira jarri naiz.

Urkia, bere ostro xehe eta adar eta anpor zilarrezkoz, zein ikusgarri izan zaitan betiere. Baina gaur, inoiz baino ikusgarriago eta maitagarriago iruditu zaizkit. Batez ere haura, bidearen alde batetik bestera etzanda zegoan haura. Baina etzanda ez, dena

¹ Badirudi pasarte honetan inprentako nahasketa bat dagoala.

zoramenezko arku bat eginda baino. Zenbat ostrotxo maitagarri ta zein kolore ugarietakoak. Eta zenbat elur gainean. Orain artean ikusi ditudan arbola guztiak baino askoz ere elur-zotazal gize-nagoa dauka gerrian, adarretan eta ostroetan katiatuta.

Hemen egin det kolore-erretratarrien kontrako bigarren erremuskada.

Kuadernua atera ta haren deskrazio bat egiten hasi naiz, Ramón Zulaikaz gogoratuta. Baina indarrak egin ondoren, ez det idatzi hauxe besterik: "Urkiak, ostrotxo hori, urkiak elurrez", eta damuz etsita, aurrera egin det.

Arrolako oilategiak mira egin dit ondoren. Teilatutik leihoeta-rainoko elur-kopeta zerion enredaderatik behera. Zer itxura hain zeharo kapritxosoa. Arrolako etxekoandre Mariakin, bere oilate-giaren itxura hain liluragarriaz jardun det.

Leandrok, hango parajeak erretratatzera inor ez etortzearen pena aipatu duala eguerdikoan, esan dit. Goizean omen zeuden, artean ere, ikusgarri paraje haiek.

Arenduira bideko lapatxa-aranei ere begiratu diet. Ostrotxo-ak, denak elurtartean, arraz arra baino mihetzago zeuzkaten, bai-na ze kolore hori-argiz.

Arenduin, elurra hotza dala esan didate. Hotza ta bustia dala, ta ratu txarrak pasatu arazten dizkiela artzai eta baserritarrei.

Nik ongi ezagutzen det hori eta pena ematen dit hori hala iza-teak, elurra hain miresgarria izan-ta.

Etixerakoan, berriro begiratu diet arbolei, eta hemen batek eta beste batek han, adar haundiak hausita zeuzkatela ohartu naiz. Eta pena gehiagoz eta hantxe idatzi det:

Oi, zer misterioa dan elurrarena,
hain ederra dalarik, hain bai da krudela!
Nire sentimentua bitan zatitu da:
ederraren alde ta krudelaren kontra.
Bitan kraskatu da, biak alde bana,
elurrak hausitako adarrak bezela.

ETA EURI-ZARATA*

Oliten nengoala iritsi zitzaigun haren *Arantzazu euskal poema*. “La chopera” deitzen genion zelaiko makal-ondoan artean irakurri genuan. Nola biltzen ginan irakurlearen inguruan, begiz, belarriz eta agoz ere entzun nahiean. Tafallarantz joaten ginanentan, berriz, poemako kantuak abestu egiten genituan, joanez.

Harrezkero, geurekin bat egin zan Aita Salvatore. Geure egin genuan, Tagore bat geure degun bezela. Orduan bihurtu zan niretzako betiko gizon. Gizaldiak mugatzen ez dituzten gizon hoieta-ko bat bezelakoa.

Gaur ezin genezake Arantzazutaz hitzik egin, Aita Mitxelena aipatu gabe.

Euskal-fede kantariaren irudia ere harek eman zigun.

Abenduaren hogeiko arratsalde hontan, neguko euriak animan eman didala, esango nuke.

Aita Nagusiak, Salvatore Mitxelena hil dala esan digunean, bat-bateko ixil-une mardul bat sortu da; eta nik, kanpoan ari zan euriaren zarata entzun det, kanpoan entzun lehenengo, ta, gero, animaren gainean eta barruan.

Aita Salvatore, ezin genezake ahaztu. Aita Salvatore geurekin bizi genuan: Arantzazurekin, Euskal Herriarekin eta geurekin. Geure zati ta geure arnasa bezela genuan geure.

* *Arantzazu*, 436, 1966, 10-11. orr.

Aita Salvatore, ni neuk ez nuan ezagutzen, noizik behin ikus-
tez, inoiz edo behin harekin hitzen batzuek trukatzez eta haren
Arantzazu euskal poema irakurtzez baizik. Baina hementxe dara-
mat, nun ez dakidala; beharbada, neu guztia betetzen nauala.

Harekin hartu-eman haundiagorik ez nualako-edo, aspaldiko
gizon bat bezela zan niretzat Aita Salvatore. Betitik betira bizi
zaizkidan gizon hoietako bat bezela: Antonio Matxado bat bezela,
Juan Ramon bat bezela, edo Leon-go Fr. Luis bat bezela. Gizonok
beti bizi izan bai dira niretzako eta beti bizi izango bai ditut.
Halaxe Aita Salvatore ere.

Mutiko nintzala, kantore bezela ezagutu nuan. Abots zoli ta
kizkurreko tenor argi bat zan. Eslavaren Salbea, eliza zahar eta
hain polit hartan kantatzen zuanekoa daukat gogoan. Ama Birji-
naren egunez, Obispu Jaunaren, Probintziko Agintariaren-eta
aurrean “Al Cristo de la Olivera” kantatzen zuanekoa ere bai.
Nola dardar egiten zuten gure jan-lekuko hormak, haren abotse-
ra: ta nolako irriparra egiten zion Aita Arregi beste ezin-ahaztu
harek!

Gero, abots bat bezela, ahaztu egin ote nuan? Kantua aidean
desegiten dan bezela igaro ote zan niregandik Aita Mitxelenaren
oroimena?

* * *

Uribarritik gora, Arrikruztik gora, Gesaltzatic gora, Zapiar-
betik gora datorren kaltzadako harrien hitza entzuten ere harek
erakutsi zidan: harrien hitza, zigorren hotsa, kantua, otoitza, ta,
dena batera, entzuten.

Harek erakutsi zidan Arantzazuko Amaren harrizko irudian
lehenagoko haien debozio ta begiratuaren markak ezagutzen, harek
Arantzazu lur santu bat bezela ikusten, harek Arantzazu Euskal
Herriaren espiritu-muina bezela ikusten eta maitatzen.

Orain hiru bat urte aitortu nion guzti hori: Haren “ARAN-
TZA” Cidacos ibaiaren ertzeko makal-ondo lirain haien artean
nola irakurtzen genuan eta abar.

Nola Tafallara bidean kantatzen genuan azaldu nionekoa esan nezake: begiak argiz, eta samurtasunez, eta pozez eta negarez bete zitzaizkion. Gainerako aitorea lurrera begira egin nion.

* * *

Aita Mitxelena gizon urduri bat zan. Ez luzea, ezta zabaletakoa ere: baina betiko haize batek betiko txingar bati dirdaia ateratzen dion gizon bat zan: beroa, argia, alaia.

Inoiz baino gehiagotan hitz egin dit hartaz Aita Villasantek. Haren bizitasunaz, haren betiko egiteaz.

Autu hoiek ezkeroz, batez ere, Arriona gelditu zitzaidan, bazter agurgarri bat bezela egina.

Gure gerra-garai eta ondorengo urteetan, han biltzen omen ziran Aita Mitxelena ta haren lagunak. Han irakurtzen eta han kantatzen omen zien harek, ordurako ontzen ari zan bere poema ta gainerako zenbait kantu ta olerki.

Gorde-leku bezela omen zuten Arrionako harkaitz-mutur baztertu eta argi haura. Gorde-leku ta animari lasai-pide labur bat emateko magal bat bezela ere bai.

Beste zenbaitentzat bezela, ta harentzat, beharbada, gure geuretzat baino gehiago, harkaitz gorria izan zan, halabeharrezko magal.

Arriona hau, han gordetzen ziran Aita Mitxelena ta haren lagunetatik, leku maitagarri bat bezela izan det aspalditxotik; baina gaurtik beneragarri ere bazait.

Hurrengo mendi-aldian haraxe behar det, eta han, harri bat aukeratu, eta harri hartan, ezpainekin eta etengabeko musuz, haren izena ezarri, haren nire betiko oroimenerako.

Eta hantxe geratuko da harri haura, eta hantxe haren izena ta oroimena; eta gaur bezelako euriak, kanpoan bere zarata ateratzen duanean, harri haren gainean bere zarata ateratzen duanean, euri zarata harek Aita Mitxelenaren oroia iratzarriko du nire barrenean, eta euriaren hari garbitan gora, haren anima ederra,

judanik, negurik eta negarrik ez dan goiko paraje zoramenezko hartan bizi dan lekuraino, aterako da.

Mitxelena adiskide: Goialde argi hortako festa betiko hortan ere, Salbeko bakar-abotsa kantatzen al dezu? Edo, zeuk kantatzen zenuan eta, zeruan zeuri kanta zezaizutela eskatzen zenuan “La Olivera”, aragoitarren kantu hori, kantatzen ari ote zaizkizu oraindik? Kristo Santuari esaiozu, ni ere zerura deitzen nauan hartan, neri ere “La Olivera” hori kanta dezaidatela. Baina orduan, zeuk kantatu beharko dezu bakar-abotsa; halaxe eskatuko bai diot zeure ta neure Jaunari. Zaitu ba eztarri hori, ta, laister arte.

ETA BAKARTIA*

Zarata batzuek eurengandik zerbait aldunduta, hobeto entzuten dira. Gizadiarena, adibidez.

Inoiz ez dit axola izan bakarrik egoteak, bakarrik ibiltzeak, bakardadeak. Hala ere, ta gehiagorik gabe, bizi-aide hau ez det inorentzat jokabide bat bezela jarri nahi.

Baina hori bai, ez diot behingoan barkatuko bakar-zaletasuna gaitz eta gaixo bat bezela jartzen didanari; bakar-zaletasun horri zoro irizten dionari; zaletasun hau nardatzen duanari; norberekeri ta norberekoi-keri dala dionari.

Egia da: gizona ez da bakarrik bizitzeko egina izan. Berez eta beharrez da gizartean bizitzekoa ta bizi beharrekoa. Baina gizartean, gizadiaren eta giza-bizitzaren barruko azterlari bezela, bakar-zaleak gizadiaren onerako dirala, derizkiot. Gizadi-itsasosan, itsas-barreneko bizitza, ta giroa, ta hondarra begietara ateratzen dizkigutenak dirala.

Bakar-zaletasuna bokazio bat da, zeruak norbaitzuei bakarrik ematen dien joera berezi bat, daukanak bestek antzeman eta estimatu ezinezko dohai misterioz bete bat, egozten zaizkion hutsen jabe ez dan jokabide bat, ukatzen zaizkion merituak aldean dituan bizi-alde jagi bat, eta, beste edozein bokaziori bezela, dagokion izaitez kanpokorik ezin eskatu lezaiokegun bokazio jator bat.

* *Aránzazu*, 436-bis, 1966, 10-11. orr.

Bakartia badoa, bakarrik. Badoa gauzen artetik gauzen barrura, begiak, argi, norberegana zabalik.

* * *

Bakartiari bere burua zaio nahikoa, ta, harek bilatzen duan ixiltasuna, bere barruko abotsa entzuteko behar duan giroa da.

Bakartiak bere inguruan sortzen duan hotza, arantza-hesi bat bezela du: bere barruko aberastasuna ostutzeraz inor hurreratu ez dakion.

Hitzik egiten ez badu, barruko lurrin bero ta gozoak iges egin ez dezaion da.

Bakartiaren lakartasuna, haren begien gogor-antza, haren erantzunaren garratza, horrexegatik da: norbere barrua zaitu nahi dualako.

Bakartiak begi sakonak ditu eta norbere barrurantz itzuliak. Han arkitzen du dena: ura ta lurra, sua ta zerua, aingerua ta gizona ta Jaungoikoa.

Bakartia nekez bizi da ilusioaren gezurretan. Haren begiak, gauzen itxurari baino, haien muinari lotuagoak daude; ta haren belarriak, gauzen zaratari baino, haiek zartatzen dituanari jarriagoak.

Harek nabaitzen du ondoenik gu-bakoitza ta gauza bakoitza neurtzen gaituan ezinaren muga hain hurbila ta hertsia.

Harek nabaitzen du ondoenik gure ezer-eza ta ezer-ezina ta gu-gerez eta gauzez kanpotiko ta gainetiko indar baten premina.

* * *

Pagadiak itsutu egiten du pagoa. Pagadiak gortu egiten du pagoa. Urrutiago bizi dan harek, hobeto dakus saldoa, hobeto dantzu zantzoa.

Nik ezin det ulertu bakartiarenganako jendearen errukia; bakartia berekoi amorratu dala diotenen iritzia; bakartia aroa²

² aroi: alper

dalakoarena: gizadiagandik aldenduta bizi dalakoarena. Bakartia, halakoa balitz ere, gizadiaren onerako dala aitortu behar: “Kaleko gizartetik, urruti antenak; bakarti kirtenak!”.

Baina ez du errukirik merezi antenak, ez norbere bokazioa zintzo betetzen dutenak. Zintzotasunak berekin ditu zorion-fruitu onenak.

Batzuek gehiago, bestetzuek gutxiago, guztiok gera bakarti, guztiok gaude bakarrik. Inoiz ez da iritsiko gizonik inorengan bizitzera, inorekin erabat bizitzera. Beti izango du zerbait bestekin batera ezin-bizia, besteei eman-ezina, norberak bakarrik jaso ta eraman beharrekoa. Eta bakartiak egi hori argiago jartzen dio gizadiari.

Norbereko amorratu dala? Ta nor ez gera norgerokoi? Asmatu al ote diteke norberekoi ez dan gizonik, norberenganako zaletasuna ta norbere buru-bizitzak merezi ez dion ardura norbere buruari ematen ez dion egiazko gizonik?

Harroa dala? Baliteke, baina ez derrior. Ezta gehienetan ere. Apalena izateko bide egokienetik bai dabil.

Gizadia aintzat ez duala hartzen? Ta zergatik ez? Bakarrik dabilelako beste gabe? Gizona, bere inorenganako zaletasunean, inorekin zeharo batu ezin diteken bezela, bakartia ere inoiz ezin diteke, nabarmenena izanda ere, gizadiarengandik erabat alendu. Ta, ostera, bai gizadiarekin inor baino gehiago bat eginda bizi.

Norberekoikeria gizadiari emanena dagoanarengan bizi ditekian bezela, gizadiarengandik itxuraz aldenduta bizi danarengan, harenganako maitasun, erruki ta ardura bizi ditezke. Ta zergatik besterik pentsatu?

Nire iritzirako, gainerako lausengutzaile ta txolin askok baino mesede gehiago egin die gizadiari, bakartizat joak diran zenbait: hala Buda batek, Teбайдako haiek, eremuetara iges-eginek eta abar. Zergatik egotzi behar ote zaio bakartiari norberekoiikeri beltzura?

* * *

Nik, neonek ohartu detanez, hauxe baieztu nezake: bakardadeak nere barru-bizitza sakonkiago ikusten eta barruagotik ezagutzen erakutsi didala; hau da: gizona ezagutuagotzen eta haren ganagotzen eta haren gan eta harekin arkituagotzen lagundu didala.

Lurrean ez dago arra bat gizonaren aztarrenik gabe, eta hala, dagidan bidean, neugan pentsatu-ahala, handik eta haragotik igaro diranetan, handik eta haragotik igaro dijoaztenetan eta handik eta haragotik igaroko diranetan pentsatuz dagit bidea. Eta hortan gozatzen det, edozein gizarte mugaturen iskanbila zalapartatsua baino, sakonagoak eta jasoagoak diran beste eta haren, eta denen baterako, zarata ixil eta haundi hoi denabaterakoa entzuten, bizitzen, gozatzen, goratzen eta maitatzen.

Edo zein haizek ez dizkio ekartzen bati, alde batetik edo bestetik datorrela, gizadiaren berriak, norbera bizi dan gizarte-sail derrior mugatutakoaren berri mugatuak baino ugariagoak eta osoagoak diran berriak, norbera bizi dan gizartekoez gainera?

Jadanik haizeak gizadi osoaren, giza-arraza guzti ta bakoitzaren giza-usai osoa dauka ta dena dago hitzez eta zizpuruz eta arnasaz eta animaz ondua.

Nun ez degu arnas-hartzen, nun ez dago, gizonaren, besteen, inoren, norbaiten usaina ez dakarkigun haizerik, kresalik?

Zein giro argik edo ilunek, zein goizek edo ilunabarrek ez du gizonetaz hitz egiten? Zein garaik, zein orduk, zein bakardadek...

ETA ILARGIAREN JABE*

Gizonak ilargiraino iritsiko dira, ta bakoitzak bere nazioko bandera jarriko dute han. Gizonak ilargiaz jabetu dirala uste izango dute, ta ilargia, ilargi-aldeetan banatuko: hau gurea da, hau zuena, esanez. Ilargia, ostera, gizonena baino umeenagoa izango da; umeenagoa ta bihotz arina dutenenagoa.

Beti harritu nau praileen gelako ikuskizunak: oge trakets bat, mahai ximple bat, jantzi-kutxa mengel bat, eskolarako ta sermoitarako liburu batzuek, eta horma zuriak. Eta horma gorrietan, argira, leiho bat. Eta zer edertasuna! Zer zoramena hangoa! Zer gehiagoren behar-eza! Zer prailearen atsegina! Zertarako ezer gehiago?

Ta ez nabil txantxetan. Ez naiz parrez ari. Zorionaren aurrean bai nago.

* * *

Eta jauregi-zalea naiz. Jardin-sailez inguratuta ageri diran haundikien etxe hoiena; fabrika beltz eta sekula bukatzen ez diran hoiena; kolejio-etxe ikusgarri hoiena; zerua burrunbaka zehartzen duten abioi harrigarriok zoratzen naute; tren etengabe ta azkar hoiek, automobil galant hoiek, itsas-ontzi erraldoi hoiek soro ta ibar ongi landuak... eta pinadiak ere.

* *Aránzazu*, 437, 1966, 4-5. orr.

Pozik ikusten ditut gizonaren egintza ta ekintza hain bikain hoiek. Pozik ikusten det gizona asmakizun berrietan saiatzen ikustea. Pozik ikusten det aurrerapena ta konforta. Ta ez bakarrik pozik ikusi; nahi ere bai hortan jardun dezan, deadar egin ere bai hortan jardun dezala eskatuz; behar bai degu saiatu gizonaren erbeste hau eramankorra goa egiten.

* * *

Baina...!

Ixilpeko bat daukat. Jesusek mendi-gain hartan hain goitik esan zuan zerbaiten ixilpekoa; San Prantziskok, berriro eta hain nabarmen esan zuan zerbait berberaren ixilpekoa; Elizak –baina beharbada elizakoak entzuten ez degu– deadarka esaten digunaren ixilpekoa.

Mundua ta ilargia ta eguzkia ta izarrak ere, gizonenak baino umeenagoak izan dira, eta bihotz arina dutenenagoak. Hau da, honen edo haren jabe izatea zer dan ez dakiten hoienagoak, jabe izatea zer dan oraindik ez dakiten hoienagoak, edo norberekeritik norberekeri-loturetatik askatu diran hoienagoak.

* * *

Norena da lurra? galdetu nuan. Nork bizi du lurraren jabe izatearen poza? galdetu nuan. Nor da lurreko gauza ta edertasun guztiz eta bakoitzez atsegindu diteken zoriotsua? galdetu nuan.

Eta lurra, bihotza lurrez, askoz edo gutxiz, zeukatenena ez zala, ikusi nuan. Lur gutxi bai da nahikoa bihotz bat estaltzeko, itsututzeko, itotzeko. Edozer hain gutxik lurpetu bai dezake bihotza.

Eta jauregiko ondasun-liburuetan neurriak ikusi nituan; baina ez lurrarenak, harako-marako lur-zati haundi edo txikiagoe-nak baino. Eta halaxe haundikiaren, ugazabaren, maizterraren ondasun-liburuetan ere. Baina soineko jantziaren jabe baino, edozein zirtzilkeriren jabe baino ez ziran haietan ere, neurria besterik ez nuan ikusi: soineko jantziaren neurri juxtuaren neurria baka-

rrik, edozein zirtzilkeriren neurri apurtxoaren neurria bakarrik. Eta nazio bakoitzak bere geografiaren neurriak baino ez zituan, eta mapaetan bakoitzak bere lurraldeen neurria baino ez zuan ageri. Baina ez lurrarenik, lur zabalarenik, lur zabalaren eta haren inguru zabal eta ederragoenik. Eta edozein gauzaren gaineko jabetza-neurriak zituzten haietan, gauza neurtuen gaineko jabeak baino ez ziran ageri, baina ez lur osoaren jaberik. Eta, halaxe, lurra, zerbaiten gaineko jabetza duan inorena ez zala, ikusi nuan.

Norena da, bada, lurra? galdetu nuan. Eta ezertxori lotu gabe zeudenena zala, entzun. Edonora, edozein ordutan alde egiteko gertu bizi diranena dala, ikusi. Umeena ta bihotza arin dutenena zala, aitu.

Eta, ondoren, haxe idatzi nuan: Egizko aberastasuna, gauzen gaineko aginpidetan dago; gauzak eskumendean eukitzean; gauzen gainetik norbera egotean; gauzen morrontzatik aske bizitzean. Gizonaren aberastasunik haundiena aske, libre izatean dago.

Libre dan gizonak, harek maitatu ditzake diranak, harek besarkatu ditzake diranak, harek hega-egin dezake diranen gain, denetan zoriona arkituz, San Prantziskok bezela, zurearen eta harenaren inbidirik gabe, hango eta haragokoaren bekaitzik gabe, pozez betetako begiz, zure gari-soroko edertasuna goratuz, haren fabrikako burni-hotsa ederretsiz, urliaren jauregia ta berendiaren automobila pozik aipatuz.

* * *

Eta San Prantziskok Guido Obispuari ziotsana entzun nuan: “Jauna, ondasunak bagenitu, gure ondasun hoiiek zaitzeko, armak ere behar izango genituke. Baina hontatik eztabaidak eta hasarrebideak izango genituke Jaungoikoari ta lagun-hurkoari zor diegun maitasunaren kaltean”.

Eta San Prantziskok eta Fr. Maseok, limosna bildu ondoren, herritik kanpora erten zuten. Eta aldamenean harri haundi bat zeukan iturri eder baten ondoan:

–Ene, Fr. Maseo! Guk bai ez degula merezi honen ondasun hain haundirik.

–Baina, Aita, nola deitu zenezaioke ondasun, hain leku gorri honi? Hemen ez bai dago mahai-estalkirik, ez kutxilurik, ez azpilik, ez katilurik, ez etxerik, ez mahairik, ez morroirik, ez neska-merik?

–Ba, horrexegatik; erantzun zion San Prantziskok. Limosnako ogia, harri eder hau eta iturri argi hori besterik ez degulako; horrexegatik daukat hau ondasun hain haundizat.

* * *

Baina ondasunik-ezak amorratu arazten dituan hoiek ez diote antzik emango San Prantziskoren iturriko pozari. Ezta ondasunak Jaungoikoari ta lagun hurkoari zor diegun maitasunaren kaltean, armaz eta eztabaidaz eta hasarre-bidez zaitzen dituzten hoiek ere.

Gauzen poza, ostera, ondasunik-eza, gogoz hartzen dutenena izango da eta ondasunak –gutxi edo asko dirala–, Jaungoikoari ta lagun hurkoari zor diegun maitasunaren ariora darabilzkitena.

Halakoei otzanak deritzaie, ta halakoetaz dio Jesusek, zoriontsuak dirala: halakoek bai dute biziko lurraren eta ilargiaren poza.

ETA ELORRIAK LORETAN*

Harkaitzeko elorriak, zakardikoak, hesikoak, loretan eta loratzen ari dira.

Elorri hain dohakabe ta hain bertan behera bizi diran hauen lore berri ta xuriak dira, beharbada, berriz, itxaropenezko animagirotan atsegin hontara ekarri nautenak. Beok dira, behera begira ninjoalako, bekokia lurrari emanik ninjoalako, beharbada, beren usai goxo ta txikiz, adarretako loretxoei begiratzera deitu nautenak, loreek bilatzen duten zeru hain matazatsuaren gaineko zabal urdina begiratu arazi didatenak.

* * *

Eta, halako batean, geratu egin naiz; geratu ere, geratu egin behar nualako: gauzak ez bai daude alperrik bakoitza bere tokian. Elorrien lorez jantzitako arbatxo hoiek ez daude alperrik dena hodeiez jantzitako zeru astun eta goibel horren aurrean, hainbeste ta hainbeste arantzaren gainean. Ez daude alperrik, beren aide hain lirain horrekin, beak inola ere ez dakiten egoera pozgarri horretan.

Eta euritan eta zeru larriaren aurrean geratu naiz –malkorreko elorriren bati ala neure buruari begira ez dakidala–, gaur, elorri loretu bati begira.

* * *

* *Aránzazu*, 438, 1966, 22-24. orr.

Askotan gertatzen zait zein elorriri begira ote nagoan ez jakite hau. Ispiluan ageri dan neure musuari inorena balitz begiratzen diotan bezela, sastrakako elorria neu banantz ikusten det askotan. Malda garbiko, baso zaharreko, narda ertzeko, amiltegi gaineko, iturri ondoko edo ardiek maite duten zelai ta larre zabaleko elorri ta elorduietan, nortzuk diran ez dakidala, gizonak eta gizadirik gehiena ikusten dedan bezela; eta, gero, neu ala beste inor ote ziran jakiten ez detan bezela; gizonekin eta gizadi gehienarekin neure burua bat eta berdintzat hartuko banu bezela.

* * *

Baina elorri dena loretu hauxe daukat gaur, beste, gainetiko elorri guztiak baino gertuago. Arrikruz aldera erten detan bezela, Urbia aldera atera banantz, ez nuan honelako ikuskizun hain lorezkorik izango. Urbia aldeko elorriak oraindik ezin bai zitezkean loretu. Erroitegi gaineko haiek, ostera, ez dira loretu ere egingo, gaixoak, zutik daudela, hain hilik bai daude urteotan ere. Igazko udazkenean erre zuten arlo hartakoak, baliteke, oraindik, nundikbait bizi izatera etortzea.

* * *

Hain gizonaren antzeko dalako edo, etsai asko dauzka elorriak. Tamalgarri da elorriak neguan ikustea. Hain bertan behera, hain bakar eta hain gorri geratzen bai dira elordietakoak berak ere. Bakoitzak norbere nekea nahiko ta gehiegi balu bezela agertzen dira; eta diranei batera begiratu ondoren ohartzen da bat, guztien artean osatzen duten lantu zarpil eta baterako harek alkartzen dituala.

Udaran legorteak samintzen ditu, ez bai dute haiek ere mundu hontan nahikoa lur gizenik arkitzen.

Udalehenez bai, udalehenez, lur ezerik eta eguzkirik duteneko, dena loratu beharrik jartzen dira. Egun argi batzuek izan dituztela-ta, ikusi besterik ez dago: arru arte hontako elorri guz-

tiak dira gaur nabari, denei darie lorea, denei itxaropena, denei bizi-poza; pazko-atseginik ederrena bailerie bezela.

Negu hain beltz, luze ta gogorreko izotzak, antzigarrak eta nahigabeak lakartutako ondoaren gainean, halabeharrak bigurtutako subilaren gainean, suak berdoztutako besangaen gainean, gaitzak igartutako gainigarren gainean, zein berria, zein garbi ta alaia dan loretxo hauen gaurko bitxi xuri ta bustia!

* * *

Sagar, udare, mertxika, gerezi, aran-ondoek-eta, elorriarekin zugaitz-izate bera dutelarik, beste gauza batzuek bezela dira. Haiek ere badituzte beren etsaiak, beren gaitzak eta hildebarrak, baina haiei lur hobea gertatu zitzairen, haiekin asko arduratzen dira; haiek, elorriak inola ere eman ezin dezakeana ematen dutelako, adiskide ta ingurumariko gehiago dituzte. Baina elorria baserri agorreko nekazari ona bezela da, kalebaxterretako langile jatorrak bezelakoa, besterik ezin-eta, beren bihotz hain ederretako odola milaka tantotxo gorritan ematen dutenen bezelakoa. Beste zugaitzak baino askoz maitagarriagoa.

* * *

Elorriak, ia, gure jente arrunt eta fededunak bezelako anima eder bat ere baduala esango nuke: ezbeharraren menpean hezitako anima bat, nahigabea eramaten ohitutako anima bat, gu gehienok bezela, lurrean iristen ez duan eta aidean arkitu uste duan zerbait hari begira jarrita bizi zaion anima bat.

Bilbon edo Barzelonan edo beste edozein tokitan izan dala, nahiz lantegi hain ilun eta haundien inguruan, nahiz soro erripatsuetan, nahiz Gaztelako sailadi legorretan, nekea ta konformidadea, bekokiko zimur sakonak eta ezpainetako parre antxa, gerri edo bizkarreko makurra ta, hala ere, ekin azkarrari dagozkion milaka ta milaka gizon eta emakumeok ikusten ditudanean, neu-

re mendiotako elorriekin gogoratzen naiz, eta elorriak maite ditudan bezela maitatzen ditut, hoiexek bai dira elorriak hain maite izatera ekarri nautenak.

* * *

Zein elorri-lore bezela zaitan eder horrelakoen arantzarteko poza: nola nahi nukean poz horretan beti iraun lezaketen; zenbat opa dietan poz horren lore xuriak, euritan edo izerditan edo malko garratzetan bustitako lore xuri horrek beti jantzi ahal ditzala!

Gaur begien aurrean detan elorri hau bezela, edo begien ostean detan gaurko beste elorri loretu hau bezela, nahi nituke ikusi, arantzen gainean dena lore argia dutela; arantzen, zortearen, ezinaren, nekearen, ezbeharraren kontra jaiki gabe; ixilki, jardunean, itxaropenez; eguzkiaren, haizearen, erleen edo norberaren poz dirala; beti zuzen jokatu izanaren poza, animatik azalerako poza dariela; pazko luze, neketsu ta itxaropengarriarekin oroï dirala; nahigabeak hain aldean dituztelarik eta, aldiz, nahigabeak pozez jantzirik berriz.

* * *

Arrikruzetan betiko elorri loretu usaia asmatu det. Hilari sukalde-lanetan zebilen; Maria gaztea, etxazpiko urtegian lixiba jotzen; Damaso-ta kaltzada zaharrean luperiak eratsi duan horma jasotzen; bide hartatixe etorri da Maria amandrea, lokatzez eta astokada arbi loretuz. Aldeko etxe hutsera etorri ziran erdaldunen andreak josten ziharduten. Denekin jardun det: gripea dala, erreuma dala, soroetako girorik-eza dala, eta abar eta abar. Baina abar hoietan, abar guztien gainean, gauzak kristauki hartzearen lorea ageri zan.

Konbenturakoan, Kortakogaingo Braulio ikusi det, ia bere betiko oge zurian, gora begira jarrita, eramana, itxaropena ta fedea zerizkiola.

Elorri loratuei ez diet adartxo bat kendu, baina lorez itzuli naiz, edo lorez itzuli naizelakoa abiatzen det: hainbeste arantzez jositako bizitzan kristau hauei norberegaino, norbera argitzearaino, norberagan lore bihurtzeraino darien fede-bitxirik ederrenez hanpatuta.

ELORRIAREN ETA GAROAREN ESKOLAN*

Elorria, elorri jaio zan, eta elorri dirau. Halaxe: elorri. Eta Jaungoikoari eskerrak.

Elorriak ez du ezer askotarako balio. Han edo hemen dago, bihurri eta arantzez josia. Neguan azaltzen zaigu, batez ere, era hortan, hain bihurri ta lakar. Udaberrian zazpi behatzeko ostroz janzen da, eta ondoren, lore-mortxaka zuriz. Udazkenean odol-tantoak bezelako ale gorritz ikusten degu.

Nik badakit haren ostro, lore ta ale egosien ura osasunerako on dana; hain zuzen ere, bihotzarentzako osasungarri dana. Baina jendea bihotzetik bizi al da gaur? Ardurarik ba al dio inori gaurko bizitzan bihotz-gorabeherak?

Gure aitak elorri ondoan mizpira-mentuak txertatzen zituan, ni ume nintzanean. Eta elorriak mentu hori ta beste zenbait ere ongi hartzen dituana, aitak esanda dakit.

Hoiiek hola dirala, elorria ez da hain alperriko, baina jendearen iritziari nagokio, ta, elorriak ezertarako ere ez duala balio, aitortu nahi det.

* *Aránzazu*, 442-3, 1966, 27-28. orr. Txomin Agirreren jaiotzaren mendeurena ospatzeko *Arantzazu* aldizkariak ale bikotx honetan “Un mago de la Literatura Vasca: Domingo de Aguirre” artikulua sorta argitaratu eban (17-40. orr.). Bertan B. Gandiagaren lan honez gain, L. Villasante, J. M. Olaizola eta Pedro Anasagastirenak be irakurri daitezke.

Baina iritzi honekin batera, ezin naiz osorik jarri. Beldur hau xe daukat: balio ez duana, elorria ala iritzi hau bera ez ote dan. Gauzak estimatzen ahaztu ez ote degun. Elorria bere balio gutxian, elorria bere lakarrean, bere arantza luze ta zorrotzekin, bere ostro urratuekin, bere frutu odolaztuekin, bere berez edo izatez estimagarri ez ote dan.

Gauza txikietan kargutzen omen naiz. Elorria ez omen da munduaren atenzioa merezi duan **zugaitza**. Ez omen da interes universalak merezi duan arbola. Beraz, universalitasuna palta omen zaio. Gaur, berriz, universalista degu jendea.

* * *

Inoiz –eta ez det esango nork–, bizitza zertan emanazten nuan, galdetu zidan, urliak. Gizon haundia zan, oinetatik burura artekoan, behintzat. Haundia berekiko iritzian ere, ta, gainerako norbaitzuen iritzian ere haundia. Nik ere banenkian bere burua aintzat zeukana, ta, hain aintzat euki ere! Ta lotsa nintzan nere jardunbidetxoaz azaltzen. Baina, hala ere, umeei eskola irakasten ari nintzala eta gero, jai-egunetan, hara ta bestera ere ateratzen nintzala nere apaiz-zereginak betetzera. Ta, nora ateratzen nintzan. Garai hartan, batean Sanjuanerrekara, bestean Itxasolegorrera, bestean Urrexolara ta hala ateratzen nintzan: ta, gaur bertan ere, Araotz det nere jai-egunetako alor. Ta, halakoren bat adierazi nion.

Haren begiratuak bai zapalduta utzi ninduala! Orbelak, zapalduz, lokatz artean barrentzen ditugun eran, zapaldu ere.

Gutxi iritzi zion nere jardunari, hain gutxi ta hain zabalera gutxikoa, universalitasun gutxikoa, batez ere. Beti geundela arazotxotan murgilduta, beti Matxinbenta baino harutzago begiratu gabe. Gizonak hori baino zabalera haundiagokoa izan behar duala, gure egiteak eta apostoladuteak universalagoa izan behar duala, ta abar. Eta abarkapean utzi ninduan, abarkak sekula jantzi ez baditu ere. Ta, halako gizonak, nola abarkak jantzi? Nola abarkadunekin etsi?

Gainetik kendu zitzaidanean, arnasa puxka bat ez zidan ukatu haizeak. Ezta arratsalde hartako argiak bere izpi eder bat ere.

Ta, hala, ta, nolabait, atera nuan bihotza zetzan lokatz artetik eta nere inguru txikiari begira jarri nintzan berriz ere. Baina egundo-ko mazpilduraz nengoan dena.

Hurrengo mendi-aldian elorriari begira jarri nintzan, ohitura bezela. Txilarrari, oteari, belarrari, elorriari. Gizarajoak! Zer errukia hartu nien! Baina nola zeuden bizirik? Nola zeukan bizi izateko arpegirik? Eta nik, nere eskola ta apaiz-lanak egin ohi ditudan harkaitz-arte ta baserri-uneak ere han ziran ageri, mendi-baxterretan, ibartxoetan, basoen-eta artean. Benetan ziran txiki, benetan zuten merezi ahaztutzea, bertan behera uztea; gizonak universalagoa bai du izan behar!

Eta haiek bertan behera utzita, universalera jo nuan. Eta nola ez? Han, eta, laister arkitu nuan dena universal zana urlia. Ta diosala agin nion, eta ni, nola txikia nintzan, ez zuan nire diosala aintzat hartu. Beraz alperrik nenbilen. Nik ere atzera utzi nituan gauzekin ahaztuta geratu behar nuan. Universal harek ez ginanetz hartzen bai ginduan ni ta nik utzi nituanak.

Gerora, makina bat universalista ezagutu ditut. Baina nolako universalistak! Haien dotrina bai zaidala gauza zaila! Universal izateko, asko edo gutxi, baina zerbait, ukatu behar bada –hauxe istilua!– universal hortatik zer kendu behar ote degu? Ta nola universal geratu, universalari zerbait ukatuz gero?

Ta burua argiztatzeko, berriz ere, elorriak bizi diran malkorretara etorri nintzan. Gizarajoak, hantxe zeuden haiek, beren harkaitz-muturrei lotuta, beren baxterrei edo txokoei itsatsita. Baina anporra eta adarrak eta arbaztak gora begira zeuzkaten, alde guztietara begira, okerka, bihurrika edo ahal zuten bezela jaso behar bazituzten ere; eta haizearen nun-nahiko mandatuak entzun eta haizeari noranaiko mandatuak eman ari ziran. Ez zeuzkaten inorentzako prejuiziorik ez perjudiziorik.

* * *

Eta gaur ere mendira. Gaur, *Garoa*-ren laugarren argitaldiarekin.

Baserritar eta artzairen inguruok nik baino lehenago maitatu zituan Domingo Agirrek. Baina zertako ta zergatik? Ez ote zegoan haren garaian nobela-gai universalagorik? Zergatik mugatuzan hain paraje estuan? Zer dute zer ikusirik baserritar eta artzairen bizimodu ta gorabeherak? Apaiz baten ardura ta jarduna aritu al ote ditezke honelako gaietan, universaltasunari irainik egin gabe? Ta, gainera, euskeraz jardun eta aritu ere: hain hertsia, hain gutxirena dan hizkuntza zarpazar hortan! Agirrek berak ere bazuan kezka hori, Aita Villasantek dionez.

Euskaldunok konpleju hori badegu, behintzat. Gere txokoan bizi geralako, gereari eusten ari geralako, gere aduari zintzo gakizkiolako, norbere lurrean saiatzen geralako besterik gabe, egozten diguten universaltasun-ezak, norberena utzi, galdu, hondatu, ahaztu ta desegitera eramateko arriskuan bizi gera. Baina zergatik konplejupe hortan sartu ta gelditu ta kokildu ta etsi? Konplejua eukitzekoa ote da hori? Universalista diralako hoiei tokiaren zentzua ez ote zaie palta? Eta tokia ez al da universoaren zati? Eta toki bakoitzeko bereiztasunak ez al dira berez eta beharrez universoaren edergarri? Beraz gu, gerean aritzean, ez al gera universal?

Baina guk, gereari ekiteko, Apezpikuarengana baimen-eske joan beharra daukagu.

Elorriak zori hobeko! Haiek ez dute kezkarik elorri izateko, ta, elorri diraute, basoetan, malkorretan eta arruetan beren aide ta giro ta izate apartekoaren grazia hantxe jartzen dutelarik, parajearen apainduri ikusgarriagorako. Adarrak nundinahiko haizeari zabalik, ostroak noranahiko agur eta gorantziak bidaliz, loreen usaia aidearen eskuetan jarriaz, edozein eta edonungo txorientzat aleak. Beren txokoetan trinko, baina adaburuak zeru-lurrei eskeniaz. Beren izatea behartu gabe, baina belarrari belar izatea debekatu gabe, txilarrari txilar izatea galerazi gabe, oteari ote izatea akartu gabe, txori izatearen inbidi gabe, beren izatearekin konforme, inoren izatea gutxietsi gabe, nardatu gabe, zapaldu gabe; mizpira-mentua hartzeko ere gertu. Zer besterik behar dute universal izateko?

ETA LOIOLA ETA LOIOLAN*

Ujolen bolbola oroitarazten didan hitza da Loiola. Izen atsegina, erreka izena aina. Halaxe zait atsegin erreka mardula –harri arte garbitik, errekarro argitik, garbi ta argi ta mardul–, ujolen bolbola altxatuz doala. Halaxen zait atsegin ujolen bolbola –borobil eta gozo, boladaz bolada, dena doinuuz doala, aidera igoz–, arbola.

Ur-bolbol-arbola –espirtu-ujolak oroituz dagola–, ur-bolbol poema mardul bat bezela, entzuten det Loiola. Halaxen zait atsegin, espirtu-ujolen hotsa dariola. Halaxen Loiola: ur-bolbolaren doinu ta, doinu-arbola.

* * *

Eta irailaren 11garrengo jai-arratsalde hontan, Loiolara etorri naiz, gogo-jardunak egitera. Hementxe nahi nituan egin eta hementxe nago; baina ez etortzeko, ahaleginik egin gabe.

230 duan gelan sartu naute. Gela haundia, ez ezer palta, ez ezer sobra ez duan gela. Mahai bat, oge bat, jarleku, garbitegi eta jantzitoki bat. Traba gutxi ta huts-arte garbi nasai asko. Prantziskotarren gela bat ematen du hontan.

Leiho zabaletik, ikustera hain ohituak gauden eliz-kupula mardul eta iaioa eta, haren ostean, Izarraitz are mardul eta iaioa-

* *Aránzazu*, 444, 1966, 24-25. orr.

goa, ageri. Eta goian, kupularen aldamenetan, bi zero-pusketa urdin.

* * *

Nere hain gustoko giroan arkitzen naiz, beraz. Teilatu gaine-tatik gora nabaitzen det anima. Ta horixe nahi nuan: astetxo bate-an, eguneroko ta betiko, norgere arazotxoetatik erabat aske, aska-tasun goren batean bizi.

Eta Arantzazutik nator. Eta Arantzazura itzuliko naiz laister, Jainkoa lagun. Hegoei nahi diet atsedeen eman, aidea aldatuz. Ta, aidea aldatuz orain, Arantzazuko aidea berriz ere berri arkitu ahal izateko eran jarri. Gizonok toki batera egiteko ahalmen zorioneko edo zoritxarreko bat badegu. Ohitu egiten gera eta, gero, ingurua-ren haundiak ez digu mirarik egiten.

* * *

Urtero egin izan ditut gogo-jardunak Arantzazun ere. Baina, han dena det ezagun, hain ezagun. Eta gehiegi hitz egiten didate eta gehiegi nahastua nago gauzekin. Gehiegi lotua ere.

Eta ez. Han baino hobeto iruditzen zait hemen. Hemen, sartu nauten gela ere ez bai det ezagutzen. Hemengo etxe-arazoei lotu gabe nago, hemen aske naiz. Beraz hementxe nago Jaungoikoare-kin askatasun guztiz jarduteko giroan. Eta horixe det opa.

* * *

Nere gelarantz dagoen erluju-oboak deitu nau. Sei-seiretan dago. Minutu-orratz luzeagoa hamabietan. Ordu-orratz motxagoa seiretan. Oraindik ez dira seirak berriz. Erloju hori gaizki ote dabil edo gelditi ote dago? Geldi dago.

Zer egoera liraina erluju horrena! Orratz luzeena hamabieta-ra, ordu osora, ordu betera, Jaungoikoaren ordura, hamabietara. Ardurarik gehien goiak balio, hamabietara. Eta zuzen eta behera, zati motxagoa obo txikiagoaren barruan, pareko numeruari ukitu gabe, baina harengana. Zerbait emango nuke nik anima erluju

hori bezela geratu litzaidaken. Gorantz nere zatirik luzeena, lehenengo oboa zehartuz, bigarren oboan zehar, luze, hamabietan zehar barrenduta. Eta orratz motxagoa behera, baina lehenengo oboaren barruan, beheko numerua seinalatuz bakarrik, beheko numerutik behar dan neurrian geratuta, baina harengana.

* * *

Jauna, emaiozu nire animari hain biziro opa duana. Emaiozu mundu honen oboa goituz, zugan barrendu dedila. Eta beheko arazoetan dagokion esferaren barruan aritu dedila.

Erluju hori geldi dago elizkupularen harira. Osteko harkaitzaren harira. Zerura begira haren orratz luzeagoaren gezi-burua, hamabietan gora barrendua.

Zer poza nere animako erluju hau halaxe jarrita aterako banu hemendik! Munduan ez litzake hamabiak puntuan edo seirak puntuan beste ordurik bizi behar. Edo bi orratzak hamabietan edo sei seiretan geldi.

* * *

Zer oinarri ederra eman didan erluju horrek gogo-jardunen atari hontan. Aurreneko zer-ikasia hartu det. Aurreneko gogo-jardunen azalpena hortxe daukat. Hortantxe jarri behar det burua, hortantxe anima, hortantxe egitea. Munduan degun nahaspila hontan bizi behar detan postura ere hortantxe. Ez al zigun Kristok postura horixe bera erakutsi? Ez al zan zeru-lurren erdian zutik jarri? Jaungoikoaren eta gizonen artean zintzilik, bien tarteko, biekiko hartu-emanen, biek alkartuz, biak batasun ederrean lotuz bezela?

Kristoren ordu hortantxe nahi nuke, alegia, nere buru osoa.

* * *

Goizegi iritsi naiz Loiolarara. Gainteko apaiz ejertzizio-egileak 9etarako etorriko omen dira. Tartean, badakit zer egin: Oñatzera igoko det, niretzako hain ahaztu ezina dan Oñatzera.

Hantxe entzun nituan lehenengo aitortzak eta han, igaro nituan hiru egunetan, lagun onak egin nituan. Nola ote dira? Beharbada, ez dira nerekin oroitu ere egingo.

* * *

Apari aurretik, Oñatzetiko ostera kontatzeko, hainbeste asti badaukat oraindik.

Igo, arlote batenak eginaz, igo detala uste det. Hemen galdetu eta han galdetu. Halakoa, ikusi naualako edo, etxeoandre on batek, lagun egin dezaidala esan dio semeari. Bai lagun ona! Ez det behingoan ahaztuko mutil gazte hain atsegin haura.

Eta, noizbait, iritsi naiz Oñatzera, eta aurreneko aldiz joan nintzanean izan nituan bihotz dardarak bururatu zaizkit, eta pixka bat berritu ere bai; ez bainintzan gogoratzen ongi ostatua eman zidatenen etxearekin ere.

Baina laister antzeman diot etxe hari, etxe-ertzeko horman Aita San Inazioaren irudia ikusi detanean. Hantxe zan.

–Arratsalde on deizuela Jaungoikoak.

–Baita berorri ere.

Eta bitarte bat, ixilune bat, eta arpegiei begiratze bat.

Eta ohartu, gera, haiek eta ni, denok ohartu ere. Gero betiko galdera ta erantzunak. Maria Pilartxo, ta Kandelariotxotaz galdetu diet. Han ibili behar zutela iruditzen zitzaidan. Maria Pilar jadanik monja joanik omen da, eta Kandelario, mutil haundi egin da, tabernan edo. Ez dira alperrik igaro hamaika urte hauek. Haien-eta erretratu mordo bat ekarri didate ta haiek ikusten jardun det, urdai-azpikoari ta sagardoari ekinez, tarteka.

Elizatxoan ere izan naiz. Han zegozan nire aurreneko apaiz-ikaraen berri dakian aitorlekua.

Loiolarakoan lehengo bideari heldu diot, eta, jakina, mutila laguntzat eman didan etxeoandrearenera atera naiz. Han ari zan orduan ere zerbaitetan, eta ikusi detanean, nere ibilaldi onaren berri eman diot. Oraingoan garagardo botella baten laguntza eman dit.

* * *

Eta orain, berriro nago Loiolan. Oraintxe bai dagoala gertu nire festaren azkena.

Jauna, esan bezela, emaiuzu nire animari hain opa duana. Aita San Inazio, orratz hau zure ordura doala.

* * *

Eta irailak 16. Lehenago ere egin nituan hemen gogo-jardunak. Aita Errandonea izan nuan orduan espiritu-ujolen harira jarri nahi izan ninduana. Gaur ere esker ona nahi diot agertu.

Oraingoan Aita Arin izan det zuzendari. Kuadernu oso bat apunte jaso dizkiot. Haren azken-hitzak Kristoren piztuera hain pozgarriaz izan dira. Kristogana ematen degun pauso bakoitzean, Kristo gero ta gehiago piztuz dijoala gudan.

Nire gelarantz dagoan, erlujuak ez du zirkinik egin aste guttian. Nire oraingo asmoak ere iraungo ahal dute.

* * *

Gelako lurrari mun eman diot. Aita Arini, Donostira alde zuan aurretik agertu nion nere esker ona. Orain Arantzazura. Baina nabilen, hara aurretik meza eman behar bai det, eta seirak laister dira.

Oroitu zaite, Jauna, zure morroi Aita Garate, Anai administradore eta etxe santu hontan bizi diran gainerako orotaz ere, asko zor bai diet. Har zazu hauen alde eskeintzera nijoakizun Ospeopari hau.

ETA GABONAK, GABON*

Abendua gerturatu zaigunerako, nor ez da Gabon-jaiekin oroitu? Eta Gabonekin oroitu orduko, pozak nori ez dio barrutik kilimatu?

Gabon-jaiek, berriz, harritzeko poz-bide bat dute oinarri: Jaungoikoak maite gaituala; Jaungoikoak Jesukristogan agertzen eta ematen digula bere maitasuna.

* * *

Arantzazuko pagadietan, goldio-eske dabiltz praileak, goldio-eske umeak. Goldio truke, turroia-ta hartu ohi izan ditugu ba. Ta, hala, Oliterako, Alfarorako ta harako ta honerako, goldio-zakadak ageri dira gure atarian. Etxerako ere hemen da, Egia da, gurean gero ta goldio gutxiago erabiltzen dana; baina etxerakoa, kaja haundi batean dago.

Goldioa, gure artean, belenarekin lotuta dago. Ia ez degu goldio gabeko belenik asmatzen. Goldioa, oster, pozik bide dala arkituko, iruditzen zait; ematen zaizkion betekizunak hain goxo ta bikainak diralako: jaiotxatxoan apaingarri, ta, lore-ontzien betegarri, hain zuzen.

Pozik bide, goldioa hemen dago, betiko biguin, nazimentu-aidez oraingoan, ia, oraingoxe, nazimentuan.

* * *

* *Aránzazu*, 445, 1966, 13-15. orr.

Guztiok behar genuke nazimentu-gintzan jardun, guztiok artzaien iruditxoak, ardiak, erregeak, Jesusenak... bilatzen, egokitzen, atontzen, jardun.

Jardun-bide honek asko Gabon-girotu izan nau ni-neu, behinik behin, beti ere. Baina, aspalditxotik aldamenen geratzen naiz, halaberrez, ikastetxeko umeek eta praile gaztegoek nola diharduten, begira. Denok batera jardungo bagenu, askotxo ere bagera-ta, bi-hiru mutikok lo egiten duten ogeko maindinei maiz gertatu ohi zaiena gertatuko ez ote litzaiguen, nago.

Baina, nahiz-ta figuratuzko belenik ez egin, bakoiza norbere barruko belena egitetik inola ere ezin gindezke alden. Ta, ordua da aurreneko prestakizunak egiten hasi gaitzen.

Norgere belen honek bere akatsak baditu, ta, lehenengoa, bakoitzak ikusi dezakegula bakarrik; baina irudiak-eta erosten ez du lanik, ezta etxeari baxterrik ostu beharrik ere. Horregatik belen hau bakoitzak nahi bezelako haundia ta ugaria egin genezake. Baina, beharbada, hori bai: gure barruko irudi hoiek ere garbitu ta argitu preminan izango gera.

* * *

Ikastetxeko umeekin egondu naiz. Eta, ea Gabon-belenak nola jarri, erabaki ote duten, galdetu diet. Eta kapillakoa igaz bezelatsu eratzeko asmotan daudela, erantzun didate. Transitu-barrenekoa ere, aurreneko urteetan bezela beharko dutela antolatu. Baina jolastokian, han omen dira berenak egitekoak. Kapillan eta Kolejio-barruko transituan jarri ezin dituztenak ere, han bai ipiniko omen dituzte: baloi, pelota, globu, plastikuzko abioi, barku, eta, ez dakit nundik eta nola iritsi dituzten zaldi, soldadu, kamioi ta gainetiko –bai gerra ta bai pake-aideko– mila traste ta tresna. Ta guzti hoiek inoizko inguru aktual eta universalaren barruan. "LA IGLESIA EN MARCHA" deritzaion kolorezko, irudizko ta grafikuzko horma-periodiku-orri ederrez inguratuta. Hamasei bat horrelako orri haundi ta eder bildu omen dituzte, ta hoietako bakoitzak gaur-eguneko ta inun diraneko berri ta gai interes

haundikoak omen dakarzkite. Ta ikusteko, eskatu didate. Eta, erakutsi ahala, orri bakoitzaren izenburuak eta zerbait gehiago irakurtzen hasi zaizkit:

–Hemen, Bombay-ko Eukaristi batzar nazio-artearena: Indiak 435 miloi biztanle dauzka; hoietatik 6 milioi dira, baka-
rrik, katoliku. Beste hau mundu zabaleko gosez ari da: 400 milioi gizon dira, bakarrik, ongi jaten dutenak; 2.500 milioi gaiz-
ki jaten dutenak; baina hauetatik, beti goserik bizi diranak 500 milioitik gora, berriz.

–Honen izenburua "Meza Berria" da: Meza berbera ematen da mila hizkuntza ezberdinetan. Hemen, "Pazko Misterio"-z ari dana: Gizona minez dagoanean, Kristo minez dagoala, dio. "Indar berri bat" beste honen izenburua: Espiritu Santuak kristau ta kristau-gaien bihotzean sortzen duan Jainko-kemena, aipatzen du. Hau DOMUNDEkoa da: Sudanen bizi-eratuak arkitzen dirala gaur, Kristoren mixiolariak; 2.500 milioi dira munduan, kristau ez diranak.

–Igazko Gabonetakoa: "Belengo mandatu berria" deritzaio: Bizitzari zor zaion begirapenaz, dihardu; milaka asko gizon omen dira, oraindik, hankapetuak, gaizki tratatuak. "Epifani ta Mixio" deritzaion hontan, berriz, gerrateetako biktimarik errugabe ta babesgabeenak umeak dirala; milioiak ume gosez, zer-jantzi beharrez, moduzko etxerik gabe, eskolarik gabe, bizi dirala.

–Honako hontan, Mixioen aldeko eskaria ageri da: Askotan guk alperrik galtzen deguna, han-haietan balute, dio. Honek, oster, Kristok gure zorak bere gain hartu zituala. "Lurralde bakoitzean, han-bertako Eliza" eskatzen du beste honek: Polonia-ko kristauen zintzotasuna goratzen du. "Jaungoikoa hilik ote" galdetzen du azken honen izenburuak, eta, erantzuten: Jaungoikoa bizi da; Jesukristo da Jaungoiko ikus-ezinenaren irudi.

Eta arpegira begiratu didate.

* * *

Nik ez dakit zer belen-modu inguratuko ote diguten elizan jartzekoaren ardura duten praille gazteak. Urtero asmatu ohi dute zer-bait berri. Mutikoak kapillan eta transituan jarri ohi dituztenak ere beti izan ohi dira ikusgarri. Baina jolastokian eratzekoa duten hau-xe, beste guztiak baino egokiagoa atera baietz, jokatuko nuke.

Estalpetxoak, sehaska, San Jose ta Maria, astoa ta idia, artzaiak, baloia, globuak... Aspaldiko ta oraingo; berri ta zahar; egungo ta betiko; hango ta hemengo ta deneko; mapa asko, erre-tratu asko; zer-irakurri asko; ta dena nahastean; baina dena Jesu-sen aurrean. Ta, halaxe, dena.

Umeentzat, Jaungoikoarentzat bezela, aldia ez da aldi, nun-bait, dena gaurkoa, ta oraingoa baizik. Umeentzat, Jaungoiko-arentzat bezela, urrutirik ere ez dago, agian. Ezta ezinik ere.

Ea, dena bukatuko dutenean, eta, abenduaren 24garren-gabaz, Jesus haurra bere askan jarriko dutenean, Jesus, mundu hau-xe, berak hainbeste iruditan ikusten duten mundu guzti hau-xe bera salbatzeko jaio dala, aituko dute. Berrien berriz ere Jesus "behartsuei berri ona ematera datorrela; giltzapetuei askatasuna; eta itsuei ikusmena hots egitera; atsekabetuei lasaitasuna eskein-terera; Jaungoikoaren errukizko urtea hots egitera".

Umetasun honekintxe eratu nahi nuke nik ere barruko bele-na, ideazko ta fedezko nere belena, ta, haiek bezela –edo Elizak bezela–, entzun, aitu, hartu ta bizi Matuta-irakurgaietako hitz hauek: "Gaur jaio zaigu Birjinagandik zeruetako Errege, gizon galdua zeruko erreinuetara itzultzeko. Gaur argitu zaigu erosten berriko eguna".

* * *

Umeak eta santuak elkarrengandik hurbil daude. Santuak, Jainko-bideetan aurreratu ahala, gero ta etorriago datoztelako umetzaroko inozentzi garbira. Santutasun-mugatatzat ez al zuan ba jarri Jesusek, umetasun tolesgabea?: "Haurtxoak bezela egiten ez bazerate, ez zerate zeruko erreinuan sartuko", irakurtzen degu Haren ebanjelioan.

Eta santuek nola aitu zuten ba Gabon?

Gure Aita San Prantziskok, beste edozein jai-egun baino gehiago goratzen zuan munduko Salbagilearen jaiotz-eguna, eta jai-egun hau jai guztien jaia dala esan ohi zuan. Eta haur txiki haren gorputza bere begiz ikusten zuala iruditzen omen zitzaion, eta umetxo baten gisa, ta kutunki hitz egiten ziola, musurik gozonenak ezartzen omen zizkion.

Gau hartan bizi zetorkion gogora, zein lotua ta ilunpetua arkitzen zan, federik gabe, mundua ta zein on haundiak ekarri zituan gu salbatzera zetorren Goi-argiak. Belen aldetik mundu guztira zabalzen ziran izpi argiak ikusten zituala iruditzen omen zitzaion.

Greccio-n bizi zala, Eguarri jaiak baino hamabosta aurretik, Aita Santuari baimena eskatuta, praileen eliza ondoan belen bat antolatu zezala eskatu zion hango gizon adiskide bateri. Harek, berriz, arreta guztiz antolatu omen zion askatxo bat, askatxoan lastoa, haren aldamenetan astoa ta idia, eta, halaxe. Gauerdialdera, aska haren aurrean eman zan Meza nagusia, eta Prantzisko santuak kantatu zuan ebanjelioa, ta arpegia, goiko alaitasunez dis-dist egiten ziola omen zeukan.

* * *

Santuentzat –Elizarentzat eta Liturjiarentzat bezela–, gerta-kizun bizi bat da Gabon. Gabon bakoitza, Gabon. Lehenengoa balitz bakoitza.

Fabrikak, traktorak, kamioiak, trenak, abioiak, ilargira dijoazten koeteak, tankeak, barkuak, bonba-atomikoak, klinikak, zaharren asiloak, maternidade-etxeak, unibersidadeak, jauregiak, txabolak, txaletak, pobreen tegiak, aberatsen alperriko egoitzak, kartzelak, deporte-zelaiak, zinemak, elizak, pobreen etxeak... baina denetik eta dena nahastean duan mundu hontan, eta gu-geuretzako, gaurkuontzako, eta aurreneko aldiz balitza, eta 1966ko Gabonez, San Leonen hitz hauek esango dizkigu, Elizak:

“Maite-maiteok, gaur jaio da gure Salbatzailea: Poztu gaitetzan. Ez bai dagokio tristurari lekurik, bizitzaren jaiotegun hon-

tan; hilkortasunaren bildurra deseginik, agindutako betikotasunpoza bai damaigu. Poz-bide hontatik inortxo ere ez da baztertzen. Guztiontzako poz-arrazoi berdina bai du".

Beraz, aurten ere Gabona, Gabon. Orain 2.000 urte izan zituan arrazoi berberak bai ditu Jesusek, jaiotzeko; Jaungoikoak zenbateraino maite gaituan agertzeko; Jaungoiko-itxura utzita gure hilkortasun errukarriz jantzeko. Eta, graziaren bidez, orduko artzai ta magoei, bezela, gaurko txoferrei, estazio-jefeei, gau ta egun lanari lotuei, teknikuei, astronautei, ta denoi, eskeniko digu, berriro ta berritan berriz, bere jaiotza-dohaiak.

Horregatik arkitzen det ongi, jolastokiko belenaren gainean mutikoak jartzekoa duten, irakurgai hau: "1966ko GABONAK, GABON". (Ez ote legoke hobeto, EGUBERRI?).

* * *

Eta goldioz, artzai zaharrez, betiko asto, idi eta ardiz; baina ordutik honerako guztiz, eta gaurko problemaz, gaurko trasteriz, gaurkotasunez jantziko dute belen hori. Halaxe ta halaxe baino halaxeago ikusiko bai du Jesusek mundu hau, goldio gaineko iruditik baino, aldare gaineko ogitik.

Eta halaxe baino halaxeago arkituko da Jesusen gorputza –Eliza–, zapi biguinetan bilduta bai, baina oraindik lasto gogorrek ziz egiten diotelarik: Sudan eta Kongon odola dariola, Indian goserik, Russian eta Txinan Herodesen bildurrez, 2.500 milioi fede gabekoren gauak inguratuta.

Eta halaxe baino halaxeago esango digu, aurten ere, Aingeruak: "Ez ikaratu; herri osoarentzat poz haundia izango dan berri bat dakarkizutet-eta: Salbatzailea jaio zaizutela gaur, Kristo Jauna bera". Eta bertan behera, mila eskoletako ume, mila elizetako kristau eta mila ta mila herritan, zeruko talde haundi bat bilduko zaio Aingeruari, aurten ere, Jauna goratuaz eta esanaz: "Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta pakea lurrean Haren gogoko gizonei".

Arantzazun, Balerdiren "Annuntio, vobis" ensaiatzen ari dira.

ETA ELORRI-LANDARAK*

Edo elorrien umeak?

Erregenez, elorri-landaretaz oroitzen naiz. Ez beste ezergatik: Peru Abarkak zionez, bakoitza bere zoroak bizi dualako, baizik.

Nire erotasuna, berriz, elorrienganako maitasun haundi bat eukitzean dago.

Elorriak baino zugaitz lirainagorik bada, ordea, niretzat ere; baina maitagarriagorik gutxi, beste elorri batzuek ez badira.

Elorriei, basoko pobreak deituko nieke. Basoko behartsuak, landerrak, txiroak.

Baina ez alperrak diralako. Beren baztertxoetan, Udaberri goizean ondo goiz azaltzen dituzte beren ostrotxo urratuak; ondo goiz irikitzen dituzte beren loretxo xuriak, ondo goiz borobiltzen beren aletxoak, eta gero, Udara zear, eta Udara igarota ere, oraindik Udazken-azkenak arte, oraindik hantxe diraute beren frutuak ontzen, gozatzen, ahal dutena egiten.

Aurreneko elurtea ezker ere, hantxe ikusi ditut, oraindik, kimetako elur artetik gora, odol tantoak baliran, haien pinporta gorriak.

Baina, noizbaitean, izotzak legortu ahala, edo neguko txoriak irentsi ahala, berriz ere soil geratuko dira; berriz ere, Udaberri goizean goiz, ahalik eta goizen, berriz ere, lanean hasteko; base-

* *Aránzazu*, 446, 1967, 5-7. orr.

rrietako nekazariak bezelaxe, urietako langileak bezelaxe, lanari **beharra** deitzen diotenak bezelaxe, edo beharrak lanera daramazkianak bezela.

* * *

Goizean goiz jeiki, behiak jetxi, azpiak egin, atxurra, sega edo idiak hartu, ta, giro ona badago hobeto ta, txarra bada ere hantxe, mendiko nekazaria, goizetik gabera, ta ilundu ta gero ere, lanean ari da.

Kale bustian edo aterian, baina bizi ahal izateko lanik beharreko ez dutenek ogean diran bitartean, han dijoaz kaletarrak fabrikako burni ta herdoi artera; edo haizeak sartu ta erten, bere gogora egiten duan, kristalak hausitako ate ta leiho dituan, almatzen hartara; edo zanga, edo zerrauts edo igeltsu artera.

Ta, halaxe, jango dutena, beren bekokietako izerdi saminez erosi behar duten guztiak.

* * *

Mendietatik badijoaz elorriak. Nornahik kentzen ditu. Nornahik egiten die, gogoak zer eman, huraxe. Aberatsagoa pinua. Harentzat lekua. Pobrea bai da, bijoa, elorri gaixoa.

Behartsuak ere nornahik kentzen ditu, hemendik hara ta handik bestera, hain errez. Eta hain errez bialtzen dituzte langileak ere, hain errez, asko daukanak ezer galdu ez dezan. Baina Seguruetan ere errezago egiten dute pobreekikoa; baina konbentuetan ere bai.

Elorri bat, inor oroitzen ez zaiola, bere bazterrean bezela, inor oroitzen ez zaiola bizi dan nekazariarekin ere, errez gogoratzen dira, gurdi zaharraren aspaldietako inpuestuak-eta eskatzeko danean.

Eta mendietatik badijoaz nekazariak, joan egin behar dutelako, alegia. Fabriketatik, lantokietatik, enpresetatik... badijoaz obreruak, eta, haiek ere, joan egin behar dutelako. Aberatsago makinak. Aintzat erdi ta ixkinak. Ez dute emazte, ezta haurrik

ere. Lanean dira gordinak. Gastuan, berriz, mizkinak. Irabazian bikainak. Ta, hilaren mugan, ez dira azaltzen, eskatuz lanen ordainak. Bijoaz bada, ta, halaxe doaz, nora?... beharginak.

* * *

Elorri hitzetik dator, nunbait, **elorrio** hitza, eta hontatik, **elorrioko**. Elorria, bide-ertzak, soro-hegalak, zelai-bazterrak-eta zaitzeko ere erabiltzen dan arantzadun zugaitz apal bat da. Behartsuaren bizi-giroa elorriak adierazten duan bezela, **lorra** ta **nekea** esan nahi dituan **elorrio** hitzak adierazten du elorriaren zoria. Lor eta nekearen berri **elorrioko** hitzak damaigu, bere **larritasun**, **estuasu**n, **atsekabe**, **nahigabe**, **gaitzaldi**, **beltzaldi**, **zoritxar**, **zorigaizto** eta gisa hortako bere esan-nahiekin.

Arantzak beretzako ditu arantza, lehendabizi. “Badarioe arantzak hainbeste bider bere burua minduten deutesen arantzak”. Baina elorriak bere burua babesteko ere baditu bere arantzak –langileek-eta, beren buruak hainbeste bider mintzen dizkien eztabaida, izka-mizka, muturrak, lan-uztea, sasi-lana-ta, beren buruak babesteko erabiltzen dituzten bezela.

Baina langileek bezela, elorriek ere arantzak beren buruentzat dituzte, batez ere, nahigabegarri; ez bai die babesgarri bezela asko balio: aizkora gogorraren menpean erori beharra dute; goitik amiltzen dan harkaitzaren menpean makurtu beharra; pinu aberatsagoari tokia utzi beharra; baserri kozkorretakoek beren txoko hain maiteak eta obreru xumeek beren ogibideak uzten ari diran bezela; edo bizi nahi badute, zugaitz haundiagoen tartean bitartetxo bat arkitu beharra, buruak alderatu beharra edo betiren-beti makurtuta bizi beharra.

* * *

Haritzek, abereentzako ezkurra ta arotzegirako zura dute, ta ez diet erruki haundiagorik, asko bai dira ondoren dabilzkitenak. Gaztainondoek, gero ta gozoago deritzaiegun aleak, eta, haritzek hainbateko zur bikaina dute. Berebat lizarrek, pagoek, pinuek; eta

maite baditut eta ederresten baditut ere, ez diet errukirik, bai baidituzte beren abogauak. Baina elorriek –bihotzarentzako hain onak diran lore, ostro ta frutuak dituztelarik–, ez dute adiskiderik: bihotza ahaztua daukagulako nunbait, degunik ere ez daki-gulako nunbait. Eta bihotzarentzako ongarriak ematen dituana, ongarri hoientzako lekurik arkitzen ez badu, alperrik dago.

Baina alperrik, bihotza bera ez ote daukagun nago; alperrik edo alperturik, ez bai darabilkigu hari dagozkionetan, harentzako on diranetan, harentzako bizigarri ta bizi-ageri diranetan: errukian eta maitasunean.

Pobrearen, landerraren, behartsuaren, txiroaren larritasun, estuasun, atsekabe, nahigabe, gaitzaldi, beltzaldi, zoritxar eta zorigaiztoa, elorriaren ostro urratu, lore hain txiki, frutu hain kaxkar eta hain osasungarriak bezela dira, haiei lekua ematen, haiekin arduratzen, haiengana makurtzen, haiekin jabetzen, haiengana zabaltzen eta haiekin haiekintzen dan bihotzarentzat. Errukiak eta maitasunak edertu, sakondu, hedatu, jaso, hazi, marduldu ta giza-girotu egiten bai dute bihotza.

Baina bihotzaren onerakoa estimatzen ez duanak, ezin estimatu bihotzik eta, are gutxiago, bihotzaren preminan arkitzen danik. Baina hori bere kalterako. Halaxe: bihotzetik urrutiratuz goazen neurri berean goaz gogortasunean gogortuz, ikolduz, mokortuz, zabalera galduz, mugatuagotuz, geregatanuagotuz; eta, gerekoi bihurtzen gera, eta geregatanu ahala, dena nahi genuke geregana ekarri, dena geregatan jarri, dena geregatan agertu; ezin dezakeana ta ez daukana ta behartsua axukatu arte, desafiatu arte, halakoen begietara gure lujuaren errainu mikatz eta errega-riak bota arte.

* * *

Erregenak, orain baino lehenagotik ere, arantzezko koroe bat bezela gogoratzen ditut. Zer ordu tristea, Meza nagusia bukatu ondoan, ahal dutenak eta haien umeak, kaleetan zehar, enparantzian hara ta honera, zumardian aurrera, jostailu galestiz, galestia-

goz eta oso galestiz, abiatzen diranean! Ezin dutenak eta haien umeak, berriz... baina haien umeak, batez ere! Baina gizarajoak ume hoiek eta hoiien gurasoak! Gizarajoak gurasoak ere!

Behartsuei elorri deitzen diet. Ez alperrak diralako. Ahal izan duten artean jardun dira, goizetik gabera, eginahalean eta gehiago ere egingo lutekela, askotan, nun egin balute.

* * *

Oraingo umeek ez dute Errege Magoetan sinisten. (Errege Maloetan sinistuko balute!) Izan ere, Errege Magorik ez da. Ez dira Errege bezperan, beren ganbeluak jostailuz eta gozoz dituztela, etortzen. Dena da gezurra, Jaungoikoari eskerrak. Baina gezurra debekatuta dago. Baina zer esan Errege santuei beren izen ona kentzekoa dan gezurrataz? Errege Magoek ez bide luteke horrelako jostailu-banatze hain desberdinik egingo. Ez bide lituzteke utziko pobreen umeak errege-sari hain motxez.

Baina zorionean, gaurko umeek ez dute Errege Magoetan sinisten. Aberatsen eta aberats ez, baina ahal dutenen umeak, aurretiz eta asko aurretiz dakie erregek zer ekarriko dien. Astebete edo hamabosta lehenagotik hasten da Errege umeen artean: “niri bizikleta, niri oinez ibiltzen dan muñeka, niri indioen trasteri guztia, niri Clim, niri Teletin...”.

* * *

Errege Mago aberats haiek Ume pobre batengana etorri ziran, berriz. Baina pobreen umeek badakite beren etxeetara Errege Magorik iritsiko ez danik. Eta kalean, inbidiz edo tristuraz, beste-enak ixilik entzun dituztenak, astebete aurretiz, gutxienez, hasten dira urliari ta sandiari zer ekarri dioten esaten, eta beren eskariak egiten.

Gaxoak, pobreen umeak! Maizterraren, ezin duanaren, ez daukanaren, obreru gorriaren umeak! Zer goiz hasten diran elorriarenak pasatzen! Eta zertzuk entzun eta zenbat sufritu behar duten haien gurasoak!

Alperrik erosi batarentzat jersei bat, bestearentzat oinetakokak, harentzat halako galtzak, honentzat honako gonak. Dena alperrik.

Eta dena alperrik: alperrik jostailu hain galestiak eta alperrik hain beharrekoak diran, hain beharrekoak.

Baina alperrik baino txarrago danerako, gainera: batzuen harrotasun iguingarri gehiagorako ta bestetzuen inbidi-arantza haundiagorako.

Pobreen umeak, igandeetan, herriko jaietan, Erregenetan, egunik pozgarrienen, hain ezagun, hain motx, hain gorri ta elorri, hain goiz, hain bizitzaren hasieran, hain landaretan!

* * *

Eta Erregenez, eta kaleetatik eta enparantzetatik eta paseotokietatik igarotzean, zugaitz liranagoen kimuekin baino, harkaitz gogor arteko, larre zaharreko, sastrakako, bazter bertan beherako elorri landaretaz oroitzen naiz, gero, neguteak zarpildutako mendiotara itzulitakoan, aberats eta ahal dutenen umeekin baino, pobreen, ezin dutenen, ez daukatenen umeekin oroitzen naizen bezela.

ETA BASERRI-BIDEETAZ*

Bide berria bedeinkatzea zala-ta, bildu ginan Gesaltzan, gabonilaren 11.ean. Halaxe jaunak: gesaltzarrak, Oñatetik Arantzazurako errege-bidera atera dituzte beren etxeak, bide zabal, berdindu ta ongi ezarri honekin.

Bide berri hain eder, bainan hain jardutze ta neke luzez egin-dako honekin zer-ikusirik ez nualako-edo, neu izan nintzan lehenengo Gesaltzaratu nintzana. Gero Aita Lasa. Eta Aita Lasarekin hasten da bide honen egileen errenkada. Aita Lasa, Luis kamine-ruarekin jeitsi zan. Haien ondoren, Oñateko alkate Reyes Korkostegi jauna. Oñateko herria, kale ta baserri, atontzeko, txukuntzeko ta aurrera ateratzeko gizon honek duan ardura goragarria, ondo ezaguna da inguruetan. Harekin, goi-alde hontako bide-zai degun Julian etorri zan.

Eta han zeuden, etxe-aurreak betean, bide eginaren poza zeriela, jai-eguneko eta jai-egin-zale, Gesaltzako Anduagatarrak, Arregitarrak eta Zuzaldetarrak.

Aurreneko agur-hitzak-eta trukatu ondoren, Aita Lasa jantzi zitzaigun roketez eta estolaz eta bidea gora abiatu ginan. Eta latin eta ur bedeinkatu ugariz, bidea oparo bedeinkatuta utzi ziguna, neuk dakit.

* *Aránzazu*, 447, 1967, 23-25. orr.

Eta gero, bide ta bedeinkazioaren ondra ta alabantzan, bazkaria. Halako gertakizunari halako otordua zegokiolako, nunbait, jaki goxo, ongi prestatutako ta ugari eman ziguten Zumaldeneko etxeoandrak.

Aita Lasak, Alkate jaunak, Jose Mari bertsolariak-eta, berriz, beren jardun eta ateraldi asmoz eta gogoz beteekin, atseginago egin ziguten janaldia.

Kafera ta kopara iritsi ginanerako, dena zan baserrietarabidea, dena baserrietarabideen gorapena, dena baserri-bide-egileen aipamena ta aintza.

Zigarro-puruen kee artean geundenean, Arkadia zorionekotik jeitsitako igerle dohatsu bat bezela, mintzatu zitzaigun gure Aita Lasa.

Lainoak garbitzen dituan ipar argi bat bezelakoa zan haren ekinaldia. Baina ondo gogoratzen ez badet, edo zerbait gehiago edo gutxiago badiot, barkatu zaidazute, une eder hartan, ez nituan, beharbada, gauzak ondo jasotzen-eta. Niri honako hau entzun nuala, dirudit. Hara:

"Soro, zelai ta arboladien erdian, eta gure lurraldearen apaingarri, baserriak muinoetan eta ibar-uneetan hor ageri zaizkigu, banaka, binaka edo taldeka. Guztiok ederresten ditugu. Guztiok dakigu gure herritar jatorrenen bizi-leku dirala. Guztiok nahi genuke iraun dezaten.

Esnea, haietatik jeisten dute gure kaleetara; haragia, haietatik gure haragitegitara; arrautzak, frutak, barazkiak, haietatik gure azoketara.

Apaingarri ez ezik, onuragarri ere baditugu bada gure baserri hoiak.

Baserrietaz asko hitz egin da. Baina gaur egun inoiz baino hitz-bide ta idatz-bide biziagoa bihurtu da baserria. Izan ere, sekulako inka-aldian arkitzen da: hil-behar gorrian edo sendaketa gogor bat egin beharrean. Bietatik bat.

Eta hala, baserri batzuek hiltea aukeratzen dute, tamalez. Eta lehen, horma zurien gainean teilatu gorri bat, ikusten genuan zen-

bait tokitan, gaur sasi eta huntzen berdetasun beltza ikusten degu. Beste baserri batzuek, berriz, egundoko iaio, jaso ta lirain ageri zaizkigu. Baina badira, oraindik heriotzaren eta bizitzaren erdian –zenbat!–, zer aukeratu ez dakitela, nora ta zertara jokatu ez dakitela, ezbaian eta larri.

Baserritarren kexua, kezka, amesa, asmoa ta gogoa, kaletik gertu egotea degu. Bidezko gauza. Bidezkoa beren seme-alabak ikasteko aukera hobean ikusi-nahia; jardun-bide, ogi-bide, bizi-bide on bat errezago iristeko eran ikusi-nahia.

Kalean dena dago gertu, ordea. Ikastetxea gertu, sendagilea gertu, denak gertu, lantegiak, zinemak, tabernak gertu, apaiza ta eliza ere gertu. Dena gertu, dena bertan. Eta hortaz ezin genezake ezer ukatu. Hori halaxe da. Hori ta beste gauza asko ere.

Orain arteko tentazio-iturriak, kaleko aukera ta erosotasunak izan ditu, batez ere, baserritarrak. Baina kaleko aukera ta erreztasun hoiek, orain, zorionez, baserriraino iritsi zaizkio, edo etxerako bidean ditu.

Bidean. Halaxe. Horregatik atondu behar ditu baserrirako bideak. Kaltzada zahar eta estrada lokatzaztuekin ez dago etorkizunik. Harriz eta asfaltoz ondutako bide berriekin bai, ordea.

Herriko zalaparta, hautsarte ta naspilatik behar hainbat urruti, ta herrirako bide on bat dutelarik, baserritarrak biharamon liluragarri bat daukate aurrean.

Motor, bizikleta edo autoen bidez, berehala daude eskolan haien umeak, berehala lantokian haien seme-alabak, berehala azokan haien etxeoandrak, berehala perian edo gizartean haien gizonak. Eta, berehala etxean, berriz ere.

Gaurko aurrerapen eta aurrerapideei eskerrak, baserriak inoizko gertakizun ederraren atarian iruditzen zaizkit. Eta ez iruditu bakarrik. Ikusi ere egin ditugu. Bide on baten jabe diran baserri ta auzo-uneak, edozein bizi-bide erosoren parean jarri dira.

Esneak, haragiak, aurrautzak, frutak, barazkiak, sekula baino estimazio-bide haundiagoa dutelarik, sekula baino estimazio-bide haundiagoan daude.

Ta, zenbait tokitan bezela, bide egoki bat egin ondoren, baserriak alkarrekin batean lan egitea erabakitzen dutenean, estimazioa beti izango duten fabrika-lanen jabe bihurtuko dira. Negozioaren pozak, berriz, lanik irabazgarrienak aukeratzeraz eraman-go ditu, ta honek, lanerako tresna egokienak iristera.

Eta honela etorriko da baserrien goraldia, eta baserritarrak berriz ere maiteko du bere etxea eta txukuntasunez eta egokitasunez jantziko du. Eta aspaldi hontan hain muxin zaizkigun neskatxak, haietan jarriko dituzte beren begiak, eta baserri-semeen ondoren abiatuko dira.

Hau ez da amesa bakarrik, hau gertatu ditekera da eta gertatu behar duana, eta zorionean, gertatzen hasi ere egin dana.

Geroari begira, bideak ditugu baserri-bizieraren eutsigarri, bideak gure euskal paisajearen salbagarri. Gure herriak, beren aparteko edertasunean iraungo badute, beren aberastasunean iraungo badute, han eta hemen, herribiran edo urrutiagoan ageri diran baserriei eutsi behar zaie. Baina haiei eusteko, bideak dira aurrenengo oinarri. Bideetatik iritsiko da baserrietara orain artean sekula izan ez duten joritasuna, bideak etxeratuko die lurra askoz samurrago lantzeko erreztasuna, bideak eramango die ukulurako laguntasuna, bideak emango die inoiz ezagutu ez duten halako askatasuna ta poz berri baten gozoa.

Honelako bideak, Gesaltzan gaur bedeinkatu degun bide honen antzekoak, Luis Ugarte kamineru azkar eta artetsu zaharrrak egiten dakizkian bezelakoak, zein zorion mailalara jasoko dituan gure baserriak, ikustekoa izango da.

Horregatik, txaloak gesaltzatarrei, Reyes alkateari, Luis eta Julian kamineruei, halako hiru baserri ederri, halako iraun-bidea eta halako etorkizun-bide itxaro arazlea iriki diotelako.

Eta gure txaloetan ez ditzagula ahaztu, bide honekin hainbeste ardura erabili zuan Juan Bautista Ayerbe; Juan sobreestante berria; harek bialdu zizkigun langileak eta Gipuzkoako Aldundi zabala".

* * *

Aita Lasak ez zuan bere buruarentzako txalorik eskatu, baina guk gustora txalotu genuan bere hitzaldiaren ondoren, hitzaldiagatik eta egitez egin duanagatik.

Aita Lasaren errenten kontura, harro baino harroago nengoan, Luis kaminerua honako honekin atera zitzaidan: “Ea, beste praileak ere zerbait esan dezala”.

Baina nik zer beste zerbaitik esan bear nuan? Zer besterik esan nezakean? Ez al zeuden esatekoak nahiko ta ongi esanda? Baina alkarri entzutea debekatzen hasi zitzaizkigun gazte-jendearen atariko bulla ta motor-zaratarekin, mahaia uztera beharturik arkitu ginan, nire esturen lasaipide ederrerako.

Etxe aurrean eta gertu zegoan, mahaian ere zenbait flash eta txiste-disparo egin zizkigun Plazaola erretratzailera. Eta banatu gindezen baino lehen, eta halako gertakizunak bere “documento gráfico” egoki bat izan zezan, automobil, motor eta guzti filmatu ginduan.

2

Literaturaren inguruan

GERO*

Inoizko egoki atera digu Aita Villasantek Axular haundiaren liburu harrigarri hori. Axularrek euskera hutsean eman zigun eta euskera hutsean iraun du egunok arte. Gaur berriz euskeraren ondoan gaztelera dakarkigu¹.

“Euskera hutsa ere urria da” entzun ohi degu ta mingarri bazaigu ere, halaxe da, tamalez. *Gero* hori bera testigu ta lekuko. Zenbat euskaldunek irakurri ote dute gure literaturako gailurrik goren hori? Eta gure artean zenbatek utzi ote dute irakurtzen hasi orduko, lapurtarren euskera nekeza egiten zaigulako!

Gure artean erderara lotsarik gabe itzultzeko libururik egundo sortu bada, *Gero* hori da. Makinatxo bat harrituko da liburu hori euskera hutsean egin zala jakitean! Askok ez baitute uste horrelako gauzarik euskeraz egin ditekenik, euskeraren gaitasunak hainbestekoak diranik.

Euskerak inoiz bete banau, euskerak inoiz harrotu banau, liburu hau irakurtzean izan da. Hemen bai ez dala euskera huts hori urria, urrea baino. Liburu hortan barna, euskera hizkuntza

* *Aránzazu*, 421, 1964, 18. or.

¹ [Pedro de Axular, *Gero (Después)*. Edición bilingüe de un clásico de espiritualidad en lengua vasca. Juan Mors, editor. Barcelona, 1964. Eskatu Euskaltzaindira (Academia Vasca, Ribera 6 Bilbao) edo Urkijo Mintegira (Seminario de Filología “Julio de Urquijo”, San Sebastián).]

zabal bat dala, iruditzen zaio bati. Goi ta behe, nahi ta gai guztietarako gauza dan hizkuntza bat.

Kastillako literatura urre-aroa distirarik argienez jantzi zuten idazle aszetiku goi haiek irakurri ondorean, zer gustora, zer haien mailatik batere jeitsi gabe sartzan dan bat liburu hortan barna! Maila altu haretan, distira eder haretan, edertasun eta egokitasun garai haretan bertan egina arkitzen det.

Baina hartu itzazu liburu honen ondoren beste zenbait eta zenbait euskerazko liburu. Mundu zabaletik gela mugatu batean sartuko bazina irudituko zaizu. Ez dute ez antzerako zabalerarik, ez alturarik, ez sakontasunik, ez mamirik, ez azalik, ez ezer. Euskeragor, etorririk gabeko ta momiatu bat baizik.

Gero hori niretzat misterio bat bezela da. Nola iritsi zuan egokitasun hori Axularrek garai urrun urratu gabe hartan? Zergatik galdu zan harek irikitako euskeraren errege-bide urrezkoa? Zergatik barrendu ziran harrezkeroko gure idazle asko ta asko burdibide ta mendiko ikatz-larrainetan itotzen diran bitxidoretatik zehar? Harrezkero hemen gabiltz indargabetzen gaituzten kaltzadala latz eta estrada argi gabekoetan, sasi eta otak minberatzen gaituztela.

Berandu arren ere, Axularren bide hori berriz arkitzeko puntuan gaude. Auzoko batek eramango gaitu gurera, larreetan galduta gabiltzanok. Gaztelera izango degu itsu-mutil. Bai, jauna! *Gero* horren itzulerak hamaikatxori lagunduko digu ta asko ta asko ekarriko gaitu etxeko aberastasunak ikustera.

Liburu honen eta Euskal Herriko balioko gauzen zale benetako baldin bagera, *Gero* liburuaz ezagutu behar degu. Azkenengo argitaraldi hau batez ere. Orain arteko argitaraldi guztietakoak baino garrantzi ta inportantzi gehiago dualako. Gaurtik, gure liburu garaian hau universalala egin dala esan genezake, bere balio jator eta betikoen gain, gaztelerara itzulia izan dalako.

IRAKURTZEN ARI NAIZEN AZKEN POESIAZ*

SARRERA:

Nik ezagutu nuen apaiz arabar bat –hila da jadanik–. Euskal gauzetan zaletua nintzela jakin zuenean, hara zer esan zidan: “No tenéis palabras”.

Min eman zidan ateraldiak, baina ez nion ezer erantzun. Egia zioela banekien eta.

Gure Gandiagak uda bat igaro zuen Madrilen, eta handik gauza bera esaten etorri zaigu.

Jakintzak nahi eta behar dituen bezalako hitzen premia somatzen du berak. Eta premia hori erremediatzeko ahaleginean dabiltzanen lana eskertzen eta txalotzen du.

Nik ez nuen asko pentsatzen olerkari bat etorriko zitzaigunik hori esatera, baina oker nengoen.

Dena den, eskerrak ematen dizkiot Gandiagari zaurian behatza ipini duelako.

Fr. L. Villasante

Joan den apirilaren 24an Gernikan jalki nuen ateraldi batek du txosten honen errua. Eta Aita Villasantek. Gernikako mahai-inguru hartan zer hau ere galdetu zidaten: Euskal arte eta kulturaren berreskuratzean poesiak izan duen zeregina.

* *Euskera*, 23, 1978, 237-246. orr.

Bernat Detxepareren “Sautrela”-rekin eman nion erantzunari hasera:

“O Heuskara, lauda ezak Garaziko herria,
Zeren hantik ukhen baituk behar duyan tronuya.
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena,
Orai aldiz izanen iz orotako lehena”. Eta abar.

Bere inguruko, bere herriko eta bere bihotzeko giza antsien oihartzun eta ahots dela poeta, esan nuen. Gure kasuan, euskaltasunaren kontzientzia dela poeta, esan nuen. Euskal gizarteak sortu duen oren defendatzaile dela poeta.

Arestiren desafioa aipatu nuen: “Nere aitaren etxea defendituko dut” (*Harri eta Herri*, bigarren parte, B letra). Eta beste norbaiten deadar hau:

“Ibarrera, azkar ibarrera,
denok ibarrera:
itotzen ari bait da
euskaldun arima”.

Eta baina poeta-poesien lana euskal ondasun oren berreskuratze zereginaren ekintza zabalaren barrutan kokatu nuen, euskal arazoan diharduten mugimendu guztiekiko dependentzian jarritz poesien zeregina. Baina orduan, batez ere zera hau nabarmendu nuen: euskara kultur arlo guztietan lantzen ari diren laguntza paregabea; horiek direlako bereiziki poetaren oinarrizko tresnaren fabrikatzaile. Eta une hontan atera zitzaidan honako hau: “Itxura baten poesiaz hain kanpotiko zientzia hizkera lantzen ari diren gizonak nahi ditut gorai. Ezin esan halako gusto handiz *irakurtzen ari naizen azken poesia* NATUR ZIENTZIAK, TEKNOLOGIA eta Holandako KRISTAU BIDEA da, espresio bide berri eta zabalak eskaintzen dizkidelako, eta hitzaren ulerkuntza eta ikuspegi zehatz eta funtsezkoa damaidatelako”.

Eta hemen dator Aita Villasanteren errua: ateraldi hau zehaztagotuz txosten bat idazteko eta idazteko itogin aspergarria.

Hitzaren arazoa oinarrizkoa duela poetak, esan dut. Eta nork ez du oinarrizko?, galdetuko didazute. Gaurko errealitate zientziak, kulturak, politikak, ekonomiak eta gainerako “azko” asko ta asko euskaraz eman nahi dituenak, ez al du euskarazko terminologiaren beharra behinen behinengoa? Baina poetak beste inork baino gehiago behar duela hitza erantzungo dut nik. Hitz material eta brutoa espiritu mailako esanguratan eraiki behar duelako poetak.

Ez nator, beraz, Paulo Agirrebalzategik *Natur Zientziak* liburuaren atari ederrean “euskarak landu gabea duela oraindik zientzia hizkuntza” baieztu ondoren jarri duen honekin, alegia, “honek ez du zerikusirik bertsolarien edo olerkarien ez eta saiolarien hizkuntzarekin” (*Natur Zientziak*, XXXV. or.). Nola esan zenezake horrelakorik, Paulo? Eta bertsolariak, olerkariak eta saiolariek euren esankizunen neurriak arlo berriz zehar zabaldu nahi baldin badituzte, zer? Ez al dira jakintzara heltzeko eta jakintzari heltzeko eskubidedun gizon? Hala orain arteko euskararen eta euskaraz landu-gaien mugabarrutan bizitzera baino hiltzera behartu nahi al dituzu, lehengo “puzu sakon eta ilunetik” betiko “ur gazi bat nekez” atera ta atera? Ez al duzu uste bertsolariak, olerkariak eta saiolariek oraingo “erreka laister baina pobre” honetatik, eurak ere “ur geza” atera nahi lezaketetik lasai? Eta azken baten, guztion arteko auzolan nahasian ez bada, nola heldu gindezke “gure oinordekoek ur gozo bat oparo atera” ahal dezaketetik “euskara itsaso urdin eta zabala” kreatora? (Ikus G. Arestiren *Euskal Harria*, 1968, 51. or.). Nik olerkari izenean erantzungo dizut eta esango: Nork mugatu behar dio gairik poetari? Nork ezarri behar dio halako edo bestelako hizkuntza mailarik? Norena da hizkuntza osoa poetarena ezik? Hara, Paulo, entzun iezadazu hau:

Hizkuntza, gizonaren kanpoko nahiz barruko errealitate guztiak izendatzeko eta adierazteko gauza denean, hizkuntza horrek

poetaren lehendabiziko premiari baino ez dio oraindik erantzun, une hontan hizkuntza, bere esanahi zehatz eta guzti, abiapuntutasunezko materia geldu dugu oraindik. Oraintxe iritsi da poeta poesia eraikitzeko lehen materiale multzora. Hemendik aurrerakoa du poetak bere lankizuna. Hor du hitza –hiztegia, hizkuntza–, bere esanahiz, bere abiapuntutasunez; eta hartzen du eta eragiten hasten zaio: hitzari bere oinarri materialaren gainean eragiten; hitzaren islak estudiatzen, hitzaren hitzarekiko erlazio berriak aurkitzen, hitzaren nahikizun eta iradokizun berriak kreatzen, hitzaren errealtasunari idealismo dimentsioa ematen. Hitzari asmo berriak inguratzea da poetaren eginkizun, hitza here pasibotasunetik ateraz, haren esanahi materiala neurri berriz aberastea.

“Berkak begi-puntetan,
berba pillo bategaz
ikutu zinduzan”. (*Elorri*, 31. or.)

Baina berbarik ez badauka, zegaz behar dio poetak ezeri ikutu? Nola behar du plasmatu gauzen izenak baino harutzago dagoen zergauzen onura? Nola atzeman hitzaren jirabira ta gordelekutan bizi den iratxo jakintsu eta miragarria?

“Neure hitzaren billa
–ez gauzetan,
ez jakintzan–,
neure hitzaren billa
nabil... ametsetan.

Ez-bai utsa dan arnas bat
zerak doi aitatzekoa,
berba mugarik bakoa
nai dot; gomuta zaarrek
dakien hizkuntzakoa.

Itzaren oiartzun sorra
–ez muiña,
ez otsa–,
zerbait xamurra
ozta lioken
kili arin aura.

Ez ipuirik. Doi-doi zera:
era bako
itzal gozo...
Ez irudi, aaztutako
pozen miña baiño.

Lotu bako berba nai dot:
soiñu galdu bat lakoa;
usain askatutakoa;
edo kolore pintatu bako
dan ez dan-ezkoa”. (*Elorri*, 24. or.)

Baina gauzen izenetan behar du poetak aurkitu bere hitzaren oinarria; jakintzako terminologian aurkitu behar du bere hitzaren funtsa; hitzaren muina eta hotsa behar ditu lehenengo ta behin, inondiko “oiartzun sorrik” nahi baldin badu sortu; hitz ondo inguratu ta trinkoa behar du “ez-bai” ta lurrun besterik ez litekeen hitzik begitandu arazi nahi baldin badu; hitzaren bolumena behar du “era bako itzal” hura sortu nahi baldin badu; hitz ongi finkatu ta zehatza behar du “lotu bako berba” haren lehen erreferentzia-puntu bezala; hitzaren soinu erreala behar du beste “soinu halakoa” sortu nahi baldin badu; hitzaren usain materiazkoa behar du “usain askatu” hura aditzera emateko; sakonki markatutako hitza behar du “kolore pintatu bako dan ez dan-ezko” hura iruditzen emateko.

EZINAK deitu neure karpitetako batetan hauxe aurkitu dut:

“Momentu honetan jaio naz

–Ekainak 27–

Barajaseko aireportuan.

Urre ontzaren lekuan

Airenautika-textu bat

ipini deuste eskuan;

zoraldi hontan erregalurik

ederrena dot munduan.

Abioiak nau harritzen,

mekanikak arrokutzen;

ta, aztorapen hau

hitzez nahi dot muntatu,

hala nola dituen makinok

piezaz pieza osatu

hegada azkarrerako.

Igotzen, jaisten begiratzen dot

zenbait abioi;

urruti galtzen ikusten,

urrundik heltzen;

ta, hurbildik sortzen deusten zirrarak, zirriz,

idaztera nau behartzen.

Ta, badihardut; jadanik

oso luzaro dihardut

errealitateon eragin

bizkor honen berri

inola ezin emanez.

Eta aspertzen ari naiz,

banoa gogait eginez,

airenautika hitzik ez baidot

airezirrara eraikitzeko

nahi neuken airepoeman.

Gauzaeza naz, diñot. Eta helizeak zalapartan
mugituz ikusten ditut.

Gauzaeza naz, diñot. Eta zarata gor arriz gortzen nabe motoreek,
eta haize bero eta indartsuz atzerantz bultzatzen nau
tututatik darien dar-dartak.

Airenautika textua zabaldu dot.

Airenautika textua itxi dot.

Erdarak ez deust balio.

Aurrean dodan dinamika irensteari dihardutsat oraindik horraitio.

Mugimenduaren arima fisikoa
eder-esten dot lilluraz.

Despegeak txunditzen nau:

fisikako legeak ekilibratu dituen

aziertu berebiziko ta justuak.

Baina euskarak ere ez deust balio,

ez deust modurik, ez erresorte-tresnarik

mekanikatik iatordan harridura honen despegerako.

Hitz elastikuak behar geunkez,

abioien igotzea posibletzen daben

abiagailu hoién antzeko izenak behar geunkez

euskarak eta biok hemen

iluntzeko hamarrak alde eder hontan

airezirrara hau eraikitzeko

nahi neuken airepoeman”.

Gero honen ondoren beste hau ere EZINAK karpetan ageri da:

“Hagiñak urten eusten,
berbeak ez eustan urten.

Bizarrak urten eustan,
berbeak ez eustan urten.

Hasi jat ulea jausten,
baña ta berbarik ez jat
oraindik hasi urteten.

Berbeak ezin deust urten
ezin deust-eta urten.

Arean
hil ere egingo naz
berbeak urten baño lehen”.

Uda batez Madrilen liburuan nahiko erabilia dut hitzaren gai hau. Honela diotsat Juan Mari Lekuonari: “Luzaroko lana nuke oraindik Madrilek agertu zidan guztia hitzetan taxutzea. Ez da erraza ikuskari ta sentikarien hitzetan urtzea” (4. or.). “Badakizu inondik ere hitzetik hortzerako kazetaritzaz ari ez natzaizuna. Beste idazgenero hartaz dihardutsut. Ez noski gaia hitzaren bidez eraiki ohi duen literatur mota hartaz, hitza gaiaren bidez eraiki nahi lizukeen hartaz baino. Nik nahi dudana badakizu: Hitza egin ikuskari, gertakari ta sentikarien nagusi, hitzaren pean jarri gaia, gaiak hitzari zerbi diezaiola egin. Basaokanak goian ageri dira oraindik, izpiritua ez zaie oraindik jabe egin, ez ditu oraindik azpitan hartu. Oraindik ez zait ondu Madrilen bildutako basaokan ta gindaz bete nuen ontzirik” (5. or.). Ez nijo orain hitzari buruz *Uda batez Madrilen* idatzirik ditudanak kopiatzera. Arazoa hemen zera da: Edozein literatur kreakuntzatarako edotariko hitzak behar ditugula, eta edotariko jakintza gaiak ari zaizkigula heltzen euskaraz. Eta hemen bai, Paulo, goratu behar dutala zuek, ELHUYAR-ek eta bestek ari duzuten lana, euskararentzat lurberriak urratzen ari baitzarete. Orain artean euskaraz erabili ez diren eta ezin erabili izan diren gaien erabilpena posibletzen baituzue. Inguruan bizi dugun errealitatearen euskarazko espresapena baitamaiguzute, euskarazko “itsaso urdin eta zabala” gero ta hurbilgotik posibletuz. Hizkuntzaren

poeta deitzen zaituztet nik, zientzia hizkeraren bidez hizkuntza aberasten ari zaretelako, eta zientziarekin batera hizkuntzaren, erabilpena irakasten diguzutelako. Hizkuntzaren udaberri baten jarri gaitu gertakizun honek. Hitzen jaiotza oparo baten ernebehar bizkorra bizi dugu fisikan, kimikan, geografian, astronomian, meteorologian, mineralogian; landare, animalia ta gizoni buruzko hitzen jaiotza; anatomia, fisiologia, medizina, komertzio ta industria-hitzen jaiotza. Baina ez hitzen jaiotza hutsa, baita hizkera baten jaiotza ere. Jaiotza oro poesia da ostera. Horregatik nire alaitasuna NATUR ZIENTZIAK eta TEKNOLOGIA-ta euskaraz irakurtzean. Horregatik deitu nien poesia ere, poesiaren lehen oinarri baitira eta poesia eraikitzeke gai eder. Beren esanahiz eta asmoz datoz jendearengana, idazlearengana. Poetarengana helitzean, eskuztatu egingo ditu poetak, ingurumena begiratuko die poetak, apur bat zoro bihurtuko ditu poetak, apur bat argitu egingo ditu eta pitin bat ilunduko, errealismuz nabarmenduko ditu puska bat eta idealismuz beste puska bat; egunoroko jantzi arrunta kendu eta asmo berriz jantziko ditu poetak. Bitartean hitzaren sortzaileak ditut poeta, eta euskaraz landutako gai berri oro poesia.

Edozein gaiz ari den idazlek behar du eskuartean hitza; oraindik eskuartenago behar du hitza literaturlariak; areago oraindik poetak. “Ezin daiteke ibil une bakoitzean esankizunen adierazpide materialaren bila, hitz bakoitza sortu beharrez idaztaldi bakoitzean; jadanik erabakia behar luke hitzaren gorabehera hori eta ez luke formaren arazoa besterik hartu behar. Formaren arazoz aurrekoa, hizkuntza materiala, ondo berea behar luke idazleak eta soroaren lana besterik ez luke egin behar, erraiak asebesterik dituen iturri kantari ta kontariarena. Hazia barruan duen soroari bezala, ura erraietan duen iturriari bezala, hitzak berez-berez irten behar lioke idazleari, nahiz eta nekez, berez; gutxienik bederatzi hilabetetan osatua ta ondua, paperera orduko bere ahotsaren jabe duelarik hitz bakoitza; eta ez familia gehitu nahi duen bakoitzeko haurra inondik ekarri

beharrez, semetzat hartu beharrez, bataiatu beharrez, ekanduko ez ote zaion betiko beldurrez” (*Uda batez Madrilén*, 76-77. orr.).

Horregatik dihardut hain gustora zientzi hiztegi eta testuliburuok irakurtzen, hizkuntza irakasten didatelako, hiztegia ugaltzen didatelako, hizkuntza pertsonal eta poetikoa sortzeko zeri heldu gehiago eskaintzen didatelako. Biharko poeten “itsas urdin eta zabaletiko” kruzero ta joan-etorrietarako ontzi moderno ta handi egiten ikusten dut euskara. Idatz ditzagun ontzi horren bandera zabaletan zabal Bernat Detxepare[re]n “Sautrela”-ko profezia ta berri onezko hitzok:

“Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya,
Ezi haien lengoajia izanen da floria.
Printze eta iaun handiek orok haren galdia”.

Nik berriz orduan ahal izango ditut esan Madrileko Plaza Mayor-en idatzi nahiko nituenak, Barajas-eko aireportukoak-eta. Orduz gero ostera ezingo dut jadanik berriro idatzi honelakorik: “Arkitektura, mekanika, komertzio-andana-andanadak begitan. Ikuskizun berri ta miragarriak begitan. Kalea begitan, hiria, makropolia, eta hitzik ez”. Orduz gero ezingo dut jadanik egiaz esan: “Ikuskizun eta bizikizun berriz azaldu zaidan hiriarentzat ez dut hiztegirik”. Jadanik orduan:

“ZERGAUZA bakoitzarentzat izen bana dukegunean,
gauza bakoitzaren izena dakikegunean,
bizitzako gauza bakoitzaren izena nota huts baino
akorde bete dakikegunean,
gure begiok dakuskiguketena,
gure belarrioz datorkigukeena,
adimena uki diezagukeen ororentzat
hitz zehatzak dituzkegunean,
errealitatez eta hitzez jabe gaitezkeenean,

orduan ez dukegu eragozpenik izanen
hitzezko paradisu bat sortzeko.
Bitartean paradisuak ez dago,
bitartean eginberri gara,
oraindik ez dakigu gauzen izenik.
Besakozkor handiak ditugu
baina ez dakigu gauzen izenik,
soldaduzka egina dugu
baina ez dakigu gauzen izenik,
unibertsitatean titulatuak gara
baina ez dakigu gauzen izenik,
ezkondu ere egin ginen eta familia hazi
baina ez dakigu gauzen izenik,
jakin usteko pausoz ari gara
baina ez dakigu gauzen izenik.
Gauzei izenik ezarri aurreko
lehen-garaitan gara oraindik.
Zazpi urteko izpiritu bizitza
bizi dugu oraindik.
Juxtu ohartzen gara geure buruz
juxtu geure buruaren erantzukizunez.
Zazpi urteko gara
eta errealitate ikaragarri handi eta ugari eta
aspaldiko baten erdian bizi gara
eta ez diogu ezarri izenik,
ez diogu asmatu izenik,
ta ez dakigu.
Errealitateak itotzen gaitu gauzaz,
edotariko teoriaz, sorketaz, aurrerapenez,
jakintzaz,
baina guk ez dakigu direnok zehazten
xehapenezko hitzez, eta
gutxi gora behera mintzatzen gara
gorabehera gutxi duenez,

ez baitakigu
gauzen izenik,
euskaraz gauzen
izanik”.

(Uda batez Madrilen, 66-67. orr.)

ALA-DELTAN OLGETAN*

Urtarrilaren lauko bazkalosteko pasean nintzen. Berez bururatu zitzaidan eguerdi aurrean irakurri nuen Patziku Perurenaren “Irudimenaren laberintoa hutsik daukagu oraindik”. Bitxia komentario-arenga Perurenarena. Arratsalde argiaren eta garbiaren barruz barru nindoan Urbiara bidez, neure buru errotatxoari libre utziz, Patzikuren aleak bere gogara eiho zitzaiz. Patzikuk damaizkigun poesiari buruzko sententziaz aparte, dudarik ez dago poesia zer-zer den sobera ere gauza handirik ez dakigula. Esate bat da.

Dafneak loretan zeudela iruditu zitzaidan, baina ezin sines-tuz, makurtu egin nintzen hurbilagotik begiratzeko eta, bai, loretan zeuden eta ezti usain gozoz. Aspelar edo sasi-nartzisoren bat ere ikusi nuen bere kukulu horia zabalik, eguzkitara.

Poesiari buruzko edozein *zirtzilkeria* gustatzen zaidala esan-go nioke Patzikuri. Noski, Aristotelesen logikaz gaindi edo kanpo dagoela poesia. Beno, niri neuri ere hala iruditzen zait eta iruditu izan zait. Zenbat aldiz eraso ote nion Villasanteri, Aristotelesen logikaz landa dagoen edo usmatzen, edo usmatu uste dudan beste erakarpen edo ondoriobide ederrik badagoela ekinez. Lehen argitalpeneko *Elorri*-ren atari-hitzetan aipatu ere egiten du Villasantek Aristotelesen logikaren arauetz bestelako jokabide hau 12,

* *Hegats*, 3, 1990, 25-28. orr.

13, eta 14. orrialdeetan. Bestalde, Aristotelesek berak ere, oso azkarra bide zenez eta ia tajuzko gauza guztiak esan bide zituzenez, arteari buruz –poesia arte ote da?– zera esan omen zuen: “Artearen xedea ez da antzirudiak kopiatzea, gauzen esentzia sekretuari gorputz ematea baino”.

Baina hau egunaren argia! Urbiako ataka Elola-buruan geldi geratu naiz Gorbearantz begira. Zeruko anilaren anilak irrist egin du eta mendien laiotzeko aspilduretan kokatu da. “Poesiak ez du deus ikustekorik *jakitaearekin* eta *pentsamendurekin*” dio Patzikuk. Ongi esana deritzat (¡!). Poesiak pertsonarekin eta haren ahalmen ohartzaile edo pertzeptiboekin baitauka bere ikusteko guztia, eta *jakitatea* eta *pentsamendua*, gizabanakoaren gaitasun eta dohain pare ez berezko eta *kasual* baizik ez dira. Besterik litzateke pertsonaren eta haren fakultate eta lorpenen artean *jakitatea* eta *pentsamendua* ere aurkituko bagenu. Alegia, pertsonak ez lukeela zergatik alderat utzi *jakitatea* eta *pentsamendua*, poesia egiteko, irakurtzeko, dastatzeko, aintzat hartu, estimatu eta balioztatzeko. Pertsonari gehiegi eskatzea litzateke hainbat ahaleginez inguratutako ondarea une labur batez izanda ere enoratu, lekoratu eta hastandu dezan erregutzea.

Zabalaitzpeko iturria itsu eta mutu aurkitu dut, ez uraren faltagatik, hodian zerbait trabatzaile sartu bide zaiolako baino. Aldamenetik darion jario ugari berritsutik edan behar izan dut. Bai gardena eta jostaria ura! Hona, Patzikuk aintzinako amonez dioenez hementxe oroitu: “onomatopeia xarmagarritz, erritmo liluragarritz, musikaltasun xoragarritz kantatzen zituzten haur kantez geroztik, apenas egin dugun poesiari, *poematto* bakanen batzu salbu”. Tamalgarria. Zenbat hodi butxatu, opilatu! Besteak beste, etxeetaraino, kiroldegietako igerilekue taraino, parkeetako iturrietaraino, plazetako urmael ur zutidunetaraino uraren grazia eramateko bestetarako ez diren hodi dohakabeak! Handia badirudi ere, amona haien *jakitaeaz* Patzikuk ez dio deusik –ez ote zekiten ezer? ez ote zuten bizitzako gorabeheren, ikusien, esperimentatuen eta ezagutzarik?–; alabaina berehalaxe aipatzen du *pen-*

tsamendua bere jardunean: “poesiaren ganbara zaharreraino heltzeko sakon eta luze pentsatu behar dela” dionean. “Asko pentsatu behar dela” gehitzen du, “non pentsamendua gainditu egin behar den” –zer gauza polita!– “atzera haur baten inozentziaraino bihurtzeko”. Hunkitu egin nau.

Urbiako kapera atarian ohizko agurmariak errezatu ondoren, etxerantz itzuli naiz. Ea lauterdiak baino lehen gelaratzen naizen. Maldan behera jada, neure haurtzarora begira jarri naiz. Zenbat ume-zaintze aita basoetan eta ama soroetan ziren ia gehienetan. Nire adinekoak eskolara zebiltzan, baina ni sasi ertzetan lotzen nituen ahuntzak baino eskolatu gabeagoa nintzen. Artean ere kantatu egiten nuen behintzat, aitari eta amari jasotako kantazaharrak, elizan ikasitakoak, artzaiei entzundakoak, eta neuk asmatzen nituenak. Etxeko abere, basapizti eta hegazti ahotsen imitazioez gainera, haizearan, euriaren, iturrien, erreken, kateen, plateren eta beste soinu askoren antzekoak egiten ikasi nuen anai-arreba txikien entretenigarri. Berriz ere *Elorri* liburu jada zaharra aipatu behar dut. Han bada honako bat (194. orrialdea edizio zaharrean):

“Ota-txoria:
trik, trak, trak...
Ota-txoria:
ma-sus-trak”.

Aitortuko al dut? Basarteko jaiotetxe hartatik noizik noizera eskolara joaten nintzen, eta behin eskolaurreko arkupetan pelotan genbiltzala, huts egin eta nesken aldera joan zen gure harizko miseria borobil hura. Han Sabinak atzeman zuen eta ez zigun itzuli nahi. Orduan harengana joan nintzen, harrapatu nuen, eta ia lurrera bota nuenean, maistra oilaloka etorri zen, heldu zidan belarrietatik eta, ikaragarritzko erretolika zioen bitartean, nesken komunera eraman ninduen preso. Beno. Han nengoen ni komunean eta lehen onduta nuenari zera erantsi nion:

“neskek txix eitten
daben lekuen
preso sartu nau
ma-is-trak!”.

Hau da baina! Jesus, bidea galdu dut, ez etxerakoa, Patziku-
renganakoa baizik. Zera esatera nindoakion Patzikuri, alegia: a)
hautzaroko inozentziarik ez duela pertsonak galtzen adimenaren
garapen intelektualarengatik, eta b) *jakitatea* eta *pentsamendua*
bereziko mirabe, lagun edo urgazle izan dakizkiokeela poesiari,
beharrezko ere ez bazaizkio behintzat. Poesia ez da hutsetik sor-
tzen, ezin daiteke. Poesiak eraikuntza elementuak behar ditu: eus-
karriak. Amonek, zekitenaz, ezagutzen zutenaz, pentsatzen zute-
naz baliatu ziren beren kantuak sortzeko eta ontzeko. Ezagutzen
zuten sehaska, ezagutzen zuten sehaskaren hotsa, ezagutzen zuten
sehaskan zetzan haurra eta, sukaldeko argitzalean, erdi-ilunean,
altzarien ingurua ezbaikoa zen hartan, erraz pasatzen ziren zurez-
ko sehaskaren hotsetik *kunkunera*, *kunkunetik kuttunera*, lurru-
nera urrunera, begitazio, aierupen, oroitzapen, irudipen, fantasia
eta pentsamendu edotariko berealdikotara.

Amonek *haur kanteak*, *lo kanteak* edo *jolas kanteak*, kantagaien
eta kantu horiek gauzatzen dituzten elementu eta euskarrien eza-
gupen ondo begiratu, ohartu, hausnartu, egosi eta berenganatua
agertzen digute. Nola eman bestela *onomatopeiak*, *erritmoak*,
musikaltasuna, xarma, lilura, xoradura?

Ezagutzen nuen otaxoria, ezagutzen sasia, ezagutzen masus-
tak eta, tak, aldegin zidan triktraktrak. Barka biezat otaxoriak,
Montserrat Caballé bururatu zaidalako. Patzikuk du errua. Ixo!
Eskerrik asko, Patziku. Zuk badakizu kantagai dela Montserrat,
agertokirik galantena beteko kantari miresgarri sekulakoa. Ez
naiz luzatuko ez haren deskribapenean, ez haren kantuak eskain-
tzen duen gozamenean. Zera nahi dizut gaztigatu, hots, barreak
aparte, hari jasotako poemak, otaxoriari jasotakoak ez bezalako
elementuak eta euskarriak beharko lituzkeela: hasteko beste plan-

teiamendu bat, eta jarraitzeko beste garapen bat eta beste lengo-
aia bat. Lengoaia birkalkatuko nuke, batez ere. Lengoiak ederra
beharko luke izan, irudietan ugaria, egokia eta adierazgarria,
Montserrat eta haren kantuauren neurrikoa; eskola, eskala eta dir-
dira handikoa; *jakitategi* eta *pentsamenduz* aukeratu, landu eta
emana. Baina emateko moduak ere badaude eta zenbat! Ur guz-
tiak ez dira *xirripa* bezala ateratzen; zirrizta bezala, zarrasta
bezala, zurrutza bezala eta abar ere azaltzen dira; “erritmo bixi
arin xarmagarria”z gainera, hotsen, soinuen bolumen eta konpas
ezberdin asko eta askotarikotan; eta “xarmagarri” ez ezik, atsegin
diren beste agerbide ikusgarri, miragarri, txundigarri hamaika-
txotan.

Ibiltaldiaz gustatua ailegatu nintzen Seminariora. Gezurra
ematen du urtarril hasi berrian horrelako egun argi eta ederrak.
Nik ez daukat Jon Kortazarren *Laberintoaren oroimena*, eta ez
dut irakurri ere egin. Urbiara joan-etorrian buru-entretengarri
erabili nuen Patziku Perurenak *Laberintoaren oroimena* liburua-
ri egindako iruzkina berrirakurtzeari lotu nintzaion. Oporretan
geunden eta oporren atsegina bizi nahi nuen eta ni Patzikuren
iruzkinera. Gazte-bulkadaz beterik dago, zerbitzari berri gartsuen
lehia beroz, maite duen poesiaren –ur garbi eta inozenteen– ezku-
tari fier; baina ezpata ez darabil oraindik guztizko trebetasunez.
Kolpeak bai, kolpeak banatzen ditu, baieztapenak diot, “*arrazoi
handiak, egia biribilak*”, eskua baino handiagoak, eta ez die
behar bezain ondo heltzen, irrist egiten diote.

Ez dio axola. Ikasiko du harri handiegiak baino eskuan erraz
kabitzen diren harrikoskorak manaiagarriagoak direla eta efika-
zagoak. Dena ikasten da ibiliz. “Poesia kasik ezagutzen ez dugun
laberintoa da oraindik guretzako; etab...”. *Laberintoa*, definizioz,
artifizioz edo arterioz egindako ibilbide nahastu eta irtenbide oso
zaileko eraikuntza da. *Artifizioa*, berriz, artezko, agudeziatzko eta
trebetasunezko ariketa edo jarduna. Nora goaz, adiskide? Poesia
laberinto bezala ideiatzen baduzu, ez ote diozu poesia artifizioz
egindako eraikuntza dela? Baina gaizki ulertu ez badizut, ez da

hori poesiari buruz eman nahi diguzun zure ikuspegia. Orduan poesia ez da laberintoa. Zer ote da?

Terrazara irtetzeko tenta-tenta eginda nago, obserbatorioa dagoen terrazara. Noan. Zoardia tipil dago. Jakitunek eta pentsamendu-gizonek, zerutar ganga itzel hori, ageri zaizkidan halako beste milioika astroz eta astroz infinitoan barrena loretua dagoela diote. Jakitunek eta pentsamendu-gizonek diotenez lagundurik, hau irudimenaren txangoa!:

“Y más allá de todo lo visible,
qué es lo que hay del otro lado del espacio?
Allende el infinito,
di, Aldebarán, ¿qué resta?
¿Dónde acaban los mundos?”.

(Unamuno, *Rimas de dentro*)

Intzentsuaren kea katedral handi bateko argiontzi piztuetan zehar bezala dabilkit irudimena goietatik goietara,

“De vosotros, celestes jeroglíficos
en que el enigma universal se encierra,
cuelgan por siglos
los sueños seculares;
de vosotros descenden las leyendas
brumosas...”

(Unamuno, Id.)

eta hainbeste izarren argi ederrek zorabio gozoz mozkortu nau eta esertzera noa, begitazioaren gozotan murgiltzera. Zein erreinu eta errainu zoragarritara garamatzaten jakituriak eta pentsamenduak. Eurei eskerrak mia eta dasta genitzake bestela ez ezagutu ez gozatu ezingo genituzkeen eremu aberats, jori eta gozoak. Zein ongi, “mila irudipen lilurak ehundutako” “ala delta”z, “irudimenaren erresuma” librean ikusten, sentitzen eta amets egiten duguna ahal dugun baliabide guztiez kantatuz.

Dakidantxoa dastatuz,
 pentsamendua haztatuz,
 irudimena sustatuz,
 arnasa edo lurrun argi bat
 sortu zait hitza eskatuz
 z z z z z z z z z z z z z z
 z z z halabeharrez
 oroimenaren zeharrez,
 gustoa bide meharrez,
 txispa bizia limur dezakeen
 hots juxtuaren beharrez
 z z z z z z z z z z z z z z
 z z z asko ibiliz
 galerietan irrikiz
 tresnak hartu eta itzuliz,
 zer lanak, koño, nahi bezain laster
 nahiena ezin atxekiz
 z z z z z z z z z z z z z z
 z z z ahalegin osoz,
 behin eta berriz erasoz,
 bide bihurri nekosoaz,
 arnasa eta eskatzen zuen
 hitza, elkargana datoz
 z z z z z z z z z z z z z z
 z z z lehendanik kirikaz,
 gero elkarren irrikaz,
 batzandu dira kilikaz
 beti guztiko ballet iaioan
 erritmoz eta musikaz
 z z z z z z z z z z z z z z

OHARRA

“Liburu komentarioak” deitu atalean ageri den Patziku Perurenarenak irakurri eta idatzia da horrako hori. Gero jakin nuen

nor den Patziku Perurena. Arraio Patziku! Patxi Perurena zen nik ezagutzen nuena, ez aurpegiz aurpegi, baina bai hain gustora irakurria nuen *Emily* liburuaren bidez. Geroztik *Kantutegi Zaharra* ere gozamen handiz irakurri dut. Hau berau bai, hau Patzikurena da. Nik ez daukat liburu bikain eta onargarri horien egileari zer tronpa jorik; mirespena, atsegin agurra eta esker ona besterik ez diot eta zor.

NERE OBRAZ*

Izendatu didazuen gaia nere obraz mintza nakizuela da. Markatu didazuen epea, 1977-1990a artekoa. Epe horretan, *Udabatez Madrilen*, *Denbora galdu alde* eta *Gabon dut anuntzio* argitaratu izan ditut. Horietaz bakarrik jardutera mugatuko banintz, niretzako oso funtsezkoa den *Elorri* eta inportantea den *Hiru gizon bakarka* beharko nituzke utzi, nere obra ez balira bezala. *Nere obra* espresioak zerbait handia sujeri dezake, baina hemen nere obratxoa esan nahi du, murrizta baita gaixoa. Nerea da, ordea, eta oso urruti eta oso ezkutuan dituen sustraiak ditu.

Han, Bizkaiko Mendatan, idazten ez zekien gure ama Anastasiak berebiziko inportantzia ematen zion hizkuntzari. Pertsonak berbaldun eder eta ez-ederretan bereizten zituen, hain zen inportantea harentzat pertsonen berba egiteko modua! Eta beste bereizkuntza gutxi egiten zuen pertsonen artean. Pertsonen berba egiteko era zen harentzat aintzakotzat hartzekoena. Berbaldun ederra zen harentzat: Don Anjel, Arratzuko parrokoa, eta Forutik, Larreatik, Eubatik-eta etortzen zen fraide bat edo beste. Iluntzarbeko Ploontinori, Akertxu Arrolakoari, Tomasa Iberrekoari-eta ere entzutea gustatzen zitzaion. Harengandik, Seminarioan -1940-45a bitartean- erabat baldartu genuen euskara berregokitzeko hartu nuen aholku erabakiorra.

* *Hegats*, 4, 1991, 207-217. orr.

Seminarioan nekez ohartu nintzen ulertzen ez nuen hizkuntza eta hitzaren ederraz. Humanidadesetako hirugarren kurtsoan sortu zitzaidan arginabarra. Gaztelerako literatura irakasten zigan Aita Elcid maisu fraideari zor diot hizkuntza arrotzaren edertasunarentzat begiak zabaldu izana. Hark ikuserazi zidan, testuko irakurgaiak aztertu ahala, hizkuntzaren osagaien konbinaketak zuen graziaz jabetzen eta baliatzen.

Gaztelera lantzen aritu ginen gero, harik eta –filosofia ikastera joan eta– Olitzen aurkitu genuen euskal girotxo erne berriaz topo egin genuen arte. Han hasi ginen euskarazko geure asteroko idazlantxoak ontzen geure kasa eta irakasleen laguntza eta onespenez handirik gabe. 48-51 bitarteko urteak dira. Han ezagutu genuen Lizardiren *Biotz-begietan*, beti ere latin eta grekozko autoreak baino ulerterrazagoa *Arrats-beran*, han Orixeren *Barne-muinetan*, han Jauregiren *Biozkadak*, han Arrese-Beitiaren *Ama euskeriaren Liburu Kantaria*, han Basarriren *Bertso Sorta* ederra, han Aita Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu-Euskal Poema*. Ez zen gutxi. Han tartekatzen genituen oraindik gaur bertan irakurtzen ditugun zenbait erdal idazleren eta euskaldunen obrak. Baina euskarazko despentsa urria zen. Denboraldi motxean ikusi behar izan genituen goian aipatu liburuak. Ale bakarrak ziren, asko ginen irakurri nahi genituenak eta ezin gozatu izan genituen komeni eta nahi bestean.

Erdarazko liburu eder asko genuen. Gaztelerako eskolaldietan Santa Teresa Avilakoaren *Las Moradas* aztertzen genuen eta gazteleraz hamabostean behin idazlan serio bana aurkeztu behar izaten genion irakasleari. Eta urtean zehar *akademia* deitzen genion lan luze eta sakonago bat.

Arantzazura aldatu ginenean, aukera gehiago genuen euskaraz lantzeko. Inoiz ere ez askorik. Eta batera edo bestera, Teologiako ikasketek, “círculo de misiones”, “círculo de franciscanismo” eta bestek irensten ziguten denborarik gehiena eta.

Lizardik, Orixek eta Lauaxetak biziki inpresionatu ninduten. Latinez eta gazteleraz irakurtzen genituen autoreen parekotsu

aurkitu nituen gaiaren eta esaera ederraren erabilpenean eta, beti ere, haien dotoretasuna nuen begi-bistatik galdu behar ez nuena.

Teologia ikasten aritu ginen denboran, eta geroago ere, banituen literatura gustatzen zitzaien lagunak. Denen artean Jose Antonio Astigarraga dut aipatu beharrenekoa. Erdaraz idazten zen poesia asko inguratzen zuen, ez dakit nola eta nondik. Trape-ro samarra ere bazen hura. Garai hartako *Blanco y Negro* errebistak orrialde-pare bat behinzat eskaintzen zion poesiari. Bazen *Acanto* deitu poesiari osoki dedikatutako aldizkari bat ere. Carlos Bousoño-k hau zioela, Entrambasaguas-ek ez dakit zer. 27. belau-naldiko denak ezagutzen zituen gainera, eta hauen artean nire gustokoena Juan Ramon bazen ere, Antonio Machado hobesten irakatsi zidan.

Euskaraz idazten zen poesia ere inguratzen genuen nolabait: *Euzko Gogoa* zela, *Euskaldunak*, *Egan*, *Milla Euskal olerki eder...*, baina erdaraz idatzitako poesia gehiago erabili genuen. Idatzi, aukeran euskaraz idazten genuen. Hark nik baino askoz hobeto idazten zuen eta maisu zorrotz izan nuen.

Garai hau 1952-57 bitartekoa edo da. Ordukoak ditut gero, *Elorri*-n agertu ziren poematxo asko. Gerora ere Jose Antonioren-gana jotzen nuen, nere lantxoeren orrazketa egiteko. Nire lantxoeren xedea, esankizunak argi eta garbi adieratzea zen. Martxa honetan idatzi nituen gaur *Elorri*-n ageri diren poematxoak eta agertu ez zirenak.

1958-1960a urteak dira, eta hemen, beste izen bat aipatu behar dut, Joxe Azurmendirena. Honen eskuetan utzi nituen *Elorri* izenpean idatzirik nituenak, eta honek bakandu, sailkatu eta sortatu zizkidan *Elorri*-n ageri diren eran. *Elorri*, bukatu zen baino urte-pare bat beranduago agertu zen. Bilboko *Gráficas Bilbao* inprentan aurkitzen zen 61ean. Han harrapatu zuen poliziak liburu gaiztoaren batekin nonbait, eta Arantzazura bueltatu zidaten, gazteleraz jar nezan aholkatuz eta hala itzuli zen. Nik oinezko lerrotan jarri nuen eta A. Pedro Anasagastik hegazkoetan. *Elorri* apaiz-karrerako azken urteetan eta apaizgoko lehenetan idatzia

dut. Hasiera beretik da sinbolista. Elorria da gure giza biziera batean zarpil, bestean ederraren sinbolo, bere betiko arantza eta udaberrietako loratze dena betekoan. Kantatzen duen errealtatearen fedearen argiak edo ilunak matizatua dago, baina ez da erlijioaren apologia, hizkera ederraren mamitze-saio bat baino. Bakoi-tzean aukeratzen dudan gaitxoahalik eta hitz zehatz eta juxtu-nez, inongo erretorika eta erretolika gabe adierazten ahalegindu naiz beti. Hitza errealtateari egokitze-lana izan dut eginkizunik eta behinena. Plastizitatea izan dut helburu. Egia da, inoiz edo behin, beste zenbait idazleren oparotasuna imitatzeari amore eman diodana hizkuntzako ariketa bezala, baina ni hitz gutxiren eta nahitaez beharrezko diren haien zale naiz izatez.

Gure formazio-garaia –1940-55– eta ondorengo urteak ere euskaraz idazteari eta literatura eder bat sortzeari ekiteko ez ziren bat ere lagungarri. Idatzi gutxi egiten bazen, irakurri ere ez zen asko egiten, eta euskararenak egina zuelakoan geunden. Honek beronek moteltzen eta adoregabetzen ditu literaturgintzan jarduteko gogo eta erabaki guztiak. Honek ez luke gerrak eta gerra ondoak inarrosi gintuenon aldeko aitzakia bat izan nahi. Giro txar hura gainditzeko ez ginela gauza izan adierazi nahi du bakarrik. Artean ere, bada kinka hartan biziki miresten dudarik. Lehenik gerrak erbesteratu zituenak: Orixe, Zaitegi, Montzon; gero, bertan mazpildurik utzi zituenak: Manuel Lekuona, Xanti Onaindia, Luis Jauregi, eta azkenik Mitxelena, Yon Etxaide, eta mugaz handiko Iratzeder. Gure literatura eta bereziki gure poesia eraso txar guztien kontrako bizinahiaren ageri zigortua da. Harritea jaso duen lurraldeko landare murriztuen irribarrea.

Sinbolista izatez gainera, intimista naiz nerez; badirudi ni, neure garaiko arazo politiko eta sozialei aurpegirik eman gabe aritu nintzela lahar artean sasitxori, gizarteak orokorki eta euskal gizarteak bereziki bizi zituen estualdiz eta lorrez arduratu gabe. Badirudi, baina hori ez da horrela: politikarena gai ukieztina eta debekatua zen gure artean eta giza eskubideez aritzea politika egitea zen eta erosta jotzea politika zen eta horrela, eta orduko gau-

zak, orduko jokaerak, orduko giroan kokaturik ikusi eta aztertu behar dira. Gainera *Elorri*-ko *ni*-a, *ni*-neua baino zabalagoa da: gizateria izaterainokoa, baina ez abstraktuki hartua, neugan errotua eta pertsonatua baino. Eta, beraz, denbora guzti haren *ni*-a.

Hala ere, sobera bistan dago sasoi hartako eta ez hartako gizonaren pairamen-nekaldi zehatzik ez dela *Elorri*-n ageri. *Elorri*-n ez da ezbeharra, delakoa dela eta datorren lekutik datorrela, ez dela diot, kexatzeko arrazoi, kristau eramanpen eta isiltasunez, Jainkoarren eta bakearren jasan eta garraiatu beharreko gurutzea baino.

Baina guztiok ez genuen portaera eta hizkera-modu berez jokatu. Orduan ere baziren batzu-batzu gauzei bere izenez deitzen zietenak, bereziki kultura urbanoan jaio, formatu eta zailduak, baina gu euskaldun erruralen haurrok konformidadean eta hala-beharrean bizitzen irakatsiak ginen Jaungoikotik jaunetara eta jaunetatik jauntxoetara eta isilean eta apaltasunez behar genuen eraman mundu triste eta erbeste honetako neke, kalamidade, lotsari eta zapalkuntza oro.

Euskara bera salbatzearren ere idazten genuen guk, euskara salbatuz, euskara baino zerbait gehiago ere salbatuko genuelako ustetan. Euskara setiatua, erasoa, beldurtua eta lotsagarri jarria genuen geure begien aurrean. Gainera, guztian mendean harturik ginduzkaten, kateetan eta zigorpean, ezertariko ez ezertarako askatasunik gabe. Baina ez gintuzten zeharo arnas-hustu eta guk ahal genuen neurrian arnasari eutsi nahi izan genion, gutxi eta eskasik bazen ere, euskaldungoaren birika izateari ekinez.

Bestalde, gai politiko eta sozial horiek poesian baino prosan tratatzekoagoak zirudidaten, eta, poesian izatekotan, poema epikoetan. Ez nintzen berehalakoan konturatu gai horiek lirismo handiz erabiliak zeudela, ondo aspaldian gainera, Testamentu Zaharreko profetetan bereziki. Amos bat basoetatik lau egia aldarrikatzera jaitsi izan balitzaigu guri ere! Baina era bateko edo beste teko poesia, gai horietaz bortizki jabetuz orduantxe zihonan Gabriel Celaya, Otero, Otsalar, Joxe Azurmendi, Gabriel Aresti eta besteren bidez.

Elorri 60a aurrekoa dela esan dut eta urte horretararte poesia sozial gutxi agertu zela, isilpeko paperen baten edo bestetan izan ezik. 60tik 70era kanporatu zen indarrez poesia sozial hori; baina nik ondo dakit, 68-69a zen, eta erbestean, Alemanian bizi zen Joxe Azurmendiren *Hitz Berdeak* antologia ondu eta gero argitaratzeko baimen eske hasi nintzenean, zenbat poema eder kendu arazi zizkidan *Consulta Previa*-k, “que ésa es otra”, esan ohi denez. Nik *censura* hitza aipatu nuen Gobernu Zibilean eta Espainian ez zela *censura*-rik erantzun zidaten. Orduan, egiten eta galerazten zidaten guzti hari nola zeritzon galdetu nienean, hura *consulta previa* zela erantzun zidaten, eta beste. Egia esan, gurean, poesia soziala baino debekatuagoa zen beldurra galtzen edo balentria irabazten zetorrela jendea fronte askotan: politikan, arazo sozialean, poesian.

Adierazten saiatu naizen giro horretan, izurrite horretan, gerra zibilaren takarreko izugarri haren ondoren, lehen hamar urteetako kordegabeziatik irteten oraindik hasi berri samarrak ginen hartan sortzen hasiak dira *Elorri*-ko poematxoak, ez noski gero osatuko zuten libururako pentsatuak, baina bai *Elorri* izenburupean. Zer nahi duzue? Ez dut ukatzen noizbait libururen bat osatzeko nolabaiteko gogorik ez nuenik, baina lekutan nengoen. Euskara eta idazten ikasteko besterik gabe eginak dira batzuk, estiloa lantzeko, eta abar. Autore famatu batzuen imitazio obligatu bezala eginak dira beste batzuk; izan ere, garai hartan hori guztiori egin beharrekoa zen norberaren prestijiorako. “Gauza ederrok baiño” 104. orrikoa, Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuko “Maitale kutuna”-ren imitapena da, eta 109. orriko “Jaungoiko billa nabillalako” ez dakit norena. Eguneko meditazio aurreko irakurraldietan ematen zizkiguten pentsagaiei forma ematea ere bazen “Guzurra eta engañua” 98. orrialdekoa; eta “Zure barririk ez neukanean”, 98. orrialdekoa (beti 2. argitalpenaren arabera), hemen ideia San Agustinena da, forma nerea.

Batzuk gorapen handiak egin zizkioten poematxo honi, San Agustinen ateraldien neurrikoa zela ta, esanez. Nik esperientzia

hau ez dut neurea. Nik zer ihes egin behar nion Jainkoari, giza-jo honek, itxurazko bekatu bat ere egiteko gauza izan ez naizen honek! Garai hartako munduari buruzko ikuspegiei forma emate lana ere badago. Errealitatearen eta errealitatekoen esperientzia tinkik gabe, liburuek edo fraideek hala ziotena gaitzat harturik osatutakoak ere bai. Batzuk badaude etxe-giroaz ari direnak, 173. orriko “Zoriontsu nazan” eta beste; eta fraide-bizitzaz beti nola modu melenge batez hitz egiten zuten erara gauzak egitea eta ni ere horretan saiatu egin nintzen. Baina inori jarraitu gabeko neurezko poemak ez ditut gutxi, ez eskasnak. Orduan Amabirjina trapu artean jantzita zegoen, burua bakarrik agerian eta koroetzar zilarrezko batekin hura ere. Asko goersten zen argi eta zilar artean eta mantu handi eta perlaz jantzitako barruan ikusten genuen Arantzazuko Andre Mariaren irudia. Batzuk zerbait bizia edo zeruzkoa edo ikusi bide zuten, beren hitzen bidez adierazten zuten. Nik ostegunetan–bazterren garbiketa egin behar genuen egunetan– Amabirjinaren kamarinera osteratxo egiten nuen, ahalik eta gertuenetik ikusteko. Hainbeste zapi artean ageri zen apurra, amaren eta semearen musu eta eskutxoak ziren, eta politikak ziren arren, nik harrizko ikusten nituen eta hala kantatu, norbaitzuen aprobazio handiagorik gabe, jakina, Andre Mari hura harrizko zela behin eta berriz errepikatuz: “Emen..., Ama Birjinaren oin arrizkoe-tan” (137. orrialdean); “Arriz egindako Andra Mari zaarra!” (138. or.); “... Zure arri landu lakarrari” (143. or.), “Arrizkoa zara, irribarrezko arri triste eta otzekoa” (162. or.); “...farre dagizun arri otzeko tristur” (162. or.). Gaur gezurra badirudi ere, batzuentzat eskandalosoa zen hori orduan. Nolanahi ere, nahikoa berria.

Nik ez diot, hainbeste irakurri eta hainbeste imitatu ondoren, inoren eraginik gabeko poemak egile naizenik, baina mordo bat badut neure barruaren eta gustuaren ariora egina. Uste dut, halakoxe bat, irakurtzera noakizuen “T'euria” hau izan litekeela:

... T^oEURIA
T^ozkirri ta argia
itogin-zarata
saltari ta alaia,
klaustroko patio
barru ta gordean,
arra t^oerdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
... T^oeuria.

Argi ta saltari
zarata beti lez,
betiko beti lez,
ta, alaia,
kanpoan baiño be
ariman ba-litza,
arra t^oerdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
... T^oeuria.

Kanpoan baiño be
ariman ba-litza
euria, beti lez;
ta itogin-zarata,
beti lez, alaia,
beti lez, barruan,
arra t^oerdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
... T^oeuria.

(Elorri, 79. or.)

Badira gehiago ere neure erara eginak, adibidez: “Ementxe dago arkaitza” (27. orrialdekoa); “Berkak begipuntetan” (33. or.); “Usain erle” (37. or.); “Bazoaz eta bazatoz” (40. or.); “Neguan besarkatu” (41. or.); “Zarpil” (47. or.); “Xirimiri txanka mea” (69. or.); “Kantuak airean” (94. or.); “Poematxuok badoaz” (95. or.); “Urrundik naiatortsu” (120. or.); “Egon. Geldi t’edegi egon” (169. or.); “Lur busti au pozik” (179. or.); “Banitzan elorri” (184. or.); “Lurrezkoak gara” (185. or.); “Ardien ulemalutak” (188. or.); “Koruko gerizpe” (206. or.); “Egutera, keiari” (220. or.); “Landa orlegian” (236. or.); “Gurari itxasoko” (260. or.); “Begian jaiotzan” (263. or.); eta beste asko.

Herri-kantuen estiloari jarraituz eginak ere baditut: “Egun-sentiaiek ekarri nindun”, 195. orrialdekoa, esate baterako. Nik ez dut uste korrientea denik, ez orduan ez orain, honelako testu bat: “Otzez minduko ditu lainoak”, 196. orrialdekoa, esaterako:

Otzez minduko ditu lainoak
orri ta bedar maiteak.
Etorriko da, zezen zakarren
lepo ta putzez, iparririk.
Ardiak arkaitz-zulora, musin,
aldeko dabe larretik.

Egun illunak izango dira,
busti ta tristez, luzeak.
Josiko jakez dabillanaren
oiñeri lokatz zatiak.
Sartuko dira, nire gorpua
datzan obian, ur loiak.

Ekaitzak gogor artuko ditu
zugaitzak eta leioak.
Ainbeste frutu jausiko dira,
gorrinduko da baratza

ta indiabak lez ustelduko da,
basatan, nire biotza.

Egon ta iraunez, beera bearrak,
bultza betiko aidurrez,
zapalduko deust, nik ezin ala
eutsi, aldamen astuna.
Azurrak, banan, etsiko dabe
t'emon erraien utsuna.

Aurrerantzean autsa ta lurra
bat bera biziko gara.
Ez nauke ezagun sustraiak ta aren
janaldi-ondar naiteke...,
nigaz, belu ta noizbait, oroitu
daiten artean Berpizte.

(*Elorri*, 196-197. orr.)

Hau biziki esperimentatutako nekazal figuraz egina da dena.

Bada umetan sartu-sartu egin zitzaizkidan oroitzapenen eraginez ondutakorik ere: “Olak, ol barriak”, 202. orrialdekoa, bat aipatzekotan. Bada haurtzaroko bizikizun materialik, hitzen transposizio hutsez arimako egoerak adierazteko erabilirik. Irakurriko dudan poematxoan arima neu naiz, bakarrik eta ilusentiko sukalde itzaltsuan. Pentsa dezakezuenetz, Mendatako gure Orbelanun argi-indarrik ez zegoen. Ama etxeratzen zenean, amak pizten zuen karburoa. Umeok erdi-ilunpetan egoten ginen hura etorri arte:

Arima,
bakarrik,
soiñaren barnean.

Illunabarra da.

Ta ez dago argirik
nire biotzean.

(*Elorri*, 191. or.)

Honenbestez, badela aski deritzot, *Elorri*-ri buruzkorik. Hurrengoetan, baina, ez dut hainbeste xehetuko poesi modu konkretuei buruz.

Hiru gizon bakarka

Elorri, eutsi ezinezko idatz-gura baten, idazten ikasigura baten, bizikizunei, oroitzapenei, nahikariei, irudipenei, liluramenei eta ezinari berari hitzezko adierazpen egoki eta eder bat emateko eragin etengabe eta sendo eta ia nahitaezkoen ondorio bada, sekula gehiago ez idazteko erabaki, Oteitzak hautsi baten emaitza dut *Hiru gizon bakarka*. *Elorri* zehar jaio zela aditzera eman zidanik bada. Bestalde, ikusten ari nintzen poesia berriak ez zuela nahi nolabaiteko goxapenean amaitzen edo burutzen zen *hitz-joko* eta *hitz-jolas* polit gehiago gabekorik. Guri eredutzat eman zizkiguten modelu haiek, guk ederresten ikasi genuen hura, guk poesia bezala generabilen hura, denbora galtzeko ez ezik, jostailu kaltegarria eta ebasio-bide hutsa zela botatzen hasi zitzaizkigun gizateriaren egoera injustiziazkoaz, sufrimenduzkoaz eta esperantza gabekoaz konturatu eta kanturatu ziren kontzientzia berriko poetek: Gabriel Celayak, Bladi Oterok, Otsalar-ek, Joxe Azurmendik eta Gabriel Arestik.

Nik publikorako gehiago ezer ez idaztea erabaki nuen, gizateariaren egoera zenbateraino injustiziazkoa zen ere ez nuen garbi ikusten eta neure begiekin. Guri geuk nozitzen genuena bera, geure itsutasunaren, sentikortasunaren eta errebeldiaren kastigu justu zela irakatsi eta irentsarazi ziguten aginte zibilak eta aginte eklesialak, eta obeditzen ikasi genuen, sikan bertuteren baten jabe izan gintez. Bitartean, izarrei egiten nien idazten nuenaren erre-oparia edo zakarrontziari egiten nion neure poematxoen eskaintza. Denbora igaro ahala ikusten hasia nengoan, kontzientzia

tzia berriko poetok aldarrikatzen zutena lehendik ere aldarrikaturik zegoela, non eta egunero eskuartean nerabilen Biblian. Zer kostatzen zaigun batzuetan begi-bistan daukaguna ikustea! Jende arruntarekin harremanetan jartzeak ere mesede handia egin zidan: nekazariari entzuten nion, ofiziniestari, obreruari, irakas-kuntzan ari ziren maisu-maistra lan-kontratu, ziurrago gabekoei, auzoetako apaizei, arrantzaleei, hango eta besteko gazte kezkatuei, H.O.A.C., J.O.C. eta besteri; eta jendea eta biok joan ginen gizarteari ukatzen zitzaizkion eskubide batzuez jabetzen: gizarteak pairatzen zuen egoera hartan zer sufritzen zuen lanetik eta menpetasun hartan bizi behar zuenak, eta egoera hura luze zihola eta ez zitzaiola azken-modurik ikusten eta esperantzaren itogarri zela. Eta Biblia egunean baino egunean argiago ikusten nuen. San Lukasek Nazaretoko Mariaren ahoan jartzen duen *Magnificat* hura bera ez da poesia sozial makala!

Hontan, Oteitza agertu zitzaigun Arantzazu profeta aztertzaille aspergarri, Teologiako irakasleei euskaldunen eta Jainkoaren arteko erlazioaz galdezka, Moraleko irakasleei euskaldunen giza jokabideei buruzko balorapenaz galdezka, musikariei euskaldunen musikarekiko berezitasunaz galdezka, eta hola, sekula inork planteatu ez zituen euskaldun jendeari buruzko beste xeblekeria asko galdetuz. Entzulegoak ez zion luzaro iraun. Han alde zion batuk bestearen ondoren, halako errebeskerien ihesi. Orduan aurkitu nuen nik, bakarrik eta haserre. Ordurako elkar ezagutzen genuen Arantzazun egin zuen lehenengo egonaldi hartatik, eta idazten jarraitzen al nuen galdetu zidan. Ezetz. Beste eginkizun batzuk nituela, eguneko eskola-ordu asko, larunbat eta igande apaiz-eginkizunetan ematen nituela, eta hola; eta ezetz, idatzi ez nuela idazten, inoiz edo behin paper-saskirako ez bazen. Hark ez zidan ez arrazoirik ez aitzakiarik entzun nahi: idatzi egin behar nuela! Nik ez nion konprenitzen zergatik eta zertarako idatzi behar nuen. Gainera, ni idazteari planto eginda nengoen, eta nik ezetz. Egunetakoa izan genuen tirabira. Gizona itzelean erakargarri zitzaidan, bestalde. Hura ez zen zoro hutsa eta astiuneetan

itzuli egiten nintzaion, ez nuen galdu nahi harekiko harremana, distira-iturri bat zen; ikuspegi liluragarriak zituen, hura bazen zerbait berria eta biziki interesgarria zekarkigun eskaiolaz mantaturiko profeta bat ere.

Eta noizbait, amore eman nion: baietz, idatziko nuela. Eta han hasi nintzaion paperak eramaten euskaraz eta gazteleraz. Agintzen zidanean, irakurri egiten nion, erdaraz behin, euskaraz sarritan, hala nahi zuelako. Oharrak entzun eta jaso egiten nizkion eta paperak han utzi, haren lantegiko bazter baten. Zer idatzia barruan aurkitzen nuen eta kanpoan usmatzen. Sarasketa gartzelaratu zuteneko, Eibarko lehen manifestazioen, Txabi Etxebarrietaren eta garaia zen. Errejimenaren aurkako pitzadura guztiez behar zen baliatu, eta pitzadura haietan ziriak behar ziren sartu, garraiatu ahal zirenak, bertsoak ere bai. Esan gabe doa, nik ez nuela artean liburu berririk idazteko asmorik. Zetorkidana paperean jarri eta Oteitzari. Idazkerak ez zemaiddan inondiko lanik. Jabetuta nengoen ordurako, garai hartako poemetan esankizuna zela behinago esateko modua baino, eta aurrera, batean bertsolari gisara, bestean Bibliako profeten jarduerari jarraituz, gaiari zegokion jazkera taxutuz bestetan, paper asko pilatu zen Oteitzaren tailerrean.

Gero argitara behar omen zirela hark, eta orduan Zabaleta anaiengana jo nuen laguntza eske. Oteitzak berak adierazi zidan pastoral txikien moduan era nintzakeela zenbait poema, eta antzezpen gisako bi osatu nituen Pello Zabaletaren laguntzaz. Mikel Lasa ere ezagun nuen eta hari utzi nizkion paperak, eta hark baheetu eta zatikatu zizkidan, baita hitzaurre androso batez apaindu ere.

Nik neure moduko poesia soziala egin nuen, neure sustraietara itzuliz, erditu ninduen jende genero apal, baztertu eta bere herrian bertan guztiz kikildu, lotsati eta arbuaiatua aurkitzen zena- ren izenean abotsa jaszoz, ezagutu nuen estamentu euskaldun urri- tik urriagora zihoanaren itolarria aldarrikatuz. Euskal Herri bereko jende askok beste zenbait injustizia ikusten zuen, beste zenbait giza eskubide zapalduri zerion lantua entzuten zuen, baina ez zuen ikusten, baina ez zuen entzuten Euskal Herri bereko zenbaitek

bere hizkuntza beragatik gizarte-zerbitzurako zentru guztietan jasan behar zuen destaina eta desanparo isila, beti isila... Eta hau adibide bat besterik ez da. Beste askotariko pobretasun-modu askoren artean, badu beste pobretasun berezi bat euskaldunak; gutxi eta ahul izatearena, ezen asko eta sendo bagina, beste era bateko begiramenduz tratatuko gintuzkete bai euskaldunok eta bai euskara. Euskaldun sentitzen naizen aldetik egin nuen nik neure moduko poesia soziala beraz. Espresaeran edo formalki, poesia sozialaren modu libre eta apur bat traketsean idatzia dago.

Hitz gutxitan, poema horietan adierazi dudana Euskal Herriaren nire ideia azpimarratuko nuke. Nola sentitzen dudana nik zer den nire Euskal Herria. Eta arazoa beti ere luzeagoa dela kontutana izanik, hauxe aipatuko dut orain:

1. Baskongadas deritzan eremuaren barruan, gure aita zenak esaten zuen moduan, jende baju talde batek osatzen du Euskal Herria:

Euskalerrria Herri da.
Herri nahi eta ezina.
Nahi eta ezin honek ematen dio bizitza Euskalerrriari.
Herri aseka, mikatza.
Izan nahi larri hori barik ez dago Euskalerririk.
Suzko arima ase ezin garratza du Euskalerrriak.

Txakolina ardo da. (Euskalerrria Herri da)
Mikatza da.
Ardo nahi ta ezina.
Nahi ta ezin hau du bere tasun bereziena. Heldueza.
Ardo asmotako ardo ezina.

Euskalerrriaren mikaztasunak arima erretzen du, txakolinak bere mikaztasunaz ahoa erretzen duen bezala. Ardo pobrea da, ardo nahi lukeena, baina beste ardoen artean ardo ez dena, baina ardo ez dena halaz ere.

Euskal Herria Herri da Baskongadas barruan, arima delako, kontzientzia delako, samin delako. Euskal Herriak ez du bozkariorik ematen: kixkali egiten du. Izan nahiak ematen dio izatea.

(*Hiru gizon bakarka*, 10. or.)

2. Euskal Herria ez dira ezta ere baju guztiak, baizik eta heldu-nahia minez sentitzen dutenak:

ez da pobreen
dolareko ardo
eta ez aberatsen;
baizik heltzera heldu
ez den herri baten
heldu-egarria
minez nabaitzen duten
herritar egarrien
doloreko.

(*Hiru gizon bakarka*, 41. or.)

Hemen jokia, *dolare / dolore* da.

Elorri ez zen izan liburu bat egitea: poematxoak elkarren ondoan segidan jarrita daude 8 ataletan, elkarren arteko korapilo nabariago gabe. *Hiru gizon bakarka*, nahiz eta ez liburu bezala kontzebitua egon, kondizioek berek batasun batekin sorrerazi dute: kondizio horiek, Oteitzarekiko harreman hori eta momentu hartan Euskal Herria bizitzen ari zen bizitza-etzanda espresatu nahia da, besteak beste.

Uda batez Madrilén

Madrilera joan, ez nintzen Madrilegatik joan, han iragarrita zegoen 1974. udaldiko Teologi ikastaro bategatik baino. Baina Madrilén geratu, ez nintzen udaldiko Teologi ikastaroagatik gera-

tu, Madrile beragatik baino. Ni Teologia berri baten bila joan nintzen Madriler, ikuspegi berrien bila, adiera berrien bila. Baina programak huts egin zidan. Orduan, zereginik ez, eta ingurura begira jarri nintzen. Egotez, egonda nengoen Madrilen, bi-hiru aldiz ere, baina beti eginkizunen bati lotuta, eta, ikusi-ikusi, Madrile ikusi gabe nengoen. Madrili begira jarri nintzen, beraz; eta gauza oso serioa zela ikusi nuen Madrile. Erronka dialektiko bat bezala azaldu zitzaidan. Han zegoen, han zen eta han aurkitu ginen, ni neure mentalitate erruralaz eta bera bere taxutura urbanoz eta industrializatuz. Hiriaren hizkuntza lineal eta geometrikoa guztiz interesgarria zitzaidan, guztiz interesgarria gizonaren gaineko haren indarra eta presioa. David txiki aurkitu nintzen hiri erraldoiaren aurrean. Haren hizkuntza desafiozkoa eta erdainuzkoa nuen, haren tamaina eskerga, itzelezkoa. “Hauxe menderatu behar diat” esan nuen.

Berehala konturatu nintzen ordurarte erabilitako hizkerak ez zidala burrukarako balio, beste forma poetiko batzuk lantzerantz behartzen ninduen hark. Ez dago forma beretsuetan espresatzerik Arantzazuko lanbroa eta Madrileko trafikoa. Arras diferenteak dira eragin eta zentzu espazialak, arras diferenteak mintzagaiak. Espresabide berri baten beharrea aurkitu nintzen, hango errealitatea harrapatu eta menderatuko banuen. Ezin nion eraso espresionismo sozial batez, testigantza eta jarrera moral batez, protesta hautsi eta gogor batez, Goliat gerrari trebearen kontrako hartan Saul erregeak David artzainari jantzi nahi izan zizkion arma eta armadura sofistikatuez. Nik mundu arrunteko harrikorokor biribilez eraso nion, egunero erabiltzen ditugun gauzaz: kaleetako anuntzioz, arkitekturaz, espaloiz, metroz, eskailera automatikoz, periodikoz, eskabadoraz, gruez, palaz, gizon anonimoz, jendez, hiriko konplexutasunez.

Liburua espreski konstruitua, da. Elementu asko dago, sentimendua utzi eta deskribapen hutsaren bidez eraikia. Sentimenduak ez dira ezkututzen, baina *Elorri*-n deskribatzen diren natur fenomenoak sentimenduen zerbitzuan dauden bitartean, Madrileko deskribapenak ez daude ezere zerbitzuan. *Hiru gizon bakar-*

ka-ko forma popularretik forma landuetara buelta ageri da hemen, forma artifiziosoetara.

Hau, poesia baino, erreportari pobre baten saioa da. Neure Madrilen argazkitxoa, esan bezala, beti hizkuntzarekin borrokan egina. Bi adibide aipatuko dut, edo nahi baduzue bat bi eratan. Da, nola esan mugimendua: 1) jende arteko mugimendu fluidoa, eta 2) kaleen eta hormen arteko zurruna. Lehenengo adibidea irakurriko dizuet:

Aurrez aurre dator
–koadru marroidun jaka–
eskuinetik igaro natzaio,
–alkandora horia ta korbata nabarra–.
Eskuinetik igaro zait
–jertse krema argia, fraka grisaxkak,
pauso azkarra–,
aurreko gizataldea barna
galdu du bizkarra.
Edotariko aurpegi, janzkera,
tamaina eta adinekoen erdiz igaroz noa;
zenbaitek pasatu egiten nau,
nik ere pasatzen ditut batzu,
beti ere pasatzen nau bat edo bestek,
nik ere pasatzen dut inor.
Trikitx egin duguneko galdu zait,
aurrera hartu didana ere galdu zait
–jaseko soin eta berna–;
askotariko aurpegi, janzkera,
tamaina eta adinekoen artean galdu zait,
zenbaitek pasatu egiten nau,
nik ere pasatzen ditut batzu.
beti ere pasatzen nau bat edo batek.
Eskuinetik igaro natzaio
–butano koloreko nikia, gerriko beltza
eta fraka lilak–,

eskuinetik igaro zait
 –bakeruak eta ile luzea solte–.
 Edotariko aurpegi, janzkera,
 tamaina eta adinekoen erdiz aurrera,
 aurrez aurre datorren askotariko jende tarte;
 zenbaitek pasatu egiten nau,
 nik ere pasatzen ditut batzu,
 beti ere pasatzen nau bat edo batek,
 nik ere pasatzen dut inor.
 –pieza bateko gona beltza gorputz lodi baldarrean–;
 beti ere aurrez aurre datorren
 askotariko aurpegi, janzkera
 tamaina eta adinekoen erdiz aurrera ta aurrera,
 batabestea pasatuz,
 askotariko jende tarte,
 Lagranbiaz, Alkalaz, arratsaldeko lana
 utzi osteko ordu lasai eta koloretsuz.

(*Uda batez Madrilen*, 82-83. orr.)

Banoa kalez eta mugimendua bere erritmoan eta pertsonak
 nahi ditut, hitz soilaren medioz, pintzel edo zizel ordeztu, pintatu.
 Nere inpresioak pintatu, hau da, kaptazio-momentua inmediateki
 espresatu, elaborazioa baino lehen, diseinu bat egin, murriztu,
 behin-behineko borradore bat, xehetasunetan geratu gabe. Dibu-
 joa soil-soil emango duten hitzak bakarrik marraztu.

Orain, ez jende artean, kalez kale noa:

Begiak zabalik begiratzen dut kalea.
 Etxe ertz zurrinak argia ebakiz bakoitzak
 alboko hormari;
 hormak aurpegi kolore askotarikoz
 argiaren bila.

(Ez dute gizamusu bat ere leihoek ageri)

Begiak zabalik

rrian ezagutu nuen, baso arteko Orbelaun alde guztietatik urrun hartan. Gurean oso goiz hasten ziren Gabon prestakuntzak, bazterrik-bazterriko karakolak bildu, Gabon-sutarako haritz-mukurrak eta inguratu, eta hola. Sinesmenez, Gabonez jaio zela eta jaiotzen dela Kristo sinesten genuen, eta gurasoen Gabonetarako prestakuntzak ikusiz, oso gertuko bezala hartzen genuen Gabon.

Zenbait zuhaitzek, bere osasunean ebakitzen bada, aldaskak, puja berriak botatzen ditu; liburu bi hauetan horrelako zerbait nabaritzen da. Berrindartze bat, edo nahiago bada, *Elorri* eta *Uda batez Madrilén* ondoren, itzulika bat haurtzaro linguistikora, mitikora, haurtzaroko kontzientziara, memoriara. Formalki ere, batean zein bestean, askotariko moduak entseiatzen dira, baina badago bietan zerbait berdina: forma sinple, espontaneoak bilatzea. Herri-literaturan murgildu eta hor egin igeri. *Gabon dut Anuntzio*-n, batzutan herri-poesia nolabait kultua landu da (inoiz ez kultuegia), musikatzeko zen testu bat, Gabona fraide eta estudiante artean bizitzeko. Badira ikasleekin komentatzeko sorturiko asmaketak ere, Gabona girotu alde. Beste batzuk auzoan etxe etxe kantatzeko eginak dira eta atmosfera horrixeko erantzuten diote. Beti ere lagunarteari eta festari gehiago begiratu zaio, literaturari baino.

Denbora galdu alde-n autoanalisi den lan konplexu, artifiziosoa, ahalik modu xinpleenera ekarri nahi izan da. Formetan nahaste-borraste bat dago. Apropos. Libertate bila. Baina hitzetan, esaeretan, zentzu komunaren jakindurian, berriro Orbelaunekiko lotura estua dago: etxeko ipuin-giroa, aitaren erako “parekoak” (gure aitarentzat parekoa, bertsoetako puntu irregular samar bat zen), inguruko esamoldeen erabilpena eta abar.

Eta bukatu, dut.

UDA*

Berde mardul zelaigoreneco pagoa. Berde dangel pago barrenge zelaia. Altu zerua urdin, eta argi handia paraje zabal maitea alaituz. Nekazarien semeok ez dugula eremediorik, aizu. Nik ez dudala eremediorik. Itsas ertzean eta itsasoan bertan ere bai, eta lehorreko hiri erraldoi erdi hustuan, eta Nafarroako Erriberri mahastitsu eta olibaditusuan, eta Soriako eremu lakar eta usaitsuetan, eta Donapaleu artatza garatuz jantzian, eta Suizako Lausana txukun eta loretsuan, eta sardinketari oinuts beltzez estaliak derakusazkidan Portugalko Setubal sargoritsuan, eta hor dabilkit oroitzapena, hirurogei udatako giro eta gunetan barrena. Arantzazuko ikastetxearen gainkaldeko pagoaren gerizpe hezea dut hainbeste udaren behatoki, laborategi eta museo.

Udan argia da nagusi, eguna bere mugen ahalbidetaraino hanpatzen duena. Zein boteretsu eguzkia udan. Zein luzea eta ausarta haren txangoa. Iparretik ekialdera bitarteko Harlepo gainetik azaltzen zaigu goizean goiz, noranahiko distira adoretsez eta sekulako galant, ikastetxea ostetik argituz; handik ekialderantz abiatzen da poliki, beti gorantz, goiak harrapatu ahala sendoago eta beroago azalduz, harik eta eguerdian, zeruaren gorenean eta zutik loak hartzen duen arte, suzko ziba bat bailitz, eta gero, hegoaldera zirkinik batere egin gabe, sartaldera abiatzen da oso

* *Hegats*, 6, 1992, 5-9. orr.

geldiro eta denbora lasai baino lasaiago emanaz, azkenean noiz-bait iparraldetik berriz ere ikastetxea ostetik argitzen duelarik, Anbotora baino lehentxoago mugako mendi kaskora jaisten den arte; hantxe egiten du apatx alditxo batean, zeruak sarrerako dekorazio bikain eta beti ikusgarria atontzen dion artean; gero, irrist narras bat eginez desagertzen da halako batean, eta han ere gauari berandutu arazten dio aldi bat.

Ekaina aurrera dihoa eta ireki da egunaren angelua ezin gehiagoraino eta argiak gainez egiten dio lurraren gainaldea mugatzen duen lineari. Noiz iluntzen du San Juan bezperan? Umetatik ikusten dut egun hori luze. Aita, noiz biztuko dogu sua? Iluntzen hasten dauenean. Eta noiz hasiko dau iluntzen? Aitak aurretiz ebakitako sastrakak genituen han, nebarrebok pilan jarriak, eta guk erretzen ikusi nahi genituen, ez argiaz nekaturik geundelako, haren inguruan saltosaltoka ibiltzeko eta aitarekin kantuan ekiteko baino. Eta zero barrenaren urrunean egunaren azken ilintiak erretzen zihozazenean, guk sastraka lehor piloa iziortzen genuen eta suari eta garrei bizirik eutsi nahi izaten genien gustora sentitzen ginelako garren argitara. San Juan bezperan sastrakak piztu behar hau ere bada argiarenganako zoramen nahitaezkoren bat edo. Ni neu urte luzez eraman nau zerbait halabeharrekok San Juan bezperetan erregai metatuei sua ematera, bezpera hori biharamuneko argiaz uztartu guran edo. Azken urteotan seminarioko gorengo terrazan jartzen naiz egun luzearen amaibako iluntzeari eta etxe bateko eta besteko suei, itxungitzen diren artean begira. Gogoetak egiten jardun ohi dut, argiaren mozkorra poliki hausnartzen dudana bitartean:

San Juan bezperan
beranduan argi,
gautu orduko
biharamuneko
egunsentia
betargi.

San Juan eguna
luzean luze,
jori ta usaitu,
guri ta heze,
dena fruitu eta
dena ostape,
heldu baino gordin,
bero ta berde,
udako eguzki
goritan erne.

Aizu, uda lehorra da nahi baduzu, eguzkiaren lamada geldi eta geldoak du txigortzen, baina berdea da, edotariko berderen edotariko gamak zein bere betera ekartzen dituen garaia.

Argia, beroa eta berdea da uda lehorrean, azul ilun zurinabartua itsasoan.

Gustoko zait argia, eremua urrutiraino nabariarazten didan argia, begietako bista lausotzeraino gizentzen den argia, laino zuri eta lodi baten aurrean jartzen nauen argia, zuri hutsez itsutzen nauen argia.

Gustatzen zait beroa, itzala eta haize freskoa atsegingarri egiten dizkidalako, baina baita ere azalak eguzkiaren izpiak estimatzen dizkidalako, eta izpien behatzak mamiak gozatzeraino heltzen zaizkidalako.

Gustatzen zait berdea, umetatik zait gustagarri. Bizitzaren kolore aurkitzen dut berdea, eta ez da seguru asko landare artean ireki nituelako begiak, ez, beste zerbaitegatik izan behar du; agian berdearen eta gordinaren artean datekeen nolabaiteko senidetatsun zentzual airekoren batengatik.

Gustoko zait azul iluna nahiz itsasoan, nahiz zeruan. Gaurik ilunenerako bide sakon aurkitzen dut urdina; nahiz zeruko azulez gora, gora ta gora begiratzen dudala geldi ta luzaro, nahiz itsasoko uren barrenera begiratzen dudala behera eta behera, begiok ilunera iristen zaizkit, ilun handira. Eta iluntasun handia eta isil-

tasun handia eta bakardade handia atsegingarri zaizkit, itsutasun zuria bezala, irentsi egiten nautelako nolabait, berenganatu arte irentsi, iluntasun isiltasun bakardade itsutasun erabateko bizian barrentzen nautelako bizirik eta hazirik. Sentsazio hauek beti izan zaizkit gustoko, agian zorabioan atsegin hartzen dudalako, agian neure burua galdurik, osotasunean sentitzen naizelako integraturik inongo ez inolako eragozpenik ez duen giro gozatsuan.

Izerdi usaina du udak. Oporrez edo astiunez edo hartarako aukerez baliaturik hondartzako harea berotan etzanik eguzkiaren garretan urtzen jartzen gareneko izerdiarena, zelaietan, mendietan, igerilekuetan egunaro argi eta beroaren atsegin iturriari ematen gatzazkionean, tanto loditan darigun izerdiarena. Ama gaxoa! Argi bero eta gogoko honen azpian gorputza gozaten zaidan honetan, oroitzapenaren erretratuetan hemen zauzkat, soro lanerako prestatzen. Eskuetako azalik ere ez zenuen jarriko zuk zeure borondatez, eguzkiaren errainupean. Buruzapia ipintzen ikusten zaitut. Non gorde duzu aurpegia, ama? Bekokitik aurrera luzatu duzu arraerdi bat buruzapia, teilatu-erlaitz asko irtena dirudiela. Beltzaran jaio zintuzten eta zuk ez zenuen ilunagotu nahi zure kolorerik. Azal urdinekoa da aita, Eguzkitatik ondo gordetzen du burua kapela zabalez, eta besoak ere bai eskumuturretarainoko alkandora-mahukaz. Soroko ardorak erre egiten du, lan luze eta gogorrean batez ere. Aita izerdiberago da zu baino, ama, eta sarri bidaltzen nau iturriko uraren bila. Besoaz txukatzen du bekokian behera txirrioka darion izerdia, eskuetatik hartzen dit potina, jasotzen du, aurpegi parean atzeratzen du eta han ur-zirrista bihurri eta gardena aitaren ahora. Gorgoilak gora eta behera egiten dio aitari okozpean, zurrutak dirauen artean. Beharko edan eguerdi aurreko asperotan, guztiz idortuko ez bada. Artajorratez, belar ihartze, gariebakitze-jotze garaiko sapa gaitzetan izerdi berri eta zaharraren usaina dute, eguzkia behar eta eguzkitatik gorde nahi duten guraso maiteek.

Uztaila da agian, abuztua beharbada. Apain eta dotore jendea Zarautzko eguerdi argitsuan arin jantzirik. Hondartzarako bidee-

tan, adin guztietako pertsonak samaldan, eskuoihalak bizkarretan, besapeetan, eskusareetan daramatzatela eta itzalak baino zintzoago darraielara izerdi usainak.

Bazkalurre hontan gerizpea ere ez da izango txarra, eta edari fresko eta egonalditxo bat Getarira begira. Ez ote ditugu izutuko euliok? Astunak doaz egunok, beroak. Iluntzera freskatu behar luke, baina haize errea dala bertan ere. Egunotan izerdi usaina dute autobusek, dendek, tabernek, bizartegiek, liburutegiek, kafe-tegiek, zinemek, diskategiek, trenak. Sargori egiten du, izerditsua aurkitzen gara, nagi eta utziagoak, aizu.

Uda asko dut aldean
oroipenen sarobean,
ezin dena laburbildu;
halere ale batzuek
nahi izan ditut topildu.

Gertuan dugun apurra,
haizea, ura ta lurra,
onirizten bagenek,
agian zorionaren
berri genuke emeki.

Zenbait bizipen hausnartu,
bero argia gozartu,
garai ederra da uda;
leku ta modu askotan
gozatu dudana puntu da.

Ikastetxe gaildeko
pagopeari naxeko,
gutxi bezainbat asko da:
osasu jantziez badut
zer eramanez orain.

Madrile alde batean,
itsas aldean bestean,
lehorra eta hezea;
atsegin nahiak bizi du
alde guztitan jendea.

Frailtzan ezer ikasi
badut, hau dut irabazi:
gauzei lotu gabe bizi,
gutuzi zikoizkeriak
sortu orduko irazi.

Oporretan uste dugu
zoriona buruz buru,
gose da gure irrika;
asegaitza ase nahirik
alferrik gabiltz apika.

Eskura zer zaigun jartzen,
jakin hura estimatzen,
opari bailitza dena;
esker onezko tenplea
bera zorion onena.

NI NEU EUSKAL IDAZLEETAKO BAT*

Lehenengo akordua: ogi apurrak ereiten nituenekoa

–1928an Mendatan jaio nintzen. Primo de Riveraren diktadura garaian.

–Nabarriza. Ama gaixotu zelako, osaba Eulojioren etxera. Osaba abertzale, euskaltzale nabaria zen. 1934an Ameriketara joan zen herentzia bat kobratzera edo. Nabarrizko lehenengo akordua: aulki bat hartu, bentana ondora bultzatu, haren gaincan zutik, ezkututzen zihoan eguzkiari begira jarri eta negar ta negar egiten nuela, osabaren barreak gorabehera.

–Antzerkiak bi ere egin nituen. Zine mutua osabak botatzen zuen.

–Lagunak txorizaleak. Nik neguan topatzen nituen habiak.

–Don Nikolas, parrokoa, tailagilea, antzinateko objektuen biltzailea. Haren etxean sarri nintzen osabarekin. Osaba ere bazen tailagile. Ordutikakoa dut ofizio eta afizio horietarako joera.

–Osaba patatak-eta ortuko lurrean jartzen ikusten nuen eta nik ogi apurrak ereiten nituen.

–Bi-hiru urterekin joango nintzen Nabarriza.

–Antzerkia bost bat urterekin edo egin nuen.

–1934an Jaunartzea.

–Ikurrina eta Batzokia.

* *Hegats*, 17/18, 1997, 99-109. orr.

–Dotrina lehiaketa. Osabak irakasten zidan dotrina eta nik buruz jasotzen nuen.

–Mendigoizaleak. Geu ere osabarekin San Migelera igota gagoz.

–Eskolan euskarazko katona fuera, eta liburu handi bat: entziklopedia edo.

Ikurrindun jertsea

–Mendatarra, esan nahi da baso arteko baserrira, bost-sei urte bete orduko seguru asko, etxeko zaharrena ni. Umezain, ganaduzain, ur eta egur ekarle, errekadu egile, errotara, Nabarriza, Gernikara, Aulestiara. Eskolara urri.

–Behi batek adarkatu eta buru azpian erabili ninduen, harik eta aita etorri zen arte.

–Ikurrindun jertsea.

–Lehengusu milizianoak. Armen lilura.

–Dantzariak.

–Kantuak: Amak kantatzen zituenak. *Orra or goiko ariztitxu baten* eta beste batzuk.

–Aitaren bertso paperak. Atarteko horma zuloetan gordetzen zituen aitak.

Jertsea lejiatara

–Gerra: euskaldunak eta faxistak.

–Gernika erretzea.

–Amak oilategira deitzen ninduen. Aita Zeharsolo lantzen ganaduekin.

–Faxistak garaile, abertzaleok galtzaile.

–Dena iruleztara, dena ordura artekoaz bestelako.

–Ez *Gora Euskadirik*, Jainkoaren amorearren, amak.

–Eskolan *Cara al sol*. Besoa gora, eskua luze.

–Fletxak eta Pelaioak. Dotore jantzita, gerrian puñala erakarri. Inbidiagarriak.

Eskolara bidali, bai, egin ninduten, betiere etxean lan gutxiago zegoen aldietan. Inork inoiz ez zidan ez etxean, ez eskolan ikasten nuenaren edo ez nuenaren jarraipenik egin. Nik nire aldetik ez nion eskolari inondiko gusturik. Ez nekien zertarako izan zitezkeen eskolako ulertzen ez nituen liburu eta gainerakoak. Gaurko giroan ulertezina dirudien arren, eman egiten ziren halako fenomenoak, eta gertatu egiten zen, eskolatik irteteko adinera arte –hamalau urtera arte– maiz samar eskolara joan izan arren, eskolatu gabe bukatzea eskola sasoia. Horregatik gero, soldadutza garaia tristean batez ere, gaueskolak.

Nabarriz bezalako herri koxkorretan ze mugimendu zegoen adierazteko ere bai. Batzokia, zinea, teatroa...

Eta baserriko bizimoduaren esperientzia sakona:

Amagaz ortuan eta
aitagaz barriz soloan,
lurraren errai beretan
hasi nintzen haurtzaroan.
Lurraren errai gordinak
landu barri, lurrunetan;
usainaz akordatzen naiz,
gozo-gaziz, geroetan.

–1939. Makiak eta buelta

–Gerra amaitu zenerako hasi zen jendea bueltaz hitz egiten.

–1940. Arantzazuko Seminarioa. Erdara.

–Mutiko erdaldunak eta irabazleen semeak, alemanen aldekoak ziren. Gu aliatuen aldekoak.

–Makiak eta buelta. Bazetorren buelta.

–Bost urte euskararik egin gabe.

–Artean Arantzazun igandeetako sermoia euskaraz entzuten genuen.

–Eta, horratik, Humanidadeetako hirugarren urtean Aita Feliziano Idigorasek papertxo batzuk ematen zizkigun hiru-lau

esalditxorekin euskaraz ipin genitzan. Nahiago genituen latinez egin. Ez dut uste notarik ematen zigutenik.

–Foruan astean behingo eskolaldi epel bat.

–Kuestioa da, Forutik bakazioetan etxera joan nintzenean, euskara, erabili ezaren ezaz, baldartu samar nuela eta erdarakadaz josia.

Halandaze nor-nork-nori-rekin burrukan

Adibide hau lekuko: Gure ama isila bazen ere, jakingura handikoa zen, eta goizetako mezetatik etxeratzen nintzenean ea nor ikusi nuen galdetzen zidan. Eta ni berehala hasten nintzaion: Urtubiko izekoari ikusi deusat, Iberreko osabari, Larrostako lehengusinari be ikusitzat eta Elorretako Margariri be bai. Nik ez dakit amak barre-rik egiten zuen, baina ni baino gazteago ziren nire anai-arrebek ukalondo zotzen zuten elkar, keinuak trukutzen zituzten eta azkenerako barre-purrustaka hasten ziren, elkarri galdetuz ea zer ikusi ote nion hainbeste jenderi. Barreok, keinuok eta barre-purrustok ez zirudidaten bide onekoak eta egun baten, neure bizkarretik algarak ari zirela ohartuz, haserretu egin nintzen eta agindu ere gehiago ez nuela euskaraz hitzik egingo agindu nien. Egitekotan erdaraz egingo niela. Gurean inork ez zekien gaztelerarik berriz. Amak antzeman zion ni benetan ari nintzela, eta anai-arrebak han zehar bialdu ondoren, sukaldera eraman ninduen eta eser nendila eskatu zidan. Han nengoen ni buru-makur eta mutur-luze. Halako batean amak mahaira deitu ninduen eta txokolate egin berri-berria eta ogi errea atera zituen. Txokolate haren usainak adiskidetuko zukeen txakur amorratua ere. Ama hasi zen hizketan: “Bittoriano, hurrengoan ez dozu esan behar *izekoari ikusitzat, Don Anjeleri ikusitzat, Ertzilgo Paskuali ikusitzat* eta holakorik *Ikusi dot*, esan behar dozu. *Don Kruz ikusi dot, Teiletzaurreko Maria ikusi dot*, eta hola beti”.

Sukaldeko jardun hartan bertan esan zidan beste hau ere: “Ia gu zahartu gara erdara ikasteko, halan da ze, zeuk ikasi beharko dozu euskaraz”.

–Foruan, hango bigarren urtean, mixiolari euskaldunen bizitza laburrak idazteari ekin nion. Itzulpen lana zen, mixio aldizkarietatik aterea. Bertsoak idazten ere han hasi nintzen. Lehenengoak Muruetako txakur, katea apurtu zuenari.

Gerra ondoko paisaia

–Gerra ondoko garaietan aldatu zen asko paisaia bera ere, baina artean, garitzak eta artotzak, zelaiak, mendietako larresailak-eta ikus zitezkeen.

–Garoa inportantea zen. Ebaki, garraiatu... Igitariekin tratatu...

–Soro-lantze pixuenak ganaduz egiten ziren.

–Gaztainadi zahar asko oraindik tente.

–Pagadi lepatu ugari ikatz eta egurrerako.

–Auto gutxi eta errepede gutxiago. Garraiorako astoak: esnedunak, azokazaleak.

–1945: Asto bete umerekin etorri zitzaidan Forura, bisita egitera, arreba Maria.

–Kirolak: pilota, artean palankariak, aizkolariak, harri-jasotzaileak, idi-probak, txokor-bilketak.

–Orixeren *Euskaldunak* girotik hurbilxe.

–1948-51: Olite. Euskaraz lagun gutxi batzuekin hitz egiten ausartu. Salatzen gintuzten.

–Euskaraz asko idatzi genuen Oliten. Astero lantxo bat, astero ateratzen genuen aldizkarirako. Bagenuen beste aldizkari bat ere, noizik noizera eta mekanografiaturik eta dotore ateratzen genuena.

–1951-55: Arantzazun. Euskara landu, poematxoak, akademiak euskaraz. Garai honetan euskarari buruzko eztabaida sortu zen gure Kantabriako Probintzia frantziskotarrean A. Villasante (euskararen alde) eta A. Gutiérrezen artean.

–1954. *El estudio del euskera en nuestra carrera*. Villasante. *Begion lore* poemarekin lehenengo saria Zarautzen.

–1955. *Acotaciones a un proyecto de pedagogía provincial*. Enrique Gutiérrez.

–1956. Euskaltzaleen biltzarra Euskaltzaindiaren itzalpean. Euskararen aldeko beste bultzada bat da. *Arantzazuko folkloregaien biltzeaz* idatzi nuen bilera horretarako.

–1956. *Jakin*. Euskararen aldeko indarra behetik gora. Gazte askoren parte hartzea.

–Erabakigarria:

–1960: *Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera*.

–Biltzar horretarako lan luze bat idatzi nuen: *El euskera en el Colegio Seráfico y en la carrera*.

–1960. Ikuspegia: Garai honetan euskara debekatua zegoen. Euskara egitea nazionalista agertzea zen eta errejimenaren kontrakoa.

–Euskarak tonto egiten zituen umeak.

–Euskara politika zen, euskara bazterrak nahasteko besterik ez zen.

–Euskara berreskuratzea eta beldurra kentzea zen gure egiteko bat.

–Abertzaleek euskarari buruz ziotena inbalidatuta zegoen: politika zen.

–Omaetxebarria eta Villasante ez dira abertzale eta euskararen alde ateratzen dira.

–1960. Goian aipatutako Kongresua Arantzazun: euskara onartua da. *Cantabria Franciscana* Probintzia barruko dibulgazio organoa da. Bertan agertzen dira gure iritzi eta erabakiak, besteak beste. Venezuelan, atzerrian irakurtzen da, euskararen aldeko gogoeta erabakigarria izan zen.

–Omaetxebarria, Andimak, Orixek-eta ezagutzen dute.

–Euskara ondasun publikoa da. Geurea eta unibertsala, partiduen gainetikoa beraz.

Eskolarik sortu al dugun?

Eskolarik sortu ez. Gu Arantzazuko taldekoak gara. Diferenteak gara, baina elkarri eutsi egin diogu. Azurmendiren eta nire poesiak diferenteak dira, baina guk elkarri lagun egin diogu: hiru-rogeian nire poemak irakurtzen ditu, nik bereak ezagutzen ditut. Komunitate literarioa osatzen dugu. Villasante eta Salvatore Mitxelena (arras diferenteak), lagun handiak eta elkarren miresle dira. Agirretxe, Karmelo Iturria, Julian Alustiza: komunitate humano bat, elkar pozten dugu. Kandido Zubizarreta, Anjel Madariaga, Kandido Izagirre, Joxe Antonio Garate, Joxe Antonio Astigarraga, Manex Erdozainzi, Pello Zabaleta...

–Eskolarik ez, bai nukleoak eskualdeka. Aresti fenomeno gipuzkoarra da. Txillardegia eta ni ez gara eskola bera, baina bai komunitate literario berekoak. *Leturiaren egunkaria*. Nik erantzuna. Beste tradizio batetik etorri arren eta diferenteak izan arren, ez dugu elkar arrotz hartu, anaiak bezala baino.

–1956: *Jakin*. Sorrera aztertu gabe dago oraindik. *Jakin* zaleak abertzale ziren gehienak: Iñaki Bastarrika, Iñaki Bereziartua, Fernando Mendizabal... Paulo Agirrebaltzategi, Azurmendi, Intxausti, Enbeita, Manolo Pagola. Villasantek ez zuen sekula gaitzetsi ez *Jakin*, ez *Jakin*-taldea.

–Garaiko euskaldunon kontrako mundu hartatik liberatu behar izan dugu: aldeano, cashero, euskara ez da edukazioa!

–Euskara politika da: konplexu horietatik liberatzeko lana.

–Liberazio prozesua. Euskal literaturari dedikatu ahal izateko.

–*Hiru gizon bakarka*, borroka horren seinale da. Ideia batek, helburu batek lotzen gaitu.

–Ez dugu sortu eskolarik. Ez Arestik ere. Edukien eta jarre-
ren elkartasuna. Liberazioa elkarrekin osatu dugu.

–Elkar irakurri egin dugu. Elkarrengandik ikasi eta elkarri zuzenketak egin dizkiogu. Elkarri pasatzen genizkion lanak eta bata bestearenak irakurtzen genituen.

–Batasunaren problema. Ni bizkaieratik nator. Batasuna kulturalki etorri zait. Giputzekin tratua. Gure medioan gipuzkera; baina medio pluridialektal batean bizi izan gara. Prozesu normala. Lizardi-Orixe irakurriz.

–1954. Villasante eta Krutwig: Euskara kulto baten problema. Kulturaren gaitasunari begira. Iparraldekoa hartu eta kulturalismoa. Greko-latinoa. Euskara mordoiloa. Dilema: garbi-mordoilo.

–1960. Euskal hitz jatorrak: deklarazioa. Hamar urtera: publikazio kultoak. Batasunaren problema betikoa da. Zaharrak hil dira: Orixe, Andima, *Euzko Gogoa*-eta sortzen dira... batasunaren problema.

–Bizkaiera baztertu izanaren penarik badut. Euskara batze honetan bizkaiera gutxietsia izan ote den nago. Euskara idatziari begiratu zaio bakarrik, ez mintzatuari-eta. Bizkaiko euskara galtzen atera da, jendea aspertu ere egin dugulako batua mintzatura ere eramatean.

–Ni batuarekin bat nator. Baina!

–Pedagogia falta.

Literatura zer den?

Gaiaren arabera hitza maneiatzeko abilezia.

Zertarako balio du?

Hitzak eta espresioak eraberritu, balioak berritu. Hitzei balio berriak eman. Bibliaren itzulpena gaur ez da literatura, baina Leizarraga bai, Lutero bai. Hizkuntza produzitu egin dute. Natur zientzietako hiztegia = poesia.

Euskal kultura eta literaturaren egoeraz

Euskal kultura bat eta literatura bat bazenik oso berandu arte ez nuen entzun ere egin. Guretzat kultura eta literatura Euskal Herriaz kanpoko errealitateak ziren: Mesopotamia, Babilonia, Grezia, Erroma eta haiengandik ikasi zutenen altxorra. Espainia-koa bai, bazen kultura, grekoengandik eta erromatarrengandik

eta arabeengandik eta haien obrak ikasi eta berenganatu zituztelako eta betiere haiek zituztelako eredu eta jarraibide.

Guk Euskal Herriaren aipamen gutxi ikusi genuen gure eskuarteko liburuetan. Historiakoetan izen batzuk eta karlistadetatik gerorako gerra galduak. Geografian gure luraren txikitasuna eta pobrezia. Literatura liburuetan ez zen euskararik.

Euskara berreskuratzen

–Euskara eskuratu (*ELORRI*)

–Euskara barruan gorderik neukan neuk ez nekiela. Hiztegiarik ez eta behar nuen hitzaren edo esamoldearen zain-zain egoten nintzen, arreta guztia barrurantz jarrita eta beti eta hutsik egin gabe, putzuan puzpiloak edo burbuilak bezala punpa sortzen zen. Behin otoitzeko garaian ari nintzela, erabat ahazturik nuen umetan ikasitako kantu oso bat agertu zitzaidan dena segidan.

–Arantzazuko nekazari eta artzain auzokideei ere zorrik badiet.

–Sermolarien hitzaldi asko ipini behar izan nituen euskaraz.

–Teologia ikasten niharduela mutikoen lanak zuzendu. Irakasleek horretarako ematen zizkidaten.

–Gure garaian euskarak ez zuen osperik.

–Euskaraz egitea, ikastea, idaztea gaizki ikusia zegoen. Politikakerietan, edukazioari faltatzen eta karitatearen kontra ibiltzea zen.

–Euskara bazen aladura bide: kezka ematen zuen, ea bide oneko ote zen euskarari emana bizitzea.

–Gure taldeko azkarrenek ez zuten euskararen biderik jarraitu nahi.

Zein faktorek eragin didaten naizen bezalakoa izaten

–Erdaraz idazten irakatsi egin zidaten. Euskaraz idazten ikasi eta asmatu egin behar izan nuen.

–Euskaraz idazten ikasi ahala sortu nituen *Elorri*-ko poematxo asko.

–Euskaraz idazten ikasi nahi izan nuen euskaraz idazteko gauza izatearren.

–Niri poesia purua edo aratza zait gustuko.

–Poesia lirikoa gehiago gustatzen zait epikoa baino.

–Hezieraz eta gustuz klasikoa naiz, antzinakoa.

–Euskal idazleen artean Lizardi, Lauaxeta eta Orixo ditut begikoen. Espazioan kointziditzen dugu. Modernismo harikoa naiz.²

² Bizikizun sorta hau EIEk Goierriko Kulturkideren partaidetzarekin 1997ko udaberrian antolatu hitzaldiaren funtsa izan zen. Bitoriano Gandiagaren burutazioekiko, fidelitasuna gordetzearren, mantendu dugu memoria egitura. [*Hegats* aldizkariaren oharra]

ARIKETA*

Niri eragiten dit eguraldiak eta eragiten didate urtearok eta eragiten dit egunsentiak eta iluntzeak ere eragiten dit. Ez dago nire agenda ikustea besterik; izadiaren txistada askotarikoen erantzunak jasotzen ditu. Aurten hainbeste harritu gaituen hain goiztikako udalehen giroaz hau dio agendak:

Aurtengo udaberria
goiztxo mugitu da aurten.
Aurtengo udaberria
aurreratuxea dator,
bere sasoia baino lehen.

Eta berehala beste hau:

Otsailaren azkena da,
baina iluntze epela.
Txoriek ozen diote
jardun beharra dutela.

Goiztxo udaberrirako,
lizarrak lorán halere,
bizitzak erabaki du
mugitzea berriz ere.

* *Hegats*, 15/16, 1997, 13-22. orr.

Zozook, birigarroek,
beste hainbat txorirekin,
airea dute pintatzen
beren kantu-zirristekin.

Caualdeak udaberri
ukitu hezerik badu,
noizka datorren haizeak
erretura usaina du.

Izadiarekiko eta bertako fenomenoekiko sentiberatasun hau babestua ez ezik lagundua aurkitzen da gure frantziskotar bizieran. Orduen liturgiak Danielen Kantikak errezarazten dizkigu maiz eta frantziskotar bizitzak “Anaia eguzkiaren eresia”, sarri kantatzera garamatza. Danielen Kantikak zerutar izakiei, naturako fenomeno-
ei, lurreko gauzei eta gizaki guztiei deitzen die Jainkoa bedeinkat-
tzera eta “Anaia eguzkiaren eresia” zeru-lurretako izakiengatik,
gaixoa eta estuasuna onez hartzen dutenengatik eta gure arrea
heriotzagatik Jainkoa goratze bat da. Nik egunsentia, iluntzea, uda-
berria eta udazkena nahi ditut nire egungo otoitzerako lagun.

Egunsentia

Adinean aurreratu ahala gutxiago, baina oraindik egunsen-
tiak gorako bultzada ematen dit goizero. Egun berri bakoitzak
eskutik heldu eta ohetik altxatzera poztuko banindu bezala ger-
tatzen zait. Goiz jaikitzen naiz eta zerbait atsegina suertatu behar
balitzait bezala aurkitzen naiz lehen orduetan:

Egunsentiak nau pizten
kandela pizten den legez,
egunsentiak konortez
pizten nau egun bakoitzez
mirari halako batez.

Zer gauza iratzartzea,
konortera etortzea,
banaizela ohartzea,
berriz ere norberaren
akordura bihurtzea!

Egun berriz egun berri,
ezusteko erregali
bat bateko ta pozgarri,
iratzartze bakoitza zait
bakoitz eta txundigarri.

Bosteterdian izarak utzi, txukun jarri eta ateri bada, kanpora, ibiltaldi bat egitera. Zortziehun metrotan, tarteka tarteka dago argiz ibilbidea, eta joan eta etorri aritzen naiz bertan, harik eta Gorespenak kantatzeko ordura arte, zazpiak arte. Bustia bada etxeko patioan ibiltzen naiz. Ordu horietan oskarbi denetan, zeru izarratua egon ohi da eta sarri ilargia ere bai bere laualdietatik batean. Aurten Hale-Bopp kometa ere bistan ukan dugu. Isiltasun handiko garaia da oraindik. Hontzek, urubiek-eta jotzen dituzten uju-uju eta garramiztoak nabarmentzen dira ilunpeko baretasunean, baita ahuntzen txintzarriak eta azerien zaunka hirukoitzak ere.

Goizak gorantz eragiten didanez, nahiz aire librean dela nahiz etxe barruan, gogoeta baikorrek erabiltzen ditut, gehienetan poza damaidaten esaldi motxak errepikatzen ditut, beraietan eta beraiekin gozatuz. Goizak itxaropenera irekitzen nau:

Argia ozta den zerbait
sortalde ostean hara,
ezarian, ziri-zara
garatzen eta goratzen,
zirkin gozo ta dardara.

Egun berri, jaio berri
gorari, zabalkorra da;
gero ta argiagoa da;
hazi ta hedatu ahala
egun osatu da jada.

Badugu egun berria,
argia eta hozkara;
martxan jartzeko deia da,
mugi eta noan bada
eguneroko lehiara.

Iluntzea

Urriko hogeita hamarrak arratsaldeko bostak laurden
gutxi. Igandea, ta Arantzazu
kotxez lapaxturik. Motxiladun jende
asko ageri da, mendiko haizeak
masailak piztuta. Mendietatik ezik
Arantzazutik ere ihes egiteari
eman dio jendeak.
Eguzkiak ere laster utziko du
zeru oskarbia,
ta itzalirik utziko du
baso, larre ta zelaien
kolore bizi pila guztia.
Hego haize iharra, epel eta pozgarri
ibili da oraintxe arte ia.
Eguzkia jaitsi ahala hoztuz doa
eta indar zorrotza hartuz, ebakitzen duen hura.
Artia mendiaren honuzkaldea
azpilduraz, zoko-mokoz, ageri da dena,
gainen hori nabasia eta sakostetako

urdin, grisez geundua,
izurren arabera txandakatuz.
Jende asko izan da Arantzazun.
Seiak laurden gutxi da.
Usabakotxenan gorde da eguzkia.

Eguzkiaren sartalderatzea, zeru-lurren urrutieneko ertzera-
tzea, une hunkigarria izan da niretzat ume-umetatik. Nabarrizko
osabaren etxean, arratsalde beranduko eguzkiaren desagertzea
barruntatzen nuenean, hartzen nuen jarleku bat eta sukaldeko
leiho ondora eramaten, eta haren gainean zutik negarrari ematen
nion ilunabarrero. Iluntzeak neure barruan sartzera deitzen nau.
Iluntzeak etxean sarrarazten gintuen inguraldean argi indarrrik ez
zuen Orbelaunen; ingurua, mendi eta troka, basoak barne, gauak
estaltzen zuen ordurako eskaratzera bultzatzen gintuen ilunaba-
rrak, amak sutondoan bizten zuen karburoaren klaru unera.
Halaxe etortzen zait neure barruenera nire espiritua iluna begie-
tara orduko, alferrik elektrizitate argi guztiak. Orbelaungo iluntze
giro hau *Elorri*-ko 129. poematxoan isladatu nuen:

“Arima,
bakarrik,
soinaren barnean.

Ilunabarra da.

Ta ez dago argirik
nire bihotzean”.

Ez dugu erremediorik basartean jaio eta kaskondu ginenok;
landare bagina, iluntzerako beren lorea biltzen duten haietakoak
izango ginatke.

Nekearen konnotazioa du arratsalde hitzak. Arratsalde en-
tzun orduko maskaltzen zaizkit begiak eta kantsakizuna jabetzen

zait gorputzaz eta lotarako deia susmatzen dut eta pitin bat tris-
tea da arratsaldea, gustagarria den zerbaiten akabera:

“Arratsaldea, kolore gorriz,
hiltera doa, kolore horiz,
hiltera doa, kolore hautsiz,
hiltera doa, zerutik jausiz,
jadanik zurbil, margul jadanik.
Arratsaldea hiltera doa,
ta, hilten dagoena,
neure egun bat da”³.

Egunaren amaieran, eguzkia beheratzen dihoanean gertatzen da koloreen apoteosia zoragarria. Eguzki-sarrera beti da une hor-
digarria. Zeruak hodeiz eta ganduz prestatzen du iluntzeko ordua
eta hodeietan eta ganduan biltzen eta isladatzen ditu eguzkiaren
azken errainuen “diamantezko printzak”, berei dagokien tindagai
bero guztietan: odol eta su, lila eta limoi, anbar eta arrosa, laran-
ja eta txingar eta beste mila tinturatan, inoiz errepikatu gabe
dekorazio beti galanta. Baina han erretzen da lilura eta amets-giro
guztia, harik eta dena ezabatu eta iluntzen den artean, gauari
utziz guztiaren gaineko nagusitza.

Udaberria

Asfalto-zementuetako semeari sineskaitz gertatuko zaio, bai-
na oraindik lur sanotik gertu bizitzeko grazia dugunok, udaberria
hurreratu orduko, geure orpoetatik gora nabari ohi dugu haren
zirrara:

³ [H.G.B. 137. or.]

Lur amaren azkarria,
heldu da udaberria,
bizidun izaki oro
barruenean mugituz,
heldu da suspergarria.

Nork ez aditu beraren
berpizkunde aldarria?
Heldu da zainetan gora,
bero eta alai heldu da
odolari ezarria.

Landarerien dena da
puja ta punta berria,
hegaztietan kantua,
abereetan irrintzia,
gizakietan irria.

Begien aurrean zaizkigu hazten zelai, soro eta larreetako belarrak, begien aurrean arbolak orriz eta kima berriz janzten beren abar puntetako bilkaritxoak geldi-geldi askatu ahala; begien aurrean zaizkigu berriro arbolak lorez apaintzen abartxoetako pinportak zabaldu ahala; begien aurrean zaigu agertzen landare-di guztia basoz eta oihanez, lautada, muino eta mendien gainez berdearen xarma hedatuz. Bitartean mila tamaina ta koloretako hagaztien asaldura datorkigu belarriz barrura egunsentian edo berdin iluntze aurreko orduan, gure erraiak kitzikatzeraz:

Eta behokak larreetan
irrintzi eginahaletan.
Behor-behokak larreetan,
ipurtarin eta zoli,
garainoak tentaketan.
Behor-behokak larreetan

irrintzi eginahaletan,
udaberriko olgetan.

Zaldiek ere irrintzi,
goraintziari goraintzi,
zaldiek ere irrintzi.
Dardara dira bazterrak,
irrintzia da erauntsi.
Zaldiek ere irrintzi,
goraintziari goraintzi,
udaberriko irauntsi.

Eta udaberria ez da geratzen, geldi gabe dihoa garatzen. Berehala batean ortuak babaz, ilarrez, marrubiz aberasten ditu, zelaiak eta larreak lorez, gereziondoak fruitu gorriz, madariondoak makatz beilegiz eta sagarrondoak ale gorrixkaz. Udaberriak badu guri pozera eragiteko indarrik. Uda ez da udaberriaren garatze era betekoa baino. Egunarentzat eguerdia dena beste.

Udazkena

Pitin bat tristea da udazkena, udako egun argi akaberarik gabekoen amaiera baitakar eta hotza, eta bustia, eta lokatza, eta orbelak, eta arbola eta landare biluziak, eta belar zurbil eta zime-lak, eta ondoren negua. Eta ez da negua ere ederra ez delako, baina bat egun amaigabe eta argien zale izan, eta negua egun-labur, argi-arre eta gau-luze. Urteak udazkena du bere arratsalde eta iluntze ordu:

Azaroaren hemeretzi honetan,
eguzki narrasa,
bizi-bizi dago.
Cogotik erretzen du burua,

aukeran, ekainekoak baino
 izpi beroagoz.
 Argi dago arkazien azpia
 eta garbi.
 Haizeak jaso eta eraman izango ditu,
 bakarrik ere utzi gabe,
 jausi zaizkion orriak.
 Dena dago, beraz, argi eta garbi
 eguzki kiskalgarritan.
 Badirudi eguraldi oskarbien bezperan gaudela,
 albitzen lasto hori eta iharrengatik ez balitz,
 bide ertzetako ira kiskurrengatik eta
 nekosten itzal hain luzeagatik ez balitz.
 Une batez gustora ahazten gara
 zein garaitan bizi garen.
 Une batez eldarnioari, lilurakeriari eman nahi
 genioke lekua.
 Neguan sartu nahi genuke udagiroya
 eta buruan oraindik gazte garen uste gaixoa.
 Gorputz jada baldartu honegatik
 ez balitz,
 eta batez ere, hainbeste egun, hainbeste
 bizitza jan didaten
 urteongatik!

Bere egunen laburragoan eta bere giro freskoagoan, arratsalde beranduaren eta ilunabarraren antzekoa da udagoena edo udazkena, *goen* eta *azken* lexemek duten pisua azpimarratuz. Iluntzea batez ere zeruan koloreztatzen den bezala, udazkena lurrean da kolorez janzten, mendiz mendi, muinoz muino, lautadaz lautada, ibarrez ibar. Basoak, larreak, soroak dira mila txatal, mila forma geometriko milakotan txandatzen, mila erliebe desberdinetan, mila kolore mota geldigabe aldakorretan. Lehen gehienbat berde zen lurraren azalera guztia margulduz

dihoa eta kolore sekundarioen multzo kontaezinari leku eman-
nez. Eta bitartean fruituak ez ezik orriak berak ere entregatuz
doa izadia, bere oparotasuna erantziz eta eskainiz, eta duen
guztia eman ahala, ondasunez hustuz. Askatuz doa, den dena
utziz, biluzik geratu arte. Gero eta kolore margulagoz: horitik
larura, gorritik okrera, gero eta kolore maraztuagoetara, hila-
goetara:

Udagoena heldu da
ezkien orrietara.
Udagoena heldu da.
Berdea zen naturaren
gainjantzia maraztu da.

Zelaiak maskaldu dira;
eguzkia laburtu da;
masustak berindu dira.
Itzala freskatzen eta
luzeagotzen ari da.

Larre goietatik behera
ardiak, behiak, behorrak,
babes bila, maldan behera.
Ezkuurrak, orri margulak
arboletatik lurrera.

Lorerik, zenbait moretxo
han hemenka eta bakan.
Lorerik, zenbait moretxo.
Artalastoak garbalik,
ez da mardulik ezertxo.

Txaboletara jaitsi da
Gorbeiko haize zorrotza,

ez da deusekin gupida.
Behorak batean dira,
apalik dute mototsa.

Lurraren azalera guztiak erantzi du distiratsu zuena eta basamortuko aszeta bat bezala da, parajez paraje, zakukiz eta errautsez jantzi, eta barne bizitzari emana jarri da, neguko sakontasun barnekoira bidean.

3

Hitzaurreak

AUTOREAZ ETA LIBURUAZ*

Joxe Azurmendi Otaegi, Zegaman jaio zan, 1941ean. Zarautzen frailetara sartu ta Nafarroako Erriberrin (Olite) egin zuen, frantziskotarren baitan, filosofia: hemen hasi zituen, 58/59 urteetan, lehenengo poesiak. Halare, garai hontan euskeraz baino gehiago egiten zuen erderaz. Zorteak halaxe nahi izanik, Axularren *Gero* erderazko itzulpenarekin agertarazten lagundu zion Villasanteri ta hala egin zuen euskal literatura klasikuarekin lehenengo ezagupidea.

59/60 urteetan euskera hutsera itzuli zan, ta Arantzazura etorrita, berehalaxe eman zituen bere lehenengo lanen batzu argitara. Poesiarekin baino lanpetuagorik zebilen Joxe, halare, garai hontan, saiakera laburrarekin, JAKINen zuzendaritzan ari baitzen lanean, laguntzaile bezala lehenengo ta zuzendari legez gero. 1964an Foruan (Gernikan) dago Joxe, latin eta erderazko ta euskerazko literatura irakasten. Urte hartantxe egin zen apez. Denpora hontan, aurreko urte-parean bezalaxe, ozta-ozta idatzi zuen Azurmendik poesia berririk batere, baina esperientzia ederra izan zuen literatur irakasgoa. Senide ta lagunuen artean sakabanututa zebiltzan bere poesiak biltzen ere saiatu zen, Joseba Intxaustik eraginda. Baina, batez ere, Euskal Herriko prolemak, hauek ekintzan agiri diran bezala, ta bere buruarenak ere bai,

* *Hitz berdeak*, EFA, Oñati, 1971, 9-13. orr.

hurbil-hurbiletik ezagutzeko aukera izan zuen Azurmendik urte hontan.

1965ean aldegin zuen erbestera: Frantzia, Alemania, Finlandia edo Suomi, Budapest eta Italia ibili zituen bere “bohemia bidean”, ta udazkenean Erroman finkatu zen. Urtebeteko Teologia ikastaldia egin zuen bertan. Joxe Azurmendi berriz ere poesiara itzuli zan garai guzti hontan. “Trenetan, busetan, parkeetan eta nunahi idatzi nuen denpora hontan, agian neure burua galtzeko bildurrez”, esaten du berak. Behingo latin-irakasleari mundu zahar eta berri bat zabaldu zitzaizkion, begiak bete-betean. Garai hontan ezagutu zuen Paulo Iztueta, beste euskaldun poeta gazte ta ibiltari bizi bat. Eta Paulo biziki arduratu zan Azurmendiren poesiak argitaratzeko. Baita eginahalak egin ere, oraindik bazterretan sakabanatuta zebiltzan Joxeren poesiak inguratzeko ta azkenean –aldaketa gutxirekin– eskuartean duzun liburu hauxe burutzeko.

Gero, Paulo judegu errantetatik poliziarri laisterketa-apustuak irabazten pasatu zenean, Jesus Mari Zabaletak hartu zuen beregain liburu honen ardura. Honek atondu dizu esku-idazkia, inprimeriarako moduan. Hauek izan ditezke Zabaletaren gobernupean sortutako aldakuntza garrantzizkoenak: azkenaldiko poesiaren batzu gehiago erastea, ta Autoreak berak bitarte hontan, Sueziako egonaldi batetan (1968) Suomiri buruzko poesiaren batzu berriro lantzea. Gainuntzekoan sortu ta biltzaile ezberdinek handik eta hemendik inguratu bezalatsu gelditu dira poesiak liburu hontan, sortu zireneko taju berarekin.

Joxe Azurmendik ez dauka bere burua poetatzat. Pozik gelditu izango zan bere gogoko poeta-lanari zeharo lotuta: baina, “arrazoi askogatik”, ez zen ausartu. Eta saiakera ta beste artikulua-mota guztien idazleago agertu zaigu bere idazlanetan, poeta bezala baino. Kezkatsu ta eskeptiku izatea baita Joxeren jatorrizko pekatua. Eta gainera, Azurmendi adi-adi egin zaio beti irakurle-jendeak beregandik zer itxaron duenari. “Ez atzoko ta ez bihar-ko irakurlearentzat idazten dut nik”.

Azurmendik, ba, Euskal Herriko aldizkari gehienetan agertarazi dituen bere lanen artean oso poesia gutxi eman digu orain arte argitara. Hutsune hau bete nahi du liburu honek. Baina hain beranduturik datorrenez gero, oharkizun batzu jakinarazi behar dizkiogu irakurleari.

LIBURU HONEN BIO-EDO HERIOGRAFIAZ

Liburu hontan koadernoak aipatuko zaizkizu, liburu hau hiru koaderno ezberdinetatik hartutako zatiz osatua dago-ta.

Koaderno hoetako bat ezagun zaharra dut. Eta zuk ezagutzen ez baduzu, neure erru bategatik ere izan diteke. 1961ean zen. Oraindik frailetzan profesia nagusia egin gabe zegoen Joxe, ta koaderno hori hain poesia ausartez eginda zegoelako, harik eta profesia egin artean behintzat ez zezala agertaraz, eskatu nion. Gaiez eta formaz ziren ausartak. Eta nire ximpletasunean, haiek agertzea fraileetan sartzeko eragozpen bihur litzaiokieala iruditu zitzaidan. Ordukoz gorde egin zitzala eskatu nion. Erru honen barkazioa eskatu diodan bakoitzean Joxek parre batekin erantzun izan dit: “Ez, gizona, ez: nire poesiak argitaratu ez badira ez da zuk zerbait esanagatik. Askoz ximpleago, erbestean nabilelako ta neure poesia ez euskal poesia-giroaz gehiegi fidatzen ez naizelako bai. Horregatik, lotsagarria bada ere, bestek argitara dezaizkidatela nire poesiak nahi izan dut beti, eta orain ere bai. Ez nuke neuk erabaki nahi argitaratzerik merezi ote duten”.

Dena delakoagatik izango da, baina nik neure erru litzakeana zure aurrean aitortu nahi dut, irakurle, ta jadanik ordua badenez gero, Azurmendiren koadernoak ezagutzera ere eman nahi dizkituz, Paulo Iztuetaren eta Jesus Mari Zabaletaren aurreko lanari, aukera-laguntza guztizkoari eskerrak, batez ere.

Aurreneko koadernoak Joxek 21 urte bete aurretik idatzitakoa da. 1962 aurretik. “Poema Beltzaren Arbola” askoz lehenagokoa du. Lehen-lehenengo (1958 inguruan) hasitako ta landutako poesia bide du, baina urteak aritu omen zen hura lantzen. Eskola-saio

beharrez egindako poesien ondorengo lehenaldi hontatik poesia hauxe bakarrik heldu zaigu, baina forma zeharo aldatuan hau ere. Lehenengo koadernoko poesiak 59/60 urteetan sortu ziren apika.

Bigarren koadernoan ere badago lehenengoaren garaiko zenbait poesia: sozialak, esaterako. Besteren batzu 62/63 urteetakoak dire. Joxek berak dio: “Poesia sozialak, gehien-gehienak, 61 aurrekoak dira. Eta haietako asko behintzat jatorriz erderaz idatzitakoa zen gainera. Artean ni euskeraz ala erderaz idatzi erabaki ezinda nengoen... “Poema beltzaren arbolak” ere hiru forma ezberdin zituen hasieran, bere euskerazko, erderazko ta frantsezko atalekin! Poesia sozialak sorta batean bildu zituena, berriz, Joseba Intxausti da, alegia, Jon Laskibarekin batera ni euskeraz idazten jarri ninduen bera. Nabari dago batzuk jatorriz erderazkoak direna, bai: ondo esan zuen Sarasolak, JAKINen egindako kritikan, erderazkoak biziagoak direla euskerazkoak baino... Horra arrazoia. Euskerazko testuak ez dire neuk bakarrik egindakoak ere. Intxausti ta nire artean itzulitakoak baino”. Atzerriko poesia-
ren batzuk ere aurkituko ditu irakurleak bigarren koadernoan: 1965eko udaldikoak dire hauek. Bidaia-lur ez baino bere etxe bihurtuko zitzaion Azurmendiri erbestera geroxeago, ta urte bereko udazkenak irikitzen du hurrengo koaderno. Horregatik, zubi bat bezala da bigarren koaderno, lehenengoaren eta hirugarrenaren artean.

Hirugarren koaderno ere, 65eko udazkenarekin abiatu arren, itxita zegoen 67 aurretik, eta Paulo Iztuetak salbatu dituela poesiaok paper-zulotik esan genezake. Baina Paulo gogotik ahalegindu izan arren, euskal inprimatzaileen artean ezin aurkitu izan zuen inor koaderno hau argitaratzeko pronto.

Beraz, zenbait poesia oso zaharra da liburu hontan. Alegia, euskal kondizioetan zaharra, lehenengo koaderno osoa ta bigarreneko zenbait atal behintzat Arestiren *Harri ta Herri* baino lehenagokoak baitira. Ondo oroitzen naiz, nire *Elorri* elkarrekin prestatzen ari ginanerako bukatuta zegoela Joxeren lehenengo koaderno, ta poesia gehiago ere agiri zen haren paper-piloetan.

Joxeren gaurko modua ta sentikera ordutik ezkeru pixka bat diferente direlakoan diot hori. Ze Joxek badu beste libururen batetarako haina poesia berriago, Europa zehar idatzita. Azkeneko bolara hontako poesietatik irakurleak ez du hemen pare bat besterik aurkituko: Prometeo-saileko batzuk eta “Manifestu atzeratua”.¹

¹ Oharra: “Manifestu atzeratua” eta beste zenbait poesia kendu beharrean arkitu izan gera. [*Hitz berdeak* liburuaren argitaratzaileen oharra]

BI HITZ-PUNTTA*

Arantzazun ezagutu nuen Antonio Bilbao. 1957/59ra bitartean zen. Teologia ikasi eta poesiak idatzi-eta egiten zuen. 1959an utzi zuen Arantzazu. 1960/1erako urtean soldaduska eta preunibertsitarioa egin zuen. Ez zen unibertsitatean sartu. 1962az gero administratibo lana egiten du ingeles-konpainia batean. Homero, Virgilio, San Agustin, Papini-eta irakurri ditu. Sikologia eta Historia liburu batzu ere bai. “Atsegin zait –dio– Darwinen irakatsia eta eboluzioan sinesten dut. Gauza bat daukat ziurtzat: naturala eta sakratua, bat ez badira ere, elkarren ondo-ondoan daudela. Ingurua ez dut mistiko begiz begiratzen, ez naiz mistiko. Antzina-ko filosofo edo jakituri zaleek aitortzen zuten bezala egia fundamentaltzat dauzkat zerok: Eguzkia, Lurra, Ura eta Airea. (Behar-bada Bilbo hontan ez eguzkirik, ez lurrik, ez urik, ez haizerik dagoelako)”. Lizardi-saria bitan jaso izan du, 1962 eta 1964. urteetan. Txomin Agirreren omenez Ondarrun 1964an ospatu zen Lora-jokuetako saria ere berak eraman zuen. Olerki askoren eta ipui batzuen egile da, ez baita alferrik *Ipuin Barreka* idatzi zuenaren anaia. Inoiz edo behin *Zeruko Argia*-n idatzi du. Juan San Martinek Uhin Berri-ko poeten taldean sartu zuen. Gaur arte ez du libururik argitaratu. Gaur, berriz, 1954/57ra bitartean idazten hasi zen PENTSAKIZUNAK agertzera ausartu zaigu, eta zorioneko

* *Pentsakizunak*, EFA, Oñati, 1975, 7-9. orr.

gaude. Erdal hizkuntzetan bada literatur mota hau eta gutxi asko guztiok irakurri dugu. Euskaraz ere bada haietakoren baten itzulpenik. Baina nik ez dut ezagun euskaraz sortua izan den pentsakizun libururik. Tarteka-marteka irakurtzeko liburu mota sail baten hasera polita litzateke Antonioren hau. Ez dugu gaiez gai sailkatu, egin zitekeena bada ere, egin gabe utz ditekeena ere badelako. Nondinahi zabal zenitzake orriak, edozein ale baita bere bizitza betea duen hazi bat, egia txinparta bat, gogarte bate-tarako hari mutur bat. Antonioren euskara Bizkaikoa denez, hango euskalkiaren aztarna asko somatuko duzu; baina ikusiko duzu baita ere Euskalzaindiaren arauak ahal duen neurritan betetzen dituela, batasunera, begira bizi baita Mungiako Ganben 1937an jaio zen idazle barrukoi hau.

HITZAURRE GISA*

Pozik. Beti nau poztutzen poesiarekin aurkitzeak. Jon Enbeitak landu dituen poemekin aurkitu naiz gaur. Gustora ditut irakurri. Eta ez naiz batere lotsa antologia gisan eratu duen bildumatxo hau zuri aurkezten. Ez da haize handiko. Ez da haize berri edo ez ezaguneko. Herriko eta Urriko haize epel eta maitagarriaren bilada gozo da. Leiho ertzetan, balkoietan zintzilik bipergorri xortak ipintzen dituen paraje hartatik datorkigu: Muxikatik. Poemak hementxe dituzu jaiotze urte eta guzti. Baina nor duzu Jon?

Lehenengo eta behin Enbeitatarra dugu. Nork ez du Enbeitatarren entzuterik? Nork ez daki Bizkaiko bertsolaritzan dinastia argi eta indartsu direnik Enbeitatarrak?

1.950ean jaioa dugu Jon. Euskaltasunaren beroa gartsuki beti bizi izan duen Ormaetxen jaioa. Orain Gernikan bizi da. Hara egin diot ostera. Txapel, kopa, plaka eta beste trofeoki zenbait ageri dituen egongelara eraman nau eta han hasi zait:

–Hiru urtegaz aitak eginiko Jesusen Bizitza izeneko antzerki batean artzain jantzita kantatzen nuen. Zortzi urtegaz aitak Ari[a]tzan sortu zuen “Garriko” bertsolari eskolan bertsoak idatzi eta kantatzen hasi nintzen. Bederatzi urtegaz plazaratu nintzen bertsoak kantatzera. Orduetik eta hamabi urtera arte plazarik plaza ibili nintzen, aitaren gidaritzapean eta, gehienetan, Ireneo Aju-

* *Inguruaren arduraz*, Hordago, Donostia, 1980, 7-15. orr.

ria (ni baino hiru urte zaharragoa) lagun nuela. Hamaika urtegaz Bilbon Bizkaiko bertsolari gazteen txapeldun egin ninduten. Kontrariorik ere ez zen, egia esan. Hamairu urtegaz Arantzazuko Seminariora joan nintzaizuen.

–Noiz heldu zenion poesia egiteari?

–Heldu edo hasi, olerkiak idazten hamasei urtegaz hasi nintzen. Hamazazpi urte nituela, Foruko kolejoan, neukan guztia, liburu, koaderno, jantzi..., dena erre zitzaidan. Euren artean neure bertso eta lehenengo olerkiak.

–Haatik orduan hemengo antologia honetan hemezortzi urtez geroko olerkiak.

–Bai. Sasoi horretan lehenengo bertsoak idatzi nituen. Gero, eta nobiziadua azken aldera, olerkiak, metrika barruan. Ondoren, hemeretzi-hogei urtetan olerki askeak egin nituen. Bide berrien bila abiatu nintzen. Ordukoak ditut lehenengo abestiak ere. Urte horretan bertan alde nintzen konbentutik.

–Eta gero?

–Hogei urtetik gora sei urtez ibili nintzen, gitarra besapean, abeslari. Olerki laburrak idatzi nituen garai horretan, flash erara. Hogeita bost urtegaz berriz hasi nintzen bertsoan. Urte berean, 1.975ean, Mallabian Bizkaiko bertsolari gazteen txapeldun izendatu ninduten. Ordutik aurrera beste sari batzu, “Orixe” etab. izan ditut.

–Noiz osatu zenuen antologia hau?

–Liburu hau orain dela bi urte ateratzeko gertaturikoa da. Berandu dator. Azkeneko olerkia ordukoa da, bat izan ezik, “Bla, bla, bla” delakoa.

–Zer diozu zure poesiagintzari buruz?

–Lehen olerki luzeagoak egiten nituela, asti gehiago, lasaitasun gehiago nuelako. Orain berriz dena ardura, arineketa, konpromisoa, stress... eta olerkiak ere golpekoak, laburrak, flash gisara egin behar izaten ditudala.

–Baina zure azkeneko olerkiok flash hutsa ezin lan handia ageri dute hitzezko nahiz esaldizko dibujo hoietan. Astiaren aitzakia hutsa ote da horretara behartu zaituena?

–Ha, nolabait esateko, lehen olerki laburrik ez nuen egiten. Lehengoak, ideien aldetik, kreazino lan gehiago dute, ideia gehiago dago olerki bakoitzean, etorriari itxoite eta erantzute gehiago. Oraingoetan, ostera, kaptazinoa momentukoa dela, esan nahi dizut. Bat-baterako burutazino bat dela. Oraingoek ordenazino lan gehiago dute, bistarako egokitze-lan gehiago, sarritan erraza eta laburra ez den lana, egia esan.

Jonek baditu hiru diska ere. Bata txikia bere abestiz osatua, eta beste biak handiak, bere aitarekin batera, Kepa Enbeita zena-ren bertsoz osatuak.

Bizkaiko Aurrezki Kutxan egiten du lan egunero. Hango arazoz kanpo badarabil beste zereginik. Bertsolari denez leku askotatik deitzen diote edozein jai edo gertakizun dela bide. Astero bertsolari eskola batetan biltzen da beste zenbait bertsolariarekin. Oraintxe arte ibili da ikasketak egiten: Banka, etab. Goizetan lan eta arratsaldetan ikasi. Horrek eraman dio astirik gehien.

Bitartean bertsolaritzaz hitzegin behar dela hemen, jai egitarauak prestatu behar direla han, zenbait erdal lantxoren itzulpenak egin behar direla, abesti berriak sortzea dela, inorentzako letrak idaztea dela, eta batez ere abesti zaharrak biltzea dela –horretan ari baita azken urteotan–, mila arazo, eta mila arazo hauen erdian, poesiaren nahita nahiezko dei sakonari erantzun beharra: utzi ezineko beharra. Behar horren ageri duzu liburutxo polit eta interesgarri hau.

4

Eta beste

EUSKAL BEGITOZIOAK ZURETAN*

N. BASTERRETxea
ESCULTURAS,
SERIE COSMOGONICA VASCA
1972/73

Basoetan, oihanetan edo haien inguruan bizitu den jenteak, zuhaitzean ikusi du gehienbat bere burutazio-begitazioen irudi ilun zirrarakorra.

Gure amari, gure aita ikusi iruditu zitzaion iluntze batez, Gastiburuko hariztiz gora etxeruntz zetorrela.

—Jose, hor zagoz?

Eta erantzunik ez jasotzean, onezkoa ez ote zen bildurrez, Elorretako baserrira itzuli zen.

Ama haren seme honi ere gertatu zaio baso ilunduetan zehar, zuhaitz, enbor nahiz mukurretan, gizon, emakume zahar, pizti edo zerbait makurtu ikusi iruditzea.

Belarria ere zolia da basoetan, batez ere gauetz. Abots bat izan ote den, kantu hondakin bat, xistu bat, dei bat.

Gizonaren bildur eta ikara berezko eta betikoa, gizonaren irudimen basati eta hezigaitzak, gauaren edo nekearen pean errez ikusi iruditu ohi ditu mamuak bakartadeko bide harizti, pagadi edo gaztainadikoetan zehar.

* *Aránzazu*, 510, 1973, 21-22. orr.

Basoko laino pean eta nekatu rik nengoela, argi-drizak ikusi iruditu zait niri neuri ere. Orduan errez gauzatzen ditugu irudimen hoiek eta izenez jantzi ere bai; eta hor geratzen da sortu rik kreatura berri bat. Baso eta zuhaitz arteko bizimodua galdu ahal-a, guretzat eta batez ere gure aurrekoentzat zerbait bizia, ibilkorra, aldakorra eta eraginkorra zen haura, badijoazen eta jadanik joan diran urkidi, artadi eta ameztien itzaletan desegitera dijoa.

Irudimenaren sorkari hau ez da horratik lotsagarri. Sorginen, laminen, iratxo en-eta ipuinak aitari galdetzen nizkionetan, etxeko anaia hasarratu egiten zen eta zozokeriarik ez esateko agintzen zion aitari. Oraindik bizi dira berriz ipuin hoien mendean eta ipuin hoiei zerien zirraratan murgilduta bizi izan direnak.

Gauetako artazuritze auzolanekoetan ipuinok zituten kontakizun eta ipuinon badaezbadakoa bideko zalantza noiznahiko zauzk-eragile. Halako girotan bizituak gara. Herri baten bizimoduko bizitza giro hau jasogarria da. Kultura gehiagoko lurraldeetan dagokion garrantzia eman zaio gizonak sortutako asmaziomundu horri. Gurean ere zozoak baino ikasiak arduratu dira burutazio-irudipen mundu hori jasotzen. Hala Azkue ta Barandiaran. Mundu hortaz baliatu dire beren erti-lanen gai eta zelai sorterazletzat zenbait musikari, marrazkari eta pintore. Gaur inguru guztiko gorputzez moldatu digu Basterretxeak.

Basterretxearen lana maitagarria ta gogokoa zait gure mitologiako zenbait kreaturari hain berez zegokien zurezko gorputza eman dielako. Zuhaitz egietako umeok menturak landutako enborretan –mendietako iruditegi berezkoetan– ikusi bai ditugu gure ipui, sinismen eta susmoen irudiak. Zurezko erti-lanetan eraturik ere baditugu jadanik, noizbait eta zorionez.

ERANTZUNA*

Behin arbola bat bezelakoa zan gizona. Parkeko arboladian haize gogor batek lurretik askatutako arbola bat bezelakoa. Hala ere gizonak zutik iraun nahi zuen, lurretik askatutako arbolak, zutik iraun nahi lezakean antzera. Zorabiatuta zegoen gizona eta begi zorabiatuz, balantzan ikusten zuen oin azpiko larra, itsasoa bezala mugitzen. Arbolei begiratzen zien gizonak, baina arbolak ez zien ixiltasun ilun baten erantzuna besterik ematen. Izarrei begiratzen zien gizonak, eta haizeak zartatzen dituen txingar arin eta pixu gabekoak iruditzen zitzaizkion. Baina, hala ere, bere burua baino lurrean kateatuagoak zeudela zuhaitzak, ikusten zuen eta bere burua baino tinkatuagoak zeudela izarrak ere. Bizi zela ohartzen zen gizona, eta heriotzara zijoala, erloju bat geldituzera bezala. Eta gizona larri zegoen, beste larreko eta zeruko ezer larritu ezin ditoken neurri izugarri batetan. Gizonak gizon iraun nahi zuen. Bizitzen jarraitu, bizirik ibili eta ibili, betikotasunez haruntz. Eta gizon hari begiratzeak bildurra ematen zion, bazijola ikusteak izutu egiten zuen eta begiak itxi egiten zituen, geldi eta bizirik zegoelakoa ames egiteko. Baina heriotzak barrutik begiratzen zion gizon hari, heriotzak ez zuen ixten begirik haren barruan, heriotzak barrutik edaten zion bizitza, edan eta edan.

* *Aránzazu*, 510, 1973, 22. or.

Eta ohartzen zen gizona begietako argia ere gero eta eskasagoa zuela, eta hustutzen zijoala eta ixiltasuna jabetzen zitziola barruan zehar. Belarriak nabaitzen zituen azkenean, belarriak arimarraino zulatu balitzaizkio bezala. Eta entzuten geratu zen eta entzuten hil, gero eta entzutenago, entzun eta entzun, bizitzak eman ez zion erantzun bizitzazkoa entzuten.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA*

Donibane Lohitzunen, abuztuaren 29tik irailaren 8ra.

Hamabi egunetako eta eguneko 8-10 ordutako lanaren berri zehatzik ezin nezaizuke eman eskeini didaten orri-barru hontan. Gaingiroki mintzatuko natzaizu beraz eta esanen dizudana ez da kronika bat izanen. Zientzien eta Letren irakaspen nagusia euskeraz emango duen betiko unibersitate euskaldun baten prestaera izan nahi du lehenik udako euskal unibersitateak, eta saio gisa, hortan aritu da. Aurreneko egunetan lilurazko mundu batetan sartu nintzela iruditu zitzaidan, matematikaz, literatutaz, antropologiaz, fisikaz-eta barra-barra eta euskerak beti erabili dituen gaiak bailiran mintzatu bai zitzaizkigun gure irakasleak. Hitzegiaren aldetik hartu zuten bidea, trabak desegiteko bide aproposa izan bai zen. Hizlapur lotsagabe eta zorioneko haiei esker eta aldiz geure ditugun landu gabeko hizkuntzak eman ditzaken apurtxo baliatuz, ez du ematen zergatik euskeraz gai hoiek erabili ezin ditezkeanik. Poza ematen du noizbait behintzat gure jakitunak bihurtu direla hitz-pirata ikusteak. Piratak ez bestek salbatu ezin bailezakete euskal irakaskintzaren egoera. 70-80 eta sarritan askoz gehiago ginan ikasle egarri eta zoli, bai gaiari eta bai gaia azaltzeko erari begiratzen genienak. Ni neure impresioz-edo min-

* *Aránzazu*, 511, 1973, 21. or.

tzatuko natzaizula agindu dizudanez zera ere zor dizut esatea, alegia, aurreneko egunak lilurazko izan nituen bezela, azkenekoak pixu batez zapaldu nindutela. Egia da irakasleak, bata zein beste airoski mintzatu zitzaigula gerora ere kondairaz, edergintzaz, teologiaz, ekonomiaz, soziologiaz, informatikaz-eta, baina gai hauek euskeratu gabe dauzkagula, testoen eta tratatuen beharrea gaudela, eta abar, eta oraindik euskal irakaspen alorrean egiteko dagoen hainbeste egitekoren pixuz zapal-zapal eginda geratu nintzan.

Hala ere esan behar dizut, es masokista naizelako, baina bai biologiaren legeak onartzen ditudalako, horrek denak ere bada-karkidala bere poza. Hara, gu euskal unibersidadera jaiotzen ari gera eta jaiotzeak bere dituen esturak behar ditu aurrera ertengo badu eta argitara azalduko baldin bada. Eta gu kinka hontan gaduzkazu. Euskal Herria herri gazte ikusten dutala ere esan behar dizut aurreko horregatik. Beno, gazte baino haur, baina etorri datorrena. Lehenbiziko ekitaldia baino ez izateko, oso ongi atera da udako euskal unibersitate hau. Hala ere, datorren urterako lerro berriak, osagarri eta muga berriak jarri zaizkio eta jadaniko esperientzia baten ondoren ari geranez gero, hurrengo saioa oinarri eta inguru tinko, landuago eta argiagoen barnean gertatuko dela ziur nago. Behar genukean hainbat ez bada ere, uste ez bezain jende badugu, zernahitan prestatua eta lanerako gertu dagoena. Ikasletarik urriago ibili ginela iruditzen zait, irakasletatik baino. Han-hemengo unibersidatetan beren ikasteak egiten ari direnen talde handiago bat ez zitzaigun gaizki etorriko.

AEROPLANO GAIZTOAK*

Ni Orbelaungoa naiz. Arrola mendiaren hegoaldean, Arratzuko elizatik 20/25 minututara, Gernikatik 8 bat kilometrotara, handago Orbelaun basetxearen hondakina. Sortaldera begira, zutik dago etxearen aurrekaldea, atearte eta leihozulo ilunak zabalik, pinu artetik ozta heltzen zaion argirantz. Errenteru bizi ginen han, baina gusto gozoz oroitzen naiz Orbelaunez. Bista handi eta ederra genuen handik: Iluntzargaina, Gastiburu, Oiz, Bizkargi, Mendata, Morga, Errigoiti eta haien ostean jaso eta jaisten diren mendibizkar eta gailur lekutako eta urdinak.

Laborantza-etxe inguru zabal eta argikoa Orbelaun; ira eta beste inaurki, eta ardien eta behien larre-lekuz mendia malda galantak betean. Etxebakar ondo-bazter batekoa, Iluntzarko Plontiño, Julian Arrolako, Paskual eta Tiadoro Ertzilgo, aitita Larrostako, tratulari bakarren bat eta eskekoren batez kanpo, jende gutxi inguratzen zitzaionetakoa.

Hau denau esan behar nuen, kontatzera noan nire Gernikaren erreketari buruzko bizikizumen akordu-hondarrak bere leku eta giroan ezartzeko. Esan gabe doa, nonahiko zarata txarra besterik ez dabilenean, bakardadeak duen beldur, susmotzar eta intsegurtasun airea.

* * *

* *Triskantzatik esperantzara*, Gráf. Munguía, Gernika, 1987, 73-76. orr.

Aitak eta amak, bati eta besteri entzundako gerrari buruzko autuak sarri erabili ohi zituzten. *Zuriak* aurrera zetozela; fatxistak eta moruak gero eta gertuago genituela eta holakoak. Domeka eta astelehen bakoitzeko, gero eta barri larriagoak jasotzen zituzten: Durangaldea goitik apurtu zutela suzko bonba eta inork eutsi ezin ahalako erasoz; gudari-jendea kamioiak betean zetorrela atzerazka eta beste. Arratzurretako errotatik etxerakoan, ni neu ere, frentean erabili izan omen zuten dozenerdi idi pare, hankak eta apatxarteak-eta odoletan zituela ikusita nengoen. Han zeuden haiek Arratzuko kanposantu aurreko haritzen babespean. Han ikusi nuen ihesi zetorren kamioikada soldadua ere. Dena bertan behera zetorren egun larri haietan hartu zuen gure aitak soldadutzarako dei dontsua. Etxe alde airosoa utzi behar zuen gizarajoak: erdi makalik zebilkion andrea eta lau umekondo, ni neu zaharrena nintzelarik.

* * *

Zortzi urte nituen Gernika bonbaz eraso zutenean, metrailaz eta suz Gernika triskatu eta erre zutenean. Astelehen goiz hartan ez zen, ama ez zen bere bendejatxu eta bere astotxoaz Gernikara joan. Astelehen hartako arratsaldean aita ez zen, *eria* aitzakiaz, Gernikara joan. Apirilaren 26 hartako gaua baino lehen, aitak Mendatako herrikoetxean behar zuen agertu gudaritarako. Bazkaldu orduko uztartu zituen Apala eta Moro, eta Ziarsolo lantzerara joan zitzaigun aita. Ez ninduen, ohi zuenez, itaurrean egitera eramán. Behiekin, bakarrik joan zen aita, eta ama, umeokin, bakarrik geratu zen etxean. Nik garbi ikusten ez nuen zerbaiten geriza iluna bazebilen gurean. Amak, noizbehinka, etxatzera ostera egiten zuen eta handik Orora aldera begiratzen zuen ea soldaduekin kamioirik pasatzen ikusten ote zuen. Kanpogane aldera ere begiratzen zuen. Gero ezkaratzera sartzen zen. Gora bueltak eta kuartutik kuarturako ibilaldiak ere zituen, zoruko haritz-ohol zaharrak kirrinkatu araziz.

Arratsalde hartan sargori-edo egiten ote zuen sentsazioa dut. Konkretuki zertan aritu nintzenik ez nizuke esango. Zerbaitetan

ekingo nion ordea, gurean ez baitzen alferkerian egoterik ezagutzen. Bazkalondo hartakoak ordu isil eta luzeak izan zirelakoan era banago. Zergatik baina ez ote ninduen eraman aitak itaurrean egitera? Zergatik ez zidan amak hau edo bestea egiteko agindurik ematen? Ez zen gure ama geldi egoten eta geure aidera ibiltzen utziko zigutenetakoa, Baina bazkalondo hartan ez zeukan seguruenik nitaz arduratzeko astirik. Susmo onekoa ez zen zerbait abiatzen zuen edo ardura lakarren batek zerabilen.

Nire ondorengo anaia Josez ez naiz oroitzen. Eskolan ote zen? Gure Jose ni baino sarriagotan joan zen eskolara garai hartan. Nik ez nuen mutilentzako maistrarik ezagutu. Harek bai. Maria Nabarnizko izekoarenean zegoen. Ni, zaharrena nintzenez, etxean behar ninduten hartan-hortan laguntzeko eta, batez ere umeak zaintzeko. Egun hartako akorduetan ez daukat anai-arreben gomuta izpirik ere. Etxebuertako gerezi, madari eta sagarrondoak lorea ondo pasatuta ote zeuden nago, eta etxaurreko haritzak dena orri berri eta zintzilikariotxoz.

Amak, etxatzera egin zuen osteretako baten ondoren, atartetik irteteko agindu zidan. Ez zetorren bere onean, izaturik zetorren, larri eta zurbil. Aiene eta holakotan. Etxaurreko hariztian genuen oilategira eraman ninduen eta han oilategi barruan, amantala kendu, lurrera bota eta belauniko eta eskuak gurutzean zituela errosarioa erreztatzeari eman zion. Nik ez nuen ezer konprenitzen, harik eta aeroplanoen zarata tankarra hurra-hurran abiatu nuen arte. Erreztatzeari utzi eta aeroplanoak ikustera irtetzen nintzen ni oilategitik. Amak, ez irtetzeko eta ez, irtetzeko. Jainkoarren ez irtetzeko. Oso hurbildik ikusi nituen mari-orratzen antzerako hegomoduak zituzten abioiak. Kanpogane aldetik agertzen ziren: Golkoganera baino lehen, ia geure etxeparean bueltatzen ziren eta ez zerabilten itxura onik. Tiro hots handia zerabilten. Ametrailadoreen takarrada Markinatik Gernikarako errepide gainean zehar, bomba bunbak ere bai han eta harutzago bide beraren harian, eta urrunago, harri zaparrada hala, denabaterako bomba eta tiro zarrasta. Guretik ez da ageri Gernika,

Burgoak izkutatzen du, baina haren ostean zen iskanbilarik nabarmenena.

Ez zen behingoan amaitu erauntsia. Berandu baten agertu zitzaigun aita isilik eta zerbait ikaragarrik eraginda. Behiak askatu eta kortaratu zituen. Berba urri batzu besterik ez nituen entzun aita-amen artean. Baju hitz egiten zuten, agonian dagoen norbait maiteren aldamenean baleudetsu. Baietz, abioiak bere burugainetik eta behe-behetik pasatzen ikusi zituela, Markinatik Gernikarako bidea tirokatu zutela, Gernikan triskamena izan zela antza; Kanpoganen jendea, seguruenik soldaduak, zuriak dudarik gabe, bandera eta guzti agertzen ikusi zituela, eta holako. Iluntze aurreaurretuan bialdu bide ninduten ohera. Ez dut oroitzen ohizko barbarorik ezkaratzean. Aeroplanoen tiro-hots eten gabeen, bonben bunbada upielakoen durundi ikaragarri handi eta luzarokoaren zirrarak sorgorturik, etzan bide nintzen lastamarrean. Ez naiz ia oroitzen. Haizeak Orbelauneraino ekarri zituen paper eta tela eta holakoen erre-hondakinak.

AITA LASA*

Eta aitta Lasa. Inguruotan aitta Lasa gehiago, aita Lasa baino. Baina aitta Lasa deitzen ziotenek zein aita Lasa, denek dute hari buruzko iritzi bera: Gizon ona, pertsona ona, fraile ona, maisu ona... Izen diferente bakoitzari, *ona* adjetiboa datxekola beti.

Egunotan batek ez daki zer duen oroitzapen zahar, zer oroitzapen berri; zer aspaldi entzuna eta zer oraintsu; zer norberak ikusia, zer inork kontatua. Egunotan, bizitzan baino osatuagoa, jantziagoa, bere benetako antz, itxura, tankera eta traza beteagoan, dena baterakoagoan ikusi dugu aita Lasa. “Aitta Lasa bizi da, ez da hil” esan dit Bizenta 91 urtekoak. “Berak erakutsi oskun irakurten eta eskribiten, berak sumar, restar, multiplikar, dibidir, regladetres eta bizitzia aurrera aterateko biazana” erantzun dit 30-40 urtera bitarteko andra gazte batek. “Lagunketako beti prest eguana izan zan aitta Lasa. Zalakua zala, nahiz hemengua, nahiz kanpokua, iñungo distinziño barik lagunduko otzan batari zein bestiari. Urbixako pastoriai letxe obretaa hona etorri zian estremeño eta gaillego jentiai. Auzuan be ahal eben guztixa egingo eben bataren eta bestiaren alde, danakin zorretan baeuen baiño umillao”, entzun diot auzoko gizon bati.

* *Arantzazu*, 728, 1993, 8-10. orr.

Nik hemen ezagutu dut aitta Lasa. Goiztar, txoriak berak baino goiztarrago, goiztarregia aukeran. Meza ordu fijoren batean eman beharra ez bazuen, goizaldeko lauterdiak-bostak aldera emango zuen egunero. Gero gosalduta eta gainerakoak. Ondoren besteekin batera, koruko gorespen, meditazio eta otoitz aldira. Gosalduta eta beste egin ondoren, eta presaka samar korura zihoan batean, dei egin dio fraile batek: “Aitta Lasa, abittua atzekaldetik altxaturik daramazu”. Aitta Lasak, asko ikaratu gabe, abituari heldu eta jaisten zuen bitartean, “begira, ikus litekeen guztia duk nik ongi bataiatua”.

Goiz ibiliz denbora irabazten zuen bere gelako idazlanetan aritzeko. Besteok, hark lehenago eginak, beranduago egiten genituen bitartean, berak legajo zaharren bat irakurriko zuen eta idazmakinan tekla saio bat egin. Aitta Lasak urte luzez eman zion idazteari eta artxiboetan gorderiko paper zahar askotako berriak eskuratu zizkigun: zenbait herriren historia, eskolak Gipuzkoan, Jauregi gerrilaria... Sarritan, paper zahar haietako gorabehera xeble eta bitxiak atsegin zitzaizkion. Ipuin, pasadizo, fabula eta istorio zalea genuen aitta Lasa, bai predikuetako dotrina adieraztekoan, bai jendeari historia ezagutarazteko ahaleginean, bai solasaldiak atsegin egiteko bere betiko gogo sanoan. Gustora entzuten zion jendeak aitta Lasari eta gustora irakurtzen.

Bere aurpegikera, ibilera ta agerkera, oso pertsonalak eta maitakorrak zituen aitta Lasak: aurpegia zabala eta masailak gorriak, begiak urdinak eta irribartsuak, bekokia lasaia, belarriak gorriak eta hazi samarrak, ilea mehatza eta urdinxka, belarri ostetaraino eta kokoteraino sekula iristen ez zitzaiola. Kokotea bete eta guria. Beti ezagutu genuen abitu jantzian. Sartu burutik behera abitua, kordioaz gerrian lotu, sartu burutik behera kaputxa ere, eta gehiago gabe aurrera. Ez abituaren tolesturak artez dauden, ez kordia zuzenago edo okerrago daukan. Horretan ez zuen sekula arretarik jarri. Oinetan sandaliak ere erabiltzen zituen, baina aukeran botak jantzita ibiltzen zen, Urbiako artzainari edo baserriarren kapeilauari zegokionez.

Aitta Lasak batzuetan goizegi, bestetzueta beranduegi, baina beti egin ohi zituen bere erlijioso eta apaiz izateari zegozkion otoitzak eta mezak. Hala ere, konturatzen zen nonbait bere otoitz eta mezen akatsez eta desegokitasunez, eta ez zuen bere otoitz arazo horietan hainbesteko segurantzarik jartzen. Bere segurantzaz, on egitearen baitan jartzen zuen, eta esan ere, horregatik esango zuen hainbeste aldiz: “Ezerk bada, on egiteak eta mesede egiteak eta elkarri laguntzeak salbatuko gaitu”.

Tren-estazioaren batean izan behar zuen: joan zen biletea ateratzera eta fraile zenaren ageria falta zuela. Takilakoak fraile zenaren ageria eskatu zion, erlijioso izanez, merkeago emango bazion biletea. Orduan aitta Lasak aurpegia agertu zion takila barrura burua sartzeko ahaleginak eginez eta esan: “Adiskide, begira idazu ongi, nire aurpegi hau, ez al da fraile aurpegia?”. Eta hala lortu zuen biletea.

Norbaitek eta inoiz, aitta Lasaren begirada maltzurra zela apuntatu zuen. Ez dut ukatzen, asko ikusia eta asko jasandako zenez, haren begiratuan inoiz ezin-sinestuaren keinuren bat somatzea, baina hori ez da maltzurkeria, hori inozoa ez dela adieraztea da eta solaskidearen azpikeriaz ohartzen dela adieraztea. Ezer ez bazuen, gaiztakeria da aitta Lasak falta zuena. Mendira zetozenek-eta, eskatzen zioten eskolako giltza emango zien, eskola zikin, lorrin eta lardaskaturik utziko ziotela jakinik ere. Etorriko zitzaion barrakoiko langileren bat honen edo horren eske, ongi ordainduko ziola aginduz, eta aitta Lasak eskuratuko zion, ahal izatera, hark behar zuena, aurretiaz bazekielarik, beste hainbestek bezala, hark ere huts emango ziola. Eta hala bizitza, guztian eta hala mundu guztiarekin. Nire iritzirako, aitta Lasaren bi marketako bat bere ontasun zerbitzuzkoa da. Gozatu eta poztu egiten zuen inori laguntzeak.

Eta euskorra zen, bere lanari lotua. Oporretan han joango zen batean artxibo batera, bestean bestera, bere maletatxoa eskuan zintzilik zuela, batari ta besteari autostop eginez. Eta artxibariiek diotenez, han egoten zen buru-belarri, legajo eta paper zaharrei

adi, ez orduri, ez komuni, ez otartekoari kasurik egiten ziola. Eta gero etxean zegoelarik, artxiboetatik garraiatutakoa lantzen arituko zen egun, aste, hilabete eta urteetan zehar. Aitta Lasak *Arantzazu* hilabetekaria hartzen duen jendemuaren antzekoentzat idazten zuen duda gabe. Baina luma eta hegada apainagodun jendearen begikotasuna eta sinpatia ere bereganatu zuen, eta zeresanik ez “Tejiendo Historia” epigrafearen azpian idazten zuenaren zain zauden *Arantzazu* aldizkariaren irakurleena.

Haren hileta egunean argi agertu da jendearentzat nor zen aitta Lasa: goiko, erdiko eta behekoak, denetarik etorri da aitta Lasari azken agurra ematera. Arantzazuko plazoletan ez zen auto gehiagorik kabitzen, ez elizan ere jende gehiagorik, eta hori aste-gun buruzuri batean. Ez da egundo horrelakorik gertatu izan beste inorekin eta nekez gertatuko da berriro. Bestalde prentsak, telebistak eta irratiek ere isildu gabe eta laztanki erabili dute haren izena eta izana.

“Funeralian dana izan da aitta Lasari tokaitten xakon tamaiñakua: halako mezia, jentia, sermoia –oso ona, gustau xat–, kantuak eta dana. Aitta Lasak merezi eben moduan izan da dana”, erantsi du Prudentxik.

Aurpegia ikusi orduko emango zioten zeruetako sarrera-txartela. Noski.

AITTA LASARI OMENALDIAK URBIAN*

I

Maiatzaren azkeneko, bai. Inazio eta Rejino, Urbixako monagilluak han etorri zitzaizkidan, Aitta Lasari Urbixan omenaldi bat egittia ona izango zala esanez. Baietz, nik. Baina noiz eta zein tankeratako omenaldixa pentsaitten eben ba? Ba sentzillua, gauza sentzillo bat, eta San Iñazio egunian izan zittekeela. Oroigarririxoa bat ifini, plakatxo bat edo, eta hola. Beno, eta horretan giñen, Jose Maria Leturia Jauna programa inprimatu eta guzti agertu zitzaigun arte. Orduan aldatu egin behar izan genituen gure planak. Dena pentsatuta zekarren Leturia Jaunak: San Iñazio egunez Partzonerixak bere jaixa egitten ebela eta, ez dakit zer endredo ebitaittearren, uztailaren 18an egittia zala egokixena eta berak programioi egindda ekarrela. Komentuko porterixan euki geben billeria, eta han konformau giñen Leturia Jaunaren eritxi-xarekin.

Eta aillegau zan eguna. Lañua eta xirimixa zittal goiz guztixan zehar. Baina jentia baetorren, enterau ziran guztixak han ziran Urbixarako maldetan gora. Jo ziran kanpaiak, bota zittuen txapliguak eta hasi zan mezia. Ermitta barrua dana jendez gainezka eta kanpua asko. Mezia, Urbixako betiko estilora. Kantua

* *Arantzazu*, 731, 1993, 11-12. orr.

hasieran, kantua erruki-jaunan eta hola. Sermoia bi zatitan: bata Jainkoaren Hitzaren iruzkina eta bestia Jose Iñazio Lasa, ebanjelixo gizonaren testigantza. Jendia adi, adi barruan eta kanpuan, Felix Arregik ifiñittako megafoniari esker. Eta “Ogia eta ardoa” eta “Santu santua” eta “Jaungoikoaren Bildotsa” kantuak. Oñatitiek errefortza etorri zan kanturako, baina jentia zan hango inddarra. Kanpo eta barru, hirurehun pertsona bai. Giro beruan ospatu zan mezia, eta giro beruan meza ondoko galtzairuzko plakaren eta Aitta Lasaren erretratuaren aurkezpena. Gero “luncha”, Urbixako artzain, Enara mendizale taldeko kide, Partzonerixako ordezkari eta omenaldira gonbidatutako beste mendizale elkartekuentzako. Han ziran Aitta Lasaren bi anaixa, illoba eta billoba andana bat eta Aitta Lasaren lagun eta ezagun asko eta oñatiar pillaa ederra. Danok gustora, egin zan guztiaz.¹

Jose Iñazio Lasa,
bihotz handia zuena,
gizon aditua eta
oparo aritu zena,
atseginez oroitzen du
Urbiak haren izena.

Maite genuen Urbian,
mendizale eta artzainok,
igande eta jai ermitan
haren mezetan ginenok,
ta irripartsu on egiten
ezagutu genuenok.

1993-VII-18

¹ Testu hau, ortografiari jagokonez, Gandiagak idatzitako modu-moduan itxi dogu.

II

18an egin zitzaionaz gainera, hor non datozkidan Partzoneriakoak, Aita Lasari San Iñazio egunez omenaldia egin nahi ziotelaka. Poztu egin nintzen. Haiek ere oroigarri bat nahi zuten jarri Aita Lasaren omenez. Harriz eta zurez egindako lan bat omen zen, nahikoa handia. Ahal baldin bazuten, San Iñazio eguna baino lehen ekar zezatela, nik. Eta hala, San Iñazio bezperan jasoko zutela. Mutilak! Han agertu ziren patrol eta erremolke, ia metro eta erdiko bulto handi bat zekartela, zortzi bat gizon. Kontu handiz jaitsi zuten, eta kontuz eta lanez ermitaratu, zekarkiten bolumen hura, aldare ondoan utzi zuten lurrean; han kendu zizkieten estalkiak eta han agertu zen monumentua. Oroigarri hau, berrehun kilotik gora dituen harri gozozko kubo batek eta haren gainean zuztarrez gora itsatsirik jarritako haritz-orpo dezenteko batek osatzen dute. Harriak du oroigarri inskripzioa. Aldarearen ezker aldean, abako edo harrizko mahaitxoaren gainean jartzea erabaki genuen. Artelanaren egile den Javier Arrietak berak zuzendu zuen kokatze operazioa. Estalki batez tapatu genuen hurrengo egunerarte.

San Iñazio eguna da, eta Partzoneriak bere jaia ospatzen duen eguna. Goiz lainotsua gorabehera jendea eurrez hurbildu zen Urbiara. Ermita eta ermitaurrea jendez beterik zegoen meza bitartean. Partzoneriak egokitu zuen megafonia. Urtero bezala bertsolariak izan genituen meza horretan, eta betiko kantoreak eta kantuak eta San Iñazioren martxa. Bai hitzaldian eta bai bertsolarien saioan, egin zen Aita Lasaren gogorapen eta gorapenik. Oroigarriaren aurkezpena elizkizunaren azkenean egin genuen. Han ikusi zuen jendeak harri gainean, erre gabe erretzen ari den haritz zuztarra, Aita Lasaren bihotz gartsuaren oroigarri.

PELAY OROZCO ARANTZAZUN*

Otsailaren 13an utzi zuen gorpua Pelayren bizitzak, askatasun betean sartzeko. Pelayren bizitza askatasun erabatekoan da orduz gero, lotura gabeko izate besterik gabe. Nik Arantzazun sumatu nuen, haren hilberria jakin nuenerako. Bazuen Arantzazurako joera Pelayk eta ez txikia. “Urtean 3 egonaldi egiten zituen Pelayk Arantzazun” gogoratu dit Migel Goibentakoak. “Ekainean egiten zuen egonaldietako bat, Donostiako Aste Nagusian beste bat eta irailean hirugarrena”. “Hemen, Artetxerekin ere gogoraketan dot nik Pelay, Elosegirekin be bai, Basarrirekin eta”, gaineratu du Goikobentako Mariak. Nik, Felisa Milikuakoak aipatu dizkidan Eugenio, Rikardo, Luis eta beste bat edo bi lagunekin gogoratzen dut. Milikuan egoten ziren ostatur. Gosaldubaino lehen, 8etako mezara etortzen zen Pelay egunero. Ondoren Milikuara gosaltzera. Han, jangelan, elkartzen ziren Migel eta bere lagunak. Han gertatzen nintzen ni ere batzuetan. Bezperako mus partida izaten zuten lehenengo hizpidea, muslarien ohiko arrandikeriaz irabazleek eta galdumin aitzakiatsuz galtzaileek. Eztabaidatzaile gogorra zen Pelay. Gero, gosaltzen zuten bitartean, irratiz bata eta bestak entzundakoaz aritzen ziren edo bezperako gertakarien bat iruzkintzen, eta halako batean, jaiki eta eguraldi ona

* *Arantzazu*, 782, 1998, 6-7. orr.

bazen, Urbiara gehienetan, mutikorik alaienak baino alaiago, galtzerdi eta bota zeinek baino zeinek inbidiagarriagoz eta mendizale planta handian denak ere. Entzutez dakit Urbiako fondan arrautza pareta eta txorizoa jaten zituela, sagardo freskoa sarri dastatuz. Eraldaturik eta zoriontsu itzultzen ziren. Aldatu eta, garbi eta dotore, Goikobentara txakolinaren txispekin pozari distira ematera. Otordu guztiak Milikuan egiten zituzten. Plater bakoitzaren ondoren, eta zena zela, Pelayk ez zuen inoiz laudorioa besterik “dana abonaitten eben” dio Felisak. Bazkal osteko biaoa egunero eta luze samar egiteko ohitura zuen. Ondoren ibilalditxo bat Santutegi, Seminario, Kurtzipizio inguruetan eta Goikobentara, “txokolatea eta gurinez igurtzitako ogi errea meriendaitten ebein beti”, dio Mariak. Ondoren Milikuako bere gelan sartzen zen Pelay irakurtzera edo idaztera. “Koartotan be ordena haundiko gizona zan. Papertxo bat be ez zan inoiz ikusten lurtean haren gelan”, esaten du Felisak. Bederatziatan afaria eta afal ostean musaldia. “Latz jokaketan ebein. Oheratzen ginanian han isten gittuen jangelan”, esan dit Felisak. Eta 15-20 urtean honelatsu. Pelayri buruz hemengo ostatueta entzun ditudan adjetiboak denetan ere berdintsuak dira: “gizon ona, jatorra gizona, gizon txukuna, baina denean gero txukuna, janzkeran, tratuan, denean; edukazio handikoa”. Azken 7-8 urteotan ez da etorri bisitan ez bada. “Elkarrizketa mamitsuak eukitten geben harekin”, dio Migelek.

Basilikako frontisa ikusten dudanean, haren ostean, han ikusten dut Pelay, bere lagun Artetxe ohoragarriarekin batera, Oteizari behin eta berriz ekinez, Arantzazun, karretera ertzean, Azkartzako betelanean pilaturiko apostolu erdilanduak amaitu eta zegokien lekuan behin eta betiko jar zitzan eskatuz. Aita Jose Goitia (GB) gogoangarriak ere esango luke zerbait Oteiza Arantzazuratze arazoan Artetxek eta Pelayk egin zuten ahaleginaz. Pelayk beti zuen esankizun harrogarri gai honetan berak egin zuen lana. Ostera asko egin zituen Pelayk Oteizaren tailerrera ere. Buztina lantzera joaten zen hara beste asko bezala. Behatz

luze eta meharrez buztin puskari burubelarri ekinez oroitzen dut, baita burututako lantxoak, ume baten xalotasunez, maisuari erakusten ere. Harro zeukan Donostiako bere bulegoan Arantzazun landu zituen figura horietako bat. Baina Oteizaren tailerrean ez zen buztina bakarrik lantzen, pintura, musika, literatura, kirola, mitologia, zer ez zen jorratzen Oteizaren tailerrean? Perurena txirrindulariari erretratoa egin zion buztinez Jorgek. Aita Donostia tailerreko figura eta hizpide zen. Barojaz hitz egiten zigun Pelayk eta Jorge haren irudia lantzeagotzen saiatzen zen. Blas de Oterok ia hilabete osoan bisitatu gintuen tailerrean. San Inazioaren izateari alde askotatik begiratzen ziotela ikusi nuen, Euskal Herria ere solaspide genuen, eta euskara eta Euskal Herrian indarra hartzen eta gauzatzen zetorren mugimendu politiko eta artistikoak ere bai. Oteizak sua hartzen zuen gai hauetan pittin bat sartzen zenean, espantu gutxiagokoa zen Migel, baketsuagoa, baina barru-barruan kitzikatzen zuen horratik haren egoera eta gatazkak. Batzuek Zurriola hiribidean, bere etxeko langelan aurkituko dute Pelay, Urgullen mezalaguntzen, (azkenaldian kaputxinoetan, jesuitetan edo San Inazio), hain maite zuen Okendo restaurantean aurkituko dute beste batzuek. Askok “Gran País, difícil País”, “La Encrucijada” eta beste 30 edo gehiago liburutan idoroko dute. Bakoitzak non ikusi edo tratatu izan duen, han. Nik, jadanik aspaldi ez den Seminario zaharreko Oteizaren tailerrean ikusten dut, Arantzazuko Basilikan eguneroko mezan murgil edo Andre Mariaren irudiari adi, Urbiako bidean, Belargainen artzainen batekin hizketan, Erbiskungo haritzak luzaro, harriduraz eta pozik ikusten, (haritzok handik urtebetera bota zituzten), Milikuan ikusten dut Luisekin, Eugeniorekin, Rikardorekin eztabaidan, Goikobentan Artetxerekin, Elosegirekin, Oteizarekin edo etxeokoen “elkarrizketa mamitsuan”, Basilikako frontis izugarri, kezagarri eta hunkigarriari begi sakon eta luzez begira.

NONAHI ZABALEAN MIGEL

Denbora ta espazio-
-mugetatik behingoz aske,
bizi eta bizizale,
nonahi zabalean Migel,
unibertsal, begiluze,
dena maitatuz, ikusten
duen guztia, ohi zuen
irribarre tolesgabe
berezkoaz ferekatuz,
txukun, lirain, dotore,
egun jainkozko haundian,
dohatsu jada betiko,
ezin ororen handiko
izate zoragarrian
Migel, sekula guztiko
askatasun aberrian.

5

Poesia arteko prosa

UDA BATEZ MADRILEN*

Por entregas beharko dut, Juan Mari. Prestatua edo prestatutzatkoa. Jendeari eskainiz joan. Luzaroko lana bainuke oraindik Madrilek agertu zidan guztia hitzetan taxutzea. Badut oraindik zabaldu ere egin ez dudan karpetarik. Gaiak garraiatzerakoan ipurterre kutiziatsu banaiz, jaso aurkezteko eta jasotako ondutakoa mahairatzeko ez dut izan ohi larririk. Zoramenaren zurrunbilotan bildu dezakezuna turbutz dagoke hurrean. Ardo berri halakoa dakikezu oraindik liruratik eskuratutako hura. Eta lauspeatzen utzi eta iragazi beharra liezazuke. Ez da erraza ikuskari, gertakari eta sentikarien hitzetan urtzea. Urdurikeria eta lasterbeharra horregatik dauzkakizut arerio eta arrisku galgarritzat.

Ez da gaurkoa patxadazko lan bati gehien lagun diezaiokeen garaia. Beldur naiz larregitxo kutsaturik ez ote naukan. Badakizu inondik ere hitzetik hortzerako kazetaritzaz ari ez natzaizuna. Beste zerbaitez, beste idazgenero hartaz dihardutsut. Ez noski gaia hitzaren bidez eraiki ohi duen literatur-mota hartaz, hitza gaiaren bidez eraiki nahi lizukeen hartaz baino. Gaia ongari bezala ongi datorkit. Eta biziki daragit Madrilekoak. Baina nik nahi dudana badakizu: Hitza egin ikuskari, gertakari eta sentikarrien nagusi, hitzaren pean jarri gaia, gaiak hitzari zerbi diezaiola egin.

* *Uda batez Madrilen*, Jakin, Oñati, 1977.

Basakanak goian ageri dira oraindik, izpiritua ez zaie oraindik jabe egin, ez ditu oraindik azpitan hartu. Oraindik ez zait ondu Madrilen bildutako basaokan eta gindaz bete nuen ontzirik. Izpirituak ez du oraindik ez basaranen eta ez ginden onurarik bereganatu, ez du behar hainbateko kolorerik eta ez opa diodan bouquetik. Baina jendearen egarriak nakar, ala jendeari eskaini behar hutsak ondutzatkoa mahairatzera, atondu ere etxekoen artean edateko atondu nahi izan dudana edaritzatko hau.¹

¹ *Uda batez Madrilen*, 4-5. orr.

OHAR KOADERNUTIK

Ohar koadernuan ezarri nuen zenbait apunte ere eskaintzea otu zait. Zergatik ez eman neure gurari, buruhauste, eragozpen eta ezinkizunen berri ere? Ez al gaude etxean? Eta ez al gara etxeko? Eta ez al gabiltza begien hurreko errealitate hain handi eta hain labana euskaratzen? Ez al gara aurkitzen ez euskara eta ez errealityate menperatzen dakigularik? Ez al gabiltza aspaldi bataren eta bestearen gaineko nagusitza eskuratu guran? Ez al dihardugu euskal literatura mardulagotu nahian eta abar? Zergatik ez orduan aitortu eta elkarri azaldu arazo hortan bakoitzak idoro izan dugun zailtasuna, erabili izan ditugun irtenbideak, ezin garaitu ahal izan ditugun oztopoak? Bizitu ala bizi-iruditu izan ditugun bizitza ta irudipen nahaskilozko jakin aldiak hitzez emateko egin izan ditugun paper gaineko zirriborroak-eta ere, zergatik ez erakutsi batabesteari? Ez al gaude oraindik lanaren haseran, jokabideak aukeratzeko garaian, hutsak zuzentzeko adinean? Beno, ba. Hil ala biziko joko hain gaitza doan jokatzan ari garen amateur eta espontaneo talde bat gara. Joko horrenganako zaletasunak eta jokakideenganako maitasunak zabaltzen nau eta lasaiki ekitera erakartzen.

Batzuk ez dute nahi sinestu Madrilen pozik nagoenik. Ezin dute ulertu mendiz-kanpo zoriontsu naitekeenik. Ni mendikoa naiz. Ezin didate barkatu Madrileratze hau. Zertarako Madrilerara, zeren bila?

Etorri, udako teologi ikastaldi bat egitera etorri nintzen. Baina Madrile ikusi nuenerako, teologi ikastaldiari baino zoragarriagoa iritzi nion Madrile bera ezagutzeari, eta hala azaldu nien etxekoei. Iseka baino txantxa batzu gorabehera, onartu egin zidaten. Ez diet esker txarrik.

Baina badut adiskiderik nire Madrilen murgiltze honi, itxuraz behintzat, onerizten ez dionik, e Migel? Jurgik harridura handia-goz ikusi du nire ateraldi hau.

Nik ezin diot inori erabateko arrazoirik eman. Ni neuk ere bai al dakit oraindik zehaztasun guztiz zergatik nauen Madrilek hain

sendo erakartzen, hain gustagarri zaidan halako liluramenduz deitzen?

Eusebiok, astean behin EL RETIROra osterat bat egin dezadala aholkatu dit. Hango zuhaitzen zuhaitzasunari begira amets gozotan asaskatu nadin. Zuhaitzak neri Madrilen? Bizi izan al ote dut zuhaitza besterik orain artean? "Ez dut beste penarik" delakoa idatzi diot Eusebiori. Pelayk eta Oteizak idatziko dudana zehar aurki dezatela beren galderen erantzuna. Nik neurea, eta baga biga higa beste dena.²

² *Uda batez Madrilen*, 6-7. orr.

E stiloaren arazoa iruditzen zait dena.

Norbere burua oihalean ezartzeko trebetasun gorabeherarena. Nik ez dut hemen historiarik eman nahi, ez geografiarik, ez eta antropologiarik ere. Neure inpresio hutsak ezarri nahi nituzke bakarrik, neugan sortu izandu diren heinean. Horixe dut untze bakar. Untze hortan golperik huts egingo ez banu, nire guraria lorturik legoke. Zailenik ere bera dut arean. Errazzenik egin izan dut eskolan: kontseiluak eman. Nire ustez zuzenak, neure ikuspeneraren jatorrasunetik erneak behintzat. Beti ikusi dut eta argi ikusi ere, nahiz eta ogia berdina izan, jaten duen bakoitzak bere tankerari dagokionez beretzen duela. Eta bere modutan azaltzen duela ogi haren gozoa, bere itxura berearen ispilutan.

Literaturlariak hauxe du behinenik. Errealitatea guztiontzat ageri da berdinki. Baina jaso, bakoitzak bere eratara jasotzen du. Eta azaldu, halatsu azaldu behar genuke. Horretarako bakoitzak egin behar du lan, norberaren itxura pertsonalari dagokion neurri eta aireko hizkuntza edo agerpidea idorotzen eta sortzen.

Egañarekin gaur izan dudana solasean gai honen ingurutan jardun dut: bakoitzak norbere sentipenari dagokion hizkuntza aurkitu ala asmatu beharrez. Edozein hizkeratako idazlek egin beharrekoa du hau, eta hontan datza bakoitzaren pertsonaltasunaren erroko oinarria. Gure ingurutako erdara handiak oparogogak direnez, hizkuntza pertsonal hau sortzeko zeri-heldu gehiago eskaintzen dute euskarak baino. Baina egindako hizkera erraz eta edonorenez aritzeko arrisku gehiago ere bai. Idazle euskaldunak ere badu arrisku hori horratik, GERON, GAROAN-eta landu izan den hizkuntzatatik irten nahi ez balu, esaterako. Baina Axularrek eta Agirrek beren esankizunei zegokien esaera sortu zuten eta ez nire eta beste inoren galdera-erantzunei, ikuspide eta sentiei dagokiena. Literatur egilearen lana armiarmaren lanaren antzerakoa da: barruan duen saregaia, hizkuntza gaien ugaritasuna, nahiz handia nahiz txikia dela, bazterraren, arloaren, norbere asmoaren harira erabili behar du. Saregaia bat bera delarik, sarekera bakoitzak asmatu behar du norbere izate, eskabide, aiurri ta egin-

kizuni dagokion eratara. Pintore aberatsak –gaztelerak adibidez– pintura-gai edo hitzen ugaritasun handia du gure aldean, oihal hobeak eros ditzake, marku ederragoak. Gu urriago aritzera beharturik gaude. Gure eskuarteko pintura ontziak ttiki dira eta ez asko: oihalak edo temak ehundu gabe dauzkagu eta markuak edo literatur generoak oraindik zerratzeko. Hala ere baliakizun eskas horik nahikoa ditugu benetako arte-lan artailuak egiteko. Besteek konpresoraz eta tresneria teknikoagoz lantzen duten harria, guk lanabes apalagoz landu behar dugu, baina guk ere landu egin genezake horratik. Besteek burdinolatan urtzen eta moldatzen duten burdina guk mailuz eta ingudez itxuratu behar dugu, baina itxuratzea behintzat gure eskutan dugu.³

³ *Uda batez Madrilén*, 11-12. orr.

Ingurua errektangular gertatu zitzaidan Madrilen, elkarren gainkako eta alboz alboko paralelogramo sail sailada nabarmen altu ta luze.

Etxe lerro paraleloen arteko kalebideek, lerroaren dimentsio herstu eta bakarra eskaintzen die gizonaren pauso eta begiei. Lerro-hariz behar duzu, ibaitako arrainak uharkaz bezala, kalez gora ala behera.

Bilbo ezagutzen dut, Donostia, Iruinea, Gasteiz. Haietako kaleek ez zaituzte itotzen. Mendi bizkarren baten konkor edo ton-torren bat beti duzu begien aurrean, beti duzu hiriz kanpoko eremu zatiren bat agerian, begientzako arnas bide bezala, askatasunaren presentzia hurbil bezala.

Neure irudipen soila diot. Inguruari den denetan utzi diot barrura sartzan, neure inpresioen ispilutan osorik isla dadin, bere aztarnaz zanpatu eta zukutu nazan.

Ukitu bakoitza gertatu zait berri. Ez lehenagoko anpor hustuz egindako erlauntz larre zabalekotan, erlauntz errektangular herstuki abazkatu berriz. Osatutako erlategi handi batetako erle txunditu gertatu naizela dirudit. Oraindik arestian –hariztian– jirabiran hegatzatzen zitzaizkidan begiok, inguruko ertzen kontra jotzen dute hemen orain, eta, nahi ala ez, okilaren luzerako hegada kulunkari birarik gabekotan hegatzatu beharturik nabari ditut.

ARKITEKTURA, mekanika, komertzio-andana-andanadak begitan. Ikuskizun berri ta miragarriak begitan. Kalea begitan, hiria, makropolia, eta hitzik ez. Eta itsu baten esku haztatzaileak bezala, hormaz horma begiak, musiko zoro eta itsu baten eskuak soinugailuz bezala, hormakera miresten eta hormaz hormako ederlan zoragarriak behatzez gozarazten.

–*“Dena gertatzen da mekanika bidez: Uki ezazu botoi hau. Azentsorez ala eskailera automatikoz nahiago? Makinok ez dira gelditzen. Autoz alda gintezke inprimategira. Izugarria dela dasaizut Las Torres Blancasen ibiltzea: berez duzu igotzen, berez zaizkizu ateak zabaltzen”.*

Ruben Dario kaleko zoladura jasotzen ikusi dut. Gizon gutxi eta makina hori handiak. Zulatu, zakarra atera, erreten sakonak ireki... Kaleotan denetik dago: zer saleroskiak, zenbatariko sale-roskizunak, zer gauzak Aizgorriko haizea baino berin garbiagoen ostetan. Burdinazko, letoizko, urrezko, lurzurizko, haitzurdinezko salgai sekulakoak; jantzidenda, oinetakotegi, liburu erakustoki ikusgarriak, argiz eta gustagarri begitara emanak. Begiak berinen kontra, makinen kontra, hormen kontra kolpaturik ditut, gauzengana hurreratu beharrez, sentimenean kateatu beharrez gauzen eraso.

Agerkari berria dut hiria. Tupustean zait gaineratu. Agurtu egin nahi nuke, oihartzun izan nahi natzaioke, goratzarre bat egin nahi nioke, baina hitzik ez dudala oihartzen dut. Burutan dut haren isla, baina ezin dut orraztu, irudimenean dut haren itxura, baina ezin dut ekarri hizkuntzatara ta ezin dut arnasatan eman. Ikuskizun eta bizikizun berriz azaldu zaidan hiriarentzat ez dut hiztegiarik eta ez dakit askotasun askotarikoz agertu zaidala esaten baizik, beretasun berarizko askotsu berebizikoz, mugimendu edotariko iradu ta bat-baterakoz, jario aldakor eta zorarazlez zabaldu zaidala aitortzen baizik.

Kaleko errealitate-paisajearen hiztegia jakin nahi nuke, hiriak duen edertasun errezkada oparoa azaltzeko hiztegia, gauza arruntenetik ikuskizun izugarrienerako hiztegia; eta azkar idazten jakin eguneroko bizitzan eguneroko lekutan, eguneroko bizimoduan, unero duen ederra, une bakoitzeko gertakizun bakoitzak duen eragin unekoaren uneko dardara, Ribera de Curtidores barrena El Rastroko saltsa-maltsa saltari ta bizkorraren bizitasunez ondozkatuz hiriko jende honi eguneroko gauza zaion oro, jende honi bere bizitzan ukitzen dion oro.

Andrazkoek daramatzaten erosketa-gurditxoei begiratzen diet, pasazebrei, semaforuei, egitura galanteko sailetan doan etxadia, bideko ibilgailu iradu distiratsuei, komertzio andanada ikusgarriari, baina errealitate haundi eta bizi eta sentigarri hau islatzeko hitzik ez dut ikusten, eta muturik noa, begitara deika ari

zaidan kale nagusiz, elkarrizketara hainbeste anuntziaz, kartekez, rotuloz, letreroz deitzen nauen Jose Antonioz, orain, Espainiako Plazarantz.⁴

⁴ *Uda batez Madrilen*, 25-27. orr.

Idazte arazoa ez dut hiztegirik ezarena bakarrik. Hiztegirik eza ez dut agian, kokiltzen nauen mamu hutsala baizik: zezena izorratzen duen zapi gorri iruzurkoi bat.

Besterik da arean egiazko nire lorra. Ausardi ezarena batik bat: hitzenganako begiramena urratuz, esankizunetara itsumustuan eta artez ez jotzearena. Hitzak, esankizunen ederrak bitxituko lituzkeen ziurtasunik ez banu neure barrunbe hontan nik!

Zertan naizen ba orduan?

Ausardiarik ezean.

Itxurazko atxakia bat nuke neure ausardi faltaren arrazoa ematea. Hauxe litzateke:

Hitzenganako eta ohiko haien joskerarekiko beldurretan hazi eta heziak garela eta hartan etsiak, zezentza baino iditza onartzeraino, betelutik oparo aritzeari baino antzuolan agor izateari, legorretan bizirik ihartzeari amore emateraino, ia ezinbesteko beldurrez.

ERABILI izan dudan idazkeraz damutzen ez banaiz ere, eza-gutuz noan errealtate hiritarra adierazteko gauza litzaidakeen hizkuntza idoro nahi nuke. Dakidan euskara nahikoa izan dut orain artean idatzi izan dudanetarako eta nahikoa nuke idatzi izan ez dudan beste zenbait arlotarako.

Baina hemen, mugimen koloretsu azkar hau abiadan eta margo bizkorrez adierazteko ezindurik aurkitzen naiz. Gauzen izenetatik hasita, jendearen lasterdurazko bizitza, berrien ugaritasun nahastekatua-ta, nola eman gertatzen diren nabardura askotariko eta saltaritan ?

Hizkuntzari errurik egotzi baino lehen, neure burua aztertu behar dudala otu zait. Agian ez naiz gauza bizitza giro hontaz aritzeko. Gelditasunezko aire batetan hiru-lau zeren ikuste ta hausnartze bare batetan bizi izan naiz, eta orain gainez ere egiten dit hemengo ikustearen askotasun urduri honek.

Etxeko asto kateatua erabiltzen badakit, baina ez larreko behorak nahi dudanera erakartzen.

Bestalde zenbat jabetu izan naiz euskaraz beraz? Zenbat gaitan landu izan dut? Zer irakurri izan dut euskaraz hiri bizitzari buruz?

Hiriko aritzeko euskararik behar izango ote nuenik ere ez zait otu izan gainera. Hirian erdaraz egiten da.

Errazena litzaidakeen arren, hizkuntzari ezin diezaioket errurik egotzi. Nahikoa egiten dit gajoak gauzak esateko ezpainetaraten zaidanean, lumaren puntaraino iristen zaidanean Madrilen irudia emateko borondate hain bizkorrez.

LIBURUA ikusi egiten dut. Lau aldetatik ikusi ere. Begiz inguratu dut, tirora daukat, reflektoreen argi barrunbetan.

Batzutan azkarregi idazten dut, hizkuntzak narama batzutan, konturatu gabe, berari gogoak damaion bidez. Bestetzutan jaitxi egiten naiz hizkuntzaren zalditik, idazgaien larrinean lotzen dut eta larrinean geratzen naiz neure zaldiaren ondoan larrinari begira ni, larrainekoz bazkatzen hura.

Idazten ere jardunaldiak egiten ditudalarik, begira doakit denborarik gehiena: idatzi nahi dudanari begira, idatzi ez dudana irakurtzen, entzuten. Errealitatea duen zerbait baitirudit jadanik, eta nik gozoa hartzen diot, egonean eta geldi-geldi hartzen diot gozoa eta goizaren nahiz arratsaldearen zatirik onenak igaro daramatzat ikuste betearen gozotan blai. Martxa hontan idatzi ere ez dudala egingo iruditzen zait noizbaitzutan.

Noizik behin idazteko beldurrez nago, ikusten dudana, ikusten dudana bezalako geratuko ez ote zaidan idatzi ondoren. Gero, esperientzia deitzen diogun negu giro lorrin handiko horrek ikeretzen nau eta garbi dakusat orduan ametsaren argiak, koloreak eta gaintiko lilura guztia neugan geratuko dela ezinbestez, eta larre gorriko belartxo, sastraka lakar, zuhaitz murriztu, horma zahar eta jendaki gizagaixo batzu besterik ez dudala izango letrek agertuko dutena.

Santxo adiskidearen ahotsak ohartu izan dit neri ere: hara, "una cosa es concebir y otra parir". Bai, Santxo, bai; baina ni ama

izan banintzok, ez zekiat... sabeleko haurrari begira egongo nintzokean egon eta egon, eta bederatzi hilabeteak ez ezik, neure bizitza guztiko urteetan nahiko nian hari begira egon. Bazekiat bai, eta ez ezak barrerik egin, gogorak ditukeana bizitzako legeok. Norbere gustoen kontrako ditukeana. Neure gustoa zein litzatekeen azaldu nahi izan diat soilki. Banitxiak, oraintxe bertan nitxiak, askatuko diat zaldia eta abiatuko nauk errealitate makur eta zeken horrekin burrukatzera.

BESTE pauso bat eman nahi nuke. Harzabalen bidea ederresten dut. Halako joera halako bat ondo letorkiket neuri ere hemengo mugimen eta airea poemen kanpotiko irudiz ere aditzera emateko. Baina tolestuago ibili beharko dudala iruditzen zait.

Liburuaren azala errektangulo elkarren gainean pilatuz, elkar ebaki eta herstutu dagitenez ematea otu zait.

Uda batez Madrilen izen nagusiaren pean ohar hau jarriko nuke: irakurtzeko eta kantatzeko. Lehenengo zatia Madrilen aurrenik jo ninduen jarriko nuke: hiriaren edertasun eta handitasun baterakoaren zaplada txundigarria. Bigarren zatia bi ataletan joango litzateke: bata horizontalki, bertsolari eratan emanaz Madrileren ikuspegia. Bestea kantu bertikal bat litzateke, Madrileren barrunbea behetik gora irekiz.

Nondiknahi irakurtzeko poemek emango lukete errealitate beraren ikuspuntu askotariko eta desberdinaren itxura.

Poemen orritan ezartzea ere halatsuko-edo dateke: orrien goikaldean gauzei buruzko poemak, gizona era batera edo bestera zantpatzen duen orori buruzkoak. Orri barrenetan berriz, gizonari berrari dagozkionak, honen arazo, egarri, ezbehar eta abar diotenak.

NORK du errealitatea euskaraz beretu hemen? Hiriko bizi-martxa da hemen bizitza duen errealitate bakarra. Hiriko bizitzamartxa nork du euskaraz ulertzen hemen?

Basoan lohartu zuen Herri gara, itsasertzean lohartu zuena, ola zaharren aldameneko errekondoan amets egin zuena: "Ikusten

duzu goizean argia hasten denean, menditxo baten gainean etxe ttipitto aintzin xuri bat lau haitzondoren erdian, xakur xuri bat atean, iturriño bat aldean? Han bizi naiz ni pakean".

Zenbat ordutako, urtetako, gizalditako lo gozoa! Bitartean dena aldatu zen munduan eta iratzarri ginenean, nola izendatu ez genekien zergauza asko zen mundua betean. Inguruko gizonak doblaturik eta erredoblaturik zuten munduko ondasuntza. Fisikan, kimikan, geografian, astronomian, meteorologian, geologian, mineralogian, ezagupen handi batetara heldurik ziren; landare, animalia ta gizoni buruzko jakite handi batetara heldurik ziren; anatomian, fisiologian, midizinan, komertzioan eta industrian urrutiko lorkizunen mugetara heldurik.

Lotan geundela beste mundu batetara aldatu bagintuzte bezala gertatu zaigu eta kolpera iratzarri garenean galdetzen hasi behar izan dugu ta galdetzen hasteko haien hizkuntza ikasi behar izan dugu eta haien hizkuntzan ikasi, jakin dakiguna.

Gero berriz lohartu dugu, ta amets dagigu berriz, aurrerapeanean murgildurik garela, ezagupen berrien jabe garela, eta ez gara ohartzen eskuartean dugun hiztegia bera, auzokoena dugula eta ez geurea. Ez zaigu bururatzen gure hiztegia lehen loak hartu gintuen ordurako egiten hasirik genuena. Ez zaigu bururatzen gauzak geure hiztegitik ulertzera heltzen ez garen bitartean inoren lepotik dugula burua ta inor garela jadanik eta geu, izatea galdu egin dugula, eta geure mamu garela, geu garela ustez bizi den mamu uste hutsalez betea.

Jakitunak ditugu burutik egingenak, ez baitute ikusten geu izateari eusteko geure baitarik jokatu behar dugun premia nahi ta nahi ezkorik, ta inoren ontzian dira geure izan daitekeen itsasoz, ontzia geure ez datekeen artean geurea izango ez den itsasoz, erreinu arrotzarentzat lur berriak idoroz.

Baina guk geure ontzia nahi dugu itsasoz aritzeko gauzatu, aurkimenerako egokitu, eta horregatik iritsi gara geure ontziaren neurri eskaxez konturatuzera eta ontzi hontan nahi duten guztiei kontatuzera geure atzerapenaren historia. Guk geure ontzitik nahi

dugu itsasoa bataiatu, uharteei geure izenak jarri, eta hiria eta hiriko den oro barrutik gora hartu, lurreko ezoak basadiak bezala.

Hiri aurreratuan iratzarri garen Herri gara, unibertsiteko aulatan iratzarri gara, olaberrietako makinarte harrigarritan; eta errealitate zoragarri hau euskaratu egin behar dugula ikusi dugu, hil ala biziko istilu hontan iratzarri garenerako.

IDAZLEAK oinarrizkoa du hitzaren gorabehera. Soroak hazia bezala behar du idazleak hitza. Euskal idazleok ostera ez dugu geure barru gosek-hiletan hitz urri batzu besterik hartu izan. Euskal ekonomia oso lukurra izan zaigu hitz inbertsio-inbentziotan.

Gure parean ez du zeruk ez lurrek unibertsite euskaldun baten mandiorik zabaldu, ikaskizun berriz batera sorketa berrien hastapen gerta dakigukeen hitzik ez dugu hartu izan euskaraz. Eta agerian dago gaur arteko gure eskola sistemak sortu izan duen gariz bakarrik jai dugula euskaldunok. Gure barru-lurren eskabi-dea Europako edozein lur milixka eta asekaitzenaren neurritakoa dugu gaurregun. Ezagukizun berriak eskatzen ditugu, jakintza orokorrez jardun gura dugu, egungo errealitatez mintzatu nahi dugu; baina hona gu mutu, nola mintzatu ez dakigula, aleak bidea hertsu eta itsutu dion errota bezala gu, inondik inora zahirik, irinik lortu ezinik inola, irinez ogirik osatu ezinik ezertara, ogirik egosi ezinik inoiz, behin ere geure odol bihurtu ezinik ezer, odolaren alferriko hazi-gosearen alferrikotan zabalik, baina sabel-igar eta basamortu.

Eta honela ezin da. Honela ezin dio idazleak garai honi dago-kion interes mailari erantzun. Baina oraindik zailagoa da literaturlarien arazoa: literaturlariak hitza kreazio gai du, eta eskuartean behar du hitza batean ore bezala, harri bezala, haga bezala; bestean hause bezala, trintxa bezala, aizkora bezala; etxegintzarako etxegai bezala behar du, edozein eginkizunetan hartarako behar den oro bezala behar du; iturriak ura bezala, soroak hazia

bezala. Nahiz eta inoiz hitzen bat asmatu beharrean balitz ere, egotez hitzez ernaldtu zahar egon behar du idazleak eta noiznahi erditzeko gertu. Ezin daiteke ibil une bakoitzean esankizunen adierazpide materialaren bila, hitz bakoitza sortu beharrez idaztaldi bakoitzean; jadanik erabakia behar luke hitzaren gorabehera hori eta ez luke formaren arazoa besterik hartu behar. Formaren arazoz aurrekoa, hizkuntza materiala, ondo berea behar luke idazleak eta soroaren lana besterik ez luke egin behar, erraiak ase-beterik dituen iturri kantari eta kontariarena. Hazia barruan duen soroari bezala, ura erraietan duen iturriari bezala, hitzak berez-berez irten behar lioke idazleari, nahiz eta nekez, berez; gutxienik bederatzi hilabetetan osatua eta ondua, paperera orduko bere ahotsaren jabe duelarik hitz bakoitza; eta ez familia gehitu nahi duen bakoitzeko haurra inondik ekarri beharrez, semetzat hartu beharrez, bataiatu beharrez, ekanduko ez ote zaion betiko beldurrez. Baina horixe da euskaldun idazleonegoera oraindik; egungo literaturari dagokion bezperagoan bizi gara oraindik; bihar izango da bezpera, etzi oraindik eguna, Jainkoak nahi badu. Bitartean egun hartarako prestatuz joatea dagokigu, hizkuntza beraren barruan hiztegia ugalduz joatea, hazitarako garia bezala, hitzak ere hala harri berdez erretzea, gaitzak jotako aleak gal daitezen eta gaitzik gabekoak indartu. Baina hortarako hazi hori erre eta ontzeko tokia, ontzia behar dugu, ikastola eta lizeoak baino handiagoa, unibertsitatearen neurri osokoa. Gutxienik unibertsitatea behar dugu hortarako, gaurko hainbeste gai eta halako neurri handitako, batean erabili eta batera prestatzeko. Gure soro-lurren gosea zaharra delarik, ez du egundo hazia behar bezala egokiturik emana izan dakion halako premia larririk izan oraino. Eta gaur ari garen idazleok ez genuke euskal unibertsitate bat besterik eskatu behar, gure soro-lurak goseak gogaitu ditzan nahi ez baldin badugu; baina batez ere, euskarak inoiz inguruko munduari ardura dakioken literatur lanik sor ahal dezan nahi baldin badugu, hitzaren haroztegi eta arrago den unibertsitatea dugu beharrenik, idazle beraren formazio forma bera hitzak erabaki

dezan, gariak soroarena, urak iturriarena eta aurrerapenak
Madrile kukuluko kale hauena bezala.⁵

⁵ *Uda betez Madrilen*, 68-77. orr.

Kale handitan zehar barrentzen naizelarik, neure zoriak ez ezik, atzerritatik ni bezala hemen sartu izan direnen gomuta halako inpresio-saldak beratzen nau dena zukutzeraino. Neure herritarren oroitzapenak bereziki. Gauza bat da menturatan sartzeko lilura eta beste bat menturaren daunbada-olatutan burua tente erabiltzea. Onenean ere ur gazi dzangada batzu irentsi egin behar behintzat. Orduan zortearen itsasotan zabukatu guztien bihotz-zauzkada jabetu bailitzait, irudimenak nabarmentzen didanari ematen diot ahotsa, eta inoren zoria kantatuz asaskatzen barrua.⁶

⁶ *Uda batez Madrilen*, 84. or.

Evita Peronengana jo dut gaur. Evita Peroni egin diot arren. Evita Peroni buruz gauza on zenbait eta gauza txar asko aditua naiz. Entzun izan ditudan esames horik laudorioak baino ziurragoak izatea ere baliteke. Baina, demontres, izen ona besterik ez duen gure gizarte hau ere! Zertarako gure izen onok, erremediatuago ahal genitzakeen hainbeste egoera hobetzeko gauza ez baldin bagara, erremediatzen jartzen ez baldin bagara hortarako aukerarik dugun bakoitzean? Baina bai al dago eskubiderik agerian eta nonahi ikusten ditugun eskeko, behartsu, elbarri ta dindirrilario hauetaz gehiago arduratu gabe bizitzeko? Holako horien egoera eta ibileraz ez kezkatzeko gehiago? Nire egungo otoitzez eskandalizatu ahal daitekeenari edozein Metroko atakatara, kale ertzetara, auzo hiriz kanpokotara deitzen diot. Ea zer egiten duen, zer egin duen eta zertarako dagoen gertu esan diezadan. Noizpait damu naiteke ezinbestean eta erre-errean egin dudana otoitz hontaz, baina gaur behintzat ez.

BEGIOTAN badut irudirik. Non errebelatzen dira begitako irudiak? Klise beraren gainean ezarri ote ditut mila modutako gizajende bizi den kalez kaletako irudiak? Gran Vian begiak golpera golpatu dizkidan emakume asaldakor haren irudi pizgarriari begira jarri natzaioneko, ia begiratu ere egin ez diodan gizagai-xo baten negativa ageri zait eta berrikusi nahi nukeen hura ilundu egiten dit. Etxadi bikainki egokia lausotzen dit korrika zeharkatu ditudan txaboladien itzaldura halakoak.

Nork garbitara aldatzen ditu pelikulak, pelikuletako irudi elkarren gainka ezarriak?

Egunkaritan irakurritako halakoren deklarazio ederrak nork ditu klandestinitateko orri eskuztatutan irakurritako esames itsusiengandik bereizi jartzen?

Telebistatik harako solas baikorrak nork garbitzen ditu Metroan, Karmengo taberna lohietan, Kontzezio auzokoetan entzundako maiseo eta protesta haietatik?

Deboden tenplua nahi dut ikusi ea nola irten duen. Torre de Madrid, Palacio Reali eta Katedralari begira ez al dut atera? Nola ageri da orduan atzekaldean nuen Carabanchel bere etxadi zarpil pilatuz, jende nolabait jantziz, gartzela gaiztoz eta guzti?

Ez dut galdetu magnetofonu zintak ea nork garbitzen dituen, baina erretratu makinako kliseak bezala, nork ote dituen garbitan ipintzen nahi nuke jakin.⁷

⁷ *Uda batez Madrilén*, 113-114. orr.

MADRILEN enparantza ederrik badago,
ederrenetakorik "Espainiako Plaza".
Dendunean du jasa
bidez, zuhaitzez, lorez,
lerroz.
Dorre ta etxetzar ikaragarritz
inguru iaio demasa.

Baina eritzi hontan ere okerrean nagoke agian. Ez ordea niretzako hala dela baieztean. Enparantza hontan, erdi-puntuari, Zerbantesi eta haren kultura bikainenei eraikitako monumentu handi bat dago. Beharbada monumentua bera ere ez dut ikusten begirada oso kritikoz. Zertarako? Zerbantes eta haren Kixote parearene barrutan dudak eratarik ikusteak nahiago dit; baina hala ere ez dit trazarik egiten monumentu berari begiratzeak. Horregatik etortzen naiz maiz honuntza.

Nire aurrez jende asko igarotzen da eta modu askotakoa. Gehienak monumentu aurrean jartzen dira une batetan argazki batzuek aterata bitartean juxtu eta gero alde egiten dute. Han eta hemen bankutan eserita dagoen jendeak aututan dihardu gehienbat bakoitzak bere aldamenean duenarekin. Enparantza zaintzeko daudenek badute nahiko lan noiznahi zelaitxotako belarretan apatx egin edo etzaten direnak jeikiarazten. Hainbeste uso ta txolarre jaisten eta jasotzen dira plaza hontan jaitsi eta jaso takianpotiangotan.

Gauzok arreta handi gabe ikusten ditut. Hemen gehien arduradunak monumentuaren ikuste gogoak damaidan bezalakoa dut. Jadanik urte asko da Kixotea irakurri nuela, baina hemen, barruan eta oroitzapenean dudak bizitza bezalakoa hartzen dit eta ederki pasatzen dut. Burutapen askoren iturri dut erreparatu halako hau. ELORRI idatzi nuenean bat baino gehiago harritu zen Kixotea aipatu nuelako. Olarra kazetariak honako hau-edo galde-tu zidan Goikobentan: "Zer eman liezaioke Kixoteak euskal idazle bati?".

Kixotea parabola luze ta eder bat da niretzat. Hobe beharrez diharduen gizaki zintzo baten alegia, gizon eta gauzen, bizimodu ta gertaeren handitasuna ikusi ta sinestu beharrez bizi den gizon baten ipuin zoragarria.

Errealitateko zantarkeria oro haren begien bahez ikustea atsegin zait eta aldiz errealitateko izaki otzan eta xehe oro haren ikusmenaren iragaztontziz irenstea. Lapur galanta, *Abaxi bezen ohoina* omen zen bentari hura jaun agurgarri bezala ikusi omen zuten Kixoteren begiek eta ahuntzainen iseka zakarrak begirune handiko diosaltzat hartu. Ostera artalde-aharitalde ostetan-eta ohi diren gaizkile ta erraldoiei begieman eta eraso zien. Besteak beste, interesgarri gertatu zitzaidan gauzei begiratzeko era bitxi bat ikasi nuen Kixotean. Harrez gero txitean-pitean erabiltzen dut optika-zori hau eta zenbait ondoren nahiko aldrebes arren bapo doakit gehienetan.

Irri ta barre etorri eta barre eta irri aldentzen diren turista taldeok Kixoterenganako jainera benetako bat dute zalantzarik gabe eta edozelan ere erromeria saindutan etorri zaizkio lurralde urrutikoenetatik erromes. Aututan diharduen hemengo jende honek Kixoteren oraindik oraintsuko ekintza eta berri zein baino zein bakanagoz dihardu noski. Irentzaile-txilibitu horik gorabehera, hotsandiko ipotx harrigarri haietako dira aurki enparantza zain uniformedun purrustaleok. Belarditxotan esertzen direnok berriz, gorte-jende sentibera ta biguna da seguru, ipotxen halako soinu ederraren moskor berroz belar ezearen freskotasun bila.

Txolarre eta usoei alabaina ezin diet begiratu gogor ez bada, mamu irense ta mozorro hondamen zale pila baita haien itxuraz bestekaldean. Artalde-aharitalde haietan Kixotek ikusi zuen gerrari izugarrien bi ejertzito haietarikotan lurrez lur eta zeruz zeru ikusten ditut txolarre ta uso, Gernikaz zehar, Euskal Herria barna, lurralde guztia zeharo murriztuz. Eta Pentapolin Garamantaren alde eta Alifanfaron de la Trapobanaren aurka atera zen herri ameslari hura, haginak eta saihetsak hautsita lurrean ikusten dut hiltzakotzat utzita. Baina nola ez dakidala, ez eta nondi-

ko mirariz, horra orain non ikusten dudan Euskal Herria benetako osasun eta sasoi berri batez bakarrik baina gogor zuzi-marroen aurka. Gaietikoa lehenean datza: Kixote bere zaldian, Santxo bere astoan, Zerbantes kolumna handiko jargoian. Jaitsi eta jaso takian-potiangotan ari diren txolarre ta usok ere ez lukete une batez amesgaiztoko beste haien errugabeko irudi izatez beste atxakiarik hurrean, munumentuari burutik behera hainbeste kaka egingo ez baliote, gaixook.⁸

⁸ *Uda batez Madrilén*, 123-126. orr.

Mendatako Orbelaun basetxean jaio nintzen 1928. urtean. Urrikoa naiz. Hego-haizea kolore hori-gorri beroz gure mendiarte berdeak zehar landare txiki eta handi zoragarri iziotuz sartzen denekoa. Nabarnizen ezagutu nuen lehenengo eskola-maisua, Don Sisto, osaba Eulojiok eman zidan euskarazko katona behin ta betiko harrika jaurti zidan hura. Gero Arratzuko eskolara joaten nintzen negu aditan. Egundo ez nion maisu bati ezertxo aditu, egun batzutan ezagutu nuen maisu bajuto bat etorri zitzaigun arte. Nafarra omen zen. Ez dakit. Hitz batzu euskaraz esan ohi zizkigun behintzat eta harexen akordu apurra dut eskolako gozo guztia.

Arantzazun ezer ulertzen ez nuelarik jarraitu nuen, baina Arantzazun euskara maskaltzeraino ikasi nuen. Ez behingoan, eskolarik ez nuelako bost urtetan jardun behar izan bainuen hiru urteko ikasteak egiten. Baina bitartean hobeto malgortu ahal izan nuen euskara. Arantzazuko une haietan buruz ikasi nituen zure KIXOTE liburuko zati batzu. Marrotan jokutzen genuenean "non fuiades, cobardes y viles criaturas; que un solo caballero es el que os acomete" esanez jarraitzen nien aurreko taldetik gure talderantz ateratzen zirenei erasotzerakoan. Literaturako liburutan ageri ziren zure idazlan zati guztiak irakurtzen nituen gustora.

Oporraldi batzutan eskola-mutikoentzat prantatutako zure KIXOTEAREN laburpen iragazi bat ere irakurri nuen. KIXOTEA, bere osoan, fraide eginda gero irakurri nuen teologi urtetako batenbitan. Arantzazuko gau isiletan eskandalu handiak sortu nituen zure liburu hori irakurri-ahala. Lo-ordutan irri ta barre izaten nuela gelan eta fraide on batek behin baino gehiagotan egin zidan akar eta nagusiengana salatuko ninduela zemaia egin ere bai, baita gelara etorri eta gela guztia miatu ere inoiz, ea han nortzu ote ginen ikusteko. Nik han nuen zure liburua, baina fraideak ez zuen ikusi, ez eta beste inor ere. Auskalo zertzu pentsatuko ote zituen nitaz. Gero nire barreak-eta aditzen zituenean, negarrrik ez zuen

aditzen, erratz girtenaz edo makilaren batez jotzen zuen nire gela-pea. Hala irakurtzea noizpait bukatu nuen arte. Harrez gero ia ez dut eskutan ere hartu, ez gogorik ez dudalako, astirik ez dudalako baino.

Irakurri izan dudan libururik ederrenetakoa zure hori izan dut. Ez duzu alferrik hitz bat ere jarri. Aurrez bizitu izan duzu hitz bakoitzaren barruko bizitza. Giza-sentipenaren mila mailata-koren bat jotzen ez duen hitz bat ere ez duzu ipini liburu handi guzti hortan; eta hala ezin daiteke zure liburu hori irakur barru guztiaren asaldakuntza oso eta gozoenik gabe.

Puerto Lápiceko Kixoteren eta Bizkaitarraren arteko gertakuntza hartaz mintzatu nahi natzaizu orain laburki, baina gramatika eta literatur balioz kanpo: zintzotasun eta jatortasun hain handiko bi jendeki haien agertze hain bikain eta goragarriz. Beti ikusi izan zaitut begi onez jendeari begirune maitetsua diozulako.

Puerto Lápiceko pasartean bi burrukalariak ikusten dituzu inondiko alderdikeria txikiarik gabe ta bakoitzaren giza balioz berdintsuki zoraturik. Seme bezala maite duzu bata eta bestea ta ez zaude bataren alde, bestearen alde baino gutxiago, eta bakoitzaren jokatzeko jatorrez berdintsu poztutzen zara. Batabestearenganako etsai benetako bezala ere ez dituzu ikusten: "como si fueran dos mortales enemigos", baitiozu, adiskide zaharren arteko beroaldi pasakor bat besterik ez bailute oraingo guzti hau. Burruka-garaipena ere erdibana banatzen diezu: armazko burruka da, hain zuzen, Bizkaitarrak galdu zuena, baina lehenengo saioan, Bizkaitarra egin duzu irabazle. Hor dago oraindik Kixoteren lantzari gogor heltzen diolarik, Kixoteren aurrez aurre oraindik "en mala lengua castellana y peor vizcaína", baina Kixoteren ulermena biziki minduz, esaten ari zaionaren punta indartsuz: "Entendíóle muy bien don Quijote". Lehenengo ekinaldia, hitzekoa hain zuzen, Bizkaitarrak irabazi zuen beraz, eta hori "en mala lengua castellana y peor vizcaina". Orduan hasi zen bigarren saioa: "Arrojando la lanza en el suelo, sacó su espada y embrazó su rodela y arremetió al vizcaíno". Baina lehenengo saioa dut maiteago

eta hartaz jardungo dizut orain. Neure eta zeure begiz ikusten dut, ala neureok antzean ikusten duten zeure begioz, burrukaren lehenengo saio hartan gure Bizkaitarra, ahalegin izugarritz, larri suminezkoz, ezinaren kontrako amorru irakinduz, berak nahi zuen guztia, berak nahi zuen bezala ezin jalgiz. Zu zeuk ere sufritu egiten duzu Bizkaitarraren ezinbestezko gazteleraz mintzatu behar eta ezinez, eta hala azaltzen diozu irakurleari. Baina oraingo hontan irakurlea bera duzu pasarte hontan zu zeuk baino min asko handiagoz sentitzen duena norbere hizkuntzaz kanpo mintzatu behar hau, eta ez Puerto Lápicen, hain zuzen, ez Gaztela berrian, norbere herrian eta euskaldunen artean baizik.

Azpeitiako Santxok adinbat erdara ikasi zuenerako bai luze joan zitzaioela nik dakidan hari, egunak zehar ordu bakoitza. Eta Azpeitiako Santxok adinbat ikasi zuenean, oraindik ere luzaro mintzatu behar izan zuen "en mala lengua castellana y peor vizcaína", inor askok ezer ulertu nahi ez ziolarik, ez baita Puerto Lápiceneko Kixote azkar eta on hura bezalako pertsonarik noiznahi gertatzen nonahi.

Atxakiaz inguratu eta zuriztatu nahi izan duzu Bizkaitarraren hondamena, galtzaile lotsa handiagorik izan ez dezagun. Ez zetorren burrukarako ongi prestaturik, nahiz "un escudero de los que el coche acompañaban" izan. Haren mando-emea, "por ser de las de alquiler", ez zen batere egokia arazo hartarako. Ez zekarren ez eta erredola babesgarririk, eta menturaz aurkitu zuen buruki arin batez gorde behar izan zuen nolabait burua. Baina hala eta guztiz ere larri erabili zuen gure Manchako zaldun armaz hobekiago hornitua. "De aquélla salió vuestra merced con media oreja y media celada menos" gogorarazi zion Santxok.

Bidenabar, Bizkaitarraren zenbait akats nabarmendu nahi izan duzu eta bat edo bestez ohartu naiz: geure buruarekiko uste onegia dugu ergelkeriataraino iristen den ustea dugu geure burutan, geure buruok babesteko beharrezko gauza ditugunen arbuizatzerainokoa, ez ikusterainokoa, axola-gabekeriatarainokoa. Uste onegia dugu euskaldun izatean, geuk landu dugun ezpata

ezin hobean, eta gehiago gabe, hortzetaraino armaturik datorrenari aurre egiten ausartzen gara. Ez dakigu luzapen bat eskatzen ala harroegiak gara hortarako. Eta horra akurako manda-eme nekatu, izukor eta azkenean lurrera botako gaituen baten gainean gu, buruki ilaun eta menturazko baten babesu besterik gabe, nola garen ausartzen "si lanza arrojas y espada sacas" erronka-hotsa egiten eta lehenengo zartada ematen ere, "el primero que fue a descargar el golpe fue el colérico vizcaíno", uneko sumina nahikoa bailitzaigu ala jadanik ezinbestezkoa den burrukan argi ibiltze hutsak garaipena emango bailigu. Baina azkenean galdu egiten dugu, beti galtzen dugu azkenean. Baina ez dugu horregatik geure mandora igotzen, ez dugu geure mandorik ateratzen zaltegitik, ez dugu geure mandorik gauzarazten aurretiaz. Ez dugu geure erredolarik ere hartzen, arazorik ez hartzearen haren mailatu zaharren kentzeko, besorik ez nekatzearen. Gero euskaldun bakoitza aurkitzen gara bapatera, ustekabea eta nolabait geure buruen alde jokatu beharrean, beti bakarka jokatu beharrean eta beti "en mala lengua castellana y peor vizcaína", beti ezinbesteko gazteleraz mintzatu behar eta ezinez eskolan, herrikoetxean, edozein sendagile ala auzi-maisuren, dendari nahiz atezainen aurrean, eta geure Herri barruan, eta beti inongo babesik gabe gorri eta biloiz jendeki armatu milaren erdian.

Ez dizut nahi isildu neure eskerronik Bizkaitarraren azalkuntza eta salakuntza hain itxura onekoagatik, burruka hain ospetsuan galtzaile egiten baldin baduzu ere azkenean. Zure KIXOTEA irakurri-ahala, barrez eta negarrez asaskatu izan nituen begi, biri eta gibelak baino nire ikusbideak berak gehiago zor dizula ere aitortu behar dizut. Izugarria zara. Onbeharraren onbeharrez gizajotasunaren mugak urratzera iritsi zen haren jokabidea maiztagarri egitea lortu baituzu. Bere itxura hain barregarri ta hain negargarri ta guztiz biziki hunkigarri da agertzen diguzun Kixoteren zorotasun zoragarria. Zein ikustekoa eta ikastekoa den zorixarraren ondoren gordetzen duen duintasun eta osotasuna, eginbizun berritarako puntuan sortzen zaion animu argia, ontzat jo-

tzen duen ororen aldeko haren betiko pozaren indarra, halako ta hainbesteko ontasunik ulertzeko gauza ez direnen aurrean lurretik jeikitzen laguntzen dion barru hain betea, isekak onez eramateko gauzatzen duen bihotz hain handia, hainbeste ahalegin alferrikoren ondoren oraindik jardun berritarako poz berriz betetzen duen zintzotasun eta jatortasun betikoa!

Hegoaizea kolore hori-gorri beroz gure mendiarte urrikoak zehar bezala sartu zitzaidan zuk sortu liburu horren eragin bizkor bizigarria, nire begi ta ikusbide argituz sartu zitzaidan, aurrean eta neure barruan, inguruan eta geure lurralde guztian nabaritzen nuen udazken ala negu-giro maskal karkaildua barna eta poztu egin ninduen eta bultza eginkizun eta arazo handi eta ohoretsu eta ezbairik gabe zuzenbidezko ageri zitzaidan hamaika handiki, ahaldun eta zaldun gurek bertan behera utzitako gure jende apalaren hain gogokoa den herri ekintzari kemenez heltzera. Herri apalaren aldeko ekintzan gure politiko handi eta ekonomista botere-tsuek eman izan diguten hutsaren erdian gure herriko gizajende lauak eguneroko ogia irabaztez gainera herritasunari bere izatean eusten egin duen lan izugarri ederraren sutargia ikustera ekarri zuen Jose ta Anastasia Orbelaungoen seme hau eta gure oinezko jende lauaren titan-ekintzan aurrera jotzera zoratu eta eskolatik hasita herriko bizimodu guztia zehar euskaldunokiko betiko jokatibidearen arrazoirik ezaren eta arrazoirik ez horren arrazoiztatze-ko arrazoia den inperialismo eta kolonialismo nabarmen eta erraldoiaren kutizia irenslari aurka egitera jarri, hegoaizearen eraso zoro eta arlotez baino ez bada ere.⁹

⁹ *Uda batez Madrilen*, 127-133. orr.

Deboden Tenpluaz idatzi dudana atxakiatzat hartuz, zenbait gauzatxo esan dizkit Egañak eta beste zenbaitetaz ohartu arazi nau. Tenplua aurkitzen den hartan, Cuartel de la Montaña deitua omen zegoen lehen, harik eta Arias Navarro alkate zuela Madrileko Udaletxeak parke publikotan bihurtu zuen arte. Han gertatu omen zen Altxamenduaren aurkako herriaren lehenengo burruka. Han izan omen ziren gerrako lehen heriotzak. Gerratean jausitakoen omenez eraikitako monumentu bat ere bada han gusto on asko gabea. Hontaz lehenengo begiradaz ohartu nintzen.

Historia ezagutzeke joan bainintzen egungo Parque de la Montaña zoragarri hartara, zabalune bikainki egokitu harek eta batez ere Deboden Tenpluak deitu ninduen ni.

Tenplu harek badu misterio ukigarririk. Rito guztia egin nuen: Sortaldera eta atari aurrean duen kolumnatardez inguratu nintzaion, kolumnadi hura ez baitzuen alferriko izanen atari aitzinean. Ibilgu hartan zehar abiatu nintzenerako, bildudura halako zerbait goxoki inguragarrik hartu ninduen eta jabetu zitzaidan giro hartaz egin nuen haren barrutiko ibilaldia.

Haren barrunbean dena da bake, dena isiltasun, dena bakardade. Argi eta itzalezko barrunbe haiek badiotsate zerbait hotzi-karagarritzko han barruratzen denari.

Egañari entzun nion arte ez nuen nik ohartu hiri aberatse-rantz begira dagoenik; ez eta hiriko Katedral, Seminario, Palazio Real, San Francisco el Grande eta gainetiko monumentu handien lerrotan eta Madrilen kukulutan dagoenik, atzekaldean eta han behean azpiko orri bat bezala duelarik Carabanchel.

Handikeriaren alderdian eta odolaren gainean dagoelarik ere, ezjakinean eta bat-batera egin zidan zirrarez ez naiz lotsatzen eta ez dut aldatuko orain behin idatzi nuenik. Haren barruko sailketa errektangularretako argi-itzalen ukitua ezin ahaztuzko atsegingarri baitut, eta urmael handitako uretan eta

palmondo artean egin zidan lehenengo inpresioa erabat pozez oroitzekoa.

Espainiako Plazatik txakada baten duzu Parque de la Montaña delako hori.¹⁰

¹⁰ *Uda batez Madrilen*, 135-136. orr.

Kontzezioko Auzo ertzez egin dugun ibilaldiak zapaldirik utzi nau. Zerbait idatzi dut Egañak dibujoak egiten zituen bitartean: "Igande arratsaldea, neska-mutiko zarpatsuak lurreratutako txabola hondarren artean. Gruak eta palak eta eskabadorak dauden tokitaraino ez dira iristen, zaintzaileren bat bide baitago han. Txabola orotan telebista antenak, txabolako bat, bi ta hiru ere", eta holako.

Bere dibujotan Egañak oso ondo ematen du txaboladiko giroa. Ni ere saiatu naiz, baina nik badut moztasunik hemen barrundatzen dudan sakontasuna ezin harrapatu duenik.

Ni tristetu egiten naiz zapla edo tupustean haserretu edo ustekabean errudun sentitu. Haize errota zoro bat naiz ni.

Egañak ez du hitzik egiten. Pultsu seguruz marratzen ditu lerroak, pilatzen ditu itzalak eta argitan jartzen juxtu berak nabarmendu nahi duena.

Nik ere badihardut hitzak idazten, baina segurantzia asko gabe, batasun eta elkarren arteko harreman handirik gabe. Zer dut barreiadura hontara nakarrena?

Karlos Elvirari gustatu omen zitzaion *Begirik ezin herts* ta hasten dena. Baina agian, hura txaboladiko arazotan sartua dabil-lako da, egunero ikusten duelako trabako beste edozein hondakin bat gehiago bezala eskabadorean aurrean gizona, nora alde ez dakielarik.

GIZONA, beste edozein gauza bailitza bezala, jarri nahi nuke paperetan. Makina handi eta ulergaitz baten tornilu, uhal, ardatz, torniluaren kapela, krisketaren aila, uhalaren kizki, ardatzaren osagai datekeen edozein pieza eta edozein piezaren zeinahi atal bezala.

Erlojua konpontzen izan naiz eta tripak ikusi dizkiot tripatatik kanpo. Mila txirrin ziren, mila ardatz, bata bestea baino tiki-kiagoa. Piezatxo bat ordaindu behar izan dut, ia ageri ez zena.

Gizona gizaditik desmontatuta jarri nahi dut paperetan. Bere burua osatzen duen zati bakoitzean jarri nahi dut askaturik gizo-

na: burua, bihotza, hesteak, adimena, gibela, urdaila, trebetasuna, formazioa eta abar. Gizona zatitan jarri nahi dut paperetan, piezatan sal daitekeen edozein mueble bezala.

Hainbeste zatiz osatutako gauza bat bailitza jarri nahi nuke paperetan gizona. Bere edozein zati dela-ta sal nahiz eros daitekeen beste edozein gauza bailitza azaldu nahi dut jendearen aurrean gizona. Besorik behar duenak, baduela besorik salgai esan nahi dut. Zangorik behar duenak, baduela zangorik. Saltzeko orduan gizona erregalatu egiten dela esan nahi dut, erosteko orduan besoak erosten direla bakarrik, zangoak bakarrik, formazioa bakarrik. Beti erregalatzeko da gizona, harek lukeen zeinahi baliakizunez batera.¹¹

¹¹ *Uda batez Madrilén*, 142-143. orr.

Karlos Elvira eta Egaña, Tetuan auzo aldamenetako txabola, txosna, horma zahar eta abarri erretratuak ateratzen ari diren bitartean, ni neure koadernura begira ari naiz, koadernura eta aurrean dudan ikuskizunera. Ez dut ezer ulertzen, ala, behar-bada, ez dut ezer ulertu nahi, ikaragarria litzatekeen zerbait aditzera hel ote nintekeen beldurrez.

Lehendik ere txaboladiak ikusia naiz. Bilbon, Sallbetik gora mendi aldean ziren auzotxo zikin haiek zehar erabili ninduen behin gure osaba Eulojiok. Higuingarria gertatu zitzaidan giro hura. Usai atzeragarrien eta lohi okagarrien oroitzapenez besterik ezer ez nuen ibilaldi gogaikarri hartatik atera. Ez nuen nahi izan egoera hari buruzko azterketarik egin. Niri ez zegokidan arazo bat zirudidan, eta ikuskizun itsusi haiek ikustera zergatik eraman ote ninduen osabak, galdetzen nion neure buruari.

Karlos Elvira eta Egaña biziki arduratzen dira txabola eta txaboladi gorabeheraz. Nik ez diet oraindik ia ezer harrapatu ere egiten ganoraz, halako gaiz dihardutenean. Ikusi bai, ikusi egiten dut gizonak eta haurrak-eta gaizki bizi direla txaboletan eta egoera hau sendatu beharra guztion eginkizun dela ere, baina nolarik ez dut ikusten. Klase-arteko burruka beharrez, jende hauetan burruka-kontzientzia sortu beharrez-eta dihardute nire lagunek. Nik atzematen dudana jasotzen dut eta jasorik dudana irakurtzen:

"Zuriz pintatutako txabola bat edo beste, adreilu margulezko txabolatxoan artean. Lurrezko hormarik ere badu zenbait aterpek. Teilazko nahiz bidoi-txapazko teilatuz gora hainbat antenak gauza nabarmena dirudit. Taketak dituzte jarririk txabola arteko bitarte ta plazatxotan eta alanbretan zapi maraztuak zintzilikaturik. Adreiluzko pilare baten duten iturri hori uretan baino haserretan ugariagoa izango dutela iruditzen zait. Gizon ilunen iturria da, andrazko zoliena, neska-mutiko zarpatsuen. Zakurrek txabola arteko areka eta potingo uharretan edaten dute".

"Etxe berrien arteko txaboletako gizonak ez omen dira haserretzen euren artean baino. Ez omen dute kutiziatzen txabola hobe bat baino. Ez omen dute eztabaidatzen txabola arteko zen-

timetroen gorabehera baino. Ez omen dute begiratzten txaboladiz kanpo. Ez omen dira jartzen txaboladi arazoa sustraitatik konpon dezakeen hasera batetarako azterketa jardunik egiten ere", aditu diot Egañari-ta.

"Kako azpitan umeak elkarri segika. Anabasa pila baten ostetik katu beltz bat agertu da. Katu beltzak patxada handi gabe edan du ura txabola arteko erretenaren bazter baten. Hemengo haurren aurpegiek zahar aire bat halakoa dute dagoeneko".

"Etxe berrien artean noiz arte? Etxe berrien artean hatzitu dute txaboladia. Handik-hemendik sartu dituzten grua, pala ta eskabadora lerdan eta indartsuek kolore horia eta zarata lakarra dute".

Ohartxook, pittin bat txepel iruditzen zaizkie nire lagunoi. Zalaparta gehiagokoak espero zituzten nonbait. Egia esan, neuri ere ez didate barrurik betetzen. Begiz haruntzago eta ikusten dudanez gairi, garbi dago hemen untze oso mingarri bat baino gehiagoren gakoa. Baina ezinbesteko beldur halako bat diot sakonago jotzeari. Debeku bat halakoa sumatzen dut, ezpatadun aingeru garratz baten irudikoa, barrurago ninderamakeen bide ataritan.

Agian hezkuntzaren ondorio gogor bat dut dena. Euskaldun maizter baten seme izanki, mundu-martxaren halakotasuna ontzat hartzen ikasi behar izan genuen ume-umetatik. Nagusi, aberats, agintari, lege, ohitura, usuario eta gertatzez gertatu ohi den guztiari men egiten irakatsi ziguten. Maizterrak maizter behar du ta burutara letozkioken asmo eta eritzi-punttak berorika agertu behar dizkio ugazabari. Begirune hau berau, ezagutu ditugun egitura zorrotzek ere finkatu izan dute gure barrutan. Hizkuntzari eta gainetiko gure eskubide sentitzen ditugunei, gure edotariko ogibide neketsuri, euskaldungoari bere dituen osotan gure bizitzako egun guztiak zehar, egite etengabea egiten eta geldi eta bakean eta barkamenean eta maitasunean ikusi behar, eraman behar eta diren behar ezinbesteko guztien ezinbestek ekarri gaituzte, itxura baten, halabeharrezko jarrera geldo eta enkelo hontara gu.

Gure sentimendu zoldituen gainean bigarren kontzientzia halako baten tortika lakar eta lodi bat egin digu guzti horrek eta beste ezbehar asko gehiagok, eta hortara ohitu gara eta gehiengan ere tortika gaina haztatu dugu sakoneko azkurea gozatzeko. Hau guzti hau hala delarik, nondik atera behar dut nik orain poliki-poliki zikiratuz joan naizen neure senti bizien eztenik, zezen gainkariaren orrorik inongo eta inoren ezbeharren aurrean?

Nire lagunok Bilbo aldeko erdaldun izanki, eskaldun jende arrunton lorrez kanpoko arlotan jaio eta biziak izanki, zitaltxo ditut nire gandar eta erpe gehiago gabeko ohartxooi buruzko epaietan-eta. Nire hoztasun eta konformidade aireduratatik at ikusi nahi nindukete-edo. Nolanahi ere euren hezkuntzatiko ikuspuntutatik epaitzen naute, gure hitz apurren neurririk, ez asko ta ez gutxi, sumatu gabe, aipatu dudana tortikaz goitik ari garenean, tortikaz behetik dugunari azkure ta duoa egin ohi diogula ohartu gabe.

Baina ez dut neure bururik zuritzen jardun gura eta ez dut behar ere zuritu, gizasentipen jator askoren presondegi besterik ez dudalako. Egin behar dudana askatze lana dut nik. Kontzientzia iluntzeraino, haren azala idortzeraino, haren begiak okertzeraino nolabait onartuz joan naizen hainbeste bidegabekeria amore emandakok gaineratu didan oskol eta moskol kaltegarri hautsi behar dut, eta tristerik bizi dudana sentikortasun jator zurbildu-zurindua eguzkitara atera, biloizik eta garbi, naturako edozein izaki aske bezala egiari hurbildik hel diezaion, egiak hurbildik uki dezan.

Hala ere, errealtate penagarrion aurrean itxuraz bezain axial eta arin ikus ez nazaten, zera aitortu nahi diet neure lagunoi: euren bide berez ez agian, baina bai geure giroan bizitu izan dugun oinaze bidez, balitekeela ni eurak baino urrutiago ez aurkitzea txaboladiko gizajende honen pairakuntza eta egoera negargarria ulertzetik. "Etxe berrien arteko gizonak ez dira haserretzen euren artean baino" hori, entzun bezala jaso baldin badiet, ez da izan gehiago gabeko kopiatze huts bat. Ezagutu izan dudana bizi-modu-giro baten kalko-kalkoa da hori niregan, eta kalko halakoa

delarik, badu niregan oroitzapenezko oihartzun bizirik: beste inorekin haserretu ezin direlakotasunaren durundi ezagun bere moduko tristagarri bat. Niregan azpi-soinu honen erantzunak dagio ostekaldea: beste inorekin al ote daitezke haserretu, eurak baino gorago eta babes gehiagoz mundu guztia dagoenez? Eta gure ahalegin handiko jende arrunt eta onaren elkarren arteko haserreak oroitarazten dizkit, eta ugazaba eta handikiekiko otxantasun lotsagarria. "Ez omen dute kutiziatzen txabola hobe bat baino", kopiatu dut. Eta horra barruz barru ari zaidan ihar-despena: inguratzen dituen dena inorena izatearen harrizko errealitate esparru ezin garaituzkoaren barrunbetan zer besterik dezaket kutiziatu nolabait iritsi dezaketen apurtxo hura baino? "Ez omen dute eztabaidatzen txabola arteko zentimetroen gorabehera baino". Auzo arteko mugarri gorabeheren eta airetura hortako beste zenbait ipuin-eta holako gogoratzen zaizkit. "Ez omen dute begiratzen txaboladiz kanpo". Izan ere nora behar dute begiratu, nora begira dezakete, zertarako hegal guztitatik hertsirik ikusten badute irtenbide ororen itxaropena? "Ez omen dira jartzen txaboladi arazoa sustraitik konpon dezakeen oinarrizko azterketa jardunik egiten". Baina zein azterketarik egin behar dute? Zer dakit eurek zein azterketa behar duten egin? Zein haziera dute azterketarik egin behar dutenik otu ere egin dakien? Eta abar. Eta hola dena zait kateatzen inola ere ahaztu ezin dudana egoera eta jarduera ezagun eta antzerako samar hartan. Ikusten al duzue lagunok, kopiatu dizuedan horrek zuengan ezik niregan ere bazuela mami zauritu ondo neurerik?

Eta ez dago zergatik aitortu, errealitate latz honek ulertzez eta sentitzez bakarrik ez dela lasai geratzen bat, eta errealitate hau eta diren beste errealitate mingarri askoren etorburu eta gertabide oro urbanizatu nahi lituzkeela batek, gizajende orok erosotasuna aurki ahal dezan munduko egunak zehar. Ez da ez errealitate hori ongi ikusten eta gaitzesten ez dugulako, ez eta konformidatea zazpi ta zortzi dinamita tiroz jadanik lehertu eta desegin nahi ez dugulako ere.

Hortik aurrera dago ataka hertsia, hortik aurrera atezakur ikaragarria, eta ukitzera heldu nahi ez dudan puntuaren burdin punta arriskutsua: neure erantzukizun pertsonalaz gordinki trikitx egiteko beldurra. Halako astindua eman beharko bainioke bizitza guztia zehar janzten etorri naizen zenbait dotrina jadanik nolabait orain babesgarriri. Badut aldean gaitz zaharrik, hasera batetan sendaerrazago zitekeenik, gaur sendatzen jarri baino dagoenetan jasan nahiago dudanik. Behartsuen errealitatea ikustez eta sentitzez aurrerako pausoak nau izutzen, eginkizun eta eginbehar gogorregien burruka-zelaitan aurkitu ote nintekeen beldurrez. Ez ote ninduke eramango, nolabaiteko neure erosotasunaren kaltetan, bizitza inoren, inortzuren, alde jokotan jartzearaino? Ez ote lidake eskatuko gauzak konformidadez eta zelabaiteko patxadaz eramatea baino zerbaitek latzagarik? Tortika zikinaren azpitan sentimendu zoldituak jasatea baino gogorragoa ez ote nuke haragi gorri odolodutan aritu beharra? Neure erru bakar eta osoz izan ez arren, bat bidegabekeriatan bizi dela, ez ote da ikusi nahi ez izatekoa ?

Txaboladitan, gizamusu izugarri bizi eta esanguraz bete bat marraztu du Egañak. Zenbat gauza dioen gizamusu horrek! Zein sentimendu sakona duen indarrez kanporatzen aurpegiko zinu bakoitzez. Marrazki hori neuretzat eskatu diot. Ez dakit Euskal Herriko zein langile ala txaboladitan ikusi dudan zein gizon saiatu gogorarazten didan. Neke luze baten airea dario, ezingehiagoren iluna, nahi betiko baten antsia, egon beharraren asperkuntza, su gorde baten beroa eta geldo lodi baten errautsa dena batera eta nabarmen eta gaziduraz eta eramanez eta asaldaduraz eta iraupe nez. Zein gogo ematen didan berarekin hitz egiteko eta esateko:

Adiskide!

Baina ez dut horretarako eskubiderik.

O, ahal banizu adiskide deitu, diotsat,
ohore aski nuke, gehiegi.

Ohore hau, ordea, ez merezi.

Baina gizon bai, inor bada
zu deitu zaitzaket gizon.
Ongi zor dizudan deitura honetaz
natzaizu zuzenduko:
Gizon!
Zure oihartzun baino
zure ahots nahi nuke.
Emaidazu zure zerbait
zutaz ari ahal nadin.
Badakit eztarri guztia
beharko dudala berriztatu
bularretik ezpainera
dena,
bizitza horren egia
tonu faltso gabetan
eman ahal dezadan.
Aurreratu idazu zure zerbait
zutaz ari ahal nadin.
Ez dit ardura zer,
agian nahikoa dut zure isiltasuna bera
nire egoera ta burua galdera taratuluz
zultatzen has ahal nadin
niregandik zuganaino. Izan ere,
Nolatan desberdindu gara hainbeste, nola,
ez bainaiz inor zure izenetan mintza ahal nadin?
Nola naiz zuregandik hain urrutira aldendu,
nolatan zaitut ahaztu, nola bertan behera utzi,
kontzientziak berak gaur gogor debekatzen baitit
zure izenetan ahorik zabal dezadan?
Onartzen dut debekua eta isildu egingo naiz neu ere;
baina zuk –Euskal Herriko zeinahi behargin
ala Madrileko zeinahi txabola-gizon
ala beste nonbaiteko norbait saiatu zarela–,
zuk utz iezadazu zutaz oroi ahal nadin, zugana hurbil nadin,

zuri so egon ahal nadin, zure ahotsa entzuten, zure beteduraz
betez joan ahal nadin, zure izioduraz izio ahal nadin,
eta erre nadin zure su berberatan, noizpait eskubidez
adiskide deitu ahal zaitzadan, eta zuk noizpait benetako
lagun aitor ahal nazazun.¹²

¹² *Uda batez Madrilen*, 169-177. orr.

DENBORA GALDU ALDE*

BEHIN BATEAN bazen gizon bat, bat noiz den gizon ere ez zekiena. Urteak bazituen, gizaldi-erdi bat bai; beno, menderdi bazuela esan nahi nuen. Behin batean, beraz, bazen gizon bat. Hainbeste urte bazituen arren, ez zirudion gizon zenik. Urteek bakarrik gizatasunik ematen ez zuten zera zuen: urteek ez dutela bat gizon egiten, alegia. Halako gizon bat zen beraz, behin batean. Harritu egiten zena zen, norbaitek gizon kalifikatiboa eransten zionean, ez baitzirudion berrogeitamalau urtez gora gizon zenik oraindik. Gizon izan ahal izateko, urteez gainera, beste zerbaite ganora gehiagokoa behar zuela gizakiak, uste baitzuen. Halako gizon bat zen, beraz, behin batean. Halako gizon hark, itxura batean behintzat, gizakiaren gizon izatera heltzeko prozesuari pausoz pauso erantzun zion. Umearoa eta gaztaroa iraganik sentitzen zituen, baina helduarora arribatu ez zen ideia edo irudipen halakoa bizi zuen. Gaztaroaren eta helduaroaren bitartean *geza-aroa* edo deitu aldi bat ezarri behar zuela zirudion. Umearoa bera non edo noiz bukatzen zen ere ez zuen garbi ikusten. Gaztaroa noiz amaitzen zen, oster, garbi ikusten zuen, gaztaroaren muga urteek baitute erabakitzen, urteek eta gorputzaren beraren taiuak. Baina helduaroa ez zuen ikusten inondik ere urteen fruitu

* *Denbora galdu alde*, Erein, Donostia, 1985.

bezala. Eta helduarora iritsi gabekorik ezin zuen inondik ere gizontzat jo. Eta zerak txunditzen zuen: gaztaroaren eta gizonaroaren arteko epeari zegokion hitzik hizkuntza arruntean ez aurkitzeak. Eta horixe da behin bateko gizon haren ipuin guztia. Ez da besterik.¹³

¹³ *Denbora galdu alde*, 7. or.

DENBORA galtzen ikasi behar dudala esan dit psikiatrak. Bego eta bedi. Zenbait ardura eta arazori hor konpon esaten ikasi behar dudala ere esan dit, ondo ulertu baldin badiot. Ez dago batere gaizki esana, alferriko samarra izateaz aparte. Nahikoa barregarri erabili nau psikiatrak, erabili edo utzi, askoz ederrago ez dena. Bere ofizioak eskubidetzen du horretara, seguru, edo haren eskutan jartzen denaren gizajotasunak demaio horretarako bidea. Badaiteke. Ezinbestez pailazo izatearen errua edo failoa ere ordainkizun dugu nonbait. Tira ba, eta horra, azaldu dizkiodanen ondoren egin didan karikatura. Zeure nagusien kuttuna zara zu, hala izan behar duzu nahitaez. Begi-belarriz bizi zara erregelamenduen xehapen bakoitzera, zure nagusiek konfiantza guztia dute zuregan, denean zara zintzo eta aurretiaz dakite agintzen dizuten guztia ondo baino hobeto egiten saiatuko zarena. Edozein fabrikaburuk ere bere konfiantza guztiko zintuzke, ardurara handiko edozer arazoren kargua emango lizuke, eta zu han arituko zinateke eginkizunen martxa ondo eta hobeto eraman beharrez lehertzen. Mila torloju baldin badira egin beharrekoak, ehun gehiago aterako zenituzke, badaezpada ere, bai bailiteke mila horietan oker edo akastunen bat.

Eskolako programak kurtsoa bukatu baino askoz lehenago sarreraziko dizkiezu mutikoei. Letra txikian datorrena bera ere. Eta horrela jardungo duzu estu eta estugarri. Baina nagusiek ondo begiratuko zaituzte eta horien begi oneko izango zara beti eta beti. Horrelatsuko burlak egin zizkidan. Jaunak barka diezaiola.

Ederki, psikiatra jauna. Arrazoi-faltarik ez duzu, baina horrenbestean jendea lotsarazteko arrazoibiderik ere ez.

Gauzak lasaiago hartu behar ditudala zuk esatea, ez dut nahikoa, ordea. Nire estu-izate hori da zuk sendatu behar duzuna, eta horretan duzu giltza eta gakoa. Jaio egiten ote gara estu, ala hezkuntzak bihurtzen ote gaitu horrelako? Galdera hau orain otu zait, eta biak daitezkeela dirudit. Baina hezkuntzak baduke bere eragina eta agian bera da gure izate-modua erabakitzen duena. Egia esan gramatika eta beste irakatsi badut ere, ni neu ez nauzu

izan inongo patxada egokiren maisu. Zabarkeriaren etsai izan nauzu eta fantasma hori ingurutatik uxatzen zakurra izan naiz. Bego hori hor eta natorren neure haurtzaroan inguratu ninduen giroari begiratu bat ematera. Bizibeharrak ondo zaildutako jendearen artean iratzarri nintzen. Inondik inora eta inoiz geldi ez zegoen jendearen erdian.

Lanak, eginbeharrak, arazoak betiko menpetasunean zera-biltzan gizon eta emakumeen tartean. Dena zuten haiek morrontza. Obligazioa zuten lanaren jaun, erlijioaren jaun, ohitura eta usadioen jaun. Eta txikitatik ikasi behar izan genuen, ahal genuen neurrian, berak zanpatzen zituen zeregin etengabekoetan laguntzaile izaten. Jolasa, olgeta, denbora iturrira bidean, dotrinara edo eskolara bidean galtzea erru bezala ikusten irakatsi ziguten. Behiak zaindu behar genituen larrean, itaurrean egin behar genuen, eskolatik bukatzen zenerako zuzen eta bizkor etxeratu behar genuen, goiz jaiki ohetik, mezatara garaiz eta eskolara berandu ailega ez gintezen. Iluntzerako egurrak pilatuta eduki behar genituen sutondoan, labeko sutarako inarra eta ote garraiatu behar genuen, eta nik, nagusia nintzenez, sei urtetarako neure anai-arreben ardura eduki behar nuen. Gurasoak soroetara, basora edo aldentzen zirenean, txikiagoen gorabehera guztiaren ardura ematen zidaten, ez daitezela sarde edo segaz zauri, ez daitezela etxaburuko putzura hurbil, ipurdiak garbitu behar nizkien eta soinekoak aldatu ere bai, soineko lohiak beratzen jarri behar nituen, oiloei halako ordutan artoa edo garia bota, ortura sar ez zitezen zaindu, iluntzean taloa eta esnea eman txikiei, eta ohera eramanez, taloak berriz neuk egin behar izaten nituen, gurasoak elizara edo beste nonbaitera joaten zirenean etxe guztia nire ardura-pean zen gelditzen, korta bete ganadu handi ere bai. Txerriarentzako osala prestatu, askara eramanez, haren azpiak atera, sastegira eramanez, eta abar eta abar, nire ardura-pean gelditzen ziren sari baino sarriagotan, eta arazoak zintzo behar nituen egin.

Zintzotasuna izan genuen gure helburu eta bizimodu, ez bakarrik baserrian, ikastetxera etorri nintzenean ere bai. Eta ikas-

teak gogor egiten zitzaizkidanez, zail esan nahi dut, are eta zintzoago behar nuen jardun. Zintzotasuna izan dut bizitzako gorenkien aipatzen entzun izan dudana bertutea. Eta zintzotasun horren desglosea lana zen, denbora alferrik ez galtzea zen, zerbait probetxuzkotan etengabe aritzea zen.

Eta non dut ikusten, jaio ere estu jaio ez banintz, gauzak lasaiago har nintzakeela, nere lagunak gibel lasaiagokoak baitituz nere aldean behintzat. Dena den, estura izan dut bizitzako pauta. Eta hemen nago orain kitarra hariak etendako baten gisa, psikiatra jaunaren aurrean, denbora galtzen ikasi behar dudala, eskandalu pixka batez entzuten. Arrazoiaren itxurarik badu kontseilu horrek. Izan ere, zertarako behar dut ba bizi betiko tira ezer asko lortzen ez duen horretan? Nere ardurak gorabehera, zer dut ba lortzen egunaren eta urteen buruan? Bizitzako dohain nagusi den bizitza bera, bizitzaren berezko poza, bizitzaren ditxa dastatzeko astirik gabe bizitzeak, ba al du zorioneko zintzo izatearen eta izan beharraren gustozko konpentsaziorik? Inoiz irratiz edo, halako mutikori zorion emanez "txintxo" izateko kontseilua aditzen dudanean, tristura halako bat dut nabari ohi. Txintxo izate hori agindu, ohitura, usadio, inoren komodidade edo erosotasunkeriaren murrizketan bizitzeko inbitazio, dei eta kontseilu bezala aditu ohi dut. Nik ez dakit zer behar litzaienkeen haurrei opa, baina ez genituzke alferrik kezkatuko dituen ezertara erakarri behar, bizipozaren poza saltari ospa dezaten lasaitasunera baino.

Nik badakit bizitza aurrera atera beharraren maisu gogorren eskolan lana estu hartzen ikasi beharra izan dutena gure aurrekoek. Eta konprenitzen dut bide horretatik irten ahal izan direla erosotasun pixka bat lortzera. Kako artean jarriko nukeen beste hitz bat "erosotasuna" da, komodidadea eta konforta bere sabeleko seme lotu dituen hitz hori.

Zintzotasuna bizitzaren katea eta lasaitasun egoki baten gerriko estu bihurtu dugun bezala, "erosotasuna" ez al dugu gaurko gure sosegua odol freskoa xurgatzen duen lilurazko erakargailu maltzurra? Denbora galtzen ikasi behar dudana onu horren

pean, bizitzaren goxapen sinpleari leku gehiago eman behar diodan zentzu-antza hartzen diodanez, kontsumismoaren kreatura den konforta bilatzen nekatzeari ere tirania anker baten susmoa diot hartzen. Ezin dut ulertu eta egosi oraindik denbora galdu behar dudan horren ideia. Are gutxiago praktikara eraman, baina arazokiko estura larregiaren kontrako zentzua baldin badu, zintzotasun estuegia ez ezik bizitza lasai bizitzeko alferriko diren kontsumokeriaren mila eskainkizun lortzen saiatzeari ere utzi egin behar ote diogun nago. Egokitasun itxura bat eman diezadakeen garraio-gutiziari ere utzi behar ote diodan. Eta propagandak eskaintzen dizkigun kimerei eta kompetentzi afana erakutsi diguten dotrinei eta nolabait alferrik estutu gaitzaketen helburu guztiei bizkarra emanez, bizitza bizitze soilari begiratu behar diodala eta irakatsi ere bizitza jardunean-jardunean, baina inongo eta eze-lango zapaltzailek menperatuko ez duen modutan ahalik eta lasaien bizitzen irakatsi behar dudala.

Eta lasaitasuna lortzeko erremedio gisa pastila-mordo bat agindu zidala psikiatrak esatea ahaztu zait, denbora galtzen ohi-tu ahal nadintzat edo.¹⁴

¹⁴ *Denbora galdu alde*, 8-12. orr.

"**P**ATXADA gehiago banu,
gauzei buruzko beste ikuskera bat nuke seguru",
esan zuen.

Baina ezin zuen patxada-saioa egiteko astirik hartu. Ez dut inoiz halakoaren jokabidea justifikatu nahi izan.

Azala zuen hark minbera burutik oinetara eta inguru-giroak zuen erremintzen, jadanik egon behar zuen oraindik egin gabe zegoenak, gertakariak pozoitu haizeak eta zuten kanpotik barrura urduritzen.

Hala ere gauza zen patxada-giroa nolakoa izan zitekeen imajinatzeko, gauza zen patxada-giroa beretzat opa izateko ere eta gauza zen patxada-giroak eman ziezaiokeen errealitatearen beste era bateko eitea nabaritzeko.

Sentiberatasun gehiegizko azalak inguratzen zuen. Gauzak ongi egitearen nahitazeko eskabideak bizi zuen, bere gustoaren hariko nahi zuen errealitatea, gizakien portamodua, gertakarien jazoera.

Ez zen itsua eta ikusten zituen hurkoen begiak eta bazekien begi-pare bakoitzak bere argitara ikusten eta erizten zuela, hurko bakoitzak bere begiz baloratzen zuela eta bere gibelaren tamainari zegokionez, berak bere ikuspuntu hain pertsonaletatik zekusana. Errealitatearen, giza portamenduen, gertakarien jazoeraren estimu eta balorapena oso erlatiboak gerta daitezkeena ere bazekien segun eta zein aldetatik begiratzen zaien.

Baina azala zuen hark minbera, erreflexio guztien indarrak ezin gogortu zuena eta beti zebilen kontentagaitz eta ernegu.

Justu zen eta injustu. Justu zen bere eritzi pertsonalei zerrai-kien heinean, injustu besteen ikuspuntuak aintzatago hartzen ez zituen neurrian, denborari bere epea ukatzen zion neurrian, goizetik gauerako gauzen egokitasuna lorturik gura zuenez gero.

Beharbada horregatik zen bakardade-zale, isiltasun-zale, uxati eta hitz-urri.

Eta ertzetik ari zen. Handik nahi zuen errealitatea aldatu, handik giza portamendua, handik gertakarien beste erabateko

jazoera. Eta bazirudion handik eta hala egin zezakeela zerbait, sufrierazten zion mundua gozarazteko.

Horregatik edo idatzi zuen halako batean honako hau:

"Ez nauzu lagunarteko,
ez nauzu berritsu ere.
Bakardadeak, isiltasunak
egin naroe libere".¹⁵

¹⁵ *Denbora galdu alde*, 18-19. orr.

HEMENTXE bakar-solaska.

Zergatik? Ba, neure buruarekin hitz egitea ere atsegin zaidalako.

"Ere" psikologoengatik jarri dut. Haiek izango dute beste arrazoi sakonagorik. Bakarrik nagoenetan eta horretarako astiunerik dudanetan gustora aritzen naiz bakar-solaska. Otuten zaizkidan gauzak idazten ditut orduan. Buruan eta barruan ditudanez aritzen naiz orduan eta entzule dudan neure buru honek nahikoa gustora entzuten dizkit desaizkiodanak eta bitartean asaskatu egiten naiz ni. Ez da gutxi.

Batzuetan, gehienetan ez esatearren, kezkatu ere egiten nau astiuneak honela pasatzeak. Denbora galtzea dela deritzat, zerbait probetxuzkoagotan behar nukeela aritu eta abar. Kezka hori gero izan ohi dut, jardun eta gero, baina bitartean lasai aritu ohi naiz. Nire buru honek badu gogorik bere buruarekin hitz egiteko. Adiadi egon ohi zaio buruak dioenari, eta elkarrekin hitz eginez, elkarren ezagupen hobera etorri ohi direla iruditzen zait. Nori besteri hitz egin argiago, nori besteri agertu hobeto, egiazkiago eta gordinago neure pentsamendu, asmo eta gurari?

Nik badakit nork bere burua engainatzeko ere zein gauza garen. Eta nork daki behin baino gehiagotan engainatu ere egin ez dugun? Bada gure baitan geure buruaren aurrean lotsarazten gaituen ahalkegarririk, eta guk geuk ohartu gabe, ezjakinarena egin diogu edo geure buruaren begiei estali egin diegu edo kare faltsu merkeegi batez zuritzen ere jardun izan gara, beharbada. Ohartu gabe esan dut, ohartuz ere egin baikenezake beste horrenbeste. Baina hori ez dut oraingo arazo. Horrelako hori horrelako zerbaitetan ari naizenean deskribatzeko fenomenoak nuke. Orain neure buruarekin bakarrean jarduteko izaten dudan gogoaz ari naiz, neure buruari entzuteko ohi dudan gustoaz –psikologoez oroitzen naiz berriro, udako euli beltz handi eta burrunbari bainitu, eskuoihalaz uxatu ohi ditut gela-ingurutik–, eta neure buruarekin hitzaspertutan aritzeak eman ohi didan asaskapenez. Barruak eragin ahala mintzatu ohi natzaio neure buru honi, boligrafo diskre-

tua lagun. Baina hona hemen paperaz ere non oroitzen naizen. Papera bai banukeela salatari. Baina paperak ere isilik beharko du, nahiz eta honetaz oso lasai geratzen ez naizen. Bakarkako asaskaldiak ditudala jakin behar du paperak ere eta isilpekoak isilpean gordetzen geu lauron arteko sekretu denez, neure, neure buruaren, boligrafoaren eta bere arteko ekitaldien gordelari.¹⁶

¹⁶ *Denbora galdu alde*, 27-28. orr.

LOTSATU ere egiten naiz aitortzen, baina niretzat urte gogorak izan ziren apaiz-ordena hartu nuenez geroztikoak. Apaizgoa neure gustoz eta neure gogoz hartu nuen. Baina Ikastetxeko irakasle izendatu nindutenez gero, zer esango dizut? Eskola-arazoez jaten zidaten eguna. Eskolaldi asko, dena nuen prestatu beharreko. Goizean hasi eta iluntzean bukatzen genuen ikastetxekoa. Ikastetxean irakasle ginen, eta irakaskuntzan zihozkigun aste-egunak. Jai-egunetan, berriz, apaiz ginen, eta ostegunetan ere bai, eguneroko lehen ikastaldiaz gero. Irakaskuntza txantxetako ez bada, oraindik serioagoa duzu apaizgoa. Ikaragarria zen larunbat afalostea. Orduan esaten zizkiguten igandean zertzu eta non egin behar genituen: konfesioak, meza eta hitzaldia. Ez zen gozoa izaten larunbateko loa: konfesioak eta hitzaldia ziren larrigarrienak, hitzaldia batez ere. Ostegunetz, lehen eskolaldiaz gero, gaintikoa libre genuen eduki ikastetxean; baina ostegunero irten behar izaten genuen norabait Hildakoen mezak ematera. Besteek ere halatsuko bizi-martxa zeramatela eta, norberak ere ekin. Baina ni barrutik arrokalatzen, arrailtzen hasi nintzen. Konfesonarioko lana ondo egin nahi nuenez, hari buruzko jakingai asko ikasi behar nituela bistan nuen. Bistan nuen baita, predikuan gauzak argi eta zehatz eta ulerterraz eman nahi banituen, asko irakurri behar nuela. Jaungoikoaren hitza lasai eta sakon hausnartu behar nuela, eta abar. Eta ni ezin nintzen iritsi beharrak ez ezik barruak eskatzen zidan hura betetzera eta estuaren estuz lehertzen hasi nintzen, garrazten, larria baino angustia zen itomenean bizitzen.

Bizimodu honek ez ninduen eskola-lanetarako gozatu: exijente bihurtu ninduen, haserrekor, intrantsijente eta gogor. Hamaika zaplada, alferrik eman orduko damutu, banatzen nituen eskolaldiz eskolaldi.¹⁷

¹⁷ *Denbora galdu alde*, 29-30. orr.

ZENBAT aro, zenbat garai, zenbat aukera eder dihoazkigun beren sasoitan aintzat ere hartzen ez ditugularik. Iragan eta gero, sekuletan gehiago geure eskuetan, geure hurbilean, geure alkantzuan izango ez ditugun ordutan ohartzen gara, noizbait, zeren jabe despistatu izan garen. Niri neuri dagokidanez, badut zer galdetu: zerk itsutu ohi ote narama, zerk lotu ohi, zerk despistatzen ote nau, zertan egoten ote naiz, zertan aritzen, hain sarri, hain etengabe datozkigun gozatzeko paradak hain alferrik galtzeko, hain konturatu gabe pasatzen uzteko, hain bertan behera uzteko? Kokolo eta koitadu izatetik inoiz irtengo ez ote naizen susmoa baino segurtasuna dut gainera. Zerk distraitzen ote nau, zerk estaltzen ote dit iraganez gero ikusten dudana sasoiz ez ohartzeko? Ala igaro egin behar ote dute aroak, garaiak, aukerak, haietaz, haien ederraz kontura gaitezen? Beno, kontura ahal nadin? Beti daukat esku artean zerbait, kakalardoren bat, matxinsaltoren bat, edozer gauzatxo, huskerria edo horrelako zirtzilkeriaren bat esan nahi dut, zeharo sorgortu naramana, eta, kakalardoaz edo marigorringoz, edo beste edozein tentelkeriaz aspertu naizenean, orduan naiz konturatzten hartu behar nuen edo ahal nezakeen trenak, autoak, abioiak alde egin duela eta berriz ez dudala halako erarik izango. Hura joan zen. Joan zen ura eta denok dakigun, kokolook ere badakigun topikoa: ur joanari alferrik uharka. Ikusi egingo ez bagenu behintzat zer galdu dugun, eta erremedio gabe galdu duguna! Baina zergatik ikusten ote dugu urrun denean, eta ez hurbil genuenean? Zer presbizi modu da gure hau? Ala bistaren edo irudimenaren engainu bat besterik ez ote da dena? Etorkizuna amets, argitan iragana, begi-bistan eta presentez miope? Ai, presentearen presentzia guztia ikusiko bagenu, gauza bagina presentearen presentzia orokor eta zabala ikusteko! Baina batez ere presentearen aurrean aukera egokirik egiteko gauza bagina! Baina presentea konplexuegia izan ohi da eta orduan, bakoitzak nolakoa den, nolako joera eta gustoak dituen, horrela egin ohi ditu bere aukerak. Eta guztiak ez baldin badira ere,

zenbait behintzat, damugarriak gertatu ohi zaizkigu. Presentearan aurrean perspikazia gehiagoren beharra da begion errua eta akatsa.¹⁸

¹⁸ *Denbora galdu alde*, 32-33. orr.

HAMAR urterekin Sabina gustatzen zitzaion. Sabina, argizko dardaraz bizkortasuna zerion Loiolako nexka bat zen. Arratzuko Loiolakoa, noski. Zein ote du abizena? Gure anaia Josek edo ondo jakingo du hori denori. Urte luzeen ondoren, Meza Berrikoan ikusi nuen mahaia zerbitzen, bizkortasun ederra zerion Sabina hori. Hamar urterekin arrapaladarik jo zuen Sabinaren ondoren.

Ikusmira aspergaitz ere bazen hamar urterekin: bere alkanztuan zuen guztia behar zuen miatu, baina ez denen gustora. Tontoa ematen zuela esan zion behin amak, berak hitz egiten zuen bakoitzean aurpegira eta, batez ere, ezpainetara begira egoten zitzaiolako. Hauxe da amari sekula barkatu ez dion gauza bakarra.

Hamar urterekin, gaueko amets txar horietako batean, laiahortzak halako letaginekin ikusi zuen aita amorruez berari begira.

Hamar urterekin euri-egunetan bakarrik joaten zen eskolara, eta Sabina ikustera, zakuzko txanoa burutik behera zuela.

Hamar urterekin zera entzun zion amari gau batean: "Jose, isilago, Bitoriano iratzarri dagoke eta".

* * *

Hogei urterekin, nola nezake adieraz? Izan ere ez du edonork ikusi zaldiko bat bere lehen irteeran mendi-maldan gora dena tente, dena indar, diren haize guztiei sudur-zuloak zabal.

Hogei urterekin Nafarroako Oliten zebilen. Bazuen irakurri-beharrik, bazuen irakurri-nahirik. Bazen eta ari zen; baziharduen ahal zuen edozertan: irakurtzen, idazten, ikasten, ikusten. Mundua irekitzen ari zitzaiola zuen ohartzen, agertzen ari zitzaiola, begietan jartzen.

Hogei urte, hogeita bat; hogei urte, hogeita bi; eta behar zuen hautetsi munduarekin geratu ala mundua utzi. Olitetik Arantzazura iritsi baino ez, eta bertan zuen beste edozer baino lehen, behin-betirako fraide frantziskotar izatea erabaki. 1951. urtea zen, azaroaren 11. eguna. Aita eta ama etorri zitzaizkion betiko

profesa egin zuen egun hartan. Edozertarako sasoia besterik ez zuten hogeita hiru urtek bultzatzen zioten orduan.

* * *

Mende-erdi baten zama daramat gainean. Uzkur, erori, lotsati, urduri, hemen ari nauzu betiko ideia gutxi batzu buruan iraultzen eta egosten, beti puntu berean jira eta bira, errota zahar bateko harriaren irudi, ez aurrera ez atzera.

Azkenean infarto bat halakoa izan dut. Baina ez omen da gaitz fisikoa. Psikiatratara bidali naute, eta hark denbora galtzen ikasi behar dudala agindu dit, eta horra zertan ari natzaizun.¹⁹

¹⁹ *Denbora galdu alde*, 34-35. orr.

BART, ohean etzan eta gero, lo egin nahi nuen. Alferrik itxi nituen begiak. Alferrik ahalegindu nintzen bekokiaren barruko aldetik nabari nuen argia itxungi guran. Ilargi betearen halatsukoa zen bekoki barruan nabari nuen argi hura, ilargi betearen halatsukoa, ez handiagoa, ez txikiagoa. Oskarbi nuen bekokia barrualdetik, eta ezin nuen lotarako hain beharrezkoa dudan ilunik sortu. Orain gura nuke nik orduko argi hain argi hura. Orain minsorra dut bart gozotasun argia izan nuen lekuan, astundura ilun samar eta zapala. Makina bat ezin kontrolatu dudan fenomenoren ontzi banaiz ni. Oraingo minsor hau gorabehera egin nezakeen lo, eta orduko argiz eta burutapenez, bai idatzi ahal izango nituela orain gauza atseginak! Baina halakoxea da nire izaera, zortea, halabeharra eta patua. Baina, hara: bat-batean edo ustetrik gutxien dugunean sortu ohi zaigun onaldia –bart gauekoa, adibidez edo adibide gabe, bera baitut esperientzia hurbilena eta idaztera nakarrena–, argialdi gozo eta atsegin hori uxatu edo ezeztzeko egiazko borondatearen jabe ba ote naiz? Lotarako behar nuen iluna sortzeko egin ote nuen behar hainbat ahalegin, gauza ere ba ote naiz horrelako orduetan ahalegin benazko eta sakonik egiteko? Ezagun ditut nik, eurek nahi dutenean lo egiten dutela diotenak. Edozein arazo latzek erasotzen dielarik ere, berehala lo hartzeko gauza direla diotenak. Ni ez nauzu halako dohainen jabe. Neri irrist egiten didate txirringek eta ezin dut –ala ez dut nahi?– opa dudan ordutan lorik aparkatu. Labanka joan ohi naiz, joan eta joan berez-berez edo nerez-nerez noizbaiteko lotan sartzen naizen arte. Kontrola deritzon draga falta zait nonbait. Eta nire lorik egin ezinen oinarria horretan dago segur. Nik badakit eta agertu ere egin dut badudala zenbait gauzatarako borondate ondo sendorik. Ala nahia ote da borondate deritzodana? Nahia eta borondatea ez baitira berdin nire eritzirako, nahiz eta balio berdintsuz erabili ohi ditudan sarri. Nahia berezko eragin nekaezin halakoa dela esango nizuke. Borondatea, berriz, norberak eragin behar dion tramankulu astun, zurrun eta erabilgaitza. Nahiak eta borondateak sarritan uztarri bat bereko diruditen arren, nahirik

nekez geratzen du borondateak eta borondateak ere nekez deragio nahiari geldian planto setatsu dagionean. Bart gaueko argitara zuzenduko nituzke nik bi indarrok, orduko argi urdin eta alaitarra, han ikusiko nituzke gustora orduko gogoetaz barrena bizkor eta ferra-hots pozgarri eta handitan, baina uztarria –bikotea diotnagi aurkitzen dela ikusten dut goizeon. Nahia gogo gabe eta borondatea betiko gogaikarri.

Oroitzapenaren mugan oraindik zeharo ezabatu ez den argidura dut oraindik, eta beharbada sartu egingo gara han oraindik, dena gautu dadin baino lehen. Zera nuen bart gaueko nere buruko errotari zeragion ura: poesia zera ere badela: ibili eta saiatuz gero, inondik eta inola uste ez genuen halako aurkikuntza bitxi eta pozgarria. Baina ezin dut urratu lainorik, orduko ikuspen hura orduko argudio hain argiz azaldu ahal dezadan.²⁰

²⁰ *Denbora galdu alde*, 40-41. orr.

BURURATU orduko ahazten zaizkit burutapenak. Burutapenak sortu, berriz, onddoak bezalatsu sortzen zaizkit. Ez diot, ugari izaten ditudalako, berez antzean sortzen zaizkidalako baino. Onddoak ez dira sortzen edozein garai eta girotan. Garai eta giro bakoitzak onddo-mota diferenteak sortu ohi ditu ostera. Baina hemengo kuestioa onddoak sortu egiten direla da, besterik ez. Usterik gutxien dugunean punp, garai eta giro determinatuen fruitu, horra burutapena. Gero ahaztu ere halatsu, zapla. Ibilaldi batean edo lorik egin ezin dudan bitartean bururatzen zaizkidanak eta buruan jira eta buelta erabili ere egiten ditudanak desagertu ere behingo batean desagertzen zaizkit eta gogoratzeko kristorenak egin arren, ez dago haien aztarnarik atzemango duenik nire oroimenean. Gogoratzea merezi duen edo gogoratu nahi nukeen zerbait izan dudan zera bakarrik, eta kitto.

Oroimen gordetzailerik ez dudan arren, ez nuke esango ideia fijorik ez dudanik. *Idea* hitz hori nire izkribuetan eta neure buruari zuzendurik, nire lagunetako zenbaitek ikus baleza, barerrik egingo luke segurki. Sarri burlatu izan bainaiz hitz horretaz eta hitz hori hain sarri eta hain erraz erabili ohi dutenez. "Erdaraz bai, baina euskaraz ez zait sortzen *ideiarik*", euskara ideiak sortzeko agorra bailitza edo. Entzunaren entzunez ikasitako formula eginei deitu ohi die gainera ideia; talentuaren fruitu den ideia eta memoriaren harrapakin den formula elkarren artean berdinduz, nahastuz eta bata bestearen ordezt erabiliz, sagarra eta sagar-ontzia gauza bat bera bailiran hartuz. Eta euskaraz ez zaie ideiarik etortzen, formularik ez datorkielako eta erdaraz ideiak omen datozkie formulak datozkielako. Hau da: ontziak datozkielako sagarrak omen datozkie. Bapo! Baina ni neure burutapenei eusteko gauzatasun-ezaz eta neure ideia fijoez ari nintzen, ideia fijoa apeta nahiz seta bezala ulertuz, mania bezala, ideia fijoa ez baitira norberaren jitearen apeta iraunkor ez beste ezer. Nire maniek berriz ez dute aparteko saiorik merezi, ari ditudan jardun guztiak baitira nire manion esponente edo erakusle. Apeta, seta, grina, irrika, nahikari, gusto pertsonal, berezko joera, talentu par-

tikular eta horrelakoak ez dira ideiak, ez baitira adimenduaren sorkari, ente eta kreatura; berezko zaletasunaren eta norberaren izan moduaren indar, eragin eta halabeharrezko irtenbide, agerpen bizi eta bereizgarri baino besterik. Bakoitzaren burutapenen iturburu eta lur egoki ere badira halere, horien lepo gainean bizi baitugu burua, eta buruak gure izaerari begira bizi ditu bere antenak, hari dagozkion ondak bilduz eta bidaliz. Antenarik badudan arren, grabagailurik ez dut, eta bururatu orduko ahaztu ohi zaizkit burura etorri, agertu, heldu eta sartu ohi zaizkidanak. Beno, hemen ditut ideia fijo edo apeta deitzen ditudan hauek, euren lorikizunak atzemateko etengabeko asmakuntza-lanean, bidenabar baino ez bada ere, ideiarene bat edo beste ere sortuz edo lortuz, agian.²¹

²¹ *Denbora galdu alde*, 42-43. orr.

ORAIN nagoen lekura, girora, arazoetara heldu behar nuela jakin izan banu, orain honetarako hobeto gertatuko nintzatekeenik ez zait iruditzen. Banekien bai nolabait norantz eta zertarantz nindoan. Badakit zein beso-motz aurkitzen naizen orain eta hemen, eta pena dut, ahal izan eta trebeagotu eza. Bidez bai ibili naiz, baina firinfaran, firinfaranegi. Helburua baino bide-ertzetako xehetasunak izan ditut bideko entretenigarri. Alferra izan naizen kezkarik ez dut, baina bai alferrik aritu izan naizen damurik. Gaur moztasuna dut sentitzen, aukeran ditudan eginkizunetara ezin iritsia. Orain hobeto ikusten dut nola behar nuen jokatu, zertan behar nuen saiatu, eta iragana erremediatu ezina alferriko damu dudala ikusten dut. Une honetan, motxila astuna, astunegia, zabaldu dudanean, zenbat alferriko gauza, zenbat alferriko pisu, zenbat zirtzileria; baina orain eta hemen behar dudarik zer gutxi eta zer gauzaezak. Inoiz esan ere egin dut, behar bada, egun dudan aukera aurretiaz ezagutu izan banu, honetarako prestatzen gehiago ahaleginduko nintzatekeelakoa, baina aieru hutsa besterik ez denez, ez zait atsegin horretan jardutea.

Egia besterik da duda gabe. Nolakoa naizen jakitea dut horretarako nahikoa. Eta nolakoa naizen egin dudanak dit agertzen. Eta ikusten dudana zera da: eskolara zihoan mutikoa, noizbehinka eskolara joaten baitzen, bide-ertzeko marrubi, sugandila, masusta, sasi-txori, pinu-beldar eta horrelakoz gehiago distraitzen zela, eskola-gaiez eta eskola-arazoz baino gehiago. Eskolara joan zihoan helburu zuelako, baina eskola gero-geroko besterik ez zuen. Errekaduak egitera bidaltzen zutenean ere, errekadua zuen eginkizun, baina zergatik ez zuen gogoratzen dendan zer zen eskatu behar zuena? Dendarako bideak berak distraitzen zuelako. Dendara bai iristen zen noizbait, baina errekaduz ez, beste guztiz burua beterik zuela. Eta beti jokatu du horretara, beti helburu eta eginkizun fijo batera, baina beti, aldatzekoak aldatuz, bideko gauza eta ikuskizunez sobera distraitua, umetan halatsu.

Eta eskolara ailegatu naizenean, liburuak ikusi gabe dauzkat, ariketak egiteke eta arraro aurkitzen naiz hurkoen eta neure

buruaren aurrean. Eta damutu ere egiten naiz neure jokabideaz, eta eskola aintzatago hartzeko asmoa ere hartzen dut, baina hurrengoan ere berdintsu agertzen naiz eta hurrengoagoan ere. Eta errekadu kontuan ere holatsu eta dendan eta denetan berdintsu. Eta hola nago eta hola nabil, egonean ez beste guztitan, bideak berak baino bideko gauzek berek gehiago erakartzen nautela. Mila aldiz konturatu naiz akats honetaz, mila aldiz damutu, eta mila aldiz distrakzioetara berriro etorri. Eta hemen nago eta hernen nabil, beharren ditudanak ez beste guztiak ditudalarik, nagoen lekuan alferrik, inguruko giroan txertatzeke, aurreko arazoei heltzeko beso-motz, kilkir edo txori, haize edo izan behar zuen hau. Baina behin honez gero, naizen bezalakoa izaten jarraitzera etsita, naizen bezalakoa izaten jarraitu nahi ez nukeelarik, naizen bezalakoa agertu nahi natzaizu, lotsazko lotsagabe-an. Hortik aurrera zeuk ikus zertan enplega nazakezun, jadanik bide-behatzaile huts bezala onartu ez banauzu behintzat.²²

²² *Denbora galdu alde*, 49-50. orr.

GURE portaera, gure funtzionamendua ez da itxura batean espero daitekeena. Itxura batean ontasuna maitatzeko, edertasuna miresteko, lagunartea atsegingarri egiteko, elkarri zoriontsu bizitzen laguntzeko eta, garela esan daiteke. Izan ere, ontasuna berez eta guztioi zaigu estimagarri; guztioi eta berez zaigu gus-tagarri edertasuna; atsegina guztiok eta berez gogo dugun grina dugu; zoriontsu izatea da berriz bakoitzaren helbururik opagarriena. Josteko makinak josteko funtzioa du eta ez desjostekoa. Makina bakoitza bere funtzionalitate edo zertarako denak definitzen du, eta definizio horri dio erantzuten, funtzionalitate edo zertarako den horri darraion bitartean. Gero ez da ezer, zertarako den hartan alferrik denez gero. Baina ez dakit adierazpen halako honek ezertarako balio didan esan gura nukeena ezer argitzeko. Gure portaera, makinek eta landareek eta animaliek bere ez duten erreakzio ezkutu, misteriotsu, kontradiktorio eta deskontzertagarrien araberakoa da. Nori ez zaio maitagarri zozoa, kaioa? Nori ez zaio eder arrosa, eta gereziondo loretua? Nori ez zaio mireagarri edozein paisaia arbolatsu, zelaiz eta larrez jantzi, etxez, auzo-unez eta hiriz apaindua? Nori ez zaio lilurabide itsaso gorria nahiz era askotako untziz pintanatu? Neskatilatxoak, jolasean ala geldi, mutikotxoak zerbaitetan jardun beharraren beharrez mila bihurrikeria okerbagekotan, nori ez zaizkio zoragarri? Eta neskatilak eta mutilak nork ez ditu ikusten gustora eta kultu halako sentipen adoratzaillez? Eta emakume egina eta sasoiko gizona nola ez aitor-tu adorarri zaizkigula eta harrigarri? Eta zaharrak eta helduak eta umoak bizitzaren esperientziak jakitez ala desengainuz hunkigarri bilakarazi dituen gizon eta emakumeok nori ez diote sortzen begiramenduzko sentimendu eta begirune adeitsurik?

Gure sentimendu berezko hauen arabera behar luke aritu gure funtzionamenduak. Zerk gaitu osteras erasokor bihurtzen, zerk hain basati, hain gaizto? Zein erreakzio dongek bihurtzen gaitu zital, errukigabeko eta anker? Zerk garamatza on eta eder eta maitagarri zaiguna hondatzera, suntsitzera, oinazetzera, gorrotatzera?

Gure portaera antzemanezina da, susmaezina, aldakorra eta ikaragarria.

Lo egin nahi nuke. Lo, ametsik gabe eta geldi, ontasun-sentsazioz, edertasuna laztanduz, zoriona hedatuz, ezaguna dudanaren eta ezagutzera heldu ez naizen guztiaren onean, maitasunean eta ederrespenean, itxura batean bizi behar nuen portaerak inkonprentsiotiko, inkonszientziatiko, inkontroletiko era eta kolore guztitako orbainez lohitu ez diodan izararik bere komodan oraindik kontserbatuko balu.²³

²³ *Denbora galdu alde*, 69-70. orr.

DENBORA, ongi etorria zu!

Gaur bazaitut. Astitsu eskaintzen zatzaizkit. Horregatik deitzen zaitut denbora eta ez aldi zaldi lauhankari; denbora zaitut deitzen, azken hizki atono horren bidez geldiagoa, patxadazkoa-goa, etzanagoa baitirudidazu, luzeagoa.

Neure gorputzaren pisuaz oharterazten nauzu, berezko jagia galdu duen gomazko pelota mazizo sentierazten nauzu, mazizo eta astun, lekuari itsatsiagoa, uneari lotuagoa, harri, lur, ur geldi halako; sakoneko begiaz, geldi-geldi oharteraziz bizi den putzu baketsu eta ireki. Gelditasuna eta irekitasuna ditut nabari zure baitan. Inondiko eta inolako haizek ez, bere baitatiko eragin berezko edo sapa otzanak deragion arbola halako zerbait bizi sentierazi naramazu, berezko gora eta behera eta aldamenetarako irekidura bare eta nare ohartu daramatzen esponja, belaki bizi edo argi-ur halakoz ase eta zabal sentitzen den kontzientzia iratzarria. Oin-zolak nabari ditut lurraren kontra, airearen kontra azala, orduaren magalean gorputz osoa. Izatea nabari dut egonezko egonean burua beredin izakiren artean, ingurua bere baitan isladatuz sosegu geldian. Belarriok kanpotik barrurako bide ditut, begiok barrutik kanporako eta kanpotik barrurako beiradura kolorez bete, birikok airearekin harreman otzanean, bihotza zirkulazio geldoz odola punpatuz poliki eta leunkiro, eskuok paper gainean bata, eta bestea boligrafoari deragiola noizik behin eta bate-re presarik gabe.

Egonari nagokio adi, zeru hain urrunaren eta lur hain hurbilaren erdian bataren eta bestearen nolabaiteko ukituaren sentsazio motela bertan behera nabari dudalarik zentzuz behera eta behera, kontzientziaren barru-hondoan inolako kezkarri ez deragiola zeruaren ez lurraren ukitu geldiak. Amasaren bidez airearekin dut komunikatzen, bizidunen barruek era guztitako, giro guztitako labetan erre, egosi, gozatu, gezatu ala garratzu duten jarioekin maitagarria hartuz begirunez eta debozioz. Oroimenean, zingiran ihiak halatsu, ihar eta itsusi batzu, heze eta gordin besetzuz, gertakariak higidura-gabeko geldian. Adimena astiro begi-

ratuz, pentsamendu, irudi eta bizikizunon esperientzia oparoa. Antsikabeko atsedeen-zorian geldi, ireki eta zabal, egon handiari emana etzanik eta luze borondatea, astia maitatuz, laztanduz, estimatuz.

Naizen naizenean natza gorputz guztiaren pisua lurrari damadiola eta ikusmenarena zero goiari.²⁴

²⁴ *Denbora galdu alde*, 76-77. orr.

I DAZTEKO gogo handiagorik ez dut une honetan; hala ere, legunen batez lasaiago eta sentituago aipatuko dudan edo aipatuko dudala uste dudan sarritako neure kasketaldi, gurari edo nahikunde halako bat apuntatu behar dut orain. Nik badakit apaiz naizela eta ez dut inoiz apaizgoari uko egiteko haizerik abiatu. Apaizgoak ez du gaur, garai batean izan zuen argi-inguru agurgarrietakorik. Argi-inguru beneragarri hau, bestalde, ez zait asko ardura. Ohore-ingurua aparte, apaiz izatea bera dut nik izatezko ohore barruko, sakon eta estimagarri. Apaizgoak izpiritu-esperientzia gozo eta izugarrietara eramán nau eta zor diot erlijio-bizitzari buruzko ikuspen ederrik, erlijiozko misterioak eskuztatzeko graziarik.

Nik badakit fraide frantziskotar naizela ere. Neure fraide izate hau ere ez daukat saltzeko. Ondo zorionean naiz fraide, nahiz osoki zorioneko fraide ez naizen. Ez gara edo ez naiz alferrik mila grina kontentagaitz, bihurri eta alarberen barruti. Baina guztiau gorabehera, parada ona dut fraidetza. Hau guztiau horrela delarik, neure kasketaldi, gurari edo nahikundeetara jo nahi nuke orain. Gaurko bizimoduari begiratzen baldin badiogu, gehiengoak ulertzen eta ontzat ematen duen bizitzaren ordenamendua aintzat hartzen badugu, nere aspirazio eta gurariok zorotzat jo behar ditut. Hala ere, zilegi bekit zein edo zeintzu edo zernolako diren aitortzea. Hasteko eta nolabait ulerterraz gerta dakizkizun, zera dizut azalduko: nire inbidia –ez ondamua, ez bekaitza– irrika eta gogozko joera baizik, aipatu dudan bizimartxak mesprezatzen eta gaitzesten duen zenbait jende-moduren, itxuraz lotura gehiago gabeko, horietara doakidala. Nik badakit eskeko edo eskaleak, ijitoak, erromesak, buhameak, arloteak eta gisa horretara bizi den jende-moduak badituela bizimodu horri dagozkion eramankizun neketsu eta mingorrak, batez ere berek aukeratu ez badute biziera hori. Hala ere eurak, beren gogoz horrela bizi direnak, ditut nik, inor badut, jendaki jarraigari eta imitagarrien. Badakit konplikazioz beteriko ikuspuntuak direna nire jende horrekiko eritziok, batez ere beste era batera gauzok ikusten

dituenarentzako. Baina ez dio ardura. Ez bainaiz ari justifika ezin daitekeen ezer ontzat eman nahiz. Nere kasketaldi, gurari eta nahikunde-airearen berri-antzeko bat jarri nahi izan dut aurreko guzti horren bidez. Eta behin honez gero, horra opa dudana, nahiz zoro nahiz zuhur dela: ez dut eskolak eman beharrari lotuta bizi nahi, ez eta etxeko beste hainbat eginkizuni, jaten dudana ogia justifikatzeko, janzen ditudan soinekoak eta aterpea damaidan teitatupea nolabait irabazteko. Jan behar dudana eta giro txarretik burua nonbait gorde behar dudana ere bai. Baina beste alde batetik dator nire haizea, haize kolore ederreko eta librea, ohizko bizi-modu arriskugabetik dituzkeen jan onak, jantzi egokiak eta aterpe ganorazkoak baino zorion hobea eskaintzen didana eta neure zoroaz batago datorrenez, bizitzari buruzko segurantzia abenturariagoa, baina segur eta dudagabekoa demaikedana. Ermita bertan beherako bat aski nuke, lau liburu, ogikozkor, basoa bete ur eta opa dudana beste denboralditan ikuskizunen, sentikizunen, pentsakizunen bizitzaren bits paregabe gozotan denbora-gabeko bizitza zoriontsutan sartzeko eta galtzeko betiraunez harako zelai azkengabekoz betiko ibili gelditan.

Bizimodu loturazko, obligaziozko, legez koadrikulatutako ogia, jantzia eta aterpea garestiegiak ditut nere kasketaldi, gurari eta nahikundeak eskaintzen didaten beste erabateko biziera horren truke onartzeko. Zergatik haizea katetan lotuz bizi? Zergatik ez eman neure burua, apaizgo, fraidetza eta guzti, bidez bide eta lotura gabe neure sentikizun, pentsakizun, asmakizun eta nahikizunen paperak banatuz, ogia, jantzia eta aterpea faltatuko zaizkidan beldurrez? Ez al naiz ba gauza, arazoz ilun dabilen jendeari marigorringoren kapa gorriak zazpi puntu beltz dituela esateko? Zuhaitzak soineko berria jantzeko eranzten direla eta iturriak ura eman eta eman ari direla eta txoriek beren poza guri ere kantuz eskaintzen digutela oharrazteko arduraz eta kezka bizi diren neurotikoei?²⁵

²⁵ *Denbora galdu alde*, 78-80. orr.

Gizon pribilejiatua

EZ ZEN ametsetako munduan bizi. Ez zen bizi oinpean dugun lur honetaz kanpo. Ez zen aberats. Eguneroko ogia zuen eskatzen, bere soina estaltzeko jantzia eta euritatik eta hotzetik gordeko zuen aterpea. Ez zen bizi lanik gabe ere. Inork izendaturiko lan-orduak zituen eta oso gustoko ez zitzaizkion zenbait zereginetan aritu behar zuen egunero hurkoekiko amorearren.

Askatasun-gogo izugarria zuen bizitzako gurutze bakarra. Mila aldiz pentsatu zuen inoren menpetik alde egitea, bere buruaren jabe bakar izatea, gogoko zituen gurarien zerbitzu bakarrean bizi-zea.

Baina ez zen ametsetako munduan bizi. Munduan sentitzen zen, inguruarekiko dependentzian, ingurukoekiko nahitaezko harremanean. Ez zuen nahi, inola ere, inorenetik bizi. Eta ongi zekien inguruko zergauza bakoitzak bere independentzia zuela. Nor bakoitzak bezala maite zuela zergauza bakoitzak bere independentzia. Eta gauza bakoitzaren independentzia maite zuenez, nahitanahiezko zirudion inguruarekin akordio egoki batean bizi-zea. Askatasun-gogo izugarria zuenez, edonon ikusten zuen izaki bakoitzak bizi zezakeen askatasun-gogo antzerakoa, eta haiengana-ko begirunez, haiekiko harreman egokitan behar zuen bizi. Ez zeukan, beraz, bere onerako inguruaz baliatzeko eskubiderik, inguruak, aldiz, bere onerako ezer iristen ez bazuen haren aldetik. Eta hola etorri zen bere askatasun-gogo izugarri hura eztabaidat-zer, eta grina bizi hura zegokion tokian jartzera.

Hain bizkorra zuen askatasun-gogo izugarri hura, inondik eta inola ere ez zegokion pribilejio pretentsiozkoa zuela ikusi zuen. Inoren menpetik alde egiteko zuen sukar hura, nahitaez, inoren gainean eta inoren kontra bizitzeko egarri zoro bat zuela konturatu zen eta bere buruaren jabe, inoren buru-jabetza ere aitortu eta onartuz, izan zitekeela egokitasun bakar baten barruan. Eta oreka horretan bizi ahal izatea jo zuen, azken batean, bizitzan lor zezakeen pribilejio bakar eta handientzat.²⁶

²⁶ *Denbora galdu alde*, 97-98. orr.

HEMEN nago. Euri eta hodei ondoko paisaia udaberrikoa eta alaiz nabari dut orain, aterruna gozotan, barruko paisaia janzten didaten landare garbien sustrai lurpekoetan zehar. Jadanik ura gozo bihurtu zait eta bere lekuaren bila ari zaidala dirudit barruko zelai asean. Alaitasunaren sentsazio gozoa adieraztea ere ez da erraza. Nahigabe izan ditudan elementuak, eurak, ditut, agian, orain aterraldi honetan, barruko poz hau, ederrago ikusezazten didatenak. Garbiago nabari dut barrualdea, aratzagoa barrugiro guztia, distiratsuago barrunbea janzten didan landare bakoitza. Eta esan egin behar dut, ekaitz ondoko zelaiak halatsu, zorion hau belar-izpi berriz, lorez eta gorako luzapen alaiz, oskarbipean zutituz eta hedatuz airearen eta haizearen begietan oihukatuz aterruna busti eta epeletako bizipoza.²⁷

²⁷ *Denbora galdu alde*, 116. or.

NOIZKO baina? Noizko poza?
Noiz barru ilun honetatik irten?

Noiz ardurak utzi, noiz kezken saguzaharrak kanpora bota eta garbitu buruz barruko giroa? Noiz goizeko, eguneko argiaz bat egin eta uneen eta egunen pozetan lasaitu. Noiz, daukagun-
txoaz konformatuz, alaitasunari leku ematen ikasi?

Erremediatu ezinaz noiz ahazten hasi? Noiz ezina atzemateari utzi eta noiz ahal duguntxoaz gustora bizitzen ikasi? Banoa eta bideko argiari baino edozein ezbehartxori gehiago begiratu ohi diot zabalduko edertasunaz gozatu ordez.

Daukadanari zergatik ez natzaio esker oneko? Ez al dut osasunik? Ez al dut bizitzeko lain ondasun? Ez al dut non bizirik? Ez al dut nori lagundurik, nori poztuko duen hitz bat, keinu bat zuzendu? Zergatik behar dut izan inoren poza iluntzen duen itzal? Eta zergatik ez inoren poza areagotuko duen argi?

Berrogeita hamalau urte ditut laiotz naizelarik, zergatik ez egutera? Neure gaixotasunei erremedioak aurkitzen saiatu naiz, baina neure tristurarako joera hau ez dut egundo eritasuntzat ikusi. Tristurarako joera berezko hau ez ote dut gero neure gaitzik txarren eta beste gaitz guztien iturburu? Gorputzaren aldetik elbarri direnetan pozik ikusi dut, pozerako gauzatasunik ikusi dut osasun eta ondasun aldetik premiak joagoetan. Zergatik naiz hain kontentagaitz, hain gehiago gurako, hain aseezin? Izaera hau zergatik ez dut benetako gaitz bezala?²⁸

²⁸ *Denbora galdu alde*, 117. or.

E SAN daramatzadanak, esan, psikiatraren aurrean banengo bezala diodaz, beste batzutan denbora galdu alde. Gozatu egiten dut esanez. Papera hartu eta esan. Burura datorkidan edozertaz jardun. Ez dut ezagutzen denbora emateko modu atsegina-gorik. Bala-bala ekin. Denbora galtzeko nere modu hau ez dakit zer nolakoa irudituko ote zaion Don Justori.

Hobe beharrez eraman nion lehengoan papertxo bat ahaztu nahi ez nituen zertzeladez, eta barre egin zidan, nire zehazkeriaren agiri bat gehiago zela zioela. Papertxo hura txiki-txiki egin nuen atzamar nerbiotsuz.

Denbora galdu behar dudanez, ez dut nahi programaturik ditudan idazgaiez aritu eta ez dut behar ere. Hura betiko ardura eta kezka munduaren barruan legoke, egon ere, eta nik denbora galdu egiteko agindua dut oraingoz, neure osasunbiderako medizinatzat.²⁹

²⁹ *Denbora galdu alde*, 118. or.

"**M**AITASUNA" esan zuen. Eta bere amarekin oroitu zen, aitarekin, etxekoekin, lagunekin. Maitasuna irribarre gozo bat bezalakoa zela ikusi zuen. Maitasunak, eder eta gozo egiten dituela gauzak eta pertsonak. Gauzak ere eder eta gozo egiten dituela. Maitasunik gabe lehor, elkor, gozorik eta erakarmentik gabeko zela dena pentsatu zuen. Amak zion maitasunak, aitak, etxekoek, lagunek zioten maitasunak, zoriontsu egiten zutela ikusi zuen. Maitasunak maitasuna sortzen zuela ikusi zuen. Gero etxetik irten zenean proba bat egin nahi izan zuen: ea bere irribarreak besteengan irribarrerik sortzen ote zuen eta aurrez aurre zetorren ezezagun bati irribarrez begiratu zion. Puska bat txunditu egin zen aurrez aurre zetorkion hura, baina gero barreantzeko bat egin zuen eta han joan zen aurrera. "Maitasunez begiratzeak, maitasunezko irribarrez begiratzeak irribarrea eta poza sortzen dik jendearengan" esan zuen berekiko. Neuk ere poza sor dezaket, esan zuen, eta gustagarri iruditu zitzaion bere ahalmena. Etxean irribarrez sartu zen eta irribarrez erantzun zioten etxekoek. Eskolan irribarrez sartu zen, eta irribarrez hartu zuten eskolakoek, irribarre egin zion bideko jendeari eta gehienek irribarrez erantzun zioten. Egun hartan jendearekin, nornahirekin maitekor izatea erabaki zuen, zoriontasunaren zabaltzaile izateko gauza zela oharturik.³⁰

³⁰ *Denbora galdu alde*, 119. or

IRATZARRI zen. Jadanik argia leihoan zuen. Eta argiaren aurrean "ondo egin dut lo" esan zuen. Ez zekien zergatik, baina tristurara jotzen zuen berez. Ez zuen triste izan nahi, ordea. Gainera eduki ere ez zeukan arrazoi handiagorik triste izateko, baina berezko joera zuen tristurarako. Argiari begiratu zion eta gauzak bistaratu zizkion argiak. Betiko gauzak: gortinak, gelako mahaitxoa, irratia, errebistak, hormetako posterrak eta abar. Ohetik jaiki gabe ikusi zituen gauzok eta argiaren distiratan berriak bailiran begiratu zituen. "Argiak edertu egiten ditu gauzak" pentsatu zuen. Gero poza sentitu zuen. Saltatu ohetik eta garbitzera joan zen. Barruko pozak ura eta, kolorezko toalla eta, gustagarriagoak ikuserazi zizkion. Eta poza argia bezain eder zela ohartu zuen eta "poza zaindu behar diat" esan zuen. Egun hura poza zaintzen pasa zuen, eta liburuak eta ikastea, gosaria eta ikasgela eta dena, etxekoak, eta lagunak eta denak ikusi zituen poza-ren argitan, eta benetan eder eta maitagarri gertatu zitzaion dena egun hartan.³¹

³¹ *Denbora galdu alde*, 120. or

INFORME KLINIKOA hartu ta agertu naiz Santa Agedan. "Se considera que la sintomatología que presenta tiene un gran componente psíquico, recomendándose se ponga en contacto especialista en psiquiatría", dio informe klinikoak. Psikiatri Ospitale-rik gertuena Santa Agedakoa dugu guk, eta hara joan naiz.

Justo Alzuak errezibitu nau eta haren "qué le pasa" galde-rari honelatsuko erantzuna edo eman diot: "Ba, begira, joan den Erramu egunez –laurogeita bateko honetan, beraz Plaentziako– San Andresen elizkizun prozesio hitzaldi eta guztikoa egin ondo-ren, kaleko lagun batzuen etxera jaitsi nintzen eta han bapo baz-kaldu, siestatxoa egin eta gero, lagun horiek berek eramango nindutela Arantzazura eta, batere presarik gabe, Bergaran ema-ten zuten pelikula bat ikustera joan ginen. Pelikula ikusten ari nintzela, lehenengo izerditzen hasi nintzen, gero arnasa nekez hartzen, eta gero ito behar eta ezin ito jarri nintzen, dena izerdi-tan blai. Lagunak ohartu ziren nire ondoezaz eta noizbait eta nolabait irten ere egin ginen zinema-lekutik eta zer egin asma-zen jarri ginen. Nik Arantzazura behar nuela lehenbailehen, nire lagunek medikutara joan behar genuela lehenengo. Sartu ginen autoan eta Oñatira bidea hartu genuen. Nik Arantzazura ta Arantzazura niharduen. Lehen ere holatsuko estualdiak izana nintzela eta Arantzazura, han ohe gainean zabal-zabal etzan eta estuasuna pasa arte. Oñatin medikutara eraman ninduten. Tentsioa oso altua aurkitu zidan sendagileak. Ordurako bularrean min-antza ere sentitzen hasia nengoen. Lagunen beldurrak eta medikuaren eritziak bat egiten zuten eta Gasteizko Santiago Kli-nikara jaso ninduten eta han proba batzu egin ondoren ohera eraman".

Eta informe klinikoa eman diot Don Justori. Paperari begira-tu bat eman dio Don Justok eta encefalograma egitera eraman nau. Ondoren gelatxo goxo batera zuzendu nau eta hizketan hasi. Zer gauzatzuk larritzen nauten eta galdetu dit eta nik, bat aipa-tzekotan, aitorlekuko ordu luzeek sortzen didaten angustia konta-

tu diot. Arazo horretatik libratzeko asmatu behar izaten ditudan ihesbide eta abar ere bai.

Nere eguneroko eginkizunez ere galdetu dit. Eta han azaldu da eskola-ordu nahiko ugarien kontua, mutikoen idazlanak zuzentzeak kentzen didan denbora, apaizgoak bizierazten dizkidan kezken gorabehera, euskaldun naizenez bizi dudan insatisfakzioa eta abar.

Han agertu dira nire lorik egin ezina, nire haserrekortasuna, neure buruarekiko deskonformidadea eta holako bitxiak ere.

Deanxit pilulak errezetatu dizkit gosala eta bazkal ondoetarako. Afal ondorako *Tranxilium 15*.³²

³² *Denbora galdu alde*, 127-128. orr.

EZIN natzaizu ondo gogoratu. Baina orain bizi dizudan antsia hau ez dizut bizitza guztikoa izan, zorionez. Han ikusten dizut nik neure burua, osaba Eulogioen etxean eta Nabarnizen beste edozein ume mukitsu bezalako, aukeran gogoak ematen zizkidanak eginaz, pixka bat beldurti, ipuin-zale eta osabaren kontrol-galderetan errudun ez agertzeko sekulakoak asmatzen. Uneko larrialditxo bat edo bestez kanpo, ondo lasai pasa nuen han, baita teatroa egiten nuenetan ere. Zeren umetan eta Nabarnizen teatroa ere eginda bainago behin baino gehiagotan eta herri guztiaren aurrean, oraindik batzuk akorduan duten bezala.

Orbelaunen ere –beno, nire jaiotetxeari Orbelaun deritzanahiz eta mila eginkizuntxotan aritu behar nuen, inongo estuasun-sentsaziorik ezin dut oroitu. Bizkor eta zintzo ibili behar nuela? Hori bai, baina ez nintzen larri.

Seminarioko bizitzan ere benetako larritasun handiagorik ezin dizut oroitu. Examinak, kalabazak eta horiek benetako dañurik gabeko une txar eta itsusiak besterik ez nituen izan eta.

Nobiziaduan, filosofiako eta teologiako ikasturteetan ere ez nuen nabaritu ikasketek normalean ematen duten arazo eta kezka gainetik arrenkurarik. Gainetikoa lasai bizi ohi nintzen eta hamaika ordu eder eta ilusioz betetako igaro izan ditut urte horietan denetan. Nire tormentua apaiztu eta gero sortu zen: irakas-kuntzari eta apaizgoari batera heldu eta erantzun behar izan nioanean. Bi erantzukizun horietarako nintzen murriz aurkitzen eta ez bata ez besteak zidan pozik ematen eta orduan jabetu zitzaidan deskontentua, ondoeza eta umore txarra.³³

³³ *Denbora galdu alde*, 129. or.

ORBELAUN Meatan dago,
baina Arratzura joaten ziren
Orbelaungoak:
Mezetara Arratzura, eskolara
Arratzura, dotrinara Arratzura

Orbelaungoa zen Bitoriano eta Arratzura joaten zen, baina Meatarara ere joan zen behin edo bestetan razionamenduan ematen zutena jasotzera. Behiak perratzerara Nabarniza joaten zen, Gernika ondoko Errenteriara.

Ibilaldi handiak egin behar izaten zituen mendiz eta, jakina, oinez, baina oinik ez zitzaion nekatzen Bitorianori, begirik nekatzen ez zitzaionez. Ibiliz ikusi zeramanak irensten zuen Bitoriano, eta nola behar zuen nekatu? Ez zen sarritan eskolara joaten. Orduan ez baitzegoen oraingo legerik eta ez kontzientziarik umeak eskolatu beharrari buruz. Gurasoei lagundu behar izaten zien baserriko mila arazotan. Seme zaharrena zenez, ondorengo lau bost eta sei anai-arreba zaindu behar izaten zituen. Behiak ere bai. Itaurrean ere egin behar izaten zuen, errekaduak ere bai eta ganadu bila ibili, gehienetan astoaren bila. Bideetako oinatzei begiratzen berez-berez ikasi zuen. Aireko usainak hartzen ere bai. Beharko ikasi, bideetako informabideak oinatzak eta usaina baitira.

Kantatu, asko kantatzen zuen, berez zerion kantua. Lo seko egiten zuen. Gaurik gehienetan umeak eramane behar zituen ohera eta txikienari lohartu eragin. Gero izaten ziren kontuak, gurasoak koartoratzen zirenean, han egoten zen umea besoetan zuela lo, eta ezin iratzartu izaten zutenez, aitak aidean edo arrastaka eramane behar izaten zuen, umea besoetatik kendu ondoren, aldameneko gelara.

Goiz berri bakoitzak poz berria zemaion eta egun berri bakoitza, zelakoa zela, gustagarri zitzaion. Aizkora, aitzur, igitai, noiznahi erabili ohi zituen, kodaina erabiltzen osterara nekez uzten zion aitak. Mailu, iltze eta honelako erremintaz ere atseginez ari-

tzen zen. Aitarengandik ikasi zuen zenbait eskulan egiten: lehen aipaturiko lanabesei girtanak egiten, adibidez. Amak erratza edo eskoba erabiltzen irakatsi zion, baita taloak, morokila, ahia-eta egiten. Eskolan baino dotrinan zebilen hobeto eta Don Anjel parrokoarekin oso ondo konpontzen zen. Haren bidez ezagutu zituen fraideak eta haren bidez sartu ere egin zen Arantzazun fraideki. Eskolan juxtu zekien nekez irakurtzen, eta idazten, bere ize-naz aparte gauza gutxi, kastellanorik berriz batere ez. Baina gogorrena, bere anaia eta arrebengandik urruti bizi beharra egiten zitzaien. Aitaren eta amaren akorduak ez zuen hainbestean penatzen. Negar komunean egiten zuen, ez inoren aurrean. Mutikoekin ondo etortzen zen eta bakarrik ibiltzeko ere sobera gauza zen baserrian horretara ohitua zegoenez. Nahiz eta eskola-arazotetan oso gaizki ibili, horrek ez zuen hainbestean penatzen. Berezko poza bizi zuen eta horrek arindu ohi zuen. Ez dakizu? Lehen ere konprenitzen ez zituen mila fenomenoren aurrean bizipozaren pozak salto eginerazten zion, ba? Orain ere horrelatsu zuen argitzen barrutik harako alaitasunak.

Eskola eta hizkuntza ikasi ahala hasi zen bere barrutik harako poz berezkoari oztopoak ipintzen: kurtzorik ez zela behar galdu, alaitasun erraz hura umekeria zela, seriotasunak egiten zuela mutil, probetxuko izaten behar zela saiatu, denborak urrea balio zuela, pertsonak egin egin behar zuela eta ez egon, gizonak lan egin behar zuela eta lanean ahalegindu, zenbat eta gehiago egiten zuen batek, orduan eta gehiago balio zuela eta abar jarri zizkion bere berezko pozari hesola, kate eta helburu bezala eta trailan hartutako aberea bezala otxandu zuen apurka-apurka bere burua.

Osasun eder baten jabe zen, indarra zerion gorputzetik hara, bizkortasun menderagaitz bat zerion, baina trailan hartua zegoen jadanik.

Burua ere lehengo lepagainean zuen, ikusteak ez zuen nekatzen, izadiaren kontenplazioak, mendi eta basoak zehar ibiltzeak eta, nekatu orde, barru-barruko atsedean gozoa zemaio ten. Naturatiko eta bizitzatiko sentsazio gozoak idatziz ematea ere oso atse-

gin zitzaion eta oso berezko, baina atsegin eta berezko zitzaizkion gauza gustagarri haiek gero eta gehiago ukatzen zizkion bere buruari, eta azkenean, eta beti hobe beharrez, arau zurrun eta bere buruarentzako atsedetik ez zuten zeregin elkorretan bizitzeari eman zion.

NIK amatara jo dut. Gure ama oso zehatza zen arazo guztietan. Kezkatia ere bazen, batez ere erlijio-eginkizunei buruzkoetan. Gurean anai-arreba guztiok dakigu horren berri. Gauetan eta koltzan zehar lorik egin ezinda ta ibiltzen zen gure ama, zetozkion burutapenei geuk entzuteko moduan ezetz esaten ibiltzeraino. Erlijio-eginkizunak oso estu hartzen zituen eta besteok ere hala har genitzala nahi zuen. Bestalde, alaitasun-aldiak ere izaten zituen.

Gure aita total bestelako zen. Bete, betetzen zituen erlijioa eginbeharrak, baina zeharoko izpiritu diferentez. Gure aita alaia zen eta batez ere erlijioa zen harentzako alaitasun-biderik handiena. Hori ere anai-arreba guztiok dakigu eta gure aita ezagutu zuten beste asko eta askok. Ikaragarritzko fantasia zuen gure aitak eta fedez zekiena eta fedez zekusana loriazko hitzez eta irudiz azaltzen zekien.

Hezkuntzari buruz ere eritzi erabat desberdina zuten. Amak egurra behar zela umerik zuzen heziko bazen. Aita ez genuen sekula egurraren aldeko eritzirik ematen ikusi. Gure aitak egundoko pazientzia ederra zuen umeekiko, eta esan ere hala esaten zuen umeekin pazientzia eta pazientzia behar zela eta karinua.

Aita gizajoa! Norbaitek edo norbaitzuk esan zioten noizbait, nik esku arina eta gogorra nuela mutiko-jendearekin. Ez zidan berehalakoan ezer esan, ez zen esaten ere ausartzen nonbait. Baina behin, eta oraindik ikusi egiten ditut gure aita zenaren begi urdin eta argi haiek, eta egundoko distira eta samurtasuna zerie-la ikusi ere, "Bittoriano, esan zidan, ez umerik jo". Eta ez zidan besterik esan, gizajo aitak. Eta kostatako lanak egin ondoren egin

ohi zuen planta bera egin zuen, arnasa zarataz botatzen zuelarik.
Ez zuen atsedenaldi makala hartu nonbait.

Gure ama ez zen jendarteko. Uxatia zen aukeran.

Gura aitak gozatu, jendartean gozatzen zuen inon bada.³⁴

³⁴ *Denbora galdu alde*, 130-134. orr.

BEHIN BATEAN bazen gizon bat, denbora joaten ikusten zue-
na. Gizon hark erreka bat ikusi zuen behin, uholde-egun
batez. Uharreak zeramatzan errekek harro eta azkar. Uharretan
edotariko zaborrak zekuskien gizonak: belar, orbel, egur-zati eta
abar. Bazekusan sasi-aihen luze bat ere. Erreka-ertzean ondo sus-
traitutako aihen bat zen, zurtoina errekez kanpo zuen, baina pun-
ta uretan sartua. Puntara begira, sasia uraren abiadan zihoala
zirudion. Halaxe zeragiten eragin ere ufalek, baina zurtoinera
begiratzen bazuen, sasia lehengo lekuan zegoen beti. Sasi-punta-
rena ikusgarria zen, urak eraman eta zeramala irudi baitzuen alde
batetik, eta bestetik, orain kateatzen zuen zabor bat eta gero bes-
te bat eta galdu ere halaxe zituen galtzen zaborrak. Gero sasia
begiratzeari utzi eta ufalei begira jarri zen. Edotariko zaborrak
zeramatzan errekek, eta zaborrei eta ufalei begira zegoela, berari
ere joan zihoala iruditu zitzaion ikuspen hark sortzen zion zora-
bioa bide. Burua zeramakion urak, baina oinak betiko erreka-er-
tzean zituen beti. Eta sasi-aihenaren fenomenoaz oroitu zen eta
harengan obserbatu zuen fenomeno harekin erlazionatu zuen bere
fenomenoa, ez orain jadanik erre kara begira, denborari begira
baino.³⁵

³⁵ *Denbora galdu alde*, 136. or.

EZ GARA ezer askotarako. Dena da handi gure inguruan, dena da gu baino indartsuago, denak gaitu gero eta txikiagotzen, ahulagotzen, efikaz daitekeen edozertarako gauzaezagotzen. Ingurua haziz doakigu, hazi eta hazi, gure tamaina gero eta apurrago eginez, gure ahalmenak gero eta ezer-gutxiagorako bihurtuz. Ezer egin ezin dugulako sentrazioa bera ere gero eta handiagotzen ari zaigu. Indar izugarri nabarmenen menpean bizi garen sentrazioa gero eta handiagotzen ari zaigu, inpotenziaren kontzientzia oso sakon eta oso handi bat kreatuz gure burutxuon barruan. Zertaz harro gintezke? Ganorazko zerbait egiteko jaiok ginela zirudigun oraindik urte gutxi dela. Hil artean bizi, hil gaitzaten artean bizi, ganorazkoenik dagikegun zer guztia horixe dela dirudit orain. Ikaragarritzko ekaitza su bizitan leher dadin artean, suntsimena gainera dakigun artean, ezin ekidin dezakegun eraso hilgarriaren menpean bizi, ahal dela arriskuaz ahaztuta, asko pentsatu gabe ahal dela, labur begiratur, uneko iraupena besterik desiratu gabe.³⁶

³⁶ *Denbora galdu alde*, 137. or.

EZ NAIZ lagunarteko. Ez dut ikasi lagunarterik. Lurreko ondasun handi eta ederren deritzona ez dakit. Zuhaitz, belar edo horrelako zerbait behar nuen. Zuhaitz eta belarrek ez naute aspertzen, ez didate gogaitik eragiten, ez naute arnegarazten. Abere ez nuke nahi. Ez naiz lagunarteko. Ez dakit lagunartean bizitzen; lagunartean gustoa, poza eta atsegina aurkitzen ez dakit. Lagunarteak ez nau erakartzen. Oso ezagun ditudanekin banagoke. Badakizkit haien talentuak. Badakit ezagutzen nautena, onartzen nautena edo agoantatzen. Akats honetaz ere gero eta jabetzenago noa, konturagotzen. Gardulatzak deritzot neure buru honi. Traturako, gardulatz. Arnegabera naiz. Erantzun arantzazkoak ditut, zorrotzegi eta minkorregiak. Hitzetik hortzak darizkit. Baina nire hortzok hitzak alde egin orduko lauskitzen zaizkit, bihotzeraino lauskitzen.³⁷

³⁷ *Denbora galdu alde*, 151. or.

HIRU aste mendian egin ondoren, hemen naiz etxean. Liburu eta paperik eraman nuen mendira. Pixka bat neure airera bizitzeko ustetan joan nintzen mendira. Neure airera baino inorenera dantzatu behar izan dut ordea han ere. Gehienetan hiru laguntxo ginen han, taldetxoz kanpoko bizimodurik ezin nuen ia inoiz egin. Eguneroko meza, mezetako irakurgaien iruzkina eta bakarrune batzutako gogarte eta erreflexioa aparte, taldeko arazoetan behar nuen jardun han ere. Lagunak zetozkigunetan astiune gutxiago nuen neure nahikizunetarako. Pavese-ren *Oficio de poeta* eta irakurri dizkit Anjelitak. *Uda batez Madrilen* ere irakurri dit. Gainerakoa Larrakolako txabola txukuntzen, harako bideak pittin bat atontzen, mantzanila biltzen, pagadi-inguruko astailarrak mozten, noizbaitzutan perretxiko bila, egun batzutan zeramika-lanean, Lasturrek labea egin eta buztina ekarri zigunetz gero; Aguraina ostera batzu, Gasteiza ere bai bakarren bat, Gazeoko eliza erromanikoa eta Estibalizko eliza ikustera beste txango bat eta kito. Lo egin dut han ondoen. Amuarrainetan ere ekin izan dut bizpahiru alditan. Larrakola, erreka txiki eta ur oso garbikotatik gertu dago. Errekatxook ostera astailar eta sasi eta askotariko arbola-adarrez estalirik daude ia euren luzera guztian. Haietan ibiltzea oso zaila da. Ezkailu, kangreju eta amuarrainentzat badute non gorderik. Larrakola ez da atsedenerako paraje txarra. Larreatik ordu-erdi bateko bidea dago oinez. Guk autoa genuen ia txabola bertaraino. Bista handi eta ederra dago Larrakolatik.³⁸

³⁸ *Denbora galdu alde*, 156. or.

GABON DUT ANUNTZIO*

Zulo bat egingo dut. Aldia dut zulatuko aspaldian zehar, harik eta haurtzaroko Gabonen bazterra ikustera heldu arte.

Gabon-bezperako airean intxaur apurtuen usaina ere badago, baina intxaur-saltsa egiteko arazook eta amak berak hartzen zituen gu kanpoko zereginetan genbiltzan artean. Kanpoko argia laburra da Gabon-bezperan, suertez. Inoiz bada, gaur dugu guk sutondorako gogoia. Ilunabarrak ere bai, baina batez ere sukaldean amak ari dituenek garamatzate barrura. Gaur zeharo ilundu baino lehen du amak karburua biztu eta inoizko alaien du esan *gabon*. Gabon erantzun diogu sekulako pozik. Kanpoa ilundu ahala, barrua doa argituz hemen. “Aita, Hariztileunetik ekarri genituen mukurrek bai su ederra!”. Irribarre zabal batez erantzun dit aitak.

Ohitura hori bazen gurean. Gabon baino askoz lehenago ekartzen genituen Gabon gauaz hasita Gabon-jaiak zehar erreko genituen mukurrak. Olio-azak, barraskiloak, txitxarroak, gabon-madariekin egindako konpotak-eta baino suak demait atentzioa. Betikoa zen gurean beheko sua, baina ez Gabonetan halakoa. Gabonetan ogi eginberriaren lehenengo zatia kontu handiz gordetzen zen eta su apartekoa egiten, zerbait berezia adierazi nahi zuen sua, Sanjuanetan goiko soro-ertzean egiten genuenaren an-

* *Gabon dut anuntzio*, EFA, Oñati, 1986.

tzeko zerbait-edo adierazi nahi zuena. Mendi artean galdutako baserri zaharkin hartan sua zen Gabongo misterio guztiaren sakramentu eta aldamenean gu inoiz baino argitasun handiagoren barruan errosario, afari eta poz luzean. Aitak eta amak nahi izaten ziguten guri poz eman eta halatsuko giroz eta inguruz ematen ziguten.³⁹

³⁹ *Gabon dut anuntzio*, 24-25. orr.

Gabon problema ere bada niretzat. Egin ezazu barre eta bota ezazu pentsatzen duzuna: Gabon, mutil zaharrentzat ez baina, etxeko ardura dutenentzat dela benetako problema. Ez diozu gezurrik. Zure ekonomiarentzat oraintxe dator hondamena. Inongo errukirik gabe erasoko dizu kontsumo deitu munstroak. Mila haritatik tiratuko dio zure diruari eta akabo zu. Bentajaren bat behar genuen ezkonge eta hain beti inoren menpekook ere. Baina Gabon niretzat ere problema da eta zuretzat doble. Sinestu ez sinestu, hor dago, Gabon-jaien azpirengo oinarri den Jesusen jaiotza delakoa. Eta hor dago gakoa: aintzat hartu ala ez hartu, problema dela Jainkoa, halaber Gabon-misterioa, zeren Jainkorik baldin bada eta delako Jainkoa gizon egin baldin bada, Jainkoarekin tratutan gara, adiskide. Tratutan edo harremanetan. Eta Jainkoa, definizioz da gu ez halakoa edo erabat bestelakoa bai izatean, bai irautean, bai jokabide eta helburuetan. Muestrarako botoi batekin nahikoa dutenetakoa baldin bazara, horra jaiotzan bertan zein bide, zein alderdi hartu duen Jainko gizon eginak: behartsuen klasea aukeratu du bete-betean eta behartsuen sentsibilitate eta ikuspegietatik arituko da ezinbestezkoa den klasearteko borrokan, baina, nahitaezko borroka horretan nola jokatu behar dugun, bere jokabidea jarriz eredutzat. Eta, gizona!, benganza-gogoa, handinahi-irritsa eta tortilari buelta eman nahia besterik ez dugunontzat, haren justizia geure kontra dugun zerbait latza dugula! Haren jarduera beste era batekoa dela eta geure izate eta jokamoduari ehun eta laurogei gradutako bira eman beharrean gaudela.

Eta gure grinena arioari buelterdi hori eman behar baldin badiogu, horixe bai dela problema eta zaila gainera.⁴⁰

⁴⁰ *Gabon dut anuntzio*, 28-29. orr.

ADIO*

Ni Orbelaunen jaio nintzen.

Nire lehenengo mundua, betiko markaturik utzi ninduen, mendi-sail handi bat da, laborarien arazo eta bizimodu eta etxaldez jantzia. Urte bi nituela, edo lehenago, Nabarnizera eramanez ninduten, hango osaba baten etxera. Orduko herri txikien bizigiroa ez zen guztiz gaur ikusten dugunaren antzeko. Nekez irteten zen inor bere herriko mugen esparrutik. Ez zen erraza ere. Orduko bizimoduak soka laburra zuen. Gaur baino gehiago lotzen zuten baserri-lanek. Automobilak bat edo beste zen bakarrik herrixka bakoitzean. Hori asko jota. Oinez behar ziren ibilaldi luzeak egin. Gaur, oster, herri handiei loturik bizi dira auzorik baztertuak ere. Hala ere, lehenago bizimodutik baino, lehenago mentalitate bizi dira urrutiago gaurko baserri-giroko herritxoak. Orduan dena zen herriko, auzoko, aldeko. Urrutiko berririk, noizbait zeozer, eta sekula ere ez gauza zehatzik. Ipuinen giroak inguratzen eta mantentzen zuen haien fantasia. Orain telebista ere badute, badituzte autoak ere, familia bakoitzeko batek edo bik Gernikan egiten du lan; eskolatuagoak dira orain, lehenago aldean askoz gehiago irakurtzen da gaur, irratia sukaldean dute, kortan, eta soroetara ere eramaten dute. Lehen, elkarrengandik hurbilago bizi zen herri txikietakoa jendea: familian hurbilago, lanean hurbi-

* *Adio*, AEF-Elkar, Donostia 2004.

lago, jaietan ere hurbilago. Ez zen jende hila ordukoa! Handiak asmatzen zituen edozein ospakizun zela-eta. Ni neu ere umetan teatroa eginda nago, eta ez behin bakarrik. Esan behar nuena ikastea-ta baino, bizar handiz jantzitako hura neure aitatzat onartzea-ta gehiago kostatzen zitzaidan. Neuri ere ez zitzaidan gustatzen nonbait neure burua besterenez janztea. Aratuste batzuetan lehengusinarene gonak jantzi zizkidaten nahi ala ezean. Nahi ala ezean atera ere egin ninduten etxe aurrera, baina ez zen inor nahi ala ezean neure kontura ibilaraziko ninduenik. Lurrean etzan nintzen, eta auzokoak larrera atera zuen behiak zapalduko ninduen, jaso eta berriz etxera sartu ez banindute. Aratusteen beste akordurik ere badut. Nabarnizko ni bizi nintzen etxeak bi bizitza eta bi balkoi zituen, eta oraintxe ere ikusi egiten ditut, moztuz jantzitako mozolo beldurgarri haiek, ia balkoietaraino ailegatzen. Atseginagoak ziren Santageda batzaileak. Nahiz eta gauzez etorri, atseginagoak ziren. Kantuan zetozen eta farolez eta txilinez eta arranez apaindutako makilaz, eta soinu eta panderoz. Orduko jendeak jai eta sasoi bakoitza ospatzen zuen erromeriaz, pelota partiduz, edotariko probaz, sarritako harrijasotze saioz eta abar. Batzokia ere bazegoen Nabarnizen eta batzokikoek eratzen zituzten gehienbat teatroak, zine-saioak eta abar. Behin Nabarnizko emakume guztiak bildu zituzten antzinako soinekoz jantzita. Mantoien askotarikoak eta soinekoen arrarotasunak ahaztu ezin-eko irudia ezarri zidan akorduan.

Don Nikolas ezagutu nuen nik Nabarnizko parroko. Barre algara handiak jotzen zituen. Zura lantzen zuen etxean. Gurutze ederrik egin zuen. Haren lantegian behin baino gehiagotan sartu nintzen. Bazuen etxean beste gela bat ere nik begi luzez begiratzen nuena. Irudi zahar, ontzi antzinako eta diru berdoxkaz zeukan han armario edo apalategi halako bat. Eta norbaiti erakusten zionean, lehenagoko gauza haien aspaldikotasuna entzuten nuen nik gustura eta tartean jalkitzen zituen istorioak. Baserritarrek ekartzen zizkieten halako gauzak, entzun dudanez. Non ote dira bost urte inguru nituela ikusi nituen ondasun haiek? Don Nikolas bera

hil zen. Makina bat bider ikusi nuen bere ortuan, aitzurrean, alkandora zuri eta praka beltz nasaitan, lanean, inongo sotanarik gabe. Don Nikolasek prestatu ninduen ni lehenengo jaunartzea egiteko, eta bere eskutik hartu nuen lehenengo aldiz Eukaristia.

Gauzok adina itsatsi dut nik neure gomutetan Nabarnizko jai eta eromeria-giroa. Hango parajearen zati ditut, zelaiak zehar ikusten nituen gazte-taldeak, nahiz pandero hutsez, nahiz akordeoiz eromeria zen lekura inguratuz. Gazteak ez ziren eromeria-
ra bakarka joaten, beti taldeetan, kantuz eta soinu. Han eta haien ondoren ikasi nituen nik hainbeste kantu, gero neure idazlanen oinarri izan ditudanak. Alegrantzia handiz bizi zen herrietan; geroztik luzaroan ezagutu izan dugunaren aldean, handia. "Oraingoa baino pobreagoa zen orduko jendea –esaten dit amak-baina bai alegreagoa ere, gero". Familietan, festetan eta abar, asko kantatzen zen, asko dantzatzen, soinu-modu asko entzuten: panderoa, dultzaina, filarmonika, gehienik. Erritmo eta doinu haiek edo haien akordua dut nire poesiaren barru-soinu eragile ta bizian.

Baserri familiako giroa lana zen, bakardadea, mendia, isiltasuna, gauak, ipuinak. Oraindik ere umetako mendiak entzuten ditut Arantzazun, gauetz: "Tzi-tzi-tzi...". Mendia beteta dago zurrumurruz, argiz, ipuinez, misterioz, beldurrez. Mendiko isiltasuna esaten da beti, eta egia da, baina mendikoa isiltasun berezi bat da, gauza harrigarri bete-beterik.

Goizeko ordubietan joaten ginen Orbelaundik behera, aitari txahalen bat eramaten laguntzera. Arratzuko kanposantu ondora atera behar izaten genuen gehienetan txahala. Han uzten genuen aita bere txahalarekin eta gero kanposantu ondoz gora, pinu handi arteko bide luzean zehar, bai kanposantuak ilunpean sortzen duen beldur zirraraz, bai basoan ordu haietan nabarmentzen den edozein zaratatxoz, ileak tente-tente eramaten nituen etxera.

Mendiak eta basoak, iluntasunak, argi-urratzeak, niretzat umetako presentzia daukate beti. Mendi-basoak edo iluna eta argia eta ni ez gara gauza diferente eta aparte. Ni mendi-basoe-

tan, ilunean, argian, barruan sentitzen naiz. Ez dakit nola esan. Orain ez dela sentitzen iruditzen zaidan gauza bat da.

Nik badakit ez naizela arbola bat edo sasi bat edo pauso batzuk gauaren erdian. Baina ezerk ez dit burutik kenduko holako zerbait ere banaizela.

Sarri ibili behar izaten nuen, ilunduta gero, baso-bideak zehar. Gerra inguruko sasoi hartan hobe zen, izan ere, ilunez egin ogitarako, morokiletarako edo talotarako irin garraioa. Esan ziguten astoarekin joanez gero ez zela deabrurik, sorginik eta holakorik agertzen. Ze-ta astoak, aurreko hanken barru aldean gurutzea daukala, eta horregatik. Errotatik etxerakoan astoari buztanetik helduta joaten ginen gauzez. Baina bide-bazterretik mozolo batek ateratzen zuen astrapalada eta mutikoaren sustoa, ez astoaren gurutzeak eta ez gurasoen esplikazio guztiek dute kentzen.

Auzoak be urrun genduzan-eta, jente gitxi inguratzen zan Orbelaun aldera. Gari-ebate ta gari-jotzetarako etortzen zirenez aparte, inguruko basoetara etorren bat edo beste; ijitano bakar batzuk; eskekoren bat, gehienetan Isidrobasto; errekaduren batekin etorrenen bat inoizka; ganadu-tratanteak noizik behin, eta seniderik be ez askotan. Udako domeka-arratsalde batzutan Larrostako aitita etorten jakun eliz funtzinotik etxerakoan. Amagaz-eta kontu batzuk esan, merienda kopau bat egin eta ondoren, Goikogan eta Eperlanda be deitzen deusagun mendi bizkarreraino laguntzen geuntsan aititari eta han eukiten genduzan aititak eta guk geure autuak. Itsasaldea ikusten zan ondo Goikoganetik, dana pinuz jantzi eben arte. Han "aurrean eta urrun ikusten dozuen erreka modukoa, ha ez da erreka", esaten euskun aititak. "Ha, itsasadarra da. Itsasoa handik aurrera eta zabal doa, aurrea eta zabal, urrun be urruneraino halantxik".

Eperlanda hori, oraintxe esan dodana, lehenago sorginkerien lekua ei zan. Gure aitak, amak eta anaiak uzten baeutsen, sorginkontuak be kontetan ebazan. Behin, honako hau esan euskun: "Ba, Eperlandan, behin sorgin-jaia-edo ei zan. Eta euren eleizkizunaren azkenean, aker haundi bateri eperdian musu emon behar

ei eutsen, erlikiei-eta eleizan egiten jaken moduan. Eta han be ba ei zan euren arteko erlikia zan akerrari eperdian musurik emon gura ez eutsonik, eta harek albandorraz bat ei eroian ezkutuan eta zast!, musu egin ordez, albandorraz hori sartu ei eutsan aker horreri eperdiko zilotik eta Jesus ta kedro, ke kulo negro, esan ei eban".

Gure amak ez dau ontzat hartzen sorgin konturik-eta. Baina berak esaten dau zelan behin, aitarik agertzen ez-eta, Elorretara aitaren bila joiala, bidean, hariztian, haretx bateri berba emon eutsan: "Jose, hor zagoz? Jose, zeu zara?". Akaso nor ete zan jakin gura eban ilargiaren argidurak gizon-antza emoten eutson ha, aita ala beste nonor ete zan. Auskalo. Guk halako gauezkoen-eta bildurra bizi genduan sasoi eta mendigiro haretan. Orduan misterio eta bildur-mundu hori erreala zan. Motorren zaratak orain kalean errealak diran letxe. Baina guk hori guztiori bizi-bizi ezagutu genduan etxean.

Amari zera itaundu neutsan behin: ea inoiz entzun izan daben, ba etzeko jauna hil ondoren, ba ganaduei eta erleei ta jaun horren heriotzaren barririk emon izan jakenik. "Esos son tonterías", erantzun eustan siku be siku. Gero beste hau itaundu neutsan: Ta, ama, erlerik saltzen-eta ezagutu izan dozu? "Hori ez -erantzun eustan-, erlerik ez da saltzen, ez erosten. Erleie emon eitten da, edo hartu eitten da, baina ezelango diru-kontu barik".

Gure aitteri adurra egingo jakon erle gauzarik-eta preguntau izan baneutsa. Bera zan ha erlezale, eta etxean be erluntz pila eukan, eta han ibiltzen zan ha benetan ez titten eta erleak pikau be ez eben egiten. Larrostara be berak eroaten eben ez tixe ateratzen eta, "han ibiltten da zuen aitte erliekaz berbeta baten", esaten euskuen Larrostako lehengusuek. Ezti-abauz eta mahats-mordo baltzez eta pozik etorten jakun Larrostaldetik.

Olgetan edo txantxetan ezer esaten eta egiten-edo ez dot ezagutu izan inoiz gure ama. Aita bera be ez, baina gure aita ez zan gure ama bezain serio eta begiratu. Amak ez eban ontzat emoten aitaren berezko eta bat-baterako urtenaldi umore oneko eta sanorik.

Amaren beste urtekera bat ez dot ondino kontatu. Domeka arratsalde baten, arrebak, han agertu jakuzan ezkaratzean, erromeriara joateko prestatuta. Une haretan radioak trikitixa jotzen ziharduan eta aita: "ala, neskak, bertan ein daigun lehenengo dantzaldia", esan eutsen. Eta mahaia eta jarlekuak baztartuta, han egin eben euren dantzaldi hori. Han egoan gure ama beheko subazarrean, ikusten ebana, ikusi baino ez ikusi gurago ebala, eta: "A, Jose –esan eutson–, zu heldu, ez zara inoiz helduko; altuean be zimeldu ta jausi".

Hil be, halantxik hil jaku aita. Gure etxeko konaduak "ha ez zan ez heldu inoiz be, ha gordinik hil zan", esaten dau orain.

Nik neuk, eta gu gehienok, amatara emon dogu: isilak, ezkutu-zaleak, lotsatiak, edo ez dakit ba zelako erreserbadu-haizeko ganean be. Aita, ostera, lagunarteko hutsa genduan, eta lagunartean hazi be egiten zan ha gizajoa. Beti eukan harek bere inguruan nork entzun ugari. Familian bera zan etxeko poza. Feriara beti joaten zan astelehenean eta zera gogoratzen dot: ume nintzanean eta gerra aurretik, goizetan lehenengo biherra bezperan ekarritako bertsoak kantatea ebala. Han eukiko eban egun guztian bere bertso-papel hori, batzuetan berde kolorekoa, bestetzutan moraua edo urdina, aldean ez baeukan, etarteko hormazuloren baten bai behintzat.

Astelehenetan derrior Gernikako feriara joan behar izaten eban. Alperrik etxean biherra biherraren gainean euki. Harizko prakak, abarketa zuriak eta brusa bizkarrera botata, han urrun-tzen jakun etxaburuko kereizen azpian gora, Goikoganera bidez. Halaxe joan zan aittatuko dodan astelehenean be. Udako arratsalde argi eta sargoria, behingo batean ilundu eban arratsaldeburu aidera. Ta horra trumoiak, oinaztua eta euri-truxu, inestasi eta harria bera be. Amak Sanjuan-lorak eta sutako txingarrak talo-burdinean hartu eta etarte-puntan ipini ebazan ketan. "Goazen ezkaratzera eta errosarioa errezau daigun", esan euskun amak. Eta han gengoan agurmariaka harik eta txakurak aita abiau eban arte "Aita badator" esanda, errosarioa bertan behera itzi, eta etarte-puntara urten genduan danok. Brusa ta prakta ta dana gor-

putzari inkauta agertu jakun aita. "Jeseus!", esan eban amak. "Botua egingo neuke", hasi zan aita. "Tira", erantzun eutsan amak, "botuak itzi ta, zatoz erropok aldatzera". "Botua egingo neuke"... ta han galdu ziran eskaileretan gora, "barrien barriz sekula beste inoizko astelehen baten be ez"... "itzi eizuz botuak eta jantzi egizu hau", inotsan amak, eta aita "ez dodala Gernikarik ikusiko", aginduz.

Hurrengo astelehenean amak oso goiz egin eban bere Gernikara osteratxua. Domeka arratsaldean prestatuta eukan bandeja ta, goiz etorri jakun etxera, arratsaldean biherrari gogor ekingo eutselakoan, aita eta biak. Bazkal ostean, eberdiostekoa egitera joan zalakoan, hor nun Gernikarako dana prest agertzen jakun aita hori. Eta "banoa" bera be esan barik, barrero etxaburuko kereizen azpian gora, bere harizko praka, abarketa zuri eta brusa aldean zituela. "Aitak urten egin dau ala?", preguntau euskun amak. "Bai, untxe doa etxaburuan gora". Ama horrek urten eban etartepuntara, ta Goikoganerantz begira: "Ai, sikan bere zorioneko boto hori egiten itzi baneutsa", esan eban.

Bazan gure aita amagaz karinosua. Plaentxiako Julian eta Anjelitagaz sartu besterik ez nintzan egin etxean, eta han agertu jakun aita domekako meza nagusitik bueltakoan. Anjelitak aita ikusi ebaneko "baina bai elegante zagozala, Jose", esan eutsan aitari. Eta amak: "Hori edoze gauzatxogaz jazten da elegante". Aitak hori entzun ebaneko: "Ai, Anastasi, neuk be, hamazortzi urteko ikusten zaitut gero!". "Zer esan dau?". Hamazortzi urteko ikusten zaituala. "Hara!", amak.

Bada 30 urte Arantzazun bizi naizala, baina gustora joaten naz beti be neure jaioterri inguru hartara. Aitaren bidez hartu neutsan gustoa jende hari. Eleizpean, aita beti lagunez inguratuta egoten zan. Gernikan be ezagun eta adiskide asko egin ebazan eta baeukan nork entzunik, batez be Tilo-pasealekura, iloba txikiaren aitzakian andre artean sartzen zanean.

Beti galanterian aita. Bere ustez, baekian andrazkoen barri. Munduko gauzarik ederrentzat be baeukazan andrazkoak, harek;

eta halan begiratzen eutsen eta tratau be halantxik tratetan eban. Andrazkoen musua lakorik ez egoen harentzako. Dana beratzen zan orduan eta bizkar guztitik zehar pasatzen eutsen bere esku zuri ta fina eta eperdietan txalo bat edo beste be emon egiten eutsen, dana halantxik egin behar ebalakoan. Nork ezer erasotzen baeutsan "nik badakit zer gustetan jaken baina" erantzuten eban. Soziedadera joateko zain eukiten eban sarri hurrean bizi eban andraren bat edo beste, ta holakoetan, ama balkoitik begira eukala konturatzen bazan, laister botako eutsan besoa bizkarrean zehar itxaroten eukanari, amari ernegatu eragitearren. "Ikusten dozue hori?" esaten eban amak. "Lotsaren apurrik be ez dauka baina; lotsaren apurrik bez!". Telebistan be ez eban aukerarik galtzen; ez egoen gona laburren kontra. Burua apur bat makurtuta be begiratzen eban pantailara. "Ze, aitte –erasoten eutsan gure koinatuak–, hori be libre da ala?". "Zer ba? Badauka ezer txarrrik ala? Beste ezer ederragorik eta hoberik ikusi be egin leike ala? Edertasuna estimatzea ona ez bada, badago ba ona dan beste ezertxu?".

Kontularia zan aparta. Asko irakurten eban etxeko senide bat, aitak "guzurrak kontatzen ebazala-ta", etortzen jakun. Niri amurrua emoten eustan. Ze, halako juezak ez daki zer dan guzur bat eta zer dan ipuina. Gure aitak ipuinak kontetan ebazan, ez guzurrak. Behin martxa hartu ezkerre, asmau egiten ebazan, krea, eta jendeak zoratuta entzuten eutsan. Ha nobelista zan, antzinako nobelista horreetakoa.

Ni, nahiz baserritarra izan eta sensibilitatearen aldetik beti ere baserritar jarraitu, Arantzazuko prailea naiz ia neure bizi guttitan. Nire mundua Nabarniz eta Arantzazuren artean dago.⁴¹

⁴¹ *Adio*, 27-36. orr.

Oi zenbat alferriko sentimendu! Oi zenbat alferriko maitasun!
Oi zenbat usmo erdiragarri ta gozo! Beste milaka eta milaka
erromes bezala, hementxe igaro zineten. Zu mutil garratz zinen;
zu mutikote trinkoa; zu gizon heldu, zu aitona zainart; zu orain-
dik urne. Zenbat urte dira hemendik igaro zinetela? Bada bos-
tehun urte Arantzazuk jendeari deitzen diola.

Zu ere mendiz etorri zinen. Nondik ba bestela garai hartan?
Zenbat zarete mendiz mendi bideok zeharkatu dituzuen emaku-
mezkoak? Nexkato zinen lehenengo aldiz hemendik igaro zine-
nean; zu neskatila pertxenta zinen; zu neska perkatx eta per-
kantina; zu zenbait umeren ama arduratu; zu alarguntsa zerbait
beligardatu. Ortozik asko, bideok zeuok sakondu zenituzten,
zeuon oinatzez idatzi, zeuon bizikizunez hunkitu. Ondo bide
sakonik bada Arantzazura, aldapa bakoitzean zehar arnasa
halakoz ondo beterik. Oi zenbat zuen bularretako sentimendu
eder; zenbat tristura gozo; zenbat itxaropen; zenbat antsia luze;
zenbat gogo zazpi koloretako! Zein argi niretzat, zein bero
oraindik, zein berri!

Pausoa pixka bat azkartuz gero, zeuokin bat egin behar duda-
la iruditzen zait, eta, noizbaitzutan, zeuokin betera noala.

Han-hemen pagoak ditu aldamenetan bide honek oraindik.
Mendien isla ez da ordutik hona asko aldatu. Ez eta zuengandik
niganainoko jende nekazari, behargin eta lauaren sentimodurik
ere.

Gertakari arruntez mintzo zineten: giroen gorabeheraz; labo-
reen egoeraz; ganaduen osasun eta osagarritz, ezagun-jendearen
sasoi onez edota gaixoz; norbaiten heriotzaz; urlia eta sandiaren
arteko adiskidetasunaz ala haserreaz; auskalo zein parajetan ger-
tatu-edo omen denaz; halako neska-mutilen ez dakit noizko ibile-
ra lotsa gutxikoz; berendiaren erbesteratzeaz eta abar.

Bidea luzea baitzen eta erromerian baitzentozten, bazen erro-
rriorik errezatzen zuenik ere. Alboka-jotzaileek oraindik oraintsu
arte iraun dute agian zuen parajeetako auzo bazterretan ere. Eza-
gun zenituzten bide inguruetako iturriak, bazenituzten apa-

txaldiak egiteko zelaiune jakinak. Zeuok bezala ikusten ditut mendiotako hainbat eta hainbat harrobetan hareharri-harkaitzak palankaz zulatuz eta harmailuz harri-mokorrak landuz diharduten hargin gogorak. Egurgile eta ikazkin-jendea ere, han eta harantzago, hor ari da; aizkolotsak salatzen ditu eta baba beltz eta txondorak egosten ari dituen suaren keak. Zeuok bezala ikusten ditut Araba aldera nahiz Gipuzkoarantz harri-garraioan ari diren itzainak ere. Bada idi-uztarririk inguruotan! Aida-hotsak entzuten ditut eta gurdien kirrinka. Gehienek osterera leraz ari dute beren harri-lorra eta astoz ikatz-garraioa. Gebarako jaunaren jende harroa ikustea ère gertatu zaigu, bere zaldi eta mando apainduz. Haiek Onatirantz zihoazen.

Biurgaineko, Artasoko eta Gaillardiko trikuharriak hondatu-xeago daude orain, Andreatz eta Urbiakoak ere bai. Sekillagako Mugarriaundixa lurrera bota zuten berriz azken gerrakoan. Han datza bere bost metroz gorako luzean, etzanik. Sanadrian, Katabera, Zurkutz eta Sanjuanzarreko bideek ez dute nire akorduan auzolanik ezagutu. Etenak bai. Alimaleko basurde burdinazko eskergek uxartu dituzte mendiok, lehengo galtzada, mandabide, estrata, gurpide ta bidezidorrak hautsiz, eta mendi-malda guztietan, zeharka-meharka, urratu zabalak irekiz, idirik eta tirakalari-rik gabe, beren baitako indarrez ibiltzen diren itzelezko gurditzar mortal, urrumatsu eta azkarrentzat.

Harriurdineko Ama Birjinaren jarlekuan eseri naiz pixka batean eta Arantzazurantz abiatu naiz Goierri aldeari begiratu bat eman ondoren. Biozkornako meazuloetan ziharduten gizonak ere ikusi eta agurtu ditut. Gizajoez ez dute horiek ere, harkaitz arteko txabola baju eta estu horietan, Otzaurte aldeko ikazkinek eta Gaboñomendi aldamenetako harginek beren txosnetan baino erosotasun handiagorik izango.

Ama Birjinaren iturrian ura edan dugu. Ur hau beti egoten da hotza. Mailatik behera antzean Anboto eta Udalaitz ikusi ditugu eta Gorgomendi. Inork aipatu gabe ere Anbotoko Senorarenak burutaratu zaizkigu, handik Gorgomendira bai baitaki aldatzen,

ekaitz eta harri-zaparradak sortuz. Santa Maria, gaitzezkoengandik libra gaitzazu, amen, esan dugu geurekiko.

Mendibideotan barrena, gaurko jendeak ahaztu edo ikasi ez duen noizbaiteko zuen ibilaldi-giroa berpiztuz, oi zenbat gozatu ohi naizen, alferriko sentimenduz eta maitasunez bada ere!⁴²

⁴² *Adio*, 47-50. orr.

Ez noa ni neure poetikaren azalpenik egitera. Lehenengo neuk dakidan poetikarik eduki ere ez daukadalako, Nabarnizko nire jendeari ikasi niona ez bada, eta gero poetika, mugimendua bezala, ibiltzeak berak esplikatzen duelako, eta ez beste ezerk. Dena dela, idazten duenak behin eta berriro gogoetak egin behar izaten ditu zer ari den, zer egin nahi duen, egiten duenak zein sentidu duen, daraman orientazioa bide onetik ote doan eta abar eta abar.

Gauzak eta hitza, diferenteak dira. Nik zerbait nahi izan badut, nire hitza beti gauzen artean, ahalik eta gauzei berdinenan izan zedila izan da.⁴³

⁴³ *Adio*, 73. or.

Behin baten, bere buruaren kontzientzia ukan zuen ipuin batek. Pertsona sentitu zen ipuina. Bere baitako ikuskizunak erakarri zituen ipuinaren begiak, eta bere barrura begira jarri zen berehala. Ispilu halakotan islatzen zitzaizkion kolkoaren barruko aldetik bere kontzientzia anekdotaz, historiaz, pasadizoz-eta ornatu, markatu, eratu, landu zuten aldi desberdinak.

Eta ipuinak ume izan zela ikusi zuen, gurasoak ukan zituela, eskolara izan zela, kolejioko eskurtsioetan ibili zela, etsaminetan kalabazak ukan zituela eta abar.

Oroitzapen pozgarriak akordu negargarriz aldizkatzen zitzaizkion.

Ipuina bere buruaren kontzientziaraino jaitsi zen eta haren erdi-erdian eseri. Kontzientzia-buelta guztian zituen irudiek inguratzen zuten. Irudi haiek ez zuten jadanik zaratarik bizi. Isilik eta elkarri begira zeuden eta batak bestearengan koadrotako fondo halako zerbait egiten zuen. Irudiak iruditan barrentzen ziren nolabait, batak bestea nolarebait islatuz. Begiz ikusten zuen denborak gaineratu zion gertaera ororen akordua. Boligrafoa eta papera hartu zituen ipuinak eta ohar batzuk apuntatzen hasi zen:

"Denbora pasatua edo iragan aldia gauaren antzekoa da. Norbere etxez kanpo utzi dugun gauaren antzekoa. Gauzak hantxe daude. Batzuk ilargitako arbolak bezala, zeruaren kontra islatzen den mendi-lerroa bezala, argiak pizturik dagoen hiri bat bezala, ilargi eta izar bezala daude iraganaren kolkoan norberari gertatu zaizkion zenbait gauza; eta beste zenbait, gaua iluntzen duen hauts mehe ta beltza bezala, ikuspegi guztietan zehar itzal handia barrenduz.

Oraina da bakarrik denboraren barruan egun. Oraina berriz gauaren makina handian geratu gabe sartuz doan hede oso zabal, luze eta geratuezina halakoa-edo da. Proiektzio-gela ilunean, karrete ikaragarri handi batean kiribilduz doan zinemaskope film zinta bezalatsukoa. Oraina joan doan proiektzio bat da, historia

luze baten proiektzioz, ikusten ez dugun beste karrete handi bate-
tik sortuz doa aldi bakoitzean ikusiz goazen zinta ere. Pelikula
horretan goaz gaurtik atzora, atzotik herenegunera, ta herenegu-
netik heregunagora".⁴⁴

⁴⁴ *Adio*, 82-83. orr.

Odol eta neke arteko Euskal Herri batean tokatu zaigu bizitza.

Euskal Herria borroka handi batean sartuta dabil eta ni euskaldun bezala, jende pobrearen seme bezala, eta frantziskano bezala, borroka horren barru-barruan sentitzen naiz, ez dut kanpoan geratu nahi.

Indar gogorrek dabilta. Frantziskanoa eta poeta, eta ni naitzen gizona ere, maitasuna eta bakea, eguzkiaren argia anaiei ekartzeko dago. Lan zail bat borroka honen erauntsi artean.

Ahal dudan neurrian bizi nahi duen nire lurrari, nire herriari, nire aportazioa eman nahi nioke. Pobretasunean alaitzen irakatsi, bizitza maitatzen, eguneroko lantxo apaletan, zalantzetan, ahultasunetan, ametsetan, guztion mixerietan, halare desanimatu gabe jarraitzeko. Gauza txikiak egiten ditugu denok. Gauza handiak egiten omen dituztenak ez dira nire jendea, nire herria.

Gure existentzia txiroa da, malkardi, paraje pobrearen deskribizioa. Baina dena, inguru guztia haziz beteta dago. Harri bakoitzaren azpian, edozein haritz zaharren adar elkorretan, haurraren irribarrean eta xaharraren begirada geldian, hil duten gaztearen heriotza absurdoan, protestaz pintatutako horma zikinetan, gure poesia nekagarrian bertan, dena haziz beteta dago, udaberriaren zain dagoen zelaia bezala.⁴⁵

⁴⁵ *Adio*, 131-132. orr.

BIZIMINEZ*

I noiz tentaziorik izan badut, bidez bideko izatearena izan dut. Bada nire lagunik nire gogo zahar honen berri dakienik. Oilo larrekoiazen zoriak lotu izan nau, baina, beti hankaren batetik. Beti nire gogo aurrera eramateko aurkitu izan naiz oilo. Nire bidezaletasunak Euskal Herria zuen ametsetako arlo, eta ipuin, ohitura, esaera eta jasokizun lilurazko. Orain jadanik akabo, gagnetetasuna eta izandako kemenak ere hustutzen baitihoazkit. Baina, nire beste lagun nagusiek baleritzote, oraindik material asko karreatuko nukeela iruditzen zait. Baina orain, inoizko askatuen aurkitzen naizenez, nahiz eta Euskal Herrian ez, nahiz eta gure lurrintzen doan eskuratu gabeko kultura ondareen bila ez, jendearen ondoren abiatu naiz Madrileko kalez, jendetasunaren ezagupena gehitu nahiez.⁴⁶

* *Biziminez (Poema argitaragabeak)*, AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005.

⁴⁶ *Biziminez*, 60. or.

Asko dira egin ditugunak. Asko dira oraindik egin nahiko genituzkeenak. Asko dira. Asko dira, gauzak egin beharrez, presaz edo haserrez egin ditugunak. Merezi al zuen triski-trauska eta egin genuenarentzako begiramenik gabe, egin genituen gauza haiek egiteak? Gauzak egiteko afanari, ala gauzak egiteari berari begiratu behar genioke batez ere? Asko egitearen gaitzak erabili gaitu gehienbat. Egin. Luberriketan bezala aritu gara gogor. Eta batek badaki luberriketa zer den: otatza eta luban garbitu, hondeatu eta soro bihurtzen aritua baita Goikoganen. Artoa garauntzeko zaku baten sartzen genituen artaburuak, lotzen genuen zakua eta gero zokorrak jotzeko mazuz eman ahalak ematen genizkion zakuari eta artean "emon, emon", entzuten genuen aldamenetik: "Emon, amaren burua be ez da-ta". Eta gauzak egin egiten ikasi genuen, baina ez gauzak begiramenduz eta ongi-nahiz egiten. Gauzak egin egin behar ziren, egiten zenarekiko tratua kontuan hartu gabe. Eta zenbat ez ote dugu egin, egiteko makina baino gehiago ez bagina legez, hotz-hotzean eta gogor, esku artean genuen eginkizunari makinak baino bihotz gehiagoz begiratu gabe. Gogorrean ohituta egon bat, esaten dugu, gogorrena egitean ere makina huts baino besterik ez bagina legez, pertsona garela kontuan erabili gabe, maitasuna ezkutatzeak gizonago egingo bagintu bezala.⁴⁷

⁴⁷ *Biziminez*, 67. or.

Ttirritta izena aukeratu dut, eta ez txirrita, gaztelerazko *cigarr*a adierazteko. Txirrita izena Jose Manuel Lujanbio Retegi bertsolari handienarentzako utzi nahi dut. Nik intsektuaren izena eramán nahi dut, udako berotan kantu txirriti eta *tehenta* kantatzen duen harena. Nik ttirrittaren antzeratsuko izan nahi dut, aurrerantzean, kantari jarein eta iraupentsua.

Ohizko bizimodu zeregintsuari ihes egin nahi diot, inurriak gorabehera –aspertu naiz inurri izatez–, ez dut pilatzaile-lanik egin nahi, ttirritta bezala, irabazirik gabeko kantari oparotsu izan nahi dut. Ez dut izan nahi euli, "ezer onik egin ez eta besteen lana alferrik galtzen dutenatarikoa". *S.B.L.M.*⁴⁸ Eulia eta ttirritta bereizten dakitenengandik jaso beharko dut zimiko zorrotzik.

"Pikondoan bizi zen ttirritta eta sarri kantatzen zuen jardun barez. Onez onean beregana deitu zion behin (Frantzisko) Aita dohatsuak eta eskua harengana luzatu eta esan zion: *Ene arreba ttirritta hori, zatozkit*. Berehala jarri zitzaion ttirritta eskuetan. Eta hark esan: *Kanta, ene arreba ttirritta horrek, eta gorets ezazu poz-dardaraz Jauna, zure Kreatzailea*. Esaneko, bertan jarri zen ttirritta kantuan, eta ez zen isildu harik eta Jainkoaren gizonak, haren kantuari bere gorespina lotuz, egon ohi zen lekura itzul zedila agindu zion arte" (2 Cel., 171)⁴⁹.

Bizitza guztian nahi izan dut ttirritta izan, baina, jaio orduko hartu nuen hezierari jarraiki, inurri bizimodua egin dut bizitzako hirurogei urteotan. Hala ere nik uste dut izatez eta jitez naizenera behar dudala itzuli, beranduari eta esperientzia berriaren arriskuari etsipenez edo beldurrez begiratu gabe. Ausardia handia beharko dut hartutako erabakia aurrera ateratzeko. Lehenengo, inurri itxura eman dut orain artean, inurri itxura ematen saiatu naiz behintzat. Gero, inurri-pentsamoldea duen jendartean bertan

⁴⁸ [San Bonabenturak idatzitako *Legenda Maior*, San Frantzisko Asiskoaren biografia.]

⁴⁹ [Tomas Zelanok idatzitako *Bigarren bizitza*, San Frantziskoren gainean.]

jarraitu gura dut, ahal izatera, eta denen aurrean aitortu eta bizi izatera eramán ttirritta izateko nere gogo eta erabakia. Inurrien mundu honetan asko jaxten du bat eginkizun eta arazo hauetan burubelarri sartuta nabil esateak. Probetxuzko gizontzat jotzen du halakoa edonork, eta poza ematen du halakotzat hartu izateak. Alderantziz, berriz, nork agertu behar du inoren aurrean, berak ez duela ez egiteko bereizirik, ez lan-modu jakinik, erantzunaz? Seguruenik ez diote esango, baina gizajo ikusiko dute halakoa, haurrek berek ere. Ttirritta, ostera, ez da gizajo, ez errukarri. Ttirritta izate modu bat da, aritze modu bat, agertze modu bat, bokazio bat eta erabaki bat. Ttirritak badu, mundu honetan, betekizun bat ere: "Kanta, ene arreba, ttirritta horrek, eta gorets esazu poz-dardaraz Jauna, zure Kreatzailea", esan zion Frantzisko Aita dohatsuak ttirritari. Pikondoan bizi zen ttirritta. Pikondoan bizitzeak, mundu honetako errealitateetik at bizitzea adieraz lezake. Gaztelerazko esaeraren dundurioak horretara eramán gintzake.

Ez dugu alferrik galduko bururapena. Mundu honetako errealitateetik at? Zer da mundu honetako errealitatea? Zer jan, zer jantzi eta non aterpetu arazoak? Bizitzari ezinbestekoak zaizkion baliabide estuak? Bai. Horiek eta beste. Izateari premiazko ez ezik, onuragarri eta eder zaizkion guztiak: jaiak, artea, astiunea eta abar ere bai. Errealitateari nondik eta nola begiratzen diogunak, zerikusi handia du, zerbait edo norbait errealitatearen kanpoan ala barruan dagoen erabakitzean. Lehenengo eta behin, nor da errealitate erabatekoan bizi dena? Nor ikuspuntu erabat egiazkoa duena? Gehiengoaren iritzi eta jokabidea ote da errealitatearen *esanahia* definitzen eta argitzen duena? Era batean bai, berori ere errealitatearen zati delako. Gertatzen dena, ematen dena, ikusten dena, hori baita errealitate. Baina ez errealitate guzti eta bakarra. Errealitatea ezin erabaki daiteke demokratikoki. Demokrazia gehiengoak ezartzen du, baina gutxiengoaren presentzia eta jokaera ere errealitate dira. Eta gutxiengoarena ez ezik giza-banakoarena ere bai. Pikondoan bizitzea, gutxiren aukera nahiz

halabeharra dela, gertatu egiten denez gero, errealitate da, eta izan badena ez dago bere buruz kanpo. Pikondoa aukera bat da, ikusmira bat, jarrera eta egongune bat. Beste era batzuetako in-tsekuen artean ttirittak pikondoa hautatu zuen bere talaiatarako.

Eta nik ttirritta neure eredutarako.⁵⁰

⁵⁰ *Biziminez*, 76-78. orr.

Gua iristen zenerako nekatuta aurkitzen zen. Ez zuen beste edozein langilek baino lan gutxiagorik egiten, baina ez zen honetan poztutzen. Zerbait gehiago egin nahi izaten zuen. Zerbait idatzi, esate baterako. Eta hasi hasten zen baina ez zitzaion ezer taxuzkorik ateratzen. Aurpegian markatu zitzaion bere arimako kontentaezinaren zinua. Bera ere oroitu zen horrekin, zahartzen zihoala iruditzen zitzaion, azkar batean zahartzen zihoala, eta horrek berorrek ere larritu egiten zuen. Bizitza ihes zihoakion ongi ohartzen zelarik nola ihes zihoakion. Erlojuaren segundo bakoitzak estutzen zuen, estazioko tren bakoitzaren irteteak, aurrera zihoan edozer gauzak. Egun batean harekin trikitx egin nuen eta gertatzen zitzaiona konta zezala esan nion, ezer bukatzen ez bazuen ere gizakera baten testimonio bat izango zela-ta. Horrek poztu bide zuen eta harrezkero idazten zuen idazlan bakoitza etorria bukatzen zitzaion pasaje hartan bukatuta ere, osorik zegoela iruditu zitzaion.⁵¹

⁵¹ *Biziminez*, 140. or.

EUSKALMINEZ*

Arantzazun dago nire lana eta bizilekua. Arantzazu santutegi eta bakarleku duzu. Andre Mariaren irudi zahar baten inguruan sortu eta hazi da Arantzazu. Bada bostehun urtez gora, Euskal Herriarentzat fraide komentu handi eta arrunt baino zerbait gehiago dela. Andre Mariaren irudi zaharrak erakarmen handia izan du alde batetik; bestetik, berriz, fraideak izan dira erromesarekin hitz egin dutenak. Arantzazu, ardatz eragile bat izan da Euskal Herrian. Euskal Herriaren barruz barru aritu den ardatza, Arantzazuri buruzko erromantze bilduma bera bakarrik ere nahi-koa da diodana egiaztatzeko.

Jende euskaldunak eragin dio Arantzazuri, jende euskalduna izan baita gehienik Arantzazura hurbildu dena. Jende euskaldun horri bere hizkuntzan erantzun behar izan dio Arantzazuko fraideak. Entzun eta erantzun. Euskaldun jende horren berri sakona izan du Arantzazuko fraideak. Jende horren izaera ezagutu du, jende horren nahi, bizimodu, aiurri, ezin eta pobretasun sakona ezagutu du, eta jende horrentzat bizitzera beharturik aurkitu da historiako trantze bakoitzean zehar. Jende horren hizkuntza hain apalarekiko izan duen arreta bera, ez da izan makala. Tradizio horretan, gure belaunaldiak ezagutu duen katemaila, Salbatore

* *Euskalminez (Poema argitaragabeak)*, AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005.

Mitxelena izan genuen. Poeta, historiagile, saiolari. Tradizio honek badu egun ere exponente ederrik gure Aita Villasanterengan. Nor bakoitzaren sentsibilitate, gustu eta joeraz kanpo, eta euskara landuz etxe honetan etorri den gizaldiz gizaldiko zaletasun-abiaduraz gainetik, Arantzazura hurbildu den jendea izan da, hemengo euskaltzaletasunari etengabe eragin diona. Niri behintzat jende hori zait benetan eragile izan.

Eliza-osteratxoa egin ondoren eta inguruak begiratu, edozein baztertxo aukeratu du jende horrek bere bazkari-legetxoa egiteko, eta han daude, hizketan baino isilik, jaki-pardeltxoaren inguruan, isilik eta jaten, noizbehinka zerbait diotela, euskaraz isilik hiz egin behar bailitzan. Kolpean ezagutzen dut usadio zaharreko euskaldun taldea. Erdaldun jendea, edota erdaraz ari dena, altu-altuka mintzatzen da, solteago mugitzen da, abarrots handiagoz da nabarmentzen. Ez du beldurrik, seguru sentitzen da, inguruaren jabe da. Beldurra holako kokildurak lotzen du euskalduna, oso seguru sentituko ez balitz bezala ageri da, paraje arrotzean aurkituko balitz bezala. Gizaldietako menpetasuna, agian mendeetako, nabari zaio, setiatutako ehiza ikaratu adina ez bada ere, abere bildu eta uzkurra dirudi gizajoak. Euskaldun hutsa izateak halako bajutasun lotsagarria balu bezala. Jende horren umiltasunak irabazi nau ni, jende hau zait nagusitu sentipenaren sustraie-taraino.⁵²

⁵² *Euskalminez*, 63-64. orr.

Hasieran, bazen Euskal eta bazen Herri. Jakina, hori Euskal Herriaren hasieran zen, ez lehenago, baina inork ez daki noizkoak diren ez Euskal eta ez Herri. Are gutxiago daki inork noren seme direnik; sabelkide bai, badirudi sabelkide direna, eta, itxura denez, Esau eta Jakob bezala bata bestearen hankari helduta jaio ziren. Nor jaio zen ordea lehenengo eta nor lehenengo jaio zenari hankatik helduta? Dirudienez Euskal jaio zen lehenengo eta Herri ondoren. Orduan Euskal Esaturen antzeko da eta Herri Jakoben antzeko. Guztiok dakigu Esau zela lehenseme, amaren sabeletik argitara irteten lehenago izan zelako eta horregatik zegokion Isaak bere aitaren ondasunen oinordeko nagusi izatea; baina halako baten, dilista edo lenteja-platerkada baten truke, Jakobi saldu zion Esauk bere oinordekotza. Euskalek beste horrenbeste egin bide izan du Herriarekin, bere nagusitza saldu bide izan dio Herriari, dilista-platerkada baten truke, eta Herri geratu da Euskali zegokion ondasun eta ekonomia guztiarekin.⁵³

⁵³ *Euskalminez*, 85. or.

Herriaren aurrera agertzean
lotsa sentitzen dut
eta esker ona.

-Zer dela-ta lotsa?

-Herriarekiko zordun ikusten dudalako neure burua.

-Zertan zordun?

-Ontasunean batik bat.

Gure Herria ona da. Gizaldiz gizaldi landu du ontasuna jadanik berez-berez on izateraino. Herritik nigana berez zetorren ontasun hori hartu ez dudalako bi aldiz natzaio zordun ni neure Herriari, eta lotsa dut sentitzen Herriaren aurrean.

Gure Herria ona dela agertzeko, gure Herriaren esker oneko izatea da nahikoa. Hutsagatik da esker oneko gure Herria. Edozein huskeria du esker onez hartzen, sustantziazko gauzarik zor ez balitzaio bezala. Gure Herria negargarri esker oneko da, negargarri ona delako. Eta negar eginarazten dio bati erantzun hoberik eman ez diolako, lukurra izan zaiolako, asti-uneetako apurra besterik eman ez diolako.

Aspaldikoa dut nik neure Herriarekiko zorraren kontzientzia. Noiz nuen idatzi "Nik Herriari zor diodala Herritik hartu dudana"? Eta hona hemen ni, asko hartu ta gutxi eman, gutxi eman eta asko hartzen.

Herriari itzuli diodan apurragatik

Herriaren esker ona hartzen.

Egia esan, gizagaixo izateraino ona den gure Herriari ezeren zorrik nionik ohartu orduko bizitzako sasoirik onena igarorik nuen.

Egia esan, gauza ere ez naiz Herriari zor diodanik ordaintzeko.

Baina egia esan, banaiz gauza Herriarekiko esker ona sentitzeko eta herriarekiko esker ona sentitzen dudala aldarrikatzeko eta Herriarekiko zorraz oraindik ohartu ez denari deiadar egiteko:

Hik Herriari zor diokela,

Herritik hartu dukana.⁵⁴

⁵⁴ *Euskalminez*, 141-142. orr.

IZADIMINEZ*

A diskideok: Ez dut Elgea-Gaboño mendikatea maite-maite dudala azaldu beharrik. Ibili ahal izan nintzenean oinazealdien gozagarri izan nuen eta orain begiraden gozamen dut. Lastimarik, jendeak ahaztuegi edo bertan behera utziegi izan duela esango nuke. Erraz erre dira larre sailak, pago sailak, erraz utzi dira bideak galtzen, nork oroitzen ditu harrobien izenak eta beste hainbeste gauza jakingarri, estimagarri eta erakargarri?

Orain zentral eolikoek problema dator. Jakina, txorimalo jiggante horien siluetarik ikusi nahi ez nukeena. Baina, zer egin horretan ere aurea hartu badigute? Ba ote dago ganorazko arrazoibiderik mamuotatik gailurrok salba ditzakeenik? Mendigainok haize erroten hegal zoroen parke izatetik libra ditzakeen argudio dexente samarrik? Mendikate horren profil betikoa edo naturala zuzenbidez salba ahal baledi, orduan, ni debatearen alde.⁵⁵

* *Izadiminez (Poema argitaragabeak)*, AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005.

⁵⁵ *Izadiminez*, 39. or.

AMETS BATEN KRONIKA

San Juan bezperako gau beranduan fraideak ez zuen ohean ez gorputzik sosegatzen ez oroitzapenik menperatzen. Gorputzak ezin zion gustuko posturarik hartu eta akorduz akordu zebilkion gogoramena, buru belarri bizi izandako eszenak eta eszenak bekokian proiektatuz, denak ere argi bizi egiz. Asaldata zegoen, nerbioak lar bihurri eta aztoratuak bezala zebilzkion gorputz guztian eta ez zegoen oroitzapenen pantaila itxungiko zionik.

Bestetan baino askoz beranduago oheratua zen. Azkenengo suaren hondarrak itzali zirenean ia. Gomistegikoek piztu zuten lehenengo San Juan sua, gero Goikobentakoek, Sindikakoek. Aizkirrikoek lehenago piztu zuten Zelaizabalgoek baino. Seminarioan ez zen surik piztu. Urteak ziren jada Seminarioan San Juan bezperako surik pizten ez zela. Komentuan, Sindikarantz dagoen arroan, Fr. Anjelek berak piztuko zuen azkenengo San Juan sua orain baino urte batzuk eta kilo batzuk gutxiago zituenean eta oraindik osasun aitzakiarik ezagutzen ez zuen aldi sasoitsu hartan.

Fraiderik gehienek, seguru asko, ez zuten San Juan bezperako suaren akordurik ere. Fr. Luisek bai. Fr. Luis, urteetan aurre-ra zihoan arren, urtero joaten zen Goikobentakoek pizten zuten suaren inguru nahiko jendetsu eta alaira. Anjel, afalostean, eguna noizbait iluntzen hasi zenean, Seminarioko gorengo terrazara igo zen, bakarrik eta soseguz, zazpigarren solairuko begiraleku paregabe hartara. Yoni izan zuen urte askotan San Juan bezperako ikuskizunaren kontenplazio eta solas lagun. Yoni eta bien artean eskuz esku edaten zuten egokiera horretarako gordeta eta ondo freskaturik eraman ohi zuen Getariako txakolin botila. Azken urteotan akorduan baino ez zuen Yonirik, ordea. Yoni destinoz beste konbentu batean bizi zen. Orain berak bakarrik ikusten du San Juan suen ikuskaria, bakarrik hitz egiten du eta bakarrik edaten txakolin botila osoa. Orain ez du nori kontaturik umetan eta baserri bakartian zelan prestatzen zuten San Juan

sua: egunak lehenago nola bide ertzetako sasiak ebakitzen zituen aitak eta guk nola etxaburuko soro goenean pilatzen genituen sasi, albitz, arkasatz eta saskara, eta egiten genituen poz handiz eginkizunok eta nola egoten ginan luze etsita, bai San Juan bezpera bera, eta bai sua pizteko ordua. Aitak piztutzen eban sua. Ordua baino lehenago, seguru, eta genkizanak esan eta kantatzen hasten ginan:

*San Juan, San Juan
soloetan,
artoetan ta garietan.
Sorginak erre,
lapurrak ihesi,
gora, San Juan.*

Aitak beti esaten ebazan gauza berriak eta politak. Bere moduko musikak eta bere moduko bertsoak erabiltzen ebazan (gutxi gorabehera, holakoak edo):

*Suak sasiak eta
bedar txarrak garbitu.
Suak argitu eta
pozez beteten gaitu.
Kanpoak Sanjuanek
bedeinkatuko ditu.*

Eta beste halako:

*Gaur San Joan bizpera,
bihar barriz San Juan.
Poza saltoka dabil
egunokaz munduan
geu bere gagoz
sekulako moduan.*

*San Juan eguneko
goiz-sentiko iruntza,
harexek osatzen dau
gatxetatik gorputza.
San Juanek deiskula
bihar dogun laguntza.*

Yonik gustura entzuten zizkidan kontuok eta nik zirenei eta zitezkeenei zabaltzen nien ataka eta, banekienez gure aitarenak zer zitzaizkion atsegin, ba, ahoa zabaldu eta bota egiten nizkion aitarenak zitezkeela iruditzen zitzaizkidanak eta han jartzen nuen aita etxaburuko soro goeneko San Juan su –sutxu?– haren aurrean eta gu –nortzuk ote ginen?– gehienez ere hiru kakanarruon ondoan, bereak izan zitezkeenak, hori bai, bereak izan zitezkeenak kantatzen. Seminarioko terrazak memoriarik balu, zenbait aitarena izan zitezkeen bertso ez ote luke gogoratuko! Yonik hori badaki. Bazekien Yonik zer zen niretzako San Juan bezpera. Iku-si egiten zuen Yonik aldatu edo egiten nintzela San Juan bezperan, nintzena baino askoz gehiago egiten nintzela, hazi edo; behar bada gehitu egiten nintzela naturarekiko sentiberatasun eta haren-gandiko gertakari naturalen ulerkuntzan, eta areagotu egiten nintzela lurretiko sentikariak hautematen eta berauen adierazpenean. Lurrarekin eta bere inguruarekin hartu-eman handian jartzen nintzela, sustraiak nituela oinetan, intxaurrenondoak bezalako sustrai luze bat bezalakoa nuela lurrean sakon ere sakon sartua eta pagoak bezala nituela hogeit hamar sustrai zabalean itsatsiak lur lurrari eta intxaurrenondo edo pago mardulenaren adaburua bezala hedatzen nintzela airean, zeru-lurren emanazioei adi, eta nik orduan aitarenak egiten nituen.

Zenbat holako entzun ete deustaz Yonik urtea joan urtea etorri! Izan be neurez berbaldun txikia izan arren akorduen ontziak irakiten deustanean geratu bako esan beharrak izaten dotaz. Yoni akordu bat besterik ez dot orain hementxe, terraza altu honetan, bestela erreparatu eragingo neuskio Aizkirrikoen suak onenak

emanik dituela, eta Gomistegikoak eta Zelaizabalgoak. Goikobentakoek sardagaz dihardue ertzetan geratu diran adar eta sasi kondoak erdiko txingartzara botaten. Julian izan behar dau sardagaz dabilena. Momentu baten harrotu da sua eta luzatu ditu garrak, baina laster apaldu da.⁵⁶

⁵⁶ *Izadiminez*, 112-115. orr.

JAINKOMINEZ*

Jauna, hemen natorkizu
Jasoi bateko orri guztiak galdu dituen arbola bezala.
Ilusio guztiak galdu ditut ja.
Ez dut madarikatzen lehengo orririk, lehengo ilusiorik, lehengo hegorik. Lagungarri izan nituen eta zoriontsu egin ninduten. Errealitatearen haizeak eraman dizkit, errealitatearen haizeak biluztu nau. Hauxe da nire egungo errealitatea, nire abar eta gerri gorriok. Beharbada goroldio pixka batek estaltzen nau oraindik ipar aldetik. Zenbat eta eguna argiago den orduan eta markatua-go ageri da nire zilueta. Nire besoak zugana jasorik ageri dira, nire begiak zeugana, adimena ere zeuganantz ari zait, zeuganantz zabaltzen dut ahoa, zeuganantz daukat bihotza. Nire errealitatea nire eza da, nire gabezia. Oinazeak biluztu nau. Orain minbiziak. Zelan eta zenbat mugatzen duten bat osasunik ezak, gaixotasunak, ahuleziak eta txakiltasunak. Apaindura gabeko mintzairan natorkizu, maskaldutako gorputzez, fedea eta esperantzak ozta eusten dioten espiritu indar handi gabekoz. Zer gauza, Jauna! Nire lurraz, buztinaz edo dena delako enbor honekin tupust egitera ekarri nauzu, oraindik zeuk eta biok maite dugun enbor hauskor, ustelkor eta galkor honegaz. Egunoro biltzen gara komunino-

* *Jainkominez (Poema argitaragabeak)*, AEF-Elkar-Labayru, Donostia, 2005.

an, ez nauzu bazterrera uzten gaixo nagoelako, aitzitik emanago zatozkidala esango nuke, karino handiagoz zatozkidala zenbat eta eskasago aurkitzen naizen, zenbat eta heriotzatik hurbilago eta orduan eta maitakorrago zaitut nabari eta, egia esan, neuk ere erruki eta begiramendu handiagoz erreparatzen diot neure buru hain dena beharreko eta zarpail honi.⁵⁷

⁵⁷ *Jainkominez*, 152-153. orr.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzaillea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikulak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizioa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizioa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Bitoriano Gandiaga: *Hitz lauz idazten*
Sarrera eta edizioa: Iñaki Sarriugarte Irigoien

